

**Eremu urriko
hizkuntzen
babesa Europan:
hamarkada berri
baterantz**



EREMU URRIKO HIZKUNTZEN
BABESA EUROPAN:
HAMARKADA BERRI BATERANTZ



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



COUNCIL OF EUROPE
CONSEIL DE L'EUROPE

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia:	1.a, 2011ko martxo
Berrinprimaketa:	1.a, 2011ko apirila
Ale-kopurua:	700 200
© Jatorrizko edizioa:	<i>Minority language protection in Europe: into a new decade (Regional or Minority Languages, No. 8)</i> Council of Europe on publication in English and French
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argitalpenaren prestakuntza eta konposaketa:	Hariadna Editoriala, S.L. Tel. (34) 943 000 333 - hariadna@euskalnet.net
Testuen itzulpena:	Antton Garikano, Olatz Oiertzabal eta Joxe Astorkia
Azalaren diseinua:	Eurosintesis.com
Inprimaketa:	Composiciones RALI, S.A. Costa, 12-14, 7. ^a - 48010 Bilbao
ISBN:	978-84-457-3144-4
L.G.:	BI-478-2011

Itzulpen hau Europako Kontseiluekin batera adostuta argitaratu da, eta itultzailearena da itzulpenaren erantzukizun osoa.

Aurkibidea

Aniztasunean bat eginik LURDES AUZMENDI

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea5

Hitzaurrea TERRY DAVIS Europako Kontseiluko idazkari nagusia, 2004-20097

Eskualdeko edo Ereku Urriko Hizkuntzen

Europako Gutunaren aurretik.....9

1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta eremu urriko hizkuntzak babesteko beharra. *Manuel Lezertúa Rodríguez*.....11

1998-2008 arteko esperientzia: Gutuna ezartzea25

2. Gutunaren segimendua egiteko mekanismoa: ikuspegi praktikoa bat. *Sigve Gramstad*.....27
3. Gutunaren eragina. *Vesna Crni'c-Grotic*.....33

1998-2008 arteko erronkak: Gutuna berrestea39

Gutuna berrestearen problemak eta ikuspuntuak39

4. Belgikaren kasua. *Yves Lejeune*41
5. Baltikoko estatuen kasua. *Snezana Trifunovska*.....63

Aldizkako txostenak egitea eta gomendioak abiaraztea: kasu-azterketak79

6. Suitzaren kasua. *Constantin Pitsch*81
7. Hungariaren kasua. *Judit Solymosi*91
8. Espainiaren kasua. *José María Pérez Medina*97
9. Espainiako ordena konstituzionala eta Eskualdeko edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: aplikazio-arazo batzuk. *Alberto López Basaguren*109

1998-2008 arteko esperientziak:

eremu urriko hizkuntzak sustatzea eta babestea131

10. Euskara biziberritzeko prozesuaren bilakaera. *Patxi Baztarrika*133
11. Hiztun gutxiko hizkuntzen babesa Trentinon. *Marco Viola*145

2008tik aurrera: hamarkada berri baterantz159

12. Gutuna tresna bizi gisa: legearen erronkak eta ikuspuntuak. *Robert Dunbar*...161
13. Gutuna bermatzea eraginkorra da Europako lege-ordenan. *Stefan Oeter*175
14. Lorpenak eta desafiok, hizkuntzaren baitatik. *Anjel Lertxundi*185

Irudiak

Belgikako hizkuntza-eremuak, **42. or.** Belgikako hizkuntza-mugak, **44. or.**

Belgikako hizkuntza ofizialen eta eskualdeko hizkuntzen dialektoak, **51. or.**

Valoniera eta Montzen-Welkenraedt eskualdeko frankonieraren aldaerak, **53. or.**

Frankonieraren aldaerak, **60. or.**

Hizkuntza nagusi bakoitzaren biztanle-kopurua, Suitza, 2000 (nazio-hizkuntzak), **82. or.**

Hizkuntza bakoitzak Suitzan dituen hiztunak, 2000 (ehunekoa eta absolutua), **82. or.**

Suitzako hizkuntza ez-nazionalak, 2000, **83. or.**

Grisonia/Graubünden kantonamenduko hizkuntzak, 2000, **84. or.**

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2006), **135. or.**

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera < 15 urte (1981-2006), **135. or.**

Elebitasunaren bilakaera adin-taldeka. EAE (1981-2006), **136. or.**

Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, eremuka (1991-2006), **137. or.**

Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakera, adin-taldeka (1991-2006), **137. or.**

Hizkuntza-ereduak irakaskuntza ez unibertsitarioan (1983/84-2008/09 ikasturteak), **138. or.**

Aniztasunean bat eginik

Europar Batasunean “eskualdeko edo eremu urrikoak” diren hirurogei bat hizkuntza hitz egiten dira. Guztira, berrogeita sei milioi europarrek erabili ohi dituzte, hots, Europa osoko bizilagunen ehuneko hamarrek, gutxi gorabehera. Hizkuntza horiek oso egoera diferenteetan daude, jakina. Eman ohi den adibidea berriro aipatzeagatik, katalanak hiztun gehiago ditu Europar Batasunean ofizialak diren hogeita hiru hizkuntzetako batzuek baino.

Esandako hirurogei hizkuntza horietatik askok nolabaiteko onarpena jaso dute kasuan kasuko estatuen aldetik. European elebakartasun ofiziala salbuespena da, ez araua. Europar Batasuneko hogeita zazpi estatuetatik zazpik dute mintzaira ofizial bakar bat: Bulgariak, Estoniak, Greziak, Letoniak, Lituaniak, Poloniak eta, euskarari dagokionez eragina duenez, baita Frantziak ere. Gainerako hogeitatu estatuetan, neurri batean edo bestean, eleaniztasuna ofizialki aitortuta dago.

Eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zen 1992an, Europako Kontseiluak sustaturik. Guztira, hogeita hamaika estatuk izenpetu dute orain arte. Horietarik, hogeita hiruk berretsi ere egin dute. Espainiak 1992. urtean bertan izenpetu zuen, eta 2001ean berretsi. Frantziak 1999an izenpetu bazuen ere, ez du inoiz berretsi. Beraz, Gutunak euskara babesturik dauka Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitateko eremu euskaldunean nahiz mistoan, hor neurri desberdinean bada ere, baina ez Ipar Euskal Herrian.

Euskadin oreka bat lortu zen estatu osoko hizkuntzaren eta berezko hizkuntzaren artean. Oreka hori 1978ko Konstituzioan, 1979ko Estatutuan eta 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legean gauzatu zen. Kontuan hartu behar da Euskadiko ia bizilagun guztiek gaztelaniaz hitz egiten dutela eta haietako heren batek bakarrik hitz egiten duela euskaraz. Hiru arau haiek bide eman zioten euskaraz hitz egiten zen tokietan normalizatzeari ez ezik jadanik hitz egiten ez zen tokietara zabaltzeari ere. Hori maiz ahazten zaigu. Nolabait esan, Euskadin Gutunetik harantzago joan gara. Hori posible izan da hemengo alderdi politikoen eta gizarteko eragileen adostasunari esker, noski, baina baita estatu osoko legeria ireki eta malguari esker ere. Ez dira ene hitzak bakarrik. Gutuneko Aritu Batzordeak 2005ean adierazi zuenez, Espainia aitzindaria da European eskualdeko hizkuntzen babes eta sustapenean. Gizarte demokratiko batean normala den bezala, tirabirak gertatu dira batzuetan normalizazioari gehiegizko eta gutxiegiako deritzotenen artean, baina, eskuarki, sistemak nahiko ongi funtzionatu du, herritar gehien-gehien borondate sendoan oinarritzen delako.

Eremu urriko hizkuntzen hiztunok europazaleak izan behar dugu ia nahitaez. Gure hizkuntzen geroari Europa deritzo. Geroko Europa horretan eskualdeko hizkuntzek loturarako balioko dute gizabanako eta herrien artean. Hizkuntza horien hiztunak maiz elebidunak edo hirueledunak direlako. Horrez gain, galiziera zubi bat izan daiteke Portugalen eta Espainiaren artean. Euskara, okzitania eta katalana, Espainiaren eta Frantziaren artean. Alsaziera, Frantziaren eta Alemaniaren artean. Eta abar. Herri txikiek zeresan handia dute denon artean eraikitzen ari garen Europa eleaniztunean.

Europar Batasunak *In varietate concordia* esaera hautatu zuen goiburua 2000n. “Aniztasunean bat eginik”, alegia. Ez zait izenburua hoberik bururatzen liburu honen aitzinsolaserako. Liburu honetan “Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: Lorpenak eta Desafioak” izeneko nazioarteko biltzarrean aurkezturiko mintzaldi batzuk biltzen dira. Bilbon izan zen biltzar hori, 2009ko apirilaren 20an eta 21ean, Europako Kontseiluak, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutik. Hasiera batean, frantsesez eta ingelesez bakarrik argitaratu zen. Mintzaldien bikaintasunagatik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari komenigarri iruditu zaio Euskadiko bi hizkuntza ofizialetara itzultzea.

Liburu hau euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeak badu zentzua. Euskal herritarroi batzuetan erreferentziak falta zaizkigu. Noraezean gabiltza. Biktimismo eta ezkorkeriarako joera nabaria dugu. Ez gara konturatzen euskara ez dagoela bakarrik munduan. European bertan hizkuntza asko daudela haren antzeko egoeran. Badaudela erakunde eta itun batzuk haren alde dihardutenak, baita Euskal Herriatik aparte ere. Liburu honek gure beldur eta konplexu batzuk uxatzeko balio badu, argitaratzea mereziko du.

LURDES AUZMENDI

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Hitzaurrea

Espainiak esperientzia zabala du bere eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesten eta sustatzen, batzuek estatus ofiziala baitute. Horretaz gainera, autonomia-erkidegoek –eta zer esanik ez Euskal Autonomia Erkidegoak–, ederki asmatu dute Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna ezartzen.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoa leku ezin hobea zen 2009ko apirilko kongresuarentzat, Europako Kontseiluak antolatua Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Espainiako agintarien babesarekin –bai Administrazio Publikoaren Ministerioaren bai euskal agintarien babesarekin–, Gutunaren inguruko jardunbide egokiei buruzko informazioa trukatzeko eta Gutunaren etorkizuna aztertzeko, bere lehen hamaika urteko esperientziaren argitan.

Europar aspalditik daude hizkuntza-talde ugari elkarrekiko harremanean. Etengabe aberasten dute elkar. Dena dela, ezin dugu ahaztu hizkuntzen arteko harreman guztiak erronka bat direla. Hizkuntza-taldeak elkarren ondoan bizi diren bakoitzean, harreman asimetrikoa egoten da beren artean. Europar inon ez da gertatzen bi hizkuntza-taldek –edo gehiagok– hiztun-kopuru berdina izatea, hizkuntzak maila berean erabiltzea, ez eta baldintza legal, kultural edo ekonomiko beretan ere. Herrialde batzuetan sortzen diren tentsioak hutsalak izan daitezke, baina beste batzuetan nabarmenak eta larriak dira, eta gatazka-iturri ere izan daitezke.

Europako Kontseiluaren erantzuna izan da berariazko ekimenak eta konbentzioak garatzea, egonkortasunari eta hizkuntza-aniztasunari eusteko. Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna diseinatu da Europar dauden hizkuntza-egoera asimetriko ugariak kudeatzeko. Mundu osoan dagoen tresna legal lotesle bakarra da, helburutzat eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesa eta sustapena dituena.

Gutuna indarrean jarri eta hurrengo hamaika urteetan, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen erabilera bultzatu du bizitza publikoan, estatuko hizkuntza ofizialari kalterik egin gabe. Ez du oztopatu talde etnikoak gizartean integratzea ere: Gutunak ez ditu eskualdeko edo eremu urriko hiztunak hozten estatuko hizkuntza ikastetik.

Gutunaren filosofia aniztasunean eta egonkortasunean oinarritzen da. Bere sarreran azpimarratzen du “kulturartekotasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren balioa”, eta, bere iritziz, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteak eta sustatzeak ez lieke kalterik egin behar hizkuntza ofizialei eta haiek ikasteko

beharrari”. Areago, sarrerak argi adierazten du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatu beharko liratekeela “nazio-subiranotasunaren eta lurralde-integritatearen baitan”.

Nik uste dut mezu hori garrantzitsua dela. Gutunak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak indartu nahi dituen arren, eremu nagusiko hiztunak eta eremu urriko hiztunak ez ditu tratatzen elkarrekin gatazkan edo lehian baleude bezala. Aitzitik, Gutunak eremu urriko hizkuntzak tratatzen ditu biztanleria osoaren eta estatu osoaren kultura-ondarearen zati gisa. Gizarteko erakundeek tokiko edo eskualdeko elebitasuna bultzatzea nahi da, eta ez eremu urriko hizkuntzak esfera publikotik ezabatzea.

Beste modu batean esanda, Gutunak eskualdeko edo eremu urriko hiztunei ziurtatzen die estatuak beren hizkuntzak eta kulturak aitortuko dizkietela, asimilatzen ahalegindu gabe. Era berean, Gutunak espero du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen hiztunek hizkuntza ofiziala ikastea eta, hortaz, estatuaren bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoan integratzea eta parte aktiboa hartzea. Horrek eskatzen du gehiengoa bere nortasunaz ziur egotea, eta jarrera positiboa izatea eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen kultura-nortasunen aurrean.

Nazioarte osoan onartzen da Gutunaren oinarrian dagoen ideia hau: hizkuntza-aniztasuna aitortzeak azkenean murriztu egiten duela gehiengoen eta gutxiengoen arteko tentsioa. Europako Kontseiluak eta Europar Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundeak Gutuna bultzatzen dute, Europako leku guztietan bakea eta egonkortasuna egon daitezen, nazioetako gutxiengoekin gero eta lankidetzatza estuagoa edukiz.

Aldi berean, konturatu behar dugu Europako hizkuntza asko ari direla hiztunak galtzen. Joera hori aldatu ezean, desagertuko dira mendeetan zehar erabili diren eskualdeetan, nahiz eta eskualdeko eta nazioetako nortasunaren osagai garrantzitsu bat diren.

Izan ere, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak gure kultura-aberastasunaren eta aniztasunaren isla dira. Kultura-aberastasunaren iturri dira, eta ez mehatxua. Hori horrela, Gutuna Europa osoan aplikatzea estatu kideen interesekoa da, eta beharrezkoa da Europa osoarenak diren balioak sustatzeko: kulturen arteko elkarrizketa, tolerantzia eta ulermena, alegia.

Horregatik, berriro egin nahi diet dei Gutuna berresteari oraindik lehentasuna eman ez dioten estatu kideei.

TERRY DAVIS

Europako Kontseiluko idazkari nagusia, 2004-2009

**ESKUALDEKO EDO EREMU
URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO
GUTUNAREN AURRETIK**

1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta eremu urriko hizkuntzak babesteko beharra

MANUEL LEZERTÚA RODRÍGUEZ

Europako Kontseiluko Gai Juridikoen eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren zuzendaria

1.1. Sarrera

“Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: Lorpenak eta Desafioak” biltzarraren esparruko esku-hartze honen helburua da azaltzea zer jurisprudentzia sortu duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) eremu urriko hizkuntzei buruz eta “hizkuntza-eskubideak” direlakoak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak (GEEH) babestutako giza eskubidetzat hartzeari buruz.

Horretarako, beharrezkoa da oinarrizko hiru gai labur-labur aztertzea aurrez: aipatutako eskubideen jatorri historikoa eta pixkanaka izan duten positibazioa (I); eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen errealitate soziologikoa (II); eta nola kudeatzen duen estatu modernoak eleaniztasuna (III). Lagundu egingo digu horrek aurkeztutako kasuen aurrean GEEAk hartu dituen jarrerak ulertzen (IV), eta, azkenik, hartu dituen erabakiek sortzen duten jurisprudentzia ulertzen (V), bai eta amaieran zenbait ondoriotara iristen ere (VI).

1.2. Hizkuntza-eskubideen jatorri historikoa eta pixkanaka izan duten positibazioa

Gutxiengoaren babesaren jatorrira joaten bagara, eta, beraz, baita eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesera ere, lehenengo baieztapena egin dezakegu: gutxiengoak eta haien eskubideak babesteko sistemak, Nazioen Elkartearen babesean sortuak, nazioartearen egonkortasuna zuela helburu bakarra, edota, beste era batera esanda, ziurtatu nahi zuela gutxiengoak gaizki tratatzea ez zela justifikazio edo aitzakia gisa erabiliko ondoko estatuetan esku hartzeko. Sistema hasiberri horrek bazituen jada zenbait xedapen hizkuntzen edo “hizkuntza-eskubideak” direlakoaren babesaren alorrean (adibidez, bere ikastetxe pribatuak jartzeko eskubidea, gutxiengo horietan jaiotako seme-alabek ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntza beren ama-hizkuntzan jasotzeko eskubidea).

Bigarrenik, sistemak oso eremu txikiari eragiten zion. Izan ere, Lehen Mundu Gerraren ondoren “garaituak” izan ziren estatuetako gutxiengoei bakarrik aplikatu zekiekeen, baina ez garaileen gutxiengoei, hau da, sistema sortu zutenen

gutxiengoei. Edota, bestela esanda, bi estandar ezartzen zituen gutxiengo nazionalak tratatzeko.

Dena den, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, zenbait lorpen garrantzitsu lortu ziren nazioartean. Izan ere, oinarritzko eskubideen babesaren alorreko zenbait testu juridikotan erreferentzia egin zitzairen hizkuntza-eskubideei, modu orokorrean eta zeharka hasieran, eta zehatzago gero.

Hala, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak 1948an hauxe zioen hitzaurrean eta 2. atalean:

(...) gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dute (...) eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia (...) edo beste inolako gorabeheragatik (...).

Eta 26. atalean adierazi zuen pertsona orok duela hezkuntza-eskubidea:

Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-uletzte, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan. 3. Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko (...).¹

Bestalde, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak hauxe ezarri zuen 27. artikuluan:

(...) Gutxiengo etnikoak, erlijiosoak edo linguistikoak dauden estatuetan, gutxiengo horietara bildutako pertsoneri ez zaie ukatuko dagokien eskubidea, euren taldeko gainerako kideekin batera, euren kultura-bizitza propioa izateko, euren erlijioa izan eta praktikatzeko eta euren hizkuntza erabiltzeko (...).²

Eta Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunak hauxe zioen atarikoan:

(...) Aitortuz (...) ezin dela gauzatu gizaki askearen ideala, beldurretik eta miseriatik aske den gizakiarena alegia, horretarako baldintzak sortzen ez badira, pertsona bakoitzari ahalbidetzen dizkietenak baliatzea ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak, bai eta eskubide zibil eta politikoak ere (...).

Eta, horren ondoren, eskubide bihurtu zuen 13. artikuluan, hau adieraziz:

(...) pertsona orok hezkuntzarako duen eskubidea. [Alderdiek] Adostu dute hezkuntza bideratu behar dela gizakien nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat

¹ Ikusi testua web-orri honetan: <http://www.un.org/es/documents/udhr/>.

² Ikusi testua web-orri honetan: http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/a_ccpr_sp.htm.

garatzera, eta hezkuntzak indartu behar duela giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua. Orobat, adostu dute hezkuntzak pertsona guztiak gaitu behar dituela, eragingarritasunez parte hartzeko gizarte aske batean, ulermena, tolerantzia eta adiskidetzeari ahalbidetzeko nazio guztien artean eta arraza-, etnia- edo erlijio-talde guztien artean, eta Nazio Batuen jarduerak sustatzeko, bakea izatearen alde (...) Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute gurasoen eta, hala denean, legearen arabera tutoreen askatasuna errespetatzeko, dela euren seme-alaba edo tutoretzapekoen begira eskolak aukeratzeko, agintari publikoek sortutakoek landa, betiere, eskola horiek betetzen badituzte estatuak irakaskuntza-arloan ezarri edo onetsitako gutxieneko arauak, dela euren seme-alabek edo tutoretzapekoek euren pentsaerarekin bat datorren erlijio- edo moral-heziketa izateko.³

Bestalde, hezkuntzako bereizkeriari buruzko UNESCOren Konbentzioak hauxe zioen lehenago era zorrotzagoan, 5. artikuluan:

1. Konbentzio honetako estatu alderdiek hauxe hitzartu dute:

a) Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango dela eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea, eta herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, tolerantzia eta adiskidetasunaren alde egingo duela, bai eta Nazio Batuen jarduerak garatzearen alde ere, bakeak iraun dezan.

b) Errespetatu egin behar dela gurasoen askatasuna edo, hala badagokio, tutore legalena, 1) botere publikoek mantentzen dituztenez bestelako ikastetxeak aukeratzeko beren seme-alabentzat, eskudun agintariak ezartzen edo onartzen dituzten gutxieneko arauak betetzen badituzte, betiere, eta 2) estatu bakoitzeko legediak ezartzen dituen aplikazio-modalitateak kontuan hartuz, beren pentsaeren arabera hezkuntza erlijio-soa eta morala emateko; horrez gain, hitzartu dute ezin dela pertsonarik edo talderik behartu bere pentsaerarekin bat ez datorren heziketa erlijio-soa jasotzera.

c) Gutxiengo nazionalak kideei beraiei dagozkien irakaskuntza-jarduerak gauzatzeko eskubidea aitortu behar zaiela, besteak beste, ikastetxeak jartzekoa eta mantentzekoa, eta, estatu bakoitzak hezkuntzaren alorrean duen politikaren arabera, beren hizkuntza erabili eta irakastekoa, baldin eta: i) eskubide hori gauzatzerakoan ez bazaie eragozten gutxiengoetako kideei kolektibitatearen osotasunaren kultura eta hizkuntza ulertzea, eta haien jardueretan parte hartzea, eta ez bada arriskuan jartzen burujabetza nazionala; ii) ikastetxe horietako hezkuntza-maila ez bada eskudun agintariak agindutako edo onartutako maila orokorra baino baxuagoa; iii) ikastetxe horietara joatea aukerakoa bada.

2. Konbentzio honetako estatu alderdiek agintzen dute beharrezko erabaki guztiak hartuko dituztela artikuluan honetako 1. paragrafoan adierazitako printzipioak aplikatzen direla bermatzeko.⁴

³ Ikusi testua web-orri honetan: http://www.unhcr.ch/spanish/html/menu3/b/a_cescr_sp.htm.

⁴ Hezkuntzan bereizkerien aurka borrokatzeari buruzko 1960ko abenduaren 14ko UNESCOren Konbentzioaren testua ikusteko, joan web-orri honetara: <http://www2.ohchr.org/spanish/law/ensenanza.htm>.

Horrez gain, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 47/135 Ebazpenak, 1992ko abenduaren 18koak, gutxiengo nazionalak edo etnia-, erlijio- eta hizkuntza-gutxiengoetako kide diren pertsonen eskubideei buruzko aldarrikapena egiten duenak, hauxe ezartzen du 4. artikuluan:

1. Estatuak beharrezko neurriak hartuko dituzte, gutxiengoetako kide diren pertsonen gutziz eta era eraginkorrean erabili ahal izateko giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak, inolako bereizkeriarik gabe eta berdintasun osoz legearen aurrean.
2. Estatuak neurriak hartuko dituzte, beharrezko baldintzak sortzeko gutxiengoetako kide diren pertsonen beren ezaugarriak adierazi ahal izan ditzaten, eta beren kultura, hizkuntza, erlijioa, tradizioak eta ohiturak garatu ahal izan ditzaten, baldin eta jarduerak legedi nazionala urratzen ez badute, eta nazioarteko arauen aurkakoak ez badira.
3. Estatuak neurri egokiak hartu beharko dituzte, gutxiengoetako kide diren pertsonen beti aukera egokiak izan ditzaten beren ama-hizkuntza ikasteko edo heziketa beren ama-hizkuntzan jasotzeko.
4. Estatuak, hala dagokionean, neurriak hartu beharko dituzte hezikuntzan, beren lurraldean dauden gutxiengoen historia, ohiturak, hizkuntza eta kultura ezagut daitezzen sustatzeko. Gutxiengoetako kide diren pertsonen aukera egokiak eduki beharko dituzte gizarte osoari buruzko ezagutzak bereganatzeko.
5. Estatuak gutxiengoetako kide diren pertsonen beren herrialdeko aurrerapen eta garapen ekonomikoan gutziz parte hartu ahal izateko neurri egokiak aztertu beharko dituzte.⁵

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak 30. artikuluan hauxe ezartzen du:

(...) Gutxiengo etnikoak, erlijiosoak edo linguistikoak edo indigena-jatorriko pertsonak dauden estatuetan, gutxiengo horietako haurrei edo haur indigenei ez zaie ukatuko dagokien eskubidea, euren taldeko gainerako kideekin batera, euren kultura-bizitza izateko, euren erlijioa izan eta praktikatzeko, edo euren hizkuntza erabiltzeko.⁶

Antzeko beste lorpen batzuk aipatu nahi ditugu, Bigarren Mundu Gerraren ondorengoak hauek ere, Europako eskualdeen eremuan. Aipagarriena Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena da, 1950eko azaroaren 4koa (GEEH), nahiz eta hura aipatzeak zenbait arazo sortzen dituen, 14. artikuluan bereizkeria debekatzeko klausula orokor bat baino ez baitu:

Hitzarmen honetan aitortutako eskubide eta askatasunen gozamena ziurtatu behar da, inolako bereizketarik egin gabe, eta, batik bat, sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko edo bestelakoak, nazio-jatorria edo jatorri soziala, gutxiengo na-

⁵ Ikusi testua web-orri honetan: http://www.unesco.org/culture/files-langues/resolucionNU_plurilinguismo.pdf.

⁶ Ikusi Konbentzioaren testua web-orri honetan: http://www.unhcr.ch/spanish/html/menu3/b/k2crc_sp.htm.

zional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste edozein egoeraren ondoriozko bereizketarik egin gabe.⁷

Gero era espezifikagoan jasoko du GEEHren 12. Protokolo Gehigarriko 1. artikulua, nahiz eta ez duen gehiago zehaztuko lantzen ari garen gaia. Hau da, hain zuzen, ezartzen duena:

1. Legedian ezarritako edozein eskubidez gozatzea ziurtatu behar da, inolako bereizketarik egin gabe, eta, batik bat, sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko edo bestelakoak, nazio-jatorria edo jatorri soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste edozein egoeraren ondoriozko bereizketarik egin gabe.
2. Agintari publikoek ezin dute inorekin bereizkeria erabili, bereziki 1. paragrafoan adierazitako arrazoren batengatik.⁸

Baina GEEAri aurkeztutako demandetan behin eta berriz aipatzen den oinarria, aurrerago ikusiko dugunez, GEEHren Protokolo Gehigarriko 2. artikuluan jasotako hezkuntza- edo heziketa-eskubidea da. Bereizketaren debeku orokorrarekin batera aipatzen da kasu guztietan eskubide hori.⁹ Aipatu dugun 2. artikulua araberara:

Ezin zaio inori ukatu heziketa-eskubidea. Estatuak, hezkuntzaren eta irakaskuntzaren alorrean onartzen dituen funtzioak gauzatzean, errespetatu egingo du gurasoek heziketa eta hezkuntza hori beren pentsaera erlijioso eta filosofikoen arabera bermatzeko duten eskubidea.¹⁰

Baina aurrerapen handiagoak egin ziren 1992an, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna delakoa onartu zenean. Hauxe zioen hitzaurrean:

(...) Kontuan harturik eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza bat bizitza pribatuan edo publikoan erabiltzea preskribaezinezko eskubidea dela (...) Kulturartekotasunak eta eleaniztasunak duten balioa azpimarratuz, eta kontuan harturik eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzea ez litzatekeela hizkuntza ofizialen eta horiek ikasteko beharizanaren kalterako egin beharko (...).¹¹

Eta ez ditugu orain landuko haren edukia eta aurrerapen konparatiboak. Ildo beretik, 1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoak hauxe dio 14. artikuluan:

⁷ Konbentzioaren testua web-orri honetan ikus daiteke:

<http://www.echr.coe.int/NR/rdonlyres/1101E77A-C8E1-493F-809D-800CBD20E595/0/SpanishEspagnol.pdf>.

⁸ Ikusi gaztelaniaz baimendutako bertsioaren testua web-orri honetan:

<http://www.echr.coe.int/NR/rdonlyres/1101E77A-C8E1-493F-809D-800CBD20E595/0/SpanishEspagnol.pdf>.

⁹ Horrela izan behar du, gainera. Izan ere, bereizkeriaren debeku hori ez zen hasieran norbanakoaren eskubide subjektibo bat berez Hitzarmenean, eta, beraz, hura aipatzeko beharrezkoa zen Hitzarmenean babestutako eskubideren baten urraketarekin lotzea.

¹⁰ Ikusi Protokolo Gehigarriaren testua web-orri honetan: <http://www.echr.coe.int/NR/rdonlyres/1101E77A-C8E1-493F-809D-800CBD20E595/0/SpanishEspagnol.pdf>, aurrez aipatua.

¹¹ Ikusi testua BOEn, 222. zenbakian, 2001eko irailaren 15ekoan.

1. Alderdiek agintzen dute gutxiengo nazional bateko kide den pertsona orok eremu urriko bere hizkuntza ikasteko duen eskubidea onartuko dutela.
2. Tradizionalki gutxiengo nazionaletako pertsonak bizi izan diren eremu geografikoetan edota gutxiengo nazionaletako pertsonen kopuru handi samarra duten eremu geografikoetan, behar adinako eskaera baldin badago, alderdiek ahaleginak egingo dituzte ziurtatzeko, ahal den neurrian eta haien hezkuntza-sistemaren esparruaren barruan, gutxiengo horietako pertsonen eremu urriko hizkuntza ikasteko edo hezkuntza hizkuntza horretan jasotzeko aukera izatea.
3. Artikulu honetako 3. atala aplikatzerakoan, ez da kaltetuko hizkuntza ofizialaren ikaskuntza, ez eta hizkuntza horretan hezkuntza jasotzea ere.¹²

Alde horretatik, Europako eskualdeen alorrean beste hauek ere aipa genitzake: 1996ko Hagako Gomendioak, gutxiengo nazionalen hezkuntza-eskubideei buruzkoak,¹³ gutxiengoaren hezkuntza-eskubideak zer diren azaltzea helburu dutenak, edota 1998ko Osloko Gomendioak,¹⁴ gutxiengo nazionalen hezkuntza-eskubideei buruzkoak.

Badira gobernu-erakundeen barruan sortutako ekimenekin loturarik ez duten gobernuz kanpoko beste ekimen batzuk ere. Era askotakoak dira, baina nagusia eta azpimarratu nahi duguna 1996ko ekaineko Herrien Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala da.¹⁵

1.3. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen errealitate soziologikoa

Gaur egungo estatuaren osaera eta egoera kontuan hartuta, eremu urriko hizkuntzen tipologia bereziki konplexua da. Hasierako sailkapen bat egingo dugu: lehenik eta behin, estatu batean gutxiengoa osatu arren beste estatu batean hizkuntza nazionalak diren hizkuntzak ditugu. Normalean ondoan egoten dira estatu horiek. Esan beharra dago hizkuntza horiek ez daudela arriskuan etorkizun hurbilean, ez baitaude ahozko hizkuntza gisa desagertzeko arriskuan, baina ez daude ofizialki aitortuta gutxiengoa osatzen duten estatuan, eta horrek gutxitu egiten du haien erabilera, garrantzia eta ospea estatu horretan. Kasu askotan, hizkuntza horien erabilera murrizteak nazioarteko tentsioak sor ditzake kasu bakoitzeko estatuen arabera. Halaxe gertatzen da, esaterako, alemanarekin Italian, hasiera batean tentsio gutxiago sortzen baditu ere, edota errusierarekin garai bateko sobietar errepubliketan; tentsioak sortzeko aukera gehiago ditu azken horrek, ikusiko dugun moduan.

¹² Ikusi Konbentzioaren testua web-orri honetan:

http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/ircpmn.t2.html.

¹³ Ikusi testua web-orri honetan: http://www.osce.org/documents/hcnm/1996/10/2700_es.pdf.

¹⁴ Ikusi testua web-orri honetan: http://www.osce.org/documents/hcnm/1998/02/2699_es.pdf.

¹⁵ Ikusi Deklarazioaren testua web-orri honetan: <http://www.egt.ie/udhr/udlr-es.html>.

Bigarrenik, bi estatutan edo gehiagotan hitz egiten diren arren, haietako batean ere hizkuntza nazional ez diren eremu urriko hizkuntza autoktonoak ditugu. Horixe gertatzen da, besteak beste, euskararekin Espainian eta Frantzian, edota samierarekin Eskandinaviako herrialdeetan.

Eta, hirugarrenik, estatu bakar batean hitz egiten diren eremu urriko hizkuntzak ditugu, adibidez eskoziera edo galesa Erresuma Batuan. Oso zaila da, azken bi kasu horietan, eragindako estatuetan bakea edo egonkortasuna arriskuan jar dezakeen tentsiorik sortzea, baina ohikoa izaten da eremu urriko hizkuntza horiek beherakada handiak eduki izana hitzun-kopuruari dagokionez, eta horrek arriskuan jartzen du Europaren hizkuntza-aberastasuna.

1.4. Nola kudeatzen duen estatu modernoak eleaniztasuna

Europar hizkuntza-aniztasun handia eta nabarmena dago, bai eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen aniztasun soziolinguistiko eta demografiko handia ere. Baina hizkuntza-aniztasuna tratatzeko modua estatu-nazio modernoaren interes nagusien arabera izan da Europar, eta interes horien artean dago, badakigunez, elebakartasunaren defentsa. Izan ere, elebakartasunaren defentsa entitate nazional anitzak bateratzeko bide gisa erabili da zenbait kasutan, baina baita nortasun nazional bakarra indartzeko modu gisa ere, elebakartasuna ezartzeak indartu egingo bailuke nortasun nazionala.

Ikuspegi hori hartzearen ondorioz, hizkuntza-aniztasuna arazo edo mehatxu gisa ikusia izan da estatu nazionalak finkatzerakoan. Ikuspegi negatibo horren arrazoia da hizkuntza garrantzitsua dela nortasun nazionalak zehazteko eta finkatzeko: eremu urriko hizkuntzak komunikaziorako oztupo gisa ikusten dituzte, eta nortasun nazional bakarra finkatzeko kaltegarritzat jotzen. Alde horretatik, uste dute estatu nazional modernoaren barruko hizkuntza-aniztasuna komunitate politiko bakar eta integratuaren sorrera eta egonkortasuna kaltetzen duen elementua dela, zatiketaren eta ezegonkortasunaren hazia ereiten duela, eta, azken finean, estatuaren batasun politikorako mehatxu bat dela.¹⁶

Abiapuntu horrek zenbaitetan hizkuntza-politika baztertzailak eta hizkuntza nazional bakarraren aldeko politikak ekarri ditu, eta horrek kalte nabarmena egin die eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei. Beraz, estatu nazionalaren esku-hartzearen atzean dagoen helburu estrategikoa biztanle guztiek hizkun-

¹⁶ Ikusi gai horri buruz M. Koning, "La diversidad cultural y las políticas lingüísticas", web-orri honetan: <http://www.unesco.org/issj/rics/rics161/koenigspa.html>; E. Ruíz Vieytez, "Lenguas oficiales y lenguas minoritarias: cuestiones sobre su estatuto jurídico a través del derecho comparado", II Simposi Internacional Mercator: Europa 2004: Un nou marc per a totes les llengües?, 2004/02/27-28; G. Calaforra, "Lengua y poder en las situaciones de minorización lingüística", web-orri honetan: <http://www.uv.es/~calaforr/CursColonia.pdf>.

tza nazional bera hartzea da, eta, ahal den neurrian, eremu urriko hizkuntzak desagerraraztea. Esan dezakegu, Europan, estatu modernoa finkatu ondoren eta nahiko modu orokorrean, gobernu nazionalek beren lurraldeetako hizkuntza-gutxiengoan errealitateari erantzuteko, haien aurkako hizkuntza-politikak sortu dituztela hizkuntza horiek desagerrarazteko edo ahultzeko.

Egoera aurka dutenez, eta bereziki fenomeno globalizatzaileak eta pertsonen lekualdaketa handiak martxan jarri ondoren, edota Europan azken hamarkadetan izandako estatuetakoa ondorengotza-fenomenoen ondorioz, eragindako komunitateek gero eta gehiago jo dute giza eskubideak babesteaz arduratzen diren nazioarteko auzitegiara “hizkuntza-eskubideak” direlakoak babes daitezen eskatzeko. Azterketa honetan GEEAri egindako erreklamazioak aztertu ditugu.

1.5. GEEAra eramandako kasuak

Dakizuenek, GEEHn jasotako eskubideak eta askatasunak urratzeagatik egiten diren demadak aztertzea soilik sartzen da GEEAren eskumenetan, GEEHko 32. artikulua araberara. Baina nazioarteko hitzarmen horrek ez ditu aitortzen hizkuntza-eskubideak, eta ez ditu oinarrizko eskubide gisa babesten espresuki. Dena den, GEEHko 14. artikulua bereizkeria debekatu duenez, besteak beste hizkuntzagatik bereiztea, eta GEEHren Protokolo Gehigarriko 2. artikulua ezartzen duenez gurasoek eskubidea dutela seme-alaben hezkuntza pentsaera erlijioso eta filosofikoen arabera izateko, GEEAk hizkuntzaren alorreko eskubideak ere babestea nahi izan dute Europan epaitu beharrekoak. Horrek zenbait demanda goiztiar aurkeztea eragin du, hau da, bereizkeriaren debekuak GEEHren 12. Protokolo Gehigarrian osotasuna lortu baino lehenago aurkeztea.¹⁷

Bestalde, ezin ditugu ahaztu GEEHko 6.3.a) eta e) artikuluetan prozesu penalarri buruz jasotako xedapenak. Izan ere, xedapen horiek ezartzen dute, hurrenez hurren, akusatua eskubidea duela ulertzen duen hizkuntzan izateko bere aurkako karguen berri, bai eta interpreteak edukitzeko ere, ez badu prozedurako hizkuntza ulertzen.

Beraz, xedapen horien arabera, Auzitegiak har ditzakeen erabakiak bi bloketan bana daitezke: a) epaiketa justua izateko eskubidearekin lotutako hizkuntza-eskubidetza har genitzakeenak, eta b) hezkuntza-eskubidearekin lotutako hizkuntza-eskubidetza har genitzakeenak.

¹⁷ Ikusi gai horri buruz R. Dunbar hemen: E. Vieyetz eta R. Dunbar (eds.), *Human Rights and Diversity: New Challenges for Plural Societies*, Bilbao, 2007. Espezifikoki GEEAk sortutako jurisprudentziari buruz ikusi G. Gilbert, “The Burgeoning Minority Rights Jurisprudence of the European Court of Human Rights”, *24 Human Rights Quarterly* (2002), 736. or. eta hurrengoak.

1.5.1. Epaiketa justua izateko eskubidearekin lotutako hizkuntza-eskubideak

Denborarekin bizitza publikoarekin lotutako hizkuntza-eskubide ere bilakatu diren eskubideak dira, justizia-auzitegiak botere publikoaren zati baitira.

Horrekin lotutako lehenengo kasua *Isop v. Austria*¹⁸ da. Nazionalitate esloveniarrereko pertsona batek prozedura penal batean esloveniera erabiltzeko eskubidea eskatzen zuen, nahiz eta auzi-jartzaileak alemana ere hitz egiten zuen. Europako Batzordeak erabaki zuen GEEHko 6. artikuluan ez zela sartzen epaiketa batean norberaren hizkuntzan edo ama-hizkuntzan entzuna izateko eskubidea.

Aurrerago, *Bidault v. Frantzia*¹⁹ kasuan, ama-hizkuntzatzat bretoiera zuten lekuko frantses batzuek bretoiera erabili nahi izan zuten deklaratzeko, nahiz eta frantsesez ere hitz egiten zuten. Europako Batzordeak eman zuen irizpena izan zen aipatutako 6.3. artikulua ez zuela barne hartzen lekukoek epaiketa batean beraiek hautatutako hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

Eta joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan, *Lagerblom v. Suedia*²⁰ kasuan, Auzitegiak honako kontu honi buruzko erabaki bat hartu behar izan zuen: Suedian bizi zen eta suedieraz hitz egiten zuen pertsona batek, ama-hizkuntzatzat finlandiera zuenak, adierazi nahi izan zuen ezin zuela berak aukeratu finlandieraz hitz egiten zuen abokatu defentsari bat, bere ama-hizkuntzan komunikatu ahal izateko, Suedian bizi zen gutxiengo finlandiarraren zati izan arren. Aitzitik, interprete bidez bakarrik komunika zitekeen abokatu bat esleitu zioten. GEEHko 6. artikuluari jarraiki, finlandieraz hitz egiten zuen abokatu bat edukitzeko eskubidea eskatzen zuen auzi-jartzaileak. GEEAk erabaki zuen GEEHko 6. artikuluan babestutako eskubidea ez zela absolutua, eta, beraz, ez zuela barne hartzen akusatuaen gustuko abokatua aukeratzeko eskubidea, eta hori abokatuaren eta bezeroaren arteko konfidentzialtasunezko harreman berezia kaltetu gabe. Horregatik, GEEAren ustez, GEEHko 6. artikulua ez zuen bermatzen, berez, nahitaez akusatuaen eremu urriko hizkuntza hitz egiten zuen abokatu bat hautatzeko eskubidea, baldin eta interpretazioak epaiketan eraginkortasunez parte hartzeko aukera ematen bazion akusatuari.

1.5.2. Hezkuntza-eskubidearekin lotutako hizkuntza-eskubideak

Multzo honetako demandek eskatzen dutena da hezkuntza eremu urriko norberaren hizkuntzan jasotzeko ustezko eskubidea GEEHk babestutako giza eskubide gisa babestea. Horrek, GEEHn eta haren protokolo gehigarri batzuetan eskubide horien positibazioari buruz ikusitakoa kontuan hartuta, arazoak sortzen ditu.

¹⁸ Ikusi 808/60 kasua, 1962koa.

¹⁹ Ikusi 11261/84 kasua, 1986koa.

²⁰ Ikusi 26891/95 kasua, 2003ko urtarrilaren 14koa.

Lehenengo kasua honako hau da: Belgikako hezkuntza-sistemako hizkuntza-erabilerari buruzko legeen zenbait alderdiri buruzko kasua.²¹ Belgikako hainbat guraso frantses-hiztunen demandak biltzen dituen kasua da. Guraso horiek beren seme-alabek Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza eskola publikoan frantsesez jasotzea nahi zuten, nahiz eta nederlanderaz hitz egiten zen eremuan bizi. Izan ere, hezkuntza publikoari buruzko Belgikako legediaren aplikazioak hezkuntza nederlanderaz jasotzera behartzen zituen, Belgikako legedian hizkuntzen lurraldetasunaren printzipioa ezarri ondoren. Hezkuntza-eskubidearen ikuspegitik planteatu zen demanda.

GEEAren ustez, ordea, GEEHren Protokolo Gehigarriko 2. artikulua formulazio negatiboak ez zituen behartzen alderdi kontratugileak gurasoek aukeratutako edozein hezkuntza-mota ezartzera edo diruz laguntzera, eta estatuak hezkuntza-sistemari esleitu beharreko baliabideak eta haien antolaketa erabakitzeko tarte zabala zuen. Horrez gain, adierazi zuen “erlijioso” eta “filosofiko” terminoetan gurasoen hizkuntza-lehentasunak sartzen zirela interpretatzeak termino horien esanahi arrunta desitxuratuko zuela, eta GEEHn han jartzen ez zuen zerbait irakurtzea litzatekeela.

GEEHko 14. artikulua urratzeari buruz egindako alegazioari dagokionez, GEEAk adierazi zuen ezinezkoa zela ikasle horiek bizitako bereizkerian bakarrik oinarritzea demanda, ez zelako eskubide autonomo bat. Gainera, hezkuntza nederlanderaz bakarrik izan zedin ezartzea biztanleriaren gehiengoa flandestarra zen eremuetan eta frantsesez bakarrik ezartzea eremu valoniarretan ez zihoan GEEHko 14. artikulua aurka; izan ere, artikulua horrek ez du debekatzeko tratu desberdinak ematea berez desberdinak diren egoerei.

Arrazoiketa bera errepikatu du duela gutxi GEEAk *Skender v. Jugoslavia* ohiko antzinako Mazedoniako errepublika²² kasuan. Lurraldetasun irizpidetako zirela-eta, turkierazko hezkuntza kendu eta beste eremu batera joateko beharra zegoen aztergai. Auzitegiak adierazi zuen, aurreko kasuan bezala, GEEHren Protokolo Gehigarriko 2. artikulua eta Hitzarmeneko 14. artikulua ez ziela ematen gurasoei hezkuntza eremu urriko edozein hizkuntzatan aukeratzeko eskubidea.

Nahiz eta Belgikako hizkuntza-kasuaren epaiak ez zuen aitortu hezkuntza eremu urriko hizkuntzan jasotzeko eskubidea, GEEAk, epai horretan, hezkuntza eremu urriko hizkuntzan jasotzea Protokolo Gehigarriko 2. artikuluan sartzean, etorkizunean eskubide hori zeharka babesteko hazia jarri zuen, nahiz eta hori ez den gertatu *Skender* kasuan.

²¹ “Belgian Linguistic case” izenez ezaguna, 1968ko uztailaren 23koa.

²² Ikusi 62059/00 kasua.

Eremu turkiarrean Bigarren Hezkuntza grezieraz jasotzeko aukera ematen zuen institutu bakarra ixtea izan zen Zipre v. Turkia²³ kasuaren jatorria. Hezkuntzan jarraitutasunik ez egotea sortzen zuen horrek, eta, azken finean, eragotzi ere egiten zuen; izan ere, Lehen Hezkuntza egin zitekeen grezieraz, baina Bigarren Hezkuntza turkieraz baino ez.

GEEAren iritziz, hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen funtsa ukatzea zen hori; nahiz eta hezkuntzaren hurrengo mailarekin jarraitzeko aukera formalki egon bazegoen, errealitatean ezinezkoa zen, turkiera ez jakiteagatik. Turkiak kontrolatutako Zipreko eremuaren eta uhartearen gainerako eremuaren arteko mugan zegoen tentsio izugarriak eragina izan zuen GEEAren erabakian, arrisurtsua izan baitzitekeen ikasleek egunero zeharkatu behar izatea muga.

Beraz, GEEAren jurisprudentziak askatasun handia aitortzen dio estatuari bere hizkuntza-politika ezartzeko, Podkolzina v. Letonia²⁴ kasuan ikus daitekeen moduan. Kasu horretan, auzi-jartzaileak errusieraz hitz egiten zuen, eta Letoniako Parlamentuko hauteskunderako hautagaia zen. Hori dela eta, Letoniako legediak letonieraz nahikoa zekiela frogatzeko hizkuntza-azterketa bat egitera behartzen zuen, eta auzi-jartzaileak gainditu zuen azterketa. Baina beste *ad hoc* azterketa bat egitea eskatu zioten egoera bereziki tirabiratsu eta zailetan, eta, azterketa haren ondorioz, hautagaien zerrendatik kanporatu zuten. GEEAk ez zuen zalantzan jarri estatuak hizkuntza jakin bateko gaitasun pertsonala frogatzeko eskubidea zuenik, eta bidezkotzat eta egokitzat jo zuen hizkuntza ofiziala nahikoa bazekiela froga zezan eskatzea, Parlamentu Nazional bateko lanerako hizkuntzaren hautaketa herrialde bakoitzeko berariazko kontsiderazio politiko eta historikoez zehazten baitute. Baina, kasu honetan, azterketa hori egiteko modu zehatza GEEHren aurkakoa zela adierazi zuten.

Kasu horrek, zehazki, lotura argia du bizitza publikoan parte hartzearekin eta parte-hartze horretan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak hitz egiten dituztenak bereizteko aukerarekin.

Slivenko v. Letonia kasuan, GEEAk honako hau zuen aztergai: erretiratutako militar errusiar baten emazte eta alabaren kanporatzea. Letonian bizi izan ziren bizitza osoan, eta, sobietar errepublika ohi horren independentziaren ondoren onartu zuten herritartasunaren lege letoniar berriaren ondorioz, herritartasuna galdu zuten eta herrialdetik irtetera behartzen zituzten, arau hori hausteak bost urterako kanporatzea baitzekarren. Erregimen hori errusieraz hitz egiten zuen gutxiengoko kide ziren eta jardunean zeuden militarren kasutik desberdina zen.

²³ Ikusi 25781/94 kasua, 2001eko maiatzaren 10ekoa.

²⁴ Ikusi 46726/99 kasua, 2002ko apirilaren 9koa.

GEEAk adierazi zuen ez zela onargarria auzi-jartzailearen hizkuntza edo jatorri etnikoagatiko bereizkerian oinarritzea demanda, haren iritziz hizkuntza ez baitzen elementu erabakigarria kasu horretan. Oinarriko gertaera berberekin, hurbilketa berarekin eta zentzu berarekin ebatzi zuen Auzitegiak Sisojeva eta beste batzuk v. Letonia²⁵ kasua.

D.H. eta beste batzuk v. Txekiar Errepublika²⁶ kasua izan da oraingoz azkena alor horretan, eta Sala Nagusiak ebatzi zuen. Auzi-jartzaileek alegatzen zuten eskolatzeari buruzko arau txekiarrek hizkuntza nazionalaren gaitasunari buruzko azterketak (eta ez gutxiengo horren hizkuntzarenak) egitera behartzen zituztela, eta, horren ondorioz, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza jasotzeko adinean zeuden ijito-etniako haur gehienak eskola bereziatara bidaltzen zituztela, adimen-urritasuna zuten haurrentzako eskoletara, hain zuzen. Beraz, hizkuntzagatiko bereizkeriaz mozorrotuta bazegoen ere, jatorri etnikoan oinarritutako bereizkeria zen berez, Txekiar Errepublikako hezkuntza-sistemak bi eskola-sare paralelo baitzituen: arrunta, Txekiar Errepublikako biztanle gehienentzat zena, eta berezia, adimen urritasuna zuten haurrentzat zena, eta ia oso-osorik ijito-etniako haurrek osatzen zutena. Auzi-jartzaileek diskriminaziozko tratuerik edo tratu iraingarririk ez jasotzeko eskubidea eskatzen zuten, desberdin tratatze horrek ez baitzuen zentzuzko justifikazio objektiborik, eta hezkuntza-eskubidea ere ukatzen baitzien, eskola horietan jarraitzen zuten curriculuma maila baxuagokoa baitzen, eta Bigarren Hezkuntzara sartzeko aukerak murrizten baitzizkien haurrei.

Nahiz eta demandaren oinarria jatorri etnikoagatik hezkuntza-eskubidea urratu izana eta diskriminatu izana zen, kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsua zen sarrera-probak hizkuntza ofizialean egiten zirela, eremu urriko hizkuntza kontuan hartu gabe, eta horregatik zirela haur ijitoen emaitzak baxuagoak, eta horrekin justifikatzen zutela heziketa berezia behar zuten adimen urriko haurtzat hartzea.

Errealitate horren aurrean, GEEAk lehenengo aldiz onartu zuen gutxiengo hezkuntza-eskubidearekin lotutako zeharkako bereizkeria, aipatutako hezkuntza-politikaren emaitza ikusita. Gainera, GEEAk normalean GEEH-ren Protokolo Gehigarriko 2. artikuluan oinarritutako betebeharrak positiboak ezartzeari uko egiten bazion ere –negatiboki formulatuta zegoen artikulua–, ezarri zuen, kasuaren egoera kontuan hartuta, GEEHko 14. artikulua eta Protokolo Gehigarriko 2. artikulua batera aplikatzeak demandatutako estatuak ekintza positiboak egitea eskatzen zuela, haur ijitoen beharrak eta ahultasun berezia zirela-eta. Azken buruan, pauso positibo bat zen hori gutxiengoaren ba-

²⁵ Ikusi 60654/00 kasua.

²⁶ Ikusi 57325/00 kasua, 2006ko otsailaren 7koa.

beserako, eta, zeharka, hezkuntzaren alorrean zituzten hizkuntza-eskubideen babeserako. Baina Auzitegiak ez zion horrenbesteko garrantzia eman hizkuntzaren alderdiari, eta hezkuntza-politika horren azken emaitzari eman zion gehiago, nahiz eta Txekiar Errepublikako gobernuak alegatu zuen GEEAk aktibismo judizial zitala erabili zuela, eta horren korapilatsua zen gizarte-gai batek erabakitzekeo tarte zabala behar zuela.

1.6. Zenbait ondorio

Zaila da hizkuntza-eskubideak giza eskubide gisa babesteari buruzko ondorio argiak ateratzea GEEHn eta haren protokolo gehigarrietan hizkuntza-eskubideei buruz egiten den zeharkako babesaren berezitasunetatik, eta aztergai izan dugun GEEAren jurisprudentziatik.

Ondoriozta daitekeena da zenbait hizkuntza-eskubide izateko aukera ikus daitekeela gutxiengoak babesteko sistemen lehenengo diseinuetatik, eta kezka hori badagoela nazioartean, modu unibertsalean nahiz eskualdeetan, bereziki Europan.

Horrez gain, esan behar da GEEAk era horretako eskubideak aztertu dituen kasuetan hartu dituen erabakiak ulertzeko, kontuan hartu behar dela, alde batetik, hizkuntza horien errealitate soziologikoa eta nola administratu dituzten estatuak hizkuntzak, eta, bestetik, GEEAk funtsean erabil dezakeen oinarri ahula, GEEHren Protokolo Gehigarriko 2. artikulua bidez eta GEEHko 14. artikulua bidez zeharkako babesa baino ezin baitu eman.

Bestalde, Auzitegiaren jurisprudentzia, nahiz eta mugatua den egoeratik, pixkanaka-pixkanaka handituz joan da. Alde horretatik, aurrerapen azpimarragarrietako bat da GEEAk, hezkuntza-eskubidea babesteko eskumenetan tarte zabala onartzen badie ere estatuak, ekintza positibo bat egitea ezar diezaiokeela estatuari zenbait egoeratan.

Jurisprudentzia horrek orain arte jorratu dituen gaiak gutxiengoaren ama-hizkuntzan hezkuntza jasotzeko eskubidea eta prozesuan bertan gutxiengoaren ama-hezkuntzan parte hartzeko eskubidea izan dira nagusiki.

Jurisprudentzia gutxi dago oraindik, baina nabari daiteke GEEAren sentikortasuna, eta zenbait kasutan, hizkuntzaren alorreko oinarritzko aldarrikapenak babes ditzake.

Hori guztia dela-eta, ondoriozta dezakegu balitekeela eta nahiko genukeela hizkuntza-eskubideen babesa hobetzea Europan, eta hori bi modutara egin liteke. Alde batetik, gutxiengo nazional bateko kide diren pertsonen norbanakoaren

kultura-eskubideei buruzko protokolo gehigarri bat jarrita GEEHri, eta alde horretatik gogorarazi behar dugu 1993ko Vienako goi-bileran egindako saialdiek huts egin zutela. Edota, bestela, gutxiengo nazionalen kultura-eskubideak babesteko beste itun batzuk negoziatuz, eta bide horixe hartu da Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoan eta Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean. Baina hori biltzar honetako beste azalpen batzuetan zehar aztertuko da.

**1998-2008 ARTEKO ESPERIENTZIA:
GUTUNA EZARTZEA**

2. Gutunaren segimendua egiteko mekanismoa: ikuspegi praktikoa

SIGVE GRAMSTAD

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren
Aditu Batzordeko presidenteordea

Gutuna idazteko lanak duela hogeita hamar urte baino lehenago hasi ziren, gaurkoaren aldean oso bestelakoa zen Europa batean. “Gutxiengoaren eskubide kolektiboak” kontzeptu zaila zen garai hartan, eta politikoki ezinezkotzat jotzen zen kontzeptu horretan oinarritutako obligazio zehatzen inguruko adostasunik lortzea nazioartean. Gutunaren abiapuntua, beraz, kultura-ondarea izan zen, gutxiengoaren aldeko eskubideak sustatu ordez gobernuei betebeharrak ematea, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak” terminoa erabiltzea, eta ez “gutxiengoaren hizkuntzak” edo antzekoak. Baina eutsi egin zitzaizkien berariazko obligazioei eta segimendu-sistema sendo bati.

Beraz, ezarri zenetik hamar urte igaro diren honetan, galdera hau egin genezake: zer izango ote zen desberdina, Gutunak hizkuntza-eskubide kolektiboak eman balizkie gutxiengoei? Pentsatzekoa da gutxiengoek auzitara eramanez ahal izango zituztela beren eskubideen urraketak, baina nik uste dut Gutunak ez zituela hamar urte beteko, estatuek muzin egingo baitzioten Gutuna onartzeari.

Europar hizkuntza-aniztasuna dago. Artikulu honen lehen zatia begirada labur bat ematen dio aniztasun horri, eta Gutuneko kide diren estatuak nabarmentzen ditu. Gutuna soilik mugatzen da herrialde batean tradizionalki erabili diren hizkuntzetara; beraz, hizkuntza historiko horiek soilik jorratzen dira hemen. Ondoren Gutunaren beraren ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, batik batik segimendu-sistema. Azken zatia eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesean eta sustapenean izandako lorpen batzuk lantzen ditu, ongi ezagutzen ditugun herrialdeetan; hau da, Gutunaren kide diren hogeita lau herrialdeetan.

2.1. Hizkuntza-egoeren aniztasuna Europan

Gutxienez lau hizkuntza-egoera topatu ohi ditugu Europan.

Lehenik, herrialde batean edo gehiagotan gehiengoaren hizkuntza dena gutxiengo baten hizkuntza izan daiteke beste herrialde batzuetan. Alemana, ukrainera, serbiera, daniera eta hungariera dira horren adibideak.

Bigarrenik, hizkuntza batzuk gutxiengoen hizkuntzak dira beti, nahiz herrialde askotan –hala nola samiera, romaniera, yiddisha edo frisiera– nahiz herrialde bakarrean, hala nola galesa eta Eskoziako gaelikoa Erresuma Batuan, goi- eta behe-sorbiera Alemanian, edo meänkielia Suedian.

Hirugarrenik, hiztun ugari eta hiztun gutxiko eremu urriko hizkuntzak daude herrialde berean. Espainian, katalanak 5,6 milioi hiztun ditu, eta aranerak 5.000; Finlandian, suedierak 290.000 hiztun ditu, eta Inariko samierak 250; Erresuma Batuan, galesak 750.000 hiztun ditu, eta kornualleserak 400; eta Eslovakian hungarieraren 520.000 hiztun daude, eta polonieraren 2.600 hiztun. Europako estatu gehienetan dago horrelako hizkuntza-aniztasuna.

Laugarrenik, herrialde batzuetan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza asko daude, eta beste herrialde batzuetan gutxi. Danimarkan eremu urriko hizkuntza bakarra dago; Zipren eta Suitzan, 2; Serbian eta Ukrainan, 13; eta, Gutunarekin bat egin duten azken bi estatuetan, Errumaniak eskualdeko edo eremu urriko 20 hizkuntza ditu, eta Poloniak, 15.

Liechtenstein eta Luxenburgo alde batera utzita, bi horietan ez baitago, Gutunak aipatzen duen zentzuan, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzarik, eta Errumania eta Polonia, oraindik nazio-txostenik ez baitago, Gutunarekin bat egin duten hogeita lau estatuetatik hogeitan,¹ eskualdeko edo eremu urriko 142 hizkuntza daude (edo hizkuntza-egoera), eta 37 milioi hiztun.

2.2. Konbentzio bakar bat hizkuntza guztientzat

2.2.1. Gutunaren helburua

Sarreran ageri da helburua:

Hau sinatzen duten Europako Kontseiluko estatu kideak (...).

Ohartzen dira Europako herrialde eta eskualdeetan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea garrantzitsua dela demokrazian eta kultura-aniztasunean oinarritutako Europa bat eraikitzeko, nazio-subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren baitan (...).

Horrek argi erakusten du Gutunaren garrantzia, batik bat kulturen arteko elkarrizketari eta demokrazia eraikitzeari dagokionez, kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren ingurune batean.

Gutunaren asmoa da Europako eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza tradizional bakoitza babesteko eta sustatzeko oinarria izatea, hizkuntza bakoitza

¹ Armenia, Austria, Kroazia, Zipre, Txekiar Errepublika, Danimarka, Finlandia, Alemania, Hungaria, Montenegro, Herbehereak, Norvegia, Serbia, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza, Ukraina, Erresuma Batua.

Europako hizkuntza-aniztasunaren parte bat baita, eta denek laguntzen dute “Europako kultura-aberastasuna eta ohiturak mantentzen eta garatzen”, berriro sarrerara joz.

Beraz, zer egiten da asmo hori lortzeko? Horren erantzuna Gutunaren diseinuan eta segimendu-sistemaren egituran dago.

Gutunak bi zati nagusi ditu. II. zatia estatuan dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei buruzkoa da, eta estatuak bere politikak, legeak eta jardunbidea oinarritzeko helburuak eta printzipioak ematen ditu. III. zatia estatu batek babes eta sustapen berezia eman nahi dien hizkuntzei buruzkoa da, eta hizkuntza bakoitzarentzat berariazko obligazio batzuk aukeratzen dira menu batetik, gizartearen maila guztietan aplikatzeko. Menuari esker, estatuak obligazio-multzo bat molda dezake, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera. Berrespen-tresna guztiei begiratzen badiegu, III. zatiko ia aukera guztiak erabili dituzte herrialde batek edo bestek, estatuak menu-sistema horretaz baliatu diren seinale.

2.2.2. Segimendua

Gutunaren IV. zatian deskribatutako segimendu-sistemak ezaugarri nagusi hauek ditu. Herrialde batean Gutuna indarrean sartu eta urtebete baino lehen, hasierako nazio-txostena aurkeztu behar zaio Europako Kontseiluko idazkari nagusiari, eta horren ondoren nazio-txostenak aurkeztu behar dira hiru urtez behin. Txosten horiek aztertzen ditu Aditu Batzorde batek, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak izendaturik. Aditu Batzordeak bere ebaluazio-txostenak idatzi, Ministro Batzordeari gomendio-proposamenak igorri, eta azken horrek dena delako estatuari bidaltzea erabaki dezake. Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bi urtez behingo txosten zehatza idazten dio Parlamentuko Biltzarrari, Gutunaren aplikazioari buruzkoa.

Sisteman pauso bat gehiago emanez, argi dago etengabeko elkarrizketa sortu dela Europako Kontseiluaren, Gutunarekin bat egin duten estatuen eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen ordezkarien artean. Segimendusistemari begiratzen badiogu eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzaren ikuspegitik, nik uste dut esan daitekeela “beti dagoela norbait zuretzat lanean”.

Sistemaren jarduera ezagutzeko, ikus dezagun Hungariari egindako segimendu-saio bat: nazio-txostena 2005eko azaroan aurkeztu zitzaion Europako Kontseiluko idazkari nagusiari. 2006ko otsailean galdera-sorta bat bidali zitzaion Hungariako agintariei, eta urte bereko apirilean jaso ziren erantzunak. Maiaz, bisitaldi bat egin zen bertara. 2006ko azaroan, Aditu Batzordeak bere ebaluazio-txostena onetsi eta Hungariako agintariei bidali zitzaion, iruzkinak

egin zitzaten. Iruzkina horiek 2007ko otsailean jaso, Ministro Batzordeak gomendioak onetsi, 2007ko ekainean Hungariari helarazi, eta horrela osatu zen segimendu-zikloa. Ondoren, Hungariako agintariek hurrengo hemezortzi hilabeteetan gomendioak bete eta beren hurrengo nazio-txostena igorri zuten 2008ko azaroan, aurrekotik hiru urtera.

Adibide horrek erakusten digu nazio-txostena eta segimendu-saioan egindako beste idazkiak sekula ez direla apal batean uzten; izan ere, ez dago astirik horretarako. Etengabeko prozesua da eta beti dago zer egina.

Ikusi besterik ez dago zenbat segimendu-jarduera egin diren: orain arte 51 nazio-txosten aztertu dira, eta Ministro Batzordeak 176 gomendio igorri ditu. Aditu Batzordeak 300 bilera baino gehiago egin ditu gobernu-erakundeekin, 400 bilera baino gehiago tokiko edo eskualdeko agintariek, ia 550 bilera hizkuntza-erakundeekin eta 650 bilera inguru aditu independente, eskola, auzitegi eta bestelako erakundeekin.

2.3. Lorpenak

Goiko adibideek erakusten digute zer nolako lana egin duten Europako Kontseiluak eta agintariek, GKE-ek eta gizabanakoek Gutuna sinatu duten estatuetan. Beraz, zer lortu da lehenbiziko hamar urte hauetan?

Lehenbiziko lorpenak berretsi aurreko prestaketa-lanean daude. Ia herrialde guztietako gobernuak jarri dira harremanean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen ordezkariekin (lehendik ere harremanean ez bazeuden). Agintariek legedia aztertu dute, eta herrialde gehienek legedia aldatu beharra ikusi dute. Azkenik, beren eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko egitura aztertu behar izan dute, hizkuntzen egoera ikertu dute, babes- eta sustapen-premiarik garrantzitsuenak eta/edo larrienak aintzat hartu, eta kasu batzuetan hizkuntza-politika bat garatu dute.

Gutuna berretsi ondoren, badirudi herrialde askotan etengabe ebaluatzen dela lege-sistema. Bigarren nazio-txostenetan, legedia zuzendu ohi da: hamasei bigarren txostenetatik lauk ez zuten zuzenketarik, baina gainerako hamabi txostenek lauzpabosna zuzenketa zituzten, batez beste. Bigarren mailako araudiak ere aipatzen dira txostenetan. Erakundeak garatzen ere ikusi dugu: gobernu-egitura berriak –hala nola gutxiengoan gaietarako sail sendoa goa eta arretatsuagoa Serbiako gobernuan–, hizkuntza-kontseilu / kultura-gune berriak, hala nola Gaelikoaren Batzordea Eskozian (Erresuma Batua), eta Gutxiengoan Kultura Gunea Erevanen (Armenia). Hizkuntza garatzeko erakunde berriak ere sortu dira, hala nola Finnmark-eko Barne Auzitegia (eskumen bereziki samieraren auzientzat eta samierazko lege-hiztegirako) Norvegian.

Maila orokorrangoan, hiru lorpen garrantzitsu egon dira. Lehenik, Gutunak etengabeko elkarrizketa sortu du kulturen artean. Kulturen arteko elkarrizketa horren oinarrian daude hainbat eta hainbat harreman eta komunikazio, nazioko, eskualdeko eta tokiko agintari, erakunde eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen artean, eta talde horiek guztiak eta Europako Kontseiluaren artean. Bigarrenik, nazioetako agintariak gero eta gehiago oharitzen dira eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen balioaz, nazioko kulturaren eta historiaren osagai gisa. Hirugarrenik, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunak harro daude beren hizkuntzaz eta kulturaz (askotan, lehenbiziko aldiz).

2.4. Amaierarik gabeko istorioa

Erakunde publikoen aldetik politika tinkoak eta bestelako neurriak behar dira eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza bat babesteko eta sustatzeko. Baina ez dira nahikoak. Biziko bada, hizkuntza erabili egin behar da. Hori horrela, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek bizi artean borrokatu behar dute beren hizkuntzaren alde, eta beren eskubideak betetzea edo beren hizkuntza erabili ahal izatea exijitu behar izaten dute sarritan.

Agintariak eta hiztunek elkarrekin lan egiten dutenean –gero eta maizago gertatzen da Gutunarekin bat egin duten estatuetan– hizkuntzak aukera gehiago ditu bizirik irauteko eta garapen positiboa izateko, baita egoera zailean dagoenean ere.

Esan daiteke Gutunari esker ulermena, tolerantzia eta errespetua sortu dela agintarien eta eremu urriko hizkuntzetako hiztunen artean. Giro hori beharrezkoa da denen artean helburu bererantz joateko, hau da, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea, herrialdeko historiaren, kulturen eta nortasunaren funtsezko osagaiak direnez.

Beraz, baikortasunez espero dugu herrialde gehiagok ere aitortuko dutela eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen balioa, eta hizkuntza-aniztasuna ziurtatzeko eta garatzeko beharra ikusiko dutela, hiztunekin elkarlanean, Gutunarekin bat eginez.

3. Gutunaren eragina

VESNA CRNIĆ-GROTIC

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren
Aditu Batzordeko presidenteordea

Ez da erraza nazioarteko edozein konbentzioren eragina neurtzea. Lehenbizi oiloa ala arrautza izan zen buka dezakezu eztabaidatzen: ituna hartzera eraman duten barne faktoreak, ala kanpotik etorritako itunaren eragina. Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren kasuan ere, galdera zaila da: eremu urriko hizkuntzak babesteko tradizioarengatik berretsi al du herrialde batek Gutuna? Edo Gutunak bultzatu du estatu sinatzailea eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesa martxan jartzera edo hobetzera?

3.1. Zenbaterainoko eragina

Gure lana pixka bat neurtzearren, Gutuna neurtzeko unitate bat eta gertaeren kronologia bat ditugu. Neurketa-unitate bat dago segimendu-mekanismoan: Gutunaren 15. artikulua arabera, estatu kide bakoitzak aldizkako txosten bat aurkeztu behar dio Europako Kontseiluko idazkari nagusiari, Gutuna aplikatzerakoan “jarraitutako politikei” eta “hartutako neurriei” buruzkoa. Txosten horiek aztertzen ditu aditu independentez osatutako Aditu Batzordeak. Haiek ezarpenaren kalitatea neurtu, Ministro Batzordeari jakinarazi, eta azken horrek, beharrezkoa bada, ezarpen hobea baterako gomendioak onartzen ditu. Dena dela, estatu kideek informazio nahikoa eta garrantzitsua emateko borondatearen eta gaitasunaren mende dago Batzordeak egoera behar bezala neurtzea.

Estatuaren txostenaz gain, Aditu Batzordeak eskubidea du informazioa eskuratzeko hizkuntzen erabilerari buruzko lanetan diharduten GKE-etatik eta “legezko taldea osatzen duten” elkarreetatik. Informazio-bilketa horren helburua da Batzordeak benetako egoeraren irudi orekatu bat izatea, adituek hobeto ebaluatu ahal izan dezaten Gutunaren aplikazioa dena delako estatuan.

Beste bi eragilek ere hartzen dute parte Gutunaren aplikazioaren segimendua egiten, eta balio politiko berezia dute. Gutunaren arabera, Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bi urtez behingo txostenak bidali behar dizkio Europako Kontseiluko Parlamentuko Biltzarrari, Gutunaren aplikazioari buruzkoak. Prozedura horrek Kontseiluko estatu kide guztiei ematen die aukera Gutunaren garrantziaz ohartzeko eta zabaltzen laguntzeko. Izan ere, Biltzarrak estatu

kide berri guztiei eskatu zien Gutuna onartzeko, “Gutuna garrantzitsua baita bakea, egonkortasuna eta kultura-aniztasunarekiko errespetua egon daitezen Europan”.¹

Idazkari nagusiaren hitzetan, emaitza eskasa izan da.² Deitutako hamaika estatuetatik³ lauk bakarrik⁴ berretsi dute Gutuna; horretaz gainera, Kontseiluko kide “zahar” batzuek oraindik ez dute berretsi, beren lurraldean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak hitz egiten diren arren. Batzuek duela hamar urte baino lehenago sinatu zuten Gutuna, baina ez dute berretsi.

3.1.1. Txostenen balioa

Txostenek balio ugari dituzte. Lehenik, nazio-txostenak idazterakoan, estatuak gehiago ohartu dira beren lurraldean dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen egoeraz, eta Gutunaren barruan dituzten obligazioez. Txostenak publiko egitean, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eta interesatu guztiek herrialdeko egoera eta politikak ezagutzen dituzte. Herrialde batzuek nazio-txostenen prestaketa erabili dute hainbat eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunak harremanean jartzeko. Segimendu-prozesuan zehar, Aritu Batzordeak bisitaldiak egiten ditu estatu kideetara, eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza nagusietako hiztunen ordezkariekin elkartzten da. Hedabideek sarritan horren berri ematen dutenez, bisitaldiak areagotu egiten du Gutunaren profila eta jendea gehiago interesatzen da eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzekin.

Lehenbiziko txostena egin behar da Gutuna estatuan indarrean jarri eta hurrengo urtean. Ondorengo txostenak, hiru urtez behin bidali behar dira. Antolaketa estu hori askotan zaila gertatzen zaie estatu txostengileei eta Aritu Batzordeari, baina etengabeko elkarrizketa sortzen du estatuen eta Batzordearen artean, bai eta estatuaren eta bertako hiztunen artean ere. Bere txostenetan, Aritu Batzordeak oharra egin eta “gomendioak” ematen ditu, problemak identifikatuz eta hobekuntzak iradokiz. Ministro Batzordeak estatu kideari bidali ahal dizkio txosten horietako gomendioak, zein esparrutan neurriak hartu behar diren seinalatuz, Gutuna behar bezala betetzeko. Ondorengo txostenetan, Aritu Batzordeak *feedback*-a bilatu eta estatuak gomendioei nola erantzun dien aztertzen du.

Aritu Batzordeak azken hamar urteotan egindako segimenduan, esan al daiteke eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko aurrerapenak

¹ Europako Kontseilua, Parlamentuko Biltzarren 10659. dok., 2005eko irailaren 3koa.

² Ibid.

³ Albania, Armenia, Azerbaijan, Bosnia eta Herzegovina, Georgia, Moldavia, Montenegro, Errusiar Federakundea, Serbia, “Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia”, Ukraina.

⁴ Armenia, Montenegro, Serbia, Ukraina.

izan direla Gutuna berretsi delako eta martxan jarri delako? 1998 aurretik Gutuna berretsi zuten hasierako estatu guztiak hirugarren eta laugarren segimendu-saioan daude orain, eta beste asko daude bigarren saioaren erdian. Horrek esan nahi du dezenteko elkarrizketa sortu dela alderdi interesatu guztien artean, eta estatuek nahikoa denbora izan dutela gomendio gehienei erantzuteko.

3.2. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen aitortpena

Gutuna berreste hutsak ondorioak izan ditzake estatu berreslean hitz egiten diren eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetan. Hizkuntza batzuentzat, berrespen-tresna da beren lehen aitortpen ofiziala. Horixe gertatu da, adibidez, behe alemanarekin Alemanian, Eskoziako gaelikoarekin Erresuma Batuan eta linburgerarekin Herbehereetan.

Estatu askotan, romaniera esplizituki hartu da lurralderik gabeko gutxiengo hizkuntzatzat. Estatu kide batzuetan, adibidez Alemanian edo Eslovakian, III. zatiko hizkuntzat hartu da (hau da, lurraldeduntzat), nahiz eta Aditu Batzordeari gehiago iruditu zaion “keinu politiko esanguratsu” bat, hizkuntza hori babesteko lan-tresna baino. Aditu Batzordearen iritziz, III. zatiko babesa eman behar litzaike hiztunak lurralde batean kontzentratu samarturik dituen hizkuntzei eta, ahal dela, idazkera estandar bat dutenei. Yiddishak, hizkuntza arkaikoak, bizirik egoteari utzi zion Europako herrialde askotan, hainbat gorabehera historiko eta zailtasunengatik. Dena dela, yiddisharen aldeko berrespenak eragin ona izan du, esate baterako, Herbehereetan; eta agintariak nahiz hiztunak jabetu dira hizkuntza horren kultura-balioaz eta sustapen-ahalmenaz.

Herrialde batzuetan, Gutuna berrestearen ondorioz, ordura arte estatu batean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzat hartu ez zena halakotzat hartzeko eskakera sortu da. Halakoetan, Aditu Batzordeak elkarrizketa bultzatzen du hiztunen eta agintarien artean, hau da, bere iradokizunak edo Ministro Batzordeko gomendioak erabiltzea. Emaidza positiboak egon dira, adibidez, kven hizkuntzarekin Norvegian eta maronitarekin Zipren. Beste kasu batzuetan, estatuek ez dute aldatu nahi etorkinen hizkuntzat edo dialektotzat hartzen dituztenen estatusa.

Batzuetan nahasketa egon da eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen estatusaz, estatu kideak gaizki interpretatu zuelako Gutunaren II. zatiaren aplikazio-eremua. 2.1. artikulua arabera, Gutunaren II. zatia aplikatzen zaie “[estatuen] lurraldean hitz egiten diren eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei”. Herrialde batzuek ulertu zuten hori soilik zegokiela lurraldearen zati zehatz batean koofizialak ziren hizkuntzei, baina Aditu Batzordearen ustez Gutunaren 1. artikuluko definizioaren barruan dauden hizkuntza guztiei dagokie, eta estatu kideek kontuan hartu behar dituzte beren “politikak, legedia eta jardunbidea” diseinatzean, II. zatiak dioen moduan.

3.3. Legedi-aldaketak

Gutuna berresteraoan estatu askok ziotenez, beren barne legedia bat zetorren Gutunarekin; hala, batzuen ustez berrespenak biribildu egiten zituen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesten eta sustatzen egindako lorpenak. Zenbaitetan Aditu Batzordea ados egon ez eta aldaketak gomendatu ditu, gogorrago edo bigunago. Estatu kideen erantzuna ez da batere uniformea izan: batzuek iradokizunak onartu eta legedi arazotsua aldatu dute; beste batzuek, aldaketa beharrik ezari eutsi diote. Azken kasu horretan, batzuetan eztabaida beroa egon da Gutuna interpretatu eta ezartzearen inguruan.

Dena dela, esan beharra dago estatu batzuek, lehen aipatutako segimendu estuarengatik eta herrialde askotan lege-aldaketek luze jotzen dutelako, ezin izan dietela behar bezala erantzun egindako gomendioei. Idazkari nagusiak Parlamentuko Biltzarrerako egindako 2007ko txostenean zioen moduan, “oso zaila da gutxiengoei buruzko legeek Gutuna automatikoki onestea. Gutuna indarrean jartzeko, estatuek beren ekintzen argitan egin behar dituzte legeak eta, are garrantzitsuagoa dena, lege horiek praktikan jarri behar dituzte”.⁵

Gutunaren obligazio zehatzen artean, badirudi botere judiziala lege-aldaketen behar handian dagoela. Adibidez, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hitzunek epaitegietan beren hizkuntza erabiltzeko eskubidea sarritan muga-tzen da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6. artikulura –norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea epaitegiko hizkuntza ofiziala ulertzen ez denean–, baina Gutunaren 9(ii) artikulua eskubide hori bermatzen du, hizkuntza ofiziala jakin edo ez. Hungaria izan zen gomendio hori onartu eta bere legedia aldatu zuen estatu kideetako bat, Gutuna betetzeko.

3.4. Jardunbidearen aldaketa

Aditu Batzordea ohartu da estatu kide batzuek “formalki betetzen” dituztela Gutunaren obligazioak. Esaldi anbiguo samar horrek adierazten du legedian eskubidea azaltzen dela baina ez dela praktikara eramaten.

Aipatutako zuzenbidearen kasua adibide ona da. Norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea legean ager daiteke, baina hainbat oztopo praktiko izan ditzake. Ohikoenen artean, auzitegiko langileek eta batik bat epaileek eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza ez jakitea da. Hori nabarmena da auziak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza batean egitea aukeratu duten estatuetan. Interpreteen laguntza eska dezakete, jakina, baina horiek ez daude beti eskura edo ez dira gai. Halakoetan prozesua (askoz) luzeagoa izango da, eta bere eskubideaz baliatu den

⁵ Europako Kontseilua, Parlamentuko Biltzarraren 11442. dok., 2007ko urriaren 24koa.

pertsona epailea amorrarazi nahian dabilen istilu zaletzat har daiteke. Ondorioz, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek askotan beren eskubideari uko egin eta epaitegiko hizkuntza ofiziala erabiltzen dute, normalean ongi eza-gutzen baitute.

Antzekoa gertatzen da Administrazioan, gehienbat estatuko Administrazioaren tokiko erakundeetan, non ez dagoen eremu urriko hizkuntzaren hiztun nahiko-rik langileen artean. Aditu Batzordea problema horiek seinalatzen saiatzen da eta estatuek beren jardunbidea aldatzeko iradokizunak egiten ditu. Aldaketak epe luzeko neurriak eska ditzake, hala nola langileek eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan aritzeko trebatzea, baina batzuetan jardunbidea alda daiteke neurri sinpleen bidez, adibidez hiztunek bulego jakin batean edo egun jakin batean beren hizkuntza erabil dezaketela adierazten duten idazkunak ipiniz, edo inprimaki elebidunak eskainiz Interneten. Aditu Batzordeak bere ebalua-zio-txostenetan emandako iradokizun asko herrialde batzuetan dauden neurriak dira, eta jardunbide egokien adibidetzat jotzen dira.

Aditu Batzordeak aldaketa garrantzitsu bat ikusi du estatu kide guztien jar-dunbidean, hau da, kontzientziazioa.

Esperientziak frogatzen digunez, gutxiengo baten hizkuntzak jasotzen duen babesa edo sustapena loturik doa gehiengoaren hizkuntzako hiztunek hartaz duten iritziarekin. Izan ere, eskualdeko edo eremu txikiko hizkuntzen babe-sak edo sustapenak, askotan, gehiengoaren iritzia islatzen du. Beraz, gehiengo-a kontzientziatzeak berebiziko garrantzia du.⁶

3.5. Ondorioa

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1998an jarri zen indarrean, eta gaur egunera arte Europako Kontseiluko 47 estatu kideetatik 24k onartu dute. Estatu horiek lege-obligazioak onartu dituzte beren lurraldean dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko, eta Gutunaren definizioa betetzeko. Aditu Batzordearen segimenduak lagundu be-harko lieke obligazio horien ezarpena hobetzen. Azken hamar urteotan, aitortu behar dugu Gutunak eta bere segimendu-sistemak eragina izan dutela estatuen legedian eta jardunbidean. Jakina, denek dute zer hobetua: estatuek, hiztunek eta Europako Kontseiluak.

Ea laster ugaritzen den obligazio horiek hartzen dituzten herrialdeen kopurua, Europako Kontseiluko estatu kide zaharren nahiz berrien artean.

⁶ Ikusi Europako Kontseilua, ECRML (2005)3, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko Aditu Batzordearen 2. ebaluazio-txostena, Gutuna Kroazian aplikatzearen ingurukoak, 39. paragrafoa.

**1998-2008 ARTEKO ERRONKAK:
GUTUNA BERRESTEA**

**Gutuna berrestearen problemak
eta ikuspuntuak**

4. Belgikaren kasua

YVES LEJEUNE

Louvain-la-Neuveko Unibertsitate Katolikoko (UCL)
eta Notre-Dame de la Paix-ko Unibertsitateko (Namur) irakaslea

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berresteko aukerak Belgikan sortutako problemak ulertu ahal izateko, lehenik aipatu behar dugu (4.1. atala) Belgikako Konstituzioak Belgikako hizkuntzei emandako estatusa. Konstituzioaren xedapenak Flandriaren hizkuntza-homogeneotasunerako eskaera tinkotik datoz, orain lurralde-osotasunerako desira irmoa bihurtu dena (4.2. atala). Horrek ezinbestekoa egiten du erresumako hiru hizkuntza ofizialek hizkuntza-eremu bakoitzean duten lekua zehaztea eta, ondoren, eremu bakoitzeko “eskualdeko hizkuntzak” edo dialektoak zerrendatzea eta hitz egiten diren esparruak deskribatzea (4.3. atala). Azkenik, ikusiko dugu Belgikako Frantses-hiztunen Komunitatea behin eta berriro saiatu dela estatuak Europako Gutuna onar dezan, bertako hizkuntza endogenoen izenean (4.4. atala).

4.1. Belgikako hizkuntzen estatus konstituzionala

1831n onartu zenetik, Belgikako Konstituzioak formalki bermatu du hizkuntzak erabiltzeko askatasuna: “Egun, Belgikan aukeran dago zein hizkuntza erabili; legeak bakarrik erabaki dezake horren inguruan, eta soilik agintari publikoen ekintzetan eta arazo judizialean”.¹

Hala eta guztiz ere, askatasun hori gaur egun mugaturik dago esfera pribatura, 1970eko funtsezko bi garapenengatik:

- Konstituzioan lau hizkuntza-eremu sartzea, horietatik hiru elebakartasunari jarraitzen diotenak.
- Hiru erakunde federalek hizkuntzari buruzko legeak egin ahal izatea, hain zuzen nederlanderaz, frantsesez eta alemanez mintzo direnen komunitateak, Konstituzioak ahalmena ematen baitie hizkuntzaren erabilera arautzeko Administrazioan,² bai eta nagusien eta langileen arteko gizarte-harremanetan

¹ Belgikako Konstituzioaren 30. artikulua (23. artikulua, 1831ko otsailaren 7ko testu originalean).


² 1970era arte, Konstituzioak Parlamentuari eremu horretan esku hartzen uzten zion, soilik “agintari publikoen ekintzetan”.

ere, eta agintari publikoek martxan jarri, diruz lagundu edo ofizialki onartutako eskoletan irakasteko.³

Konpromiso batek –zoritarrez zalantzan jarri da 2000tik aurrera– legez bermatzen du hizkuntza-eremuen “mugako” gutxiengoaren iraupena.

4.1.1. Hizkuntza-eremuak

Belgikan hiru giza talde egon arren –zein bere kultura- eta hizkuntza-ezaugarriekin– ez da sortu federalismo pertsonalik,⁴ talde horiek, oro har, geografian kontzentratuta baitaude. Nazioaren lurraldea zatituta dago lau “hizkuntza-eremutan”: hiru elebakarrak (frantsesez, nederlandera eta alemanez mintzo direnak) eta bat “elebiduna” (Brusela Hiriburua), nederlandararen eremuaz inguratua.⁵ Erresumako udalerrri bakoitzak hizkuntza-eremu baten barruan egon behar du.⁶



4.1. irudia: Belgikako hizkuntza-eremuak.

Hizkuntza-eremuak ez dira nahasi behar Valoniako, Flandriako eta Bruselako eskualdeekin. Azken horiek nazio aspiko federazio-unitateak dira, hiru komunitateren gainean ezarriak. Eskualdeek legegintza- eta administrazio-botereak dituzte gizarte- eta ekonomia-auzietan, espazioaren plangintzan, ingurumenean eta tokiko gobernuan.

Valoniako flandriarren eta frantses-hiztunen arteko hizkuntza-muga, lehenbiziko aldiz finkatua 1932ko ekainaren 28ko Legearen bidez,⁷ behin betikotu

³ Dena dela, Konstituzioaren 130. artikulua hezkuntzara mugatzen ditu alemanez mintzo den komunitatearen hizkuntza-botereak (1997ko maiatzaren 20ko Konstituzioaren berrikuspena).

⁴ “Federalismo pertsonala” da (hizkuntza-) taldeen autonomia politikoa, maila pertsonalean, estatu osoan zehar. Taldearen autogobernu moduko bat da, eta bere erakunde eta gobernu-organismoek botere autonomoak ematen dizkiete taldeko kideei. Boterea ez zaie banatzen lurraldeei baizik eta giza taldeei.

⁵ Bruselaren muga bat 3,5 km-ra dago frantses hiztunen mugatik, Sint-Genesius-Rode/Rhode-Saint-Genès udalerriarekin.

⁶ Hala dio Belgikako Konstituzioaren 4. artikuluko 2. paragrafoak.

⁷ Orduan “gutxiengo babestuentzat” salbuespenak zeuden hizkuntza-mugako biztanleria nahasiko udalerririkorietan, eta “kanpoko elebitasuna” zegoen ohar eta jakinarazpen publikoetan.

zuen 1962ko azaroaren 8ko Lege batek, eta Brusela Hiriburuaren eremu elebiduna mugatu zuen 1963ko abuztuaren 2ko Lege batek. Muga hori birtualki aldaezina bihurtu da, 1970az gero Belgikako Konstituzioak eskatzen baitu hizkuntza-eremuen mugak zuzentzeko edozein legek botoen bi herenen babesa eta, gainera, hizkuntza-talde bakoitzeko (frantses-hiztunak eta nederlandera-hiztunak) ordezkarien eta botoen gehiengoa Parlamentu Federalaren Ganbera bakoitzean, onartua izateko.⁸

Horrela, aurreikusteko moduko etorkizunean ezinezkoa da “lege berezirik” onartzea –horrela deritze Belgikan halako legeei–, hizkuntza-muga aldatuko duenik. Ondorioz, tokiko biztanleek ezin dute egin mugak aldatzeko eskaerarik.

4.1.2. Eskualdeko elebakartasuna

Conseil d’Etat-en jurisprudentziak interpretatutako hizkuntza-legeek⁹ are zorrotzago finkatu dute lurraldetasunaren printzipioa.¹⁰ Horren arabera, agintari publikoek, haiek sortutako eskolek eta nagusien eta langileen artean erabilitako hizkuntzak eremu horri dagokiona izan behar du.

Beraz, hizkuntza-eremu bakoitzak hizkuntza ofizial bat du, Brusela Hiriburuak izan ezik, bi baititu.¹¹ Era horretan, frantsesa atzerriko hizkuntza da Flandrian, eta nederlandera ere bai frantsesaren eremuan. Nonbait, Belgikako sisteman, beste inon ez bezala, agintari publikoek ezin dituzte estatuko bi hizkuntza ofizial nagusiak erabili nazioko lurraldearen ia erdian.

4.1.3. Hizkuntza-gutxiengoaren babesa

Tokiko gorabeherengatik –hots, hizkuntza-gutxiengo bat dagoelako– indargabetu egin behar direnean eremu jakin bateko hizkuntza-arauak, eremuko hizkuntzak lehentasuna izaten jarraituko du. Hala agintzen du jurisprudentziak.¹²

⁸ Belgikako Konstituzioaren 4. artikuluko 3. paragrafoa.

⁹ Hizkuntzak Administrazioan erabiltzeko azken legeak 1966ko uztailaren 18ko Errege Dekretuaren pean koordinatu ziren.

¹⁰ Ikusi A. Alen eta R. Ergec, “Le principe de territorialité dans la jurisprudence belge et européenne. Un essai de synthèse”, *Journal des Tribunaux* (aurrerantzean, JT), 1998, 785.-790. or. Azterketa beraren nederlandarazko bertsioa, hemen: *Rechtskundig Weekblad*, 1998-9, 417.-424. or.

¹¹ Konstituzioak ez du esplizituki izendatzen hizkuntza-eremu bakoitzeko hizkuntza ofiziala, baina, Conseil d’Etat-en Legegintza Ataleko Ganbera bateratuen arabera, “alferrikakoa” zen hori egitea, lurraldea hizkuntza-eremutan zatitzea “adostasunez” mamitu baitzen Konstituzioan (1988ko ekainaren 15eko iritzia, Ataleko kide flandriarrek bakarrik onartutako ohar orokorrak, *Parl. Doc.*, Senatua, SE 1988, 371/1 zk., 53. eta 54. or.).

¹² Conseil d’Etat-en Legegintza Atalaren 1972ko irailaren 5eko iritzia, *Parl. Doc.*, Ch., 1971-2 saioa, 282/5 zk., 2. or.; Arbitraje Epaitegiaren 17. epaia, 1986ko martxoaren 26koa, JT 1986, 562, M. Uyttendaele-ren oharra. 2007an Konstituzio Epaitegi izena jarritako Arbitraje Epaitegiaren epaiak eskuragarri daude frantsesez, nederlandez eta alemanez www.const-court.be helbidean.



4.2. irudia: Belgikako hizkuntza-mugak.^{13, 14}

Iturria: Jacques Leclerc, “L’Etat belge: données démolinguistiques” hemen: *L’aménagement linguistique dans le monde*, Quebec, TLFQ, Laval-go Unibertsitatea, 2008.

Ikusi web-orri honetan: <http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/belgiqueetatcarte5.htm>.

Udalerrri bakar batzuek (denak aipaturik daude legedi federalean) arau bereziak dituzte “beren gutxiengoak babesteko”,¹⁵ udalerrria dagoen hizkuntza-eremuari dagokion hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza ofizial bat erabili ahal izan dezaten.¹⁶ Hezkuntzan ere badituzte aukera horiek.¹⁷ Gehienak hizkuntza-mugaren alboan edo Brusela inguruan daude.

Komunitateek hizkuntza-erabilerari dagokionez duten botere legegilea ezin da erabili hizkuntza-estatus bereziko udalerrietan, ez eta Brusela Hiriburuko eremu “elebidunean” ere. Horietan Parlamentu Federalak arautzen du hizkuntzaren erabilera, Frantses- eta Nederlandera-hiztunen Komunitateetan bezala.¹⁸

Salbuespen mugatu horiez gain, ez zaie babesik bermatzen “bere lurraldearen zati batean hedadura txikiagoa duten hizkuntza ofizialei”, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 3. artikulua parafraseatuz. Belgikako Konstituzio Auzitegiko jurisprudentziaren arabera, komunitateek ezin dute beren aldetik babestu nederlandez, frantsesez edo alemanez mintzo diren gutxiengoak, beren hizkuntza ofiziala ez den Belgikako hizkuntza-eremu batean bizi badira.¹⁹ Komunitate batek onartutako hizkuntza edo kultura bat

¹³ Udalerrien izenak nederlandez (mendebaldetik ekialdera): Mesen, Komen, Spiere-Helkijn, Moeskroen, Ronse, Vloesberg, Bever, Edingen, Sint-Genesius-Rode eta Voeren. Probintzien izenak nederlandez: West-Vlaanderen, Oost-Vlaanderen, Vlaams-Brabant eta Limburg. Muga berdetik gorako probintziak ingelesez: West Flanders, East Flanders, Flemish Brabant eta Limburg. Muga berdetik behera: Hainaut, Walloon Brabant eta Lieja.

¹⁴ Mapako lerro berdeak hizkuntza-muga adierazten du. Laranja = eskualde elebiduna; gorria = nederlandezko aukerak dituzten frantsesezko udalerririk; horia = frantsesezko aukerak dituzten nederlandezko udalerririk.

¹⁵ Administrazioan hizkuntza erabiltzeari buruzko lege koordinatuak, 8. artikulua.

¹⁶ “Hizkuntza-arau bereziak dituzten udalerriei”, askotan, “aukerak ematen dituzten udalerririk” esaten zaie.

¹⁷ Alemanaren iparrekotik eratzaren ondoko Baelen, Plombières eta Welkenraedt hiru udalerrri valoniarrak ere hizkuntza-aukerak dituzte hezkuntzan.

¹⁸ Arbitraje Epaitegia, 1986ko martxoaren 25eko 15. eta 16. epaiak, 1986ko ekainaren 12ko 19.a, 1986ko ekainaren 25eko 20., 21. eta 22.a.

¹⁹ Arbitraje Epaitegia, 1996ko urriaren 3ko 54/96 epaia, B.7.1, B.7.2, JT 1997, 477. or., M. Uyttendaele eta R. Witmeur-en oharrekin; 1998ko martxoaren 10eko 22/98 epaia; 2000ko maiatzaren 17ko 56/2000 epaia.

sustatzeko neurriek errespetatu egin behar dute lurralde bakoitzaren eskumena; alde batera utzi behar dituzte beren xedapenen “lurraldez kanpoko eragin posibleak”, beste komunitateen politikekin bat etorri ez arren.²⁰

Gero deskribatuko dugu Belgikako Konstituzioak zergatik ez dituen asimilaziotik babestu nahi hizkuntza-gutxiengoak.²¹ Jadanik esan genezake, baina, Flandriako doktrinaren arabera, lurraldetasunaren printzipioa “hizkuntza-talde bat babesteko beharrezkoa izan daitekeen berme instituzional bat” dela, baita gehiengoaren hizkuntza bada ere, “hizkuntza menderatzaile baten presio ‘asimilatzailetik’”,²² hau da, frantsesetik: “infiltrazioa” ekiditen du eta “hizkuntza-eremu zitura” sortzen laguntzen du. Lurraldetasunaren printzipioak, gutxiengoaren eskubideen antzera, hizkuntza-talde bat, hau da, flandriarrak babesteko bidetzat hartu behar dira.

Dakigun bezala, Belgikak ez zuen berretsi Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa, 1995eko otsailaren lekoa, frantses-hiztunen eta flandriarren artean eztabaida zegoelako Belgikan ba ote zegoen Hitzarmenean aipatu bezalako gutxiengorik.²³ Horren arrazoiak argi ikusten dira doktrina flandriarren:

(...) une honetan oreka dago Konstituzioak bermatutako lurraldetasunaren, hizkuntza-eremuen homogeneousatasunaren eta hizkuntza-legeek eskaintako aukeren artean. Adibidez, frantses-hiztunek eta nederlandera-hiztunek babes bera dute sei udalerrri periferikoe-tan. Hitzarmen Markoa berresteak gutxiengoa bakarrik babesteko xedapena gehituko lioke gure legediari. Hala, berrespen horrek oreka konstituzionala apur lezake “aukerak ematen dituzten udalerrietan”.²⁴

²⁰ Ibid. Baita 2003ko ekainaren 24ko 92/2003 epaia ere, B.14.1, B.14.2; Conseil d’Etat, 2008ko otsailak 12. *Flemish Community v. French Community Commission* kasua, 179.511. zk., *Public Law Chronicles* (aurrerantzean, CDPK) 2008/4, 859. or.; H. Vuye-ren oharrarekin. Bruselako Eskualdeak eta Belgikako Frantses-hiztunen Komunitateak frantses-hiztunen alde beren hizkuntza-eremutik kanpo alde hartutako neurriak legeingintza- eta administrazio-eskumenei buruzko arazo konstituzional bat dira. Ikusi H. Vuye, “La répartition des compétences territoriales entre les Communautés. Après la saga des arrêts Carrefour s’annonce un nouveau ‘carrousel’: le ‘Conseil consultatif des francophones de la périphérie’”, Conseil d’Etat-en epaiari buruzko oharra, CDPK 2008/4, 868.-876. or.

²¹ Ikusi 4.2. atala, 46. orrialdean.

²² Ikusi J. Clement, “L’emploi des langues en matière administrative. Les facilités et la résolution Nabholz du Conseil de l’Europe. Pas de langue, pas de liberté?”, *Administration Publique* (aurrerantzean, AP), 2003, 190.-207. arteko or., 205. or.; J. Clement, *Taalvrijheid, bestuurstaal en minderheidsrechten. Het Belgisch model*, KUL tesia, Antwerp/Oxford/Groningen, Intersentia, 2003; J. Clement, “Territoriality versus personality” hemen: *The Framework Convention for the Protection of National Minorities: a useful pan-European instrument?*, A. Verstichel argitaletxea. A. Alen, B. De Witte eta P. Lemmens, Antwerp/Oxford/Portland, Intersentia, 2008, 51.-68. or. Ikusi ere Fr. Gosselin, “Actualité du contentieux linguistique devant le Conseil d’État: quel avenir pour la Commission permanente de contrôle linguistique?”, AP 2007-8, 312.-330. or.

²³ Ikusi konstituzio-gaiei buruzko adituen talde baten txostena hemen: CDPK, 1998, 491.-527. or.; X. Delgrange eta S. Van Drooghenbroeck, “La signature de la Convention-cadre sur la protection des minorités nationales et les mesures de protection contenues dans les lois spéciales”, AP 2002, 273.-287. or.; J.-C. Scholsem, “Quel avenir pour la Convention-cadre pour la protection des minorités nationales en Belgique?”, CDPIC 2008, 557.-586. or.; J. Velaers, “Het Kaderverdrag tot bescherming van de nationale minderheden: een ‘non possumus’ voor Vlaanderen?” hemen: *Taateleisen juridisch getoetst*, A. Alen eta S. Sottiaux argitaratzaileak, Mechelen, Kluwer, 2009, 103.-158. or.

²⁴ J. Clement, “L’emploi des langues en matière administrative”, op. cit., AP 2003, 206. or. (Europako Kontseiluaren itzulpena). Frantses-hiztunak federazio-mailan gutxiengo estatusera ez murrizteko berme instituzionalak ere “Belgikako modelooren” oreka orokorraren barruan daude.

Laburtuz, Konbentzioa ez berrestearen arrazoia Belgikako sistema defendatzea besterik ez da, elkarbizitza baketsua ekarri baitie hizkuntza-taldee. ²⁵

4.2. Azalpen bat: hizkuntza-homogeneotasunetik lurralde-osotasunera

4.2.1. Arrazoia: flandriarren hizkuntza defendatzea

4.2.1.1. Arazoa: elite frantses-hiztunak herrialde hirueledun batean

Historiak nahi izan du teorian Frantziaren edo Karolinjiar Inperioaren printzerrietan bizi ziren eta hainbat hizkuntza zituzten populazioak Borgoinako dukeen agindupean elkartzea, ondoren Espainiako erregeen agindupean eta azkenik Habsburgotarren agindupean. Belgikak heredatu zuen lurraldearen mugak, beraz, ez datoz bat bertan mintzatzen diren hizkuntzekin, Luxenburgoko eta Belgikaren arteko mugan izan ezik. ²⁶

Egoera hori ez da berria Europako estatu zaharretan, non monarkek, homogeneotasuna ziurtatzeko, nazio-sentimendua sustatu zuten eta boterearen hizkuntza edo erlijioa, edo biak, inposatu zituzten. Bere auzokideak ez bezala, Belgika ez zen gai izan hizkuntzaren batasuna ziurtatzeko, frantziarrek gizartearen eta politikan agindu arren gutxienez XVIII. mendetik gizonzkoen sufragio unibertsalera arte Lehen Mundu Gerra bukatu berritan, herri latindarren eta germaniarren muga Herbehereen hegoaldean bertan baitago.

1830ean Belgika estatu unitario bihurtu zenean, bozkatzeko eta hautatuak izateko eskubidea zuten eliteak frantsesez bakarrik mintzo ziren, Flandrian nahiz beste edonon. Hala, frantsesa bihurtu zen estatuko hizkuntza ofizial bakarra. Nolanahi ere, herrialdearen iparraldeko probintzietan bizi ziren belgikar gehienek nederlanderaren dialektoak erabiltzen zituzten.

4.2.1.2. Flandriar mugimenduaren lehen eskaerak: hizkuntzen berdintasuna eta elebitasuna

XIX. mendearen erdialdean, flandriar mugimenduak, ²⁷ hasieran kultura eta hizkuntzaren arlokoa izan zenak, aurre egin zion frantsesaren monopolio politikoari. Ondorioz, nederlanderaren onarpena irabaziz joan zen herrialdearen iparraldean, epaitegietan eta gobernuko sailetan. Nederlanderaren pixkanaka sartu zen iparraldeko hezkuntza-sisteman. ²⁸

²⁵ Ibid., 207. or.

²⁶ Ikusi, gai honen inguruan, J. Stengers, *Les racines de la Belgique [Histoire du sentiment national belge des origines à 1918-ren I. alea]*, Brusela, Racine, 2000, 52. eta 53. or.

²⁷ Mugimendu honetako kideei *flaminganteak* esaten zaie.

²⁸ Ganteko Estatu Unibertsitateak ez zuen bere hizkuntza-estatusa aldatu 1930 arte; Leuven-go Unibertsitate

1898an onartutako legeek agindu zuten Belgikako legeak nederlanderaz eta frantsesez aldarrikatu eta argitaratu behar zirela; hala, nederlandera estatuko hizkuntza ofizial bihurtu zen, frantsesaren parez pare.²⁹ Dena dela, oso desberdin banatutako bi hizkuntza legez berdinak direla aitortzea ez zen aski *de facto* berdinak izateko; izan ere, harreman pribatuetan hizkuntza aukeratzeko askatasuna aldarrikatu du Konstituzioak, nazioaren independentziaz geroztik.³⁰

Hona hemen Jean Stengers eta Eliane Gubin historialarien iruzkin zorrotzak:

Flaminganteek itxaropen handiak zituzten lehenbiziko hizkuntza-legeetan, baina ez ziren oso eraginkorrak izan. Exijitzen zuten elebitasuna beren kontra zihoala zirudien: flandriarrek bi hizkuntza jakiten jarraitu behar zuten, baina valoniarrek aski zuten bakarrarekin... Areago, hizkuntzen erabilerari buruzko legediak arazoak sortu zituen flandriarren artean, gizartean aurrera egiteko balio zuen hizkuntza dotore gisa ikusten baitzuten frantsesa. (...) Flandriako elebitasunak, lehenbiziko flaminganteen ametsa zenak, frantsesari egin zion mesede. (...) Nederlandera zokoratu ez ezik, gutxietsi egin zen.³¹

Eta Ganteko idazle frantses-hiztun baten, Suzanne Lilar-en memoriak:

Mespretxu hori da flandriarrak gehien mindu zituena: elebitasuna onar dezakezu, baina ez, zeure burua makurtzen ez baduzu behintzat, zure ama-hizkuntza sistematikoki erdeinatzea. Gauza bakarra dago esan gabekoa gai honetaz: ohore-kontua zela.³²

4.2.1.3. Frantses-hiztunen nagusitasuna amaitzea eta lurraldetasunaren garaipena

Lehen Mundu Gerraren amaieran, benetako sufragio unibertsalak azkenean amaiera eman zion frantsesak Belgikan zuen nagusitasunari. Batetik, flandriar mugimendua gogotik saiatzen zen Flandriatik frantsesa ezabatzen eta, bestetik, frantses-hiztunek ez zuten nahi derrigorrezko elebitasuna nazio osora zabaltzerik, bolada batean aurreikusi zen bezala. Hala, Parlamentu Nazionala lege zorrotzak hasi zen egiten –eta jarraitu egin zuen xx. mende osoan zehar–, iparraldeko gobernuaren sailetan, armadan, epaitegietan eta eskoletan nederlandera soilik ezartzeko. Hizkuntza-lege horiek batez ere flaminganteen prezioz onartu ziren, haientzat printzipio kontua baitzen, eta frantses-hiztunen adostasunez, konponbiderik erosoena zelakoan, elebitasunaren ideiarekin izuturik.³³

Katolikoaren frantsesezko atala 1968 arte ez zuten behartu hizkuntza-mugatik bestaldeko Louvain-la-Neuvera joatera.

²⁹ 1898ko apirilaren 18ko Legea. “Berdintasun Legea” (*loi d'égalité - Gelijkheidswet*).

³⁰ Konstituzioaren 30. artikulua.

³¹ J. Stengers eta E. Gubin, *Le grand siècle de la nationalité belge de 1830 à 1918 (Histoire du sentiment national belge des origines à 1918*-ren II. alea), Europako Kontseiluaren itzulpena, Brusela, Racine, 2002, 125.-126. or.

³² S. Lilar, *Une enfance gantoise*, Paris, Grasset, 1976, 39. or. (J. Stengers eta E. Gubin-ek jasoa, op. cit., 128. or.).

³³ J. Stengers eta E. Gubin, op. cit., 191. or.

4.2.2. Egungo intrantsigentziaren azalpena: defentsiban dagoen nazio bat

Flandriar arruntentzat, gaur egun, lurraldetasuna da nederlanderazko eremuan frantses-hiztunei edo beste edozein hizkuntza-talderi hizkuntza-, kultura- edo politika-eskubiderik ez aitortzea, non eta ez den “aukerak ematen dituzten” eremuetan (neurri hori aldi baterako dela iruditzen zaie, nederlandera-hiztunak ez direnak asimilatzeke helburua duena). Ideia horren jatorria Bruselaren inguruko udalerriak pixkanaka frantsesteko beldurrean dago (hiriko frantses-hiztunak hedatzea), nahiz eta zabaltze kultural hori herri eta hiri nagusi guztien aldirietan gertatzen den, nekazaritzaguneak hiritartu ahala; Bruselan hori areagotu egiten dute estatuko eta Europako erakundeak bertan egoteak eta hiriko biztanleria nazioartekotzeak.

Intrantsigentzia horren azalpena nahiko sinplea da. Bere elite frantsestuaren eta funtzionario frantses-hiztunen kontra flandriarrek aspalditik izan duten hizkuntza-lehiaren eraginez, flandriarren iritzi publikoa Belgikako frantses-hiztunen iritzi publikoa ez bezalakoa izan da, eta hortik benetako nazio-nortasun flandriarra jaio da. Aldiz, ez da halakorik jazo frantses-eremuan. Belgikar frantses-hiztunek atxikimendu estua diote estatuari, baina komunitate valoniar edo frantses-hiztun bateko kidea izatearen sentimendua ez da hainbestekoa, eta ez dago naziotzat hartzerik, hitzaren esanahi faktualean.³⁴ Aitzitik, nederlandera-hiztunek nortasun politiko flandriarra dute, eta hori konbinatu beharra dute Belgikako nazioko kide izatearekin. Hizkuntzan oinarritutako benetako nazio-sentimendu hori Belgikako mugen barruan dago itxita, eta flandriarrek gero eta urrunago ikusten dute estatua: frantses-hiztunak nagusi izandako mende baten pertsonifikazio gisa hartzen da, baita flandriar eliteen artean ere.

Flandriar nazioa Belgikako estatuaren barruan asmatu zen,³⁵ eta bere erakundeak, bere lurraldea eta bere mugak sortu ditu, estatuaren baimenarekin eta parte-hartze aktiboarekin. Nazio-sentimendu horren manifestazio tradizionalak –flandriar lurraldearen osotasuna defendatzea eta Flandriaren kultura-osotasunari eusteko borondatea– ez dira frantses-hiztunen gustukoak. Baina nazio batentzat zaila da bere lurralde-osotasunari uko egitea, nahiz eta estatu beregaina ez izan.

³⁴ Stengers-ek dioen moduan, “[Belgikan] bi herri desberdin daude, bat iparrean eta bestea hegoan. Bat iparrean dago, flandriarrak (*ons volk*), baina hegoan inor ez litzateke ausartuko *notre peuple* esatera”. Ikusi J. Stengers eta E. Gubin, *op. cit.*, 200. eta 201. or.

³⁵ “Flandria eta Valonia, valoniarrak eta flandriarrak, kolektiboki eta esklusiboki, Belgikako azpiproduktuak dira”. Ikusi J. Stengers eta E. Gubin, *op. cit.*, 201. or.

4.3. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak Belgikan

Belgikako hizkuntza-eremuetako hizkuntzen aitortzea eta babesa komunitateen ardura da,³⁶ baina “aukerak ematen dituzten udalerrietako” gutxiengoak agintari federalen jurisdikzioaren barruan daude arlo horretan.

4.3.1. Frantsesaren eremua

4.3.1.1. Beste hizkuntza-eremuetako hizkuntza ofizialen posizioa

Frantsesaren eremuak “aukerak ematen dituzten udalerrien” bi mota ditu beste hizkuntza-eremu baten alboan: lau udalerrri hizkuntza-mugan³⁷ eta bi udalerrri alemanaren eremuaren ondoan.³⁸ Batean, nederlandera hitz egiten dutenek aukerak dituzte Administrazioan; bestean, alemanez hitz egiten dutenek. Alemanaren eremuaren ondoko beste hiru udalerririk³⁹ eskaintzen dituzte hizkuntza-aukerak (alemanez eta nederlandera) hezkuntzan. Agintari federalak ardurazkoak dira hizkuntza-estatus hori bermatzeaz.

4.3.1.2. Eskualdeko hizkuntza endogenoak

Belgikako Frantses-hiztunen Komunitatearen ustez, bere eremuan mendez mendez garatu diren eskualdeko dialektoak babestea merezi duen ondare bat dira, komunikatzeko eta adierazteko modu bat, hizkuntza ofiziala den frantsesaren alboan sustatu beharrekoa. Badirudi dialekto horiek ez direla sartzen “nazioko/estatuko (beste) hizkuntza bati lotutako hizkuntzak”⁴⁰ kategorian.

1990eko abenduan, ondare horren kontzientzia gero eta handiagoa izaki, Frantses-hiztunen Komunitateak legez aldatu zituen tokiko aldaera horiek, dialektoa izatetik “eskualdeko hizkuntza endogeno” izatera.⁴¹ 1991ko martxoaren 19an, Komunitateko gobernuak Eskualdeko Hizkuntza Endogenoen Kontseilu Aholkulari bat sortu zuen (CLRE), kultura-ministroari iritziak bidali ziezazkion, hizkuntza horiek babesteko eta sustatzeko neurrien inguruan.

³⁶ Baina Aleman-hiztunen Komunitatearen hizkuntza-eskumena hezkuntzara mugatzen da, “agintari publikoek sortu, diruz lagundu edo onartutako ikastetxeetan” (Konstituzioko 130. artikulua 1.5. paragrafoa).

³⁷ Mendebaldetik ekialdera, Comines/Komen, Mouscron/Moeskroen, Flobecq/Vloesberg eta Enghien/Edingen.

³⁸ Malmedy eta Waimes.

³⁹ Baelen, Plombières eta Welkenraedt.

⁴⁰ Ikusi J.-L. Fauconnier-en sailkapena, “Challenges of applying the European Charter for Regional or Minority Languages to a federal country: the Belgian example” hemen: R. Dunbar eta G. Parry (eds.), *The European Charter for Regional or Minority Languages: legal challenges and opportunities*, Council of Europe Publishing, Regional or Minority Languages, 5. zk., 2008, 147.-156. arteko or., 149.-151. or.

⁴¹ 1990eko abenduaren 24ko Dekretua, Frantses-hiztunen Komunitateko eskualdeko hizkuntza endogenoiei buruzkoa. Arrazoi nagusietako bat izan zen Belgikako Frantses-hiztunen Komunitatearen gobernuak Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna betetzea; aldiz, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Aritu Batzordeak (CAHLR), Gutunaren zirraborra berrikusteko agindua jaso ondoren, “hizkuntza ofizialaren dialektoak” baztertzea erabaki zuen.

Kontseilu horrek ordezkatu zuen Frantses-hiztunen Komunitatea, gai bera defendatzen duten nazioarteko elkargoetan.

CLREk frantsesaren eremuko “hizkuntza endogenoen” zerrenda geografikoak egin zituen. 2001eko ekainaren 20an onartutako lehen zerrendaren arabera,⁴² jatorriz hizkuntza edo dialekto erromantzeak daude –valoniera, pikardiera,⁴³ champagnera⁴⁴ eta gaumera edo lorrenera⁴⁵– edo germanikoa:⁴⁶ Moselleko (edo Luxemburgoko) frankoniera.⁴⁷ 2003ko urriaren 1ean, Meuse-Rhineko frankoniera (edo karolinjar frankoniera) gehitu zitzaion zerrendari,⁴⁸ eta ez dira barruan sartzen erripariera,⁴⁹ mendebaldeko nederlandera⁵⁰ edo brabantera.⁵¹ Hiru dialekto horiek hitz egiten dituzte aleman-hiztunek edo nederlandera-hiztunek “hizkuntza-aukerak ematen dituzten udalerrietan”, ez baitaude Frantses-hiztunen Komunitatearen hizkuntza-jurisdikzioaren barruan.

4.3.2. Flandria (nederlandarren eremua)

4.3.2.1. Frantsesa hizkuntza ofiziala beste hizkuntza-eremu batean

Nederlandarren eremuan ere “aukerak ematen dituzten udalerrien” bi multzo daude, beste hizkuntza-eremu baten aldamenean: sei udalerrri hizkuntza-mugan⁵² eta sei udalerrri Bruselaren periferian.⁵³ Kasu bietan, biztanle frantses-hiztunek administrazio-aukerak dituzte. Agintari federalen ardura da hizkuntza-estatus hori bermatzea, baina flandriar gobernuaren ardura da pro-biztanleko eta tokiko agintariek betetzen dutela ikuskatzea.

⁴² Liburuxka honetan argitaratua: *Le coq chante... il va vous réveiller. Vade-mecum Langues régionales en Communauté Wallonie-Bruxelles*, Brusela, Frantses-hiztunen Komunitatearen Ministerioa, Kultura Zuzendaritza Nagusia, Literatura eta Liburuaren Atala, Eskualdeko Hizkuntza Endogenoen Saila, 2002.

⁴³ Pikardiera hitz egiten da Hainaut-eko gehienean eta Valoniako Brabanteko eremu txiki batean: Ath, Mons, Mouscron/Moeskroen, Soignies (baina ez Ecaussines), Thuin (baina ez Anderlues, Froidchapelle, Gozée, Lobbes, Ham-sur-Heure/Nalinnes, Thuin), Tournai eta Rebecq.

⁴⁴ Champagnera hitz egiten da Bohan aldeko lau herritan, Frantziarekiko mugan: Sugny, Pussemange, Bagimont eta Membre-Bohan (Vresse-sur-Semois).

⁴⁵ Gaumera edo lorrenera hitz egiten da Gaumen (Virton barrutia) frantses-eremuaren hegoaldean.

⁴⁶ Hizkuntza eta dialekto frankoniarrek hizkuntza-talde germaniko bat osatzen dute mendebaldeko erdialdeko alemanaren barruan. Hizkuntzalari batzuek iritzi zabalagoa dute eta frankoniarren barruan daudela diote beheko alemanaren dialektoak (nederlandera, brabantera, linburgera, utrechtera, etab.) eta goiko alemanarenak (hegoaldeko reno-frankoniera eta ekialdeko frankoniera).

⁴⁷ Moselleko frankoniera da Luxemburgoko Dukerri Handiko hizkuntza nazionala. Frantses-eremuan hitz egiten da Arlon/Arelerland aldean eta Beho/Bochholz inguruan (Gouvy udalerraren baitan).

⁴⁸ Meuse-Rhineko frankoniera hitz egiten da Aubel-en, bai eta Plombières, Welkenraedt eta Baelen-en ere.


⁴⁹ Dialekto hau Waimes/Weismes-ko (“aukerak ematen dituen udalerrria”) zati batean hitz egiten den arren.

⁵⁰ Mendebaldeko nederlandera hitz egiten du Comines/Komen eta Mouscron/Moeskroen-go biztanleen gutxiengo batek (“aukerak ematen dituzten udalerrriak”, hizkuntza-mugan daudenak).

⁵¹ Brabantera hitz egiten du Enghien/Edingen-go populazioaren gutxiengo batek (“aukerak ematen dituen udalerrria”, hizkuntza-mugan dagoena).

⁵² Mesen/Messines, Spiere-Heikijn/Espierres-Helchin, Ronse/Renaix, Bever/Biévène, Herstappe eta Voeren/Fourons.

⁵³ Wemmel, Kraainem/Crainhem, Wezembeek-Oppem, Drogenbos, Linkebeek eta Sint-Genesius-Rode/Rhode-Saint-Genèse.



4.3. irudia: Belgikako hizkuntza ofizialen eta eskualdeko hizkuntzen dialektoak.^{54, 55}

Iturria: Jacques Leclerc, “L’Etat belge: données démolinguistiques” hemen: *L’aménagement linguistique dans le monde*, Quebec, TLFQ, Laval-go Unibertsitatea, 2007.

Ikusi web-orri honetan: http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/belgique_lng-regionales.htm.

4.3.2.2. Dialektoak

Dialektoak sarri erabiltzen dira eguneroko bizitzan. Hiru dialekto nagusi daude:

- Brabantera, sarri erabiltzen den Anberesko aldaerarekin.
- Nederlandera, bi aldera dituen: mendebaldeko eta ekialdeko nederlandera, brabanterarako trantsiziozune batekin.
- Linburgera, Herbehereetan “eskualdeko hizkuntza” dena.

Meuse-Rhineko frankoniera-hiztunak (karolinjiarrak) ere badaude sei ataletik lautan Voeren/Fourons udalerrian. Dialekto horiek ez dira ofizialak Flandrian, eta nederlandararen dialektotzat hartzen dira.

⁵⁴ Flandriako eta Bruselako probintzien izenak nederlandez (mendebaldetik ekialdera): West-Vlaanderen, Oost-Vlaanderen, Vlaams-Brabant, Brussel eta Limburg. Ingelesez: West Flanders, East Flanders, Flemish Brabant, Brussels eta Limburg. Frantses probintziak ingelesez: Hainaut, Walloon, Brabant, Namur, Liège eta Luxembourg.

⁵⁵ Mapako lerro berdeak hizkuntza-mugak dira. Lerro urdinak probintzien mugak dira. Hizkuntza germanikoak, goitik behera: mendebaldeko nederlandera, brabantera, linburgera, erripuariera, karolinjioa eta luxenburgera. Hizkuntza erromantzeak, goitik behera: valoniera, pikardiera, lorrenera eta champagnera.

4.3.3. Alemanaren eremua

4.3.3.1. Frantsesa hizkuntza ofiziala beste hizkuntza-eremu batean

Frantses-hiztunen gutxiengo txikiak administrazio-aukerak ditu alemanaren eremu osoan (bederatzi udalerriz osatua). Agintari federalak arduratzen dira hizkuntza-estatus hori bermatzeaz. Bestalde, hezkuntzako hizkuntza-erabileraren legedia Aleman-hiztunen Komunitatearen kontua da.

4.3.3.2. Dialektoak

Alemanaren eremuan ere aleman-hiztun askok hitz egiten dituzte frankonieraren aldaerak. Bereizketa bat egin beharra dago iparraldeko Eupen kantonamenduaren eta hegoaldeko Sankt Vith/Saint-Vith kantonamenduaren artean. Eupen kantonamenduan, Meuse-Rhineko frankoniera (karolinjioa) da aldaera nagusia; Alemaniarekiko mugaren ondoko Raeren udalerrian soilik hitz egiten da erripariera. Sankt Vith/Saint-Vith kantonamenduan, erripariera hitz egiten da Bütgenbach-en eta Büllingen/Bullange udalerraren iparraldeko barrutian, baina Moselleko (edo Luxenburgoko) frankoniera hitz egiten da beste leku guztietan.⁵⁶

Dialekto horiek ez dira ofizialak Aleman-hiztunen Komunitatean.

4.4. Belgika Gutunean sartzeko planak

Belgikak zergatik ez du oraindik izenpetu Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna? Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa ez berrestea beste kontu bat da, baina biak lotuta daude. Azalpenaren zati bat Gutunaren anbiguotasunak dira (4.4.1. atala), eta, horretaz gainera, Belgikako Konstituzio-legetik datozen zailtasunak (4.4.2. atala). Nederlanderaz eta alemanez hitz egiten duten komunitateen zalantzak ere hor daude (4.4.3. atala). Frantses-hiztunen Komunitatea izenpetzearen alde dago, baina horretarako agintari federalen eta komunitate guztien partaidetza beharko litzateke (4.4.4. atala).

4.4.1. Gutunaren anbiguotasunak

Gutunaren anbiguotasunak bi zailtasun-mota sortzen dizkio Belgikari: materialaren lausotasuna eta lurralde-esparrua.

⁵⁶ Amel/Ambève, Sankt Vith/Saint-Vith, Burg-Reuland eta Büllingen/Bullange-ren hegoaldea.



4.4. irudia: Valoniera eta Montzen-Welkenraedt eskualdeko frankonieraren aldaerak.⁵⁷

Iturria: Jacques Leclerc, “L’Etat belge: données démolinguistiques” hemen: *L’aménagement linguistique dans le monde*, Quebec, TLFQ, Lavalgo Unibertsitatea, 2008.

Ikusi web-orri honetan: <http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/belgiqueger.htm>.

4.4.1.1. Hitzak ez bereiztetik datozen zailtasunak

“Hizkuntza” hitzaren esanahia

Gutunak ez du “hizkuntza” hitza definitzen, baina 1. artikuluan zehazten da zeri esaten zaien “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak”. Estatu bateko biztanleek lurralde jakin batean erabili ohi dituzten hizkuntzak dira. Biztanle horiek osatzen duten taldea txikiagoa da estatuko gainerako biztanleria baino, eta hizkuntzak ez dira sartzan estatuaren hizkuntza ofizialen artean. Estatuko hizkuntza ofizialen tokiko aldaera edo dialektoak ez dira definizioaren barruan sartzan.⁵⁸

⁵⁷ Valoniera berdez agertzen da mapan. Honako hauek dira frankonieraren aldaerak (goitik behera): erripuariera, karolinjioa eta Moselleko frankoniera.

⁵⁸ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1a artikulua (ii).

Anbiguitasun hori nahita bilatua da.⁵⁹ Gutunaren azalpen-txostenak dioenez, tresnak “ez du iritzirik ematen askotan eztabaidatzen denaz, hau da, adierazpen-modu desberdinak nondik aurrera diren hizkuntzak. Era horretan, estatu bakoitzeko agintarien esku dago, bertako prozesu demokratikoen arabera, adierazpen-modu bat nondik aurrera den hizkuntza”.⁶⁰ Hala, estatu sinatzaile bakoitzaren esku dago dialektoak nondik aurrera diren hizkuntzak. Nolanahi ere, hainbat parlamentu dituen estatu batean erabaki kontraesankorrak har daitezke bertako hizkuntza endogenoen aitortpena egiterakoan. Horixe gertatu da Belgikan, non frantsesez hitz egiten duen komunitateak bakarrik eman dien hizkuntza-izaera bere eremu geografikoko dialekto nagusiei.

“Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak” esapiderearen esanahia

“Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak” esaldiak teorian baztertu egiten ditu estatu bateko hizkuntza ofizialak,⁶¹ baina estatuak bere berrespen- edo onespen-tresnan aukera dezake “lurralde osoan edo zati batean gutxi erabiltzen den hizkuntza ofizial bat”, estatuak aukeratutako III. zatiko xedapenak aplikatzeko.⁶² Hartara, Gutuna hizkuntza horri aplikatzea erabaki dezake estatuak.

Komunitate nagusiak elkarren ondoan bizi daitezten lurraldetasunaren printzipioa erabiltzen duen estatu batean, aukera hori arrisksua irudi dakieke hizkuntza-eremuak homogeenak izatearen alde daudenei. Horixe gertatzen da Belgikan. Konstituzioan agertzen den hizkuntza-lurraldetasunak estatuko hizkuntza ofizial bakoitza babesten du bere eremu geografikoan. Esate baterako bere eremuan nederlandera babestea frantsesaren nagusigo posibletik –soziokulturalki nagusi baita–, eta alemana babestea frantsesaren gailentasun demografikotik Lieja probintzian.

4.4.1.2. Lurralde-klausula bat ez egotearen zailtasuna

Azken xedapenen artean lurralde-klausularik ez sartzea erabaki zen, estatuek beren lurraldearen zati bat Gutunaren esparrutik atera ahal izateko. Izan ere, Gutunaren berezko ezaugarria da zenbait lurraldetan arreta ipintzea, hain zuzen ere eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direnetan; areago, estatu sinatzaileek erabaki dezakete, 3. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, ekintza zehatzak eskualdeko edo eremu urriko zein hizkuntzari aplikatu.⁶³

⁵⁹ Ikusi R. Dunbar, “Definitively interpreting the European Charter for Regional or Minority Languages: the legal challenges” hemen: R. Dunbar eta G. Parry (eds.), *The European Charter for Regional or Minority Language: legal challenges and opportunities*, Council of Europe Publishing, Regional or Minority Languages, 5. zk., 2008, 37.-61. arteko or., 46. or.

⁶⁰ Azalpen-txostena, 32. paragrafoa.

⁶¹ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1a artikulua (ii).

⁶² *Ibid.*, 3. artikulua 1. paragrafoa. Ikusi azalpen-txostenaren 51. paragrafoa.

⁶³ Azalpen-txostena, 134. paragrafoa.

1969ko maiatzaren 23ko Hitzarmenaren Legeari buruzko Vienako Konbentzioak dioenez, “hitzarmenak estatuaren lurralde osoan dira lotesleak”,⁶⁴ non eta besterik adierazten ez den akordio bereizi batean. Gutunean lurralde-klausularik ez dagoenez, beraz, hainbat parlamentu dituen estatuak ezin du berretsi, eta hartutako konpromisoa parlamentu batek eskumenak dituen lurraldera mugatzen da. Era horretan, Belgikak ezin du Gutunaren aplikazioa mugatu komunitate baten hizkuntza-eskumenaren eremura –esate baterako, frantsesez hitz egiten den eremura–, “aukerak ematen dituzten udalerriak” baztertuz.

Arazo hori konpontzeko, kontuan hartu behar ditugu Gutunak estatu kideei jartzen dizkien obligazioak III. zatia aplikatzeko: Gutunaren esanahiari jarraituz, bere lurraldean erabiltzen diren “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen” zerrenda egitea; beren banaketa geografikoa zehaztea; eta hizkuntza horiei aplikatuko zaizkien III. zatiko paragrafoak edo azpi-paragrafoak hautatzea.

Areago, II. zatiak –“orokorra denak eta estatu kide bateko eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei oso-osorik aplikatzen zaienak”–, “interpretatzeko eta aplikatzeko aukera zabalak ematen ditu”.⁶⁵ Agintari publikoak arduratzen dira Gutuna aplikatzeaz, “beren lurraldeko eremu jakin batean edo bere herritarren multzo jakin batek erabiltzen duen adierazpen-modua eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza den erabakitzeaz, Gutunaren esanahiari jarraiki”,⁶⁶ eta agintari federalek II. zatiaren esparrua zehaztu gabe berretsi lezakete hitzarmena.

Gutuna lurraldearen zati batean bakarrik aplikatzerik ez dagoen arren, azkenean berdin litzateke: Belgikak eskualdeko hizkuntza batzuei bakarrik aplikatuko lieke Gutuna, beren eremuan.

4.4.2. Belgikako Konstituzio-legearen zailtasunak

Belgikak Gutuna ez sinatzeko arrazoien artean, aipatu beharrekoak dira bere sistema federal konplexuak sortzen dituen zailtasunak.

4.4.2.1. Legegintzako eta nazioarteko eskumenen banaketa

Hizkuntza-eremu batean hitz egiten den hizkuntza “eskualdeko edo eremu urriko-tzat” hartzea, Gutunaren esanahiari jarraiki, komunitate horretxan ardura da, eta berak zehazten du hizkuntza horretako hiztunen banaketa tradizionala ere, bere eremu geografikoan. Agintari federalek eskumen berak dituzte Brusela Hiriburu elebidunean eta hizkuntza-eremu desberdinetan “aukerak ematen dituzten udalerrietan”.

⁶⁴ Hitzarmenaren Legeari buruzko Vienako Konbentzioa, 29. artikulua.

⁶⁵ Azalpen-txostena, 39. paragrafoa.

⁶⁶ Ibid., 40. paragrafoa.

Hizkuntza-eremu jakin batean “aukerak ematen dituzten udalerri” berriak izendatzea eta aukera horien edukia zehaztea ere Frantses- eta Niderlandera-hiztunen Komunitateen lana izango litzateke, baina hipotesi hori ez da batere errealista praktikan.

Belgikako Konstituzioan, dakigun bezala, komunitateek eta eskualdeek eskubidea dute hitzarmenak egiteko beren eskumenen barruan. Beraz, Europako Gutuna, Belgikako Konstituzio-legearen testuinguruan, hitzarmen “hibrido” bat da, komunitateei ez ezik agintari federalei ere badagokiena. Halako hitzarmenak bat etorri beharko luke estatu federalak, eskualdeek eta komunitateek 1994ko martxoaren 8an sinatutako lankidetzak-akordio konplexuarekin. Komunitateetako gobernuek baldintza beretan hartu beharko lukete parte eztabaidetan, Kanpo Arazoetarako Departamentu Federalaren “buruzagitza koordinatzailearen” pean; estatu federalaren ordezkariak eta hiru komunitateek sinatu beharko lukete hitzarmena; eta baimena eman beharko lukete zerikusia duten parlamentu-biltzarrek, baina estatuburuak bakarrik berretsiko luke hitzarmena.

4.4.2.2. Europako Kontseiluaren konbentzio baten ondorioa, Belgikako komunitate bakar bati buruzkoa

Horrek ez du automatikoki esan nahi Belgikako komunitateek Europako Gutuna sina lezaketarik. Europako Gutuna, beste ezer baino lehen, Europako Kontseiluaren barruan onartutako hitzarmen bat da. Erakunde horretako estatu kideak gai dira beren burua Gutunaren mende jartzeko ados daudela adierazteko, eta Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak Gutunean sartzera gonbidatutako kide ez diren estatuak ere bai. Baina, estatu federalen barruko unitateak ez direnez estatu kide ez hitzarmena sinatu ez duten Europako Kontseiluko estatu, ezin dira sinatzaile izan.

Zorionez, Belgikako legeak komunitateei eta eskualdeei aukera ematen die ministro federal edo Belgikako enbaxadore bati agintzeko hitzarmen “hibrido” bat sina dezan beren izenean. Horrek esan nahiko luke Belgikak Europako Gutuna sinatuko lukeela agintari federalen eta Belgikako komunitate guztien izenean. Sinatu aurreko eszenatoki horretan, dagokien erakunde guztien aginduak ziurtatu beharko lirateke.⁶⁷

Areago, nazioarteko erakunde bateko estatu kideek sinatzeko zabalik utzitako hitzarmen bat komunitate bakar bati baldin badagokio –eta horixe da, ikusiko dugun bezala, Frantses-hiztunen Komunitatearen eta Europako Gutunaren artean gertatzen dena–,⁶⁸ nola jokatu beharko lukete Belgikako agintariak?

⁶⁷ Kanpo Arazoetarako ministro K. De Gucht-en erantzuna, J. Arens parlamentarioak “eremu urriko luxenburrari” buruz egindako galderari: hitzez hitzeko aktak. Ordezkarien Ganberako Kanpo Harremanetarako Batzordea, 2005eko otsailaren 2ko batzarra (CRIV 51 COM 490, 21. or.), Europako Kontseiluaren itzulpena.

⁶⁸ Ikusi 4.4.4. atala, 58. orrialdean.

Beharrezkoa eta nahikoa da, nire iritziz, agintari federalek nazioarteko konpromisoa beren gain hartzea, komunitate horren izenean, Belgikako estatuak bakarrik sina baitezake Gutuna. Aldi berean, konponbide hori har daiteke baldin eta hitzarmenaren egileek aurrekusi badute bere esparrua murriz daitekeela dena delako komunitatearen mugetara. Berez, Gutunak ez du aukera hori ematen.⁶⁹ Ezinezkoa litzateke, hortaz, Belgikak Gutuna berrestea bere lurraldean eskualdeko hizkuntza endogenoak daudela aitortzen duen komunitatearen izenean bakarrik.

4.4.3. Niderlandera- eta Aleman-hiztunen Komunitateen zalantzak

4.4.3.1. Belgikan erabilitako dialektoen bazterketa

Nederlandarren Elkartek defendatzen duen printzipioari jarraiki,⁷⁰ Niderlandera-hiztunen Komunitatearen iritziz, nederlandarren eremuko hizketa-modu guztiak dialektoak dira. Horrek esan nahi du ez dutela zer ikusirik Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunarekin, ez baitaie aplikatzen estatu bereko hizkuntza ofizial baten dialektoei.

Hizkuntzalari frantses-hiztun batzuen arabera, jarrera horrek gehiago du ideologikotik zientifikotik baino. Linburgoko frankoniera jartzen dute adibide: Flandrian nederlandarren dialektoa da, baina “eskualdeko hizkuntza” Herbehereetako Linburgo probintzian, Herbehereek hala aitorturik Europako Kontseiluaren Idazkaritzako deklarazio batean. Niderlanderaren dialektoa ez baizik behe-alemanaren aldaera bat omen da.

Egia da alemanak beren nazio-nortasunaz beren hizkuntzan oihartzaren hasi ziren unean nederlandera estandarraren erabilera sustatzeak flandriarren nazio-sentimendua erne zuela.⁷¹ Flandriarrei dialekto-aldakerak horregatik iruditzen zaizkie iragan zail baten aztarnak, eta ez ondare aberatsa.

Belgikako Aleman-hiztunen Komunitateak antzeko jarrera du bere hizkuntza-errealitatean aurrean. Hori ere, itxuraz, faktore historiko-ideologikoengatik da.⁷²

Hala, bi komunitate horien ustez, beren lurraldeetan ez dago eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzarik, Gutunaren esanahiari jarraiki.

⁶⁹ Ikusi 4.4.1. atala, 52. orrialdean.

⁷⁰ Niderlanderaren Elkartea edo Taalunie nazioarteko erakunde bat da, Belgikak eta Herbehereek sortua.

⁷¹ Prudens van Duyse poeta flandriararen hitzetan, *De tael is gantsch het volk* (“hizkuntza da nazio osoa”), eta 1836an Ganteko literatura-elkarte baten izena bihurtu zen. Ikusi J. Stengers, *Les racines de la Belgique*, op. cit., 52. or. Ikusi *Nieuwe Encyclopedie van de Vlaamse Beweging*, Tielt, Lannoo, 3. lib., 1988, 3.046. or.

⁷² Lehen aipatutako liburuxka, *Le coq chante... il va vous réveiller. Vade-mecum Langues régionales en Communauté Wallonie-Bruxelles* (pasarteak: The Charter and Belgium).

4.4.3.2. Gutuna Flandriako frantsesari aplikatzearen beldurra

Belgikak bere independentzia aldarrikatu zuenetik, agintari publikoek sistematikoki sustatu dute hizkuntza ofizial(ar)en erabilera dialektoen kaltean, baina horrek ez du baztertzeko Gutuna hizkuntza horiei aplikatu ahal izatea. Ikusi dugun moduan, Gutunaren 3. artikulua posible egiten du estatuaren nazioarteko konpromisoaren barruan sartzea lurralde osoan edo zati batean gutxi erabiltzen den/diren hizkuntza ofizial bat edo gehiago.⁷³

Hortaz, flandriar agintarien jarrera ikusirik nederlanderaren eremuan “hizkuntza-aukerak” eskaintzen dituzten hamabi udalerrien aurrean,⁷⁴ Belgikak praktikan Gutuna aplikatu liezaiekeen hizkuntza ofizial bakarrak liriteke alemanaren eremuan frantsesa eta frantsesaren eremuan alemana, edo frantsesaren eremuan nederlandera. Horrek frantsesa diskriminatuko luke nederlanderaren eremuan, eta hori formalki debekatzeko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak⁷⁵ eta Belgikako Konstituzioak.⁷⁶

4.4.4. Frantses-hiztunen Komunitatearen ekimena

Europako Gutuna sinatzeko prest jarri zen Estrasburgon, 1992ko azaroaren 5ean. 1992an ere, Frantses-hiztunen Komunitateak, bere eremuan “eskualdeko hizkuntza endogenoak” zeudela aitortu berri zuenak, Belgikak Gutuna sinatu beharko lukeela adierazi zuen, eta bere gobernuaren politikaren deklarazio orokor batean ere aipatu zuen.⁷⁷

Frantses-hiztunen Komunitatearen Eskualdeko Hizkuntza Endogenoen Kontseiluak (CLRE) prestaketa-lanak ere egin zituen Belgikako estatuak Gutuna sina zezan,⁷⁸ Gutuneko paragrafo eta azpi-paragrafo batzuk azpimarratuz eta xedapen horiek Frantses-hiztunen Komunitateko eskualdeko zein hizkuntza endogenori aplikatuko litzaizkiekeen adieraziz.⁷⁹

Beste bi komunitateen zalantza ideologikoak eta hitzarmena gauzatzeko lege-zailtasunak ikusirik, Frantses-hiztunen Komunitateak ofizialki proposatu zuen Gutunaren III. zatiko 44 artikulua eta paragrafoen sorta bat, dialekto erromantzei soilik aplikatzeko: champagnera, lorrenera, pikardiera eta valoniera.

⁷³ Ikusi 4.4.1. atala, 52. orrialdean.

⁷⁴ Ikusi 4.1.3. atala, 43. orrialdean.

⁷⁵ Itunaren 26. artikulua.

⁷⁶ Belgikako Konstituzioaren 10. eta 11. artikulua.

⁷⁷ Horren berri, hemen: J.-L. Fauconnier, “Challenges of applying the European Charter”, op. cit., 154. or.

⁷⁸ Belgikako Batzordearen Hizkuntza Erromantzearen Batzordearekin (CROMBEL) lankidetzan, Gutxi Erabiltako Hizkuntzen Europako Bulegokoa.

⁷⁹ Gutunaren 22. artikulua arabera, estatu kideek konpromisoa hartzen dute gomendutako neurrietatik gutxienez 35 paragrafo edo azpi-paragrafo aplikatzeko, horietatik hiru Gutunaren muintetik hartuak (hezikuntza, kultura-jarduerak eta -zerbitzuak). Areago, 3.1. artikulua eskatzen du lurralde osoan edo zati batean hitz egindako eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak zein diren zehazteko.

Sistema federala hain konplexua zenez, pragmatikoagotzat jo zen une hartan aintzat ez hartzea Bruselan hitz egindako brabantararen thioisera.⁸⁰ Zerrendarekin batera, hizkuntza horiek “historia” duten eremu geografikoen deskripzio bat zihoan.⁸¹

Beste bi komunitateek beren lurraldeko dialektoak “eskualdeko hizkuntza endogenotzat” ez hartzeak ia pikutara bidali zuen egitasmo osoa, harik eta, 2000ko ekainaren 16an, CLREk gai horri buruzko foro bat egin zuen arte Namurren.⁸² Agintari federalekin eta beste komunitateekin berriro negoziatzen hasteko aukera izan zen. Azkenik, 2001eko ekainean, botere-maila guztietako ordezkariak Kanpo Arazoetarako Ministerio Federalean elkartu eta 38 paragrafo eta azpi-paragrafoko zerrenda egin zuten, soilik frantsesaren eremuan aplikatzeko.⁸³ CLREk proposatutako hizkuntza endogenoen zerrenda eta beren eremu geografikoen deskripzioa ere onartu zuten.

2002an eta 2003an, Frantses-hiztunen Komunitateko Kultura Ministerioak, CLREk bultzatuta, Luxenburgoko frankoniera eta Meuse-Rhineko frankoniera (karolinjioa) erantsi zizkion III. zatiko 38 xedapenak aplikatzeko hizkuntzen zerrendari.⁸⁴

Horretaz gainera, frantsesaren eremuan eskualdeko dialektoak zaintzeko politikaz harago, Arelerland-eko (Arlon eremua) luxenburgera-hiztunak oso interesatuta zeuden, eta daude, Europako Gutuna sinatzeko. Gutunaren babesak posible egingo luke Belgikako hizkuntza-legeek baztertutako biztanleria elebidun bat aintzat hartzea, bai eta Dukerri Handiarekiko ekonomia-harremanak sendotzea ere, muga zeharkatu eta haraxe joaten baitira biztanle asko lanera egunero.⁸⁵

2004an, Frantses-hiztunen Komunitateak Gutuna sinatzeko agindu exekutiboa eman zion Kanpo Arazoetarako Ministerio Federalari, baina Hitzarmen hori –1998an indarrean sartu zena, Europako Kontseiluko estatu kide batek bosgarren aldiz berretsi ostean–, Belgikak sinatu gabe dauka oraindik, batez ere Nederlandera-hiztunen Komunitatearen “interes-faltagatik”.⁸⁶ Baliteke komunitate horren

⁸⁰ Brusela Hiriburua eremu elebidunean, agintari federalak arduratzen dira hizkuntza-erabileraren estandarrak ipintzeaz (Konstituzioa, 129.2. artikulua *a contrario*).

⁸¹ Lehen aipatutako liburuxka: *Le coq chante... il va vous réveiller. Vade-mecum Langues régionales en Communauté Wallonie-Bruxelles* (pasarteak: The Charter and Belgium). Europako Kontseiluaren itzulpena.

⁸² Eztabaida horren aktak argitaratu egin ziren (*Parva Charta. Forum relative à la Charte européenne des Langues régionales ou minoritaires*, Brusela, Kultura Zuzendaritza Nagusia, Literatura eta Liburuen Atala, Eskualdeko Hizkuntza Endogenoen Departamentua) eta agintari federalei eta federatuei banatu zitzairen.

⁸³ Liburuxka honetan argitaratu zen zerrenda: *Le coq chante... il va vous réveiller*, op. cit.

⁸⁴ “Frankoniera”, kalifikatu gabe, *Parva Charta* Foroko aktetan aipatu zen.

⁸⁵ Ikusi J. Arens parlamentarioaren galdera, “eremu urriko luxenburgerari” buruzkoa, eta Kanpo Arazoetarako ministro K. De Gucht-en erantzuna, Ordezkarien Ganberaren Kanpo Harremanetarako Batzordean: hitzez hitzeko aktak, Ordezkarien Ganberaren Kanpo Harremanetarako Batzordea, 2005eko otsailaren 2ko saioa (CRIV 51 COM 490, 18.-20. or.).

⁸⁶ Kultura Ministro F. Laanan-en erantzuna Gazteriaren Batzordean R. Miller parlamentarioak egindako galderari, Belgikako Frantses-hiztunen Komunitateko Parlamentuko Kultura, Gaztedi, Ikus Entzunezko eta Prentsa eta

borondaterik ezaren arrazoia izatea “Belgikaren zati batean hitz egiten diren hizkuntza ofizial guztiei” Gutunaren aplikazioa zabaltzearen beldurra.⁸⁷ Izan ere, zirkulu politiko flandriar batzuei zenbaitetan leporatzen zaie nahasi egiten dutela Belgika Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean sartzea eta Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa berrestea.⁸⁸ Aleman-hiztunen Komunitateari dagokionez, berak ere Gutuna sinatzeko agindu exekutiboa eman dio Agintaritzza Federalari.



4.5. irudia: Frankonieraren aldaerak.⁸⁹

Iturria: Jacques Leclerc, “L’Etat belge: données démolinguistiques” hemen: *L’aménagement linguistique dans le monde*, Quebec, TLFQ, Laval-go Unibertsitatea, 2008.

Ikusi web-orri honetan: <http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/europe/francique-map.htm>.

Zinema Batzordearen aurrean, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna dela eta: *Kultura Batzordearen hitzez hitzeko aktak*, 2006ko maiatzaren 4ko batzarra (63. CRlc-Kult. 12. saioa. 2005-6, 2.6, 10. or.).

⁸⁷ Gutunaren 3.1. artikulua.

⁸⁸ Ikusi J.-L. Fauconnier, “Challenges of applying the European Charter”, op. cit., 154. or.

⁸⁹ Ezkerretik eskuinera: linburgera, karolinjioa, erripariera, luxenburgera, Moselleko frankoniera eta rheinlandiera.

4.5. Ondorioa

Ez da pentsaezina Belgikak –Europako Kontseiluaren estatu sortzaileetako batek–, egunen batean Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berrestea. Nolanahi ere, hartutako konpromisoak ez zaizkie egokituko “estatuaren zati batean kontzentraturik egon arren eskualde horretako hizkuntza nagusikoa baino txikiagoa den hiztun-taldeen hizkuntzei”,⁹⁰ hizkuntza-gutxiengoek hitz egiten dituzten hizkuntza ofizialak ez direlako, *stricto sensu*, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza” Gutunarentzat.

Belgikako iparraldeak iritziz aldatzen ez duen artean, herrialdeak nekez aukeratu du Europako Gutunaren 3.1. artikulua, hau da, testuaren aplikazioa frantses eta aleman ofizialetara zabaltzea, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa berrestez eman ditugun arrazoi berdinengatik.⁹¹ Belgikako estatua Gutunaren sisteman sartzearen ondorio bakarra izango litzateke frantsesaren eremuko biztanleen dialektoak babestea.

⁹⁰ Azalpen-txostena, 18. paragrafoa.

⁹¹ Ikusi 4.1. atala, 41. orrialdean.

5. Baltikoko estatuen kasua

SNEZANA TRIFUNOVSKA¹

Nijmegen-go Unibertsitatea (Herbehereak)

Eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzak gutxiengoen nortasunaren zati garrantzitsu bat dira eta, aldi berean, Europako eta munduko kultura-ondarearen zati bat. Horregatik, beren babes legala axola handiko kontua da. Europako Kontseiluak 1992an onartutako Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (Gutuna) da “Europako hizkuntza-aniztasunaren aurrean, nazioz haraindiko arauak sortzeko azkenaldian egindako ahaleginen islarik garrantzitsuena”.² Gutunaren helburu nagusia da hizkuntzak babestea, gutxiengoena soilik ez baizik Europa osoaren altxor gisa, gutxiengoak diren arren babes horren onuradun zuzenak.³

Eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzak hainbeste direnez Europan (Europar Batasuneko 27 estatu kideetan bakarrik, 60tik gora hizkuntza autoktono daude), badirudi Europako estatu guztiak berretsi beharko luketela, eta haren obligazio lotesleak betearazi. Dena dela, 1992an hasi (orduan onartu zen Gutuna) eta 2009 arte, estatu gutxi erantzun diete obligazio horiei. 2009ko apirilaren hasiera bitartean, Europako Kontseiluko 24 estatu kideak berretsi zuten Gutuna, eta bederatzi estatuk sinatu zuten (baina ez berretsi).⁴ Berrespen gutxi dira, konparatzen badugu Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoarekin, 1995ean sinatzeko prest ipini eta 2009ko apirilaren hasiera bitartean 39 estatuk berretsi baitzuten.

Baltikoko hiru herrialdeak –Estonia, Letonia eta Lituania– oraindik Gutuna berretsi ez dutenen artean daude.⁵ Era berean, Baltikoko estatuek beren egoera berezia dute gutxiengoei dagokienez. Batetik, xx. mendeko gertaera historikoengatik izan da: batez ere errusiarrek ziren etorkin asko errepublika

¹ Snezana Trifunovska Zuzenbide Fakultateko irakasle laguntzailea da Radboud unibertsitatean, Nijmegen-en.

² P. Kraus, “A one-dimensional diversity? European integration and the challenge of language policy” hemen: X. Arzo (ed.), *Respecting linguistic diversity in the European Union*, Sarrera, 2008, 85.-103. arteko or., 89. or.

³ Ikusi Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Azalpen-txostena, 11. paragrafoa.

⁴ Albania, Andorra, Belgika, Bulgaria, Estonia, Georgia, Grezia, Irlanda, Letonia, Lituania, Monako, Portugal, San Marino eta Turkiak oraindik ez dute Gutuna sinatu edo/edo onartu. Sinatu dutenak dira Azerbaijan, Bosnia eta Herzegovina, Frantzia, Islandia, Italia, Malta, Moldavia, Errusia eta “Mazedoniako Jugoslaviar Errepublikak Ohia”.

⁵ Errusiar Federakundea izan ezik, Baltikoko estatuen inguruko herrialde guztiak (Danimarka, Finlandia, Norvegia, Polonia eta Suedia) Gutunaren barruan daude. Errusiak 2001ean sinatu zuen Gutuna, baina oraindik ez du berretsi.

horietara iritsi eta bertan jarri ziren bizitzen; eta, bestetik, 1991n burujabetza berrezarri ondorengo ibilbide politikoagatik. Artikulu honetan Baltikoko estatuek Gutuna berresteko problema posible batzuk adieraziko ditugu, eta Gutunaren ezaugarri batzuk eta esperientzia batzuk aipatuko ditugu, Baltikoko estatuak nahiz beste estatu batzuk Gutunera ez biltzeko arrazoiak izan daitezkeenak.

5.1. Baltikoko estatuen hizkuntza-politika

Baltikoko estatuen eremu urriko hizkuntzak eta hizkuntza-politika dela eta, aipatzekoak dira ezaugarri hauek: eremu urriko hizkuntzen tamaina eta hiztun-kopuru antzekoa, herrialdeen historia antzekoa eta kezka antzekoak.

5.1.1. Baltikoko estatuen arteko antzekotasunak

Baltikoko hiru estatuetako bakoitzean 10 edo gehiago dira eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzak. Estonian eremu urriko 12 hizkuntza daude, biztanleriaren %34, eta talderik handiena errusiera-hiztunena da (%28,1). Biztanleriaren %65ek hitz egiten du estoniera. Letonian egoera larriagoa da: eremu urriko 11 hizkuntza, biztanleriaren %43,7. Letonieraz egiten dutenak %55,5 dira (1.365.047 pertsona), baina errusiera-hiztunak biztanleriaren ia herena dira (%32,4). Lituaniak eremu urriko 10 hizkuntza ditu, baina biztanleriaren %18 besterik ez dira. Ez da hutsaren hurrengoa, baina Baltikoko beste bi estatuetan baino dezente gutxiago da.

xx. mendean, Estonia, Letonia eta Lituaniako historiak antzekoak izan dira. Estatu independente moduan irten ziren Lehen Mundu Gerratik; 1940an SESBek legez kanpo okupatu eta beretu zituen; Bigarren Mundu Gerraren ondoren aldateta demografiko antzekoa izan zuten, errusiar ugari heldu baitziren bertan bizitzera; eta hirurek 1991n berreskuratu zuten independentzia, Sobietar Batasuna zatitzean. Horregatik, normalean hirurak batera aipatzen dira, nahiz eta desberdintasun handi samarrak dauden beren artean.⁶

Hamarnaka urtez antzekoak izan direnez beren historia eta demografia-aldaketak (aro sobietikoan) hiru herrialdeetan antzekoak dira –baina ez berdinak– gutxiengoei buruzko erronkak eta kezkak.

⁶ Baltikoko estatuetan gehiengoaren hizkuntza ez da berdina (estoniarrek suomierarekin lotutako hizkuntza fino-hungariar bat hitz egiten dute, baina letoniera eta lituaniera Baltikoko hizkuntzak dira, hizkuntza indoeuroparren beste adar bat), eta erlijioa ere ez (Letonia eta Estonia batik bat protestanteak dira, eta Lituania gehienbat katolikoa).

5.1.2. Konstituzioak eta herritartasuna

Beren independentziaz geroztik, Letonia, Lituania eta Estoniak hizkuntza-politika zorrotza jarraitu dute: hizkuntza ofizial bakarra, eta beren lurraldean hitz egindako beste edozein hizkuntzari aitortpen ofizialik ez.⁷ Europar Batasunean, beste lau herrialdek bakarrik dute hizkuntza ofizial bakarra (Bulgaria, Frantzia, Grezia eta Polonia). EBko beste estatu guztiek estatusen bat ematen diete ofizialak ez diren beste hizkuntzei. Zenbait estatutan, hizkuntza batzuk koofizialak dira udalerrri jakin batzuetan, esate baterako Austria, Txekiar Errepublikak, Alemania, Hungaria, Portugal, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Suedia eta Erresuma Batuan. Espainian, Danimarkan, Herbehereetan eta Italian, hizkuntza koofizialak daude eremu geografiko batzuetan.⁸ Hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten beste adibide batzuk ere badaude. Idazle batzuen arabera, Belgika “hizkuntza-federazio” bat da, eta Zipre, Finlandia, Irlanda, Luxenburgoko eta Malta elebidunak edo eleaniztunak dira.⁹

Baltikoko estatuaren konstituzioetan gutxiengoaren hizkuntza-eskubideei buruzko xedapen gutxi daude, eta nazioko legeek erabakitzen dituzte arau zehatzak. Letoniako Konstituzioak dioenez, gutxiengo etnikoetako kideek beren hizkuntza eta etnia- eta kultura-nortasuna zaintzeko eta garatzeko eskubidea dute.¹⁰ Ildo beretik, Lituaniako Konstituzioan, komunitate etnikoetako herritarrek beren hizkuntza, kultura eta ohiturak sustatzeko eskubidea dute.¹¹ Estoniako Konstituzioak xedapen orokorragoa dauka: edonork “izango du bere etnia-nortasuna zaintzeko eskubidea”,¹² gutxiengoaren hizkuntzak sustatzea aipatu gabe. Bi xedapenetan, besterik gabe debekatu egiten da hizkuntzagatik diskriminatzea, *inter alia*, edonork du eskubidea estonieraz ikasteko eta gutxiengoaren ikastetxeetako hizkuntza ikastetxeek berek hautatuko dute.¹³ Areago, tokiko agintariak gutxiengoaren hizkuntzak erabiltzea xedatzen du, baldin eta barrutiko biztanleen erdia gutxienez gutxiengo etniko batekoak badira, edo biztanle gehienek hizkuntza estoniera ez beste bat bada.¹⁴

Letonia eta Estoniaren gutxiengoekiko hizkuntza-politika murriztailea, hein handi batean, herritartasun-legeetan islatu zen. Herrialde horietan, herritarta-

⁷ Ikusi 1992ko Estoniako Konstituzioa, 1. kapituluak, 6. eta 52.1. artikulua; 1922-1991ko Letoniako Konstituzioa, 1998an zuzendua, 4. artikulua; eta 1992ko Lituaniako Konstituzioa, 14. artikulua.

⁸ P. Juaristy, T. Reagan eta H. Tonkin, “Language diversity in the European Union” hemen: X. Arzo, *Respecting Linguistic Diversity in the European Union*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 2008, 47.-72. arteko or., 63.-67. or.

⁹ *Ibid.*

¹⁰ 1998ko Letoniako Konstituzioa, 114. artikulua.

¹¹ 1998ko Lituaniako Konstituzioa, 37. artikulua.

¹² 1998ko Estoniako Errepublikako Konstituzioa, 49. artikulua.

¹³ *Ibid.*, 12. eta 37.4. artikulua.

¹⁴ *Ibid.*, 51.2. eta 52.2. artikulua.

suna independentzia berrezartzearen zutabetzat hartu zen.¹⁵ Hala, herritartasun-politika eskusibo bat sortu zen 1940 aurreko errepublikako herritarrentzat eta beren ondorengoentzat; aldiz, beste guztientzat, naturalizatzeko prozeduraren barruan hizkuntza ofiziala jakiteko eskakizun zorrotza zegoen. Politika horren sustrai historikoak Sobietar Batasun ohiaren aroko aldaketa demografikoetan daude. Independentzia aldarrikatu ondoren errusieraz egiten zuten biztanle askok jarraitu zuten herrialde horietan, eta horrek beldurra sortu zuen biztanleriatalde nagusien artean –estoniarren eta letoniarren artean–, alegia ez ote ziren gutxiengo bihurtuko beren lurraldean, beren nortasunari eusteko gaitasunik gabe.¹⁶ Arrisku horri aurre egiteko, Estonia eta Letoniako gobernu eta parlamentuek erabaki zuten errusiar-hiztunei herritartasuna oso erraz ez ematea, salbu eta 1939 aurretik bertan bizi zirenei eta beren ondorengoei.¹⁷ Estonian, jarrera horrek jarraipen zabala izan du berrezartzaileen artean.¹⁸ Oso antzekoa da garai batean Europan gertatutako naziogintza, batez ere hizkuntzan oinarritua,¹⁹ hizkuntza beraren erabilera izan baitzen nazio-estatu bakoitzaren tresna eta ikurra; baina Estoniak eta Letoniak gutxiengoei emandako trataera politikoak ez zuen berdinik Gerra Hotzaren osteko Europan.

Herritartasun-legeen hizkuntza-eskakizun handien ondorioz, herritartasunik gabe geratu dira sobietar herritarrak izandako asko, batik bat errusiera-hiztunen artean.²⁰ 2002-03an, Estoniak 275.000 egoiliar inguru zituen, eta Letoniak 525.000 inguru, herrialdeko herritartasunik gabe, atzerritarren edo legez kanpoko etorkinen estatusarekin, “naturalizatzea erabakitzen duten arte, 1940 aurretik herritar zirenek eta beren ondorengoei (batez ere estoniarrek eta letoniarrek) jarritako baldintzen arabera”.²¹ Bozkatzeko eskubiderik gabe, Estoniako eta Letoniako errusiera-hiztunek aukera gutxi zituzten hizkuntza-lege murriztaileetan eragirik izateko, besteak beste lanerako hizkuntza-eskakizunetan eta eremu batzuetan estatuko hizkuntzaren derrigorrezko erabileran.²²

¹⁵ N. Kasatkina, G. Kadziauskas eta K. Sliavaite, “Ethnic minorities and public policy: the case of Lithuania” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International obligations and national debates: minorities around the Baltic Sea*, 2006, 347.-396. arteko or., 358.-359. or.

¹⁶ M. van der Stoep, Gutxiengo Nazionalen arloko ESLAko goi-komisario ohiaren hitzaldia, “Minorities, Human Rights and the International Community”, Estrasburgo, 1995eko uztailearen 7an.

¹⁷ *Ibid.*

¹⁸ 1991n independentzia berreskuratzean, Estoniak adierazi zuen ez zela estatu berria, baizik eta gerra aurreko Estoniako estatu berrezarria. Berrezarpenaren aukera politikoaren bidez justifikatu zen Herritartasun Lege zorrotza, gutxiengoetako partaide askori estoniar herritartasuna kendu ziena.

¹⁹ X. Arzo (ed.), *Respecting linguistic diversity in the European Union*, Sarrera, 2008, 4. or.

²⁰ V. Pettai, “Ethnopolitics in constitutional courts: Estonia and Latvia compared”, *East European Constitutional Review*, 11/12 lib., 4/1 zk., 2002ko negua/2003ko udaberria, online eskuragarri hemen: www1.law.nyu.edu/eecr/vol11_12num4_1/focus/pettai.html. Letoniara egindako bisitaldi batean, Knut Vollebeak, Gutxiengo Nazionalen arloko ESLAko goi-komisarioak azpimarratu zuenez, 2008ko apirilaren 23ko ESLAren prentsa-komunikazioa. 2008ko apirilaren 23ko ESLAren prentsa-komunikazioa.

²¹ V. Pettai, “Ethnopolitics in constitutional courts: Estonia and Latvia compared”, *op. cit.*

²² B. Tsilevich, “Development of the language legislation in the Baltic states”, *International Journal on Multicultural Societies* (2001), 3. lib., 2. zk., 137.-154. arteko or., 150. or.

Lituania desberdina da horretan. Lituaniako herritartasun-legeak gutxiengoe-tako kideak diskriminatzen zituen xedapen batzuk zeuzkan arren,²³ ez zeukan Estoniako eta Letoniako legeek bezain hizkuntza-eskakizun zorrotzik. Horregatik, eta Lituaniar bizi ziren gutxiengoen ehunekoa askoz apalagoa zelako ere bai, ez zen herritar ez zirenen problemarik egon.

5.2. Ez berresteko arrazoi zehatz batzuk

Estatu baten subiranotasunaren eta bere aukerako botereen barruan dago hitzarmen bat onartzea eta berrestea. Estatuak beren nazio-interesen arabera erabakitzen dute hitzarmen lotesle bati atxikitzea edo ez. Horixe gertatu da Gutunarekin ere. Gutuna berretsi ez duten herrialde gehienetan faktore politikoak izan dira tarteko, baina bestelako faktoreak ere egon dira. Dena dela, estatuak adierazten ez badu behintzat, zail samarra da Gutuna ez berrestearen arrazoiak jakitea. Hori da Estonia, Letonia eta Lituaniaren kasua. Erakunde ofizialek inoiz ez dute oso argi erakutsi Gutunaz zer iritzi duten, nahiz eta politikari batzuen iritzi, berresteak eragin kaltegarria eduki lezake barruko egoeran.

Letonian, berrestearen gaia ez da oso aintzakotzat hartu. Brigita Zepa-k eta Arturs Kucs-ek diotenez, ez gobernua ez gutxiengoetako kideek ez dute interes handirik azaldu arazoari buruz eztabaidan hasteko. Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa berresteari buruzko eztabaidaren barruan soilik aipatu zen Gutuna.²⁴ Hitzarmen Markoa berresteko behar izan ziren hamar urteetan zehar, bi desadostasunen inguruan egon zen eztabaida: a) “gutxiengoa” hitzaren esanahia eta nori aplikatuko litzaiokeen, eta b) Hitzarmenaren xedapenak hizkuntza-eskubideei buruz (hala nola tokiko agintariekin komunikatzea, izen-abizenak, kaleko seinaleak eta jarraibideak eremu urriko hizkuntza batean erabiltzeko eskubidea).²⁵ Letoniak Hitzarmen Markoa berrestea erabaki arren, Letoniako herritarrei soilik aplikatu zien, eta ez herritartasunik gabeko egoiliarrei.²⁶ Horrek erakusten du gutxiengoen gaiak zenbateraino hartzen diren kon-tuan Letonian.

Lituaniar, gutxienez bi oztopo larri egon dira Gutuna berresteko. Lehenbizikoa, 1989ko Gutxiengo Nazionalen Legean eta 1995eko Estatuko Hizkuntzaren Legean dauden hizkuntzei buruzko xedapen tirabiratsuek.²⁷ 1989ko legearen

²³ Ikusi Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen Res(2003)11 Ebazpena, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoaz Letoniak egindako ezarpena dela eta, 2003ko abenduaren 10ean onartua, 1. paragrafoa, 2. puntua.

²⁴ B. Zepa eta A. Kucs, “The case of Latvia” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International Obligations and National Debates: Minorities around the Baltic Sea*, 2006, 301.-345. arteko or., 327. or.

²⁵ *Ibid.*, 329.-330. or.

²⁶ Ikusi 2005eko ekainaren 6ko Letoniaren berrespen-tresnako erreserba, hemen eskuragarri: <http://conventions.coe.int/Treaty/Commun/Listedeclarations.asp?NT=157&CM=8&DF=6/9/2009&CL=ENG>.

²⁷ N. Kasatkina, G. Kadziauskas eta K. Sliavaite, “Ethnic minorities and public policy: the case of Lithuania” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International obligations and national debates: minorities around the Baltic Sea*, 2006, 347.-396. arteko or., 368. or.

arabera, estatuko hizkuntzarekin batera eremu urriko hizkuntzak erabiliko dira erakundeetan, nazio-gutxiengoetako pertsonen kopuru handi bat bizi den eremuetan. Aldi berean, Estatuko Hizkuntzaren Legeak estatuko eta tokiko gobernuaren instituzioak, bulegoak, enpresak eta erakundeak behartzen ditu estatuko hizkuntza erabiltzera elkarri idazteko, bai eta txostenak eta finantza-agiriak eta agiri teknikoak egiteko ere.²⁸ Beste oztopo bat, ustez larriagoa, Gutunaren 10. artikulua da, Administrazioan eta zerbitzu publikoetan eremu urriko hizkuntzak erabiltzeari buruzkoa. Bertan obligazio zehatzagoak markatzen dira Lituaniak 2000ko martxoan berretsitako Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoan baino, eta, beraz, Lituaniako agintariek nahiago dute *status quo*-ari eutsi.²⁹ Horretaz gainera, Lituaniako politikarien beldurra da Gutuna berretsi ahal izateko aldatu beharra legokeela estatuko hizkuntzaren estatusa, eta Gutuna ezarriz gero, eremu eta udalerrri batzuetan, adibidez Salcininkai-n, lituaniera bigarren mailara igaroko litzateke.³⁰

“Gaur egungo Estoniako politika etnikoan, hizkuntzaren gaia da eztabaidagarriena.”³¹ Tokiko adituek luzaroan jaramonik ez edo gogor egin zioten Gutuna berrestearen auziari.³² Akademiko batzuk Estonia Europar Batasunean sartzearen aurka ere bazeuden, Gutuna berresteko presiotik libratzeko.³³ Beren ustez hainbat ondorio kaltegarri izango zituen, denetan garrantzitsuena errusiera eremu urriko hizkuntza historikotzat hartzea. Horrela, errusiera bigarren hizkuntza ofiziala bihurtzeko eskaera sor zitekeen eta, hortik, Estoniako lurralde gehiena elebiduna izatea.³⁴ Izan ere, Estonian, Letonian bezalaxe, errusiarren posizioa oraindik ere kezka handia da Estoniaren osotasunerako. Errusiarren gutxiengoa da handiena, biztanleria osoaren (1.370.052) %25,6.³⁵ Nolanahi ere, errusiar-hiztunen taldea askoz handiagoa da, barruan baitaude ukrainar, bielorrusiar eta judu ugari. “Denei esaten zaie ‘errusiar-hiztunak’, nortasun-arazo antzekoak dituztelako eta bizi diren herrialdeetako hizkuntza-politika ofizialei aurre egin behar dietelako”³⁶

²⁸ Ibid.

²⁹ Ibid.

³⁰ Ibid.

³¹ V. Poleshchuk eta J. Helemäe, “Estonia: in quest of minority protection” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International obligations and national debates: minorities around the Baltic Sea*, 2006, 109.-170. arteko or., 134. or.

³² Ibid., 136. or.

³³ Ibid., 137. or.

³⁴ Ikusi Martin Ehala-ren kritika, ibid., 137. or.

³⁵ 2000ko errolda. Etniaz estoniarrak dira biztanleriaren %67,9. Beste taldeak txikiagoak dira: ukrainarrak %2,1 (29.012); bielorrusiarak %1,3 (17.241); finlandiarrak %0,9 (11.937); besteak %2,2 (30.565).

³⁶ “Minorities and majorities in Estonia: problems of integration at the threshold of the EU”, ECMI, 2. txostena, 1999ko martxoa.

5.3. Gutunaren berezko problemak

John Dunn-ek lau arrazoi ematen ditu Estoniak Gutuna ez berresteko: a) separatismoari beldurra; b) ekarriko lukeen gastuaren kezka; c) gutxiengoekiko politiken kanpoko segimendurik nahi ez izatea, segimendua egiten duen erakundeak esan baitezake Gutuna ez dela betetzen; eta d) lege-amarruren batengatik Gutunaren eragina etorkinen hizkuntzetara ere zabaltzearen kezka.³⁷ Dena dela, badirudi lau arrazoi horiek oso orokorrak direla eta Estoniak ez ezik Letoniak eta Lituaniak ere jarritako aitzakiak izatea batzuk. Galdera interesgarria da Gutunak halakorik bultzatzen ote duen. Ondorengo azterketan separatismoaren beldurra eta Gutunaren barruan lege-amarruren bat ote dagoen jorratuko dugu, horiek baitira ez berresteko arrazoi nagusiak.

5.3.1. Berrestearen kostua

Gutuna ezartzearen kostuari dagokionez, hain handia den galde liteke. Orain arte bidalitako estatu-txostenen arabera (Gutunaren 15. artikulua betez), ez da hainbestekoa izan, nahiz eta batzuek, adibidez Armeniak, finantza-arazoak izan dituzten. Berresteko zalantzan dauden estatuentzat, zaila da aurrez neurtea hizkuntza-aniztasuna tratatzeko konpromiso orokorraren ondorioak, edo hezkuntza-sisteman eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak irakastea bezalako obligazioen kostu zehatza.³⁸

Gutuna ezartzeko neurri zehatzak hartu arte ez da argitzen egoera. 2008ko otsailan bidalitako bigarren txostenean, Armeniak Gutuna ezartzeko diru-arazoak aipatu zituen (eskolak berritzea, inprimatzeko aukerarik edo langile nahikorik ez izatea eskoletan...), lehenbiziko txostena igorri zenean ezezagunak zirenak.³⁹ Beraz, gastuen kezka ez da oso arrazoi sendoa Gutuna ez berresteko,⁴⁰ “ezartzearen kostuak neurtzeko zailtasuna oztopoa izan daiteke gobernuak neurriak hartzeko eta nazioarteko halako tresnetan parte hartzearen obligazioak betetzeko”.⁴¹

Bestalde, pentsa liteke eremu urriko hizkuntzen eremuko gastuen zati handi bat estalita dagoela Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa ezartzearen barruan, Gutuneko estatu kide guztiak lotzen baititu Hitzarmen

³⁷ Ikusi J. Dunn, Estoniako parlamentario baten hitzak jasoz hemen: “The Slavonic languages and European Charter for Regional or Minority Languages”, Eslavisten XIV. Nazioarteko Kongresuan aurkeztutako agiria, Ohrid, Mazedonia, 2008ko irailak 10-16, online eskuragarri hemen: www.rees.ox.ac.uk/_data/assets/pdf_file/0007/8809/Papers_to_be_presented_at_the_XIV_International_Congress_of_Slavists.pdf.

³⁸ F. Grin, “Evaluating policy measures for minority languages in Europe: towards effective, cost-effective and democratic implementation”, ECMI, 6. txostena, Flensburg, Alemania, 2000ko ekainak 23-24, 7. or.

³⁹ Armeniako Errepublikaren 2. aldirikako txostena, 2008ko otsailak 15 (MIN-LANG/PR (2008) 3, 3. paragrafoa.

⁴⁰ Ikusi J. Dunn, Estoniako parlamentario baten hitzak jasoz hemen “The Slavonic languages and European Charter for Regional or Minority Languages”, op. cit., online eskuragarri.

⁴¹ F. Grin, “Evaluating policy measures for minority languages in Europe: towards effective, cost-effective and democratic implementation”, ECMI, 6. txostena, Flensburg, Alemania, 2000ko ekainak 23-24, 7. or.

Markoak ere. Ez da erraza esatea Estoniak kostuaz duen kezka funtsik duen, baina gobernuek dezenteago laguntza jasotzen dute beren programak abiarazteko, eta Estonia ez da salbuespena. Estatuko Integrazio Programa eta hizkuntzen irakaskuntza abiarazteko, Estoniak laguntza eskuratu zuen Europar Batasunetik eta banakako zenbait estatutatik (Finlandia, Suedia, Erresuma Batua, Kanada, Norvegia eta Danimarka).⁴² Era berean, 2008-09an mundu osoan hasitako finantza- eta ekonomia-krisi larriaren eta atzeraldiaren ondorioz, Letoniak eta Estoniak ziur asko ezingo liokete aurre egin beste inolako gasturi.

5.3.2. Segimenduaren zama

Kanpoko segimendua saihestu nahi izateak zerikusia izan lezake, baina ez oso handia, Gutuna berresteko edo ez berresteko erabakian. Gutunaren barruko segimenduak gainbegiratze-mekanismo sendo samarra sortu du, eta gobernuek ez dute aukera handirik beren obligazioetatik itzartzeko. Gutuneko idazkaritzaburu Alexey Kozhemyakov-en arabera, Ministro Batzordeak onartutako gomendioak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteari eta sustatzeari buruzkoak izaten dira, baina horrek ez du esan nahi beste obligazioak bazter daitezkeenik. Aurreko segimenduaren gomendioak errepikatzearen poderioz, Ministro Batzordeak mezu argia bidaltzen die agintariari, hau da, egoera onera aldatzeko ahalegin sendoagoak eta premiazkoagoak egitea.⁴³

Pentsa liteke estatuak Gutunaren segimendurik nahi ez izatearen arrazoia nagusi bat dela “egia deserosorik entzun behar ez izatea”⁴⁴ eta ageriko kritikarik ez jasotzea, baina horrek ez du hainbesteko garrantzirik. Giza eskubideei buruzko hitzarmen gehienek dituzte Gutunaren antzeko gainbegiratze-sistemak, eta hori sekula ez da arrazoitzat eman hitzarmen horiek ez berresteko. Beraz, estatuak hitzarmenen kide ez izan arren, beren giza eskubideen politikari segimendua egiten zaio eta arreta eskaintzen zaio nazioartean. Gutunaren helburua kulturala den arren, onuradunak hizkuntza-gutxiengoetako kideak dira eta, beraz, giza eskubideen dimentsioa ezin da albo batera utzi. Horrek esan nahi du hizkuntza-eskubideen urraketa nabarmenez ohartu eta nazioarteko komunitateak erantzun eta neurriak har litzakeela, beste mekanismo batzuk erabiliz.

⁴² 1996an hasi eta 2004an bigarren txostena bidali arte, Estoniak 156 milioi kroon inguru jaso zituen Europako Batzordetik. Ikusi Estoniak bidalitako 2. txostena, 2004ko uztailearen 16ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoko 25. artikulua 1. paragrafoari jarraituz (ACFC/SR/II(2004)009).

⁴³ A. Kozhemyakov, “The European Charter for Regional or Minority Languages: ten years of protecting and promoting linguistic and cultural diversity”, *MUSEUM International*, 60. lib., 3. zk. (2008), 26-36. arteko or., 33. or.

⁴⁴ Giza Eskubideen komisarioaren iritzia, 2008ko apirilak 14.

Ikusi: <http://74.125.77.132/search?q=cache:UliZyQQlrW8j:www.coe.int/t/commissioner/Viewpoints/080414en.asp+reason+to+avoid+international+monitoring&cd=l&hl=nl&ct=clnk&gl=nl>.

Gobernuek txostenak sarri samar prestatu beharrak ere –hiru urtez behin– zerkusua izan lezake. Txostenak egiteaz gain, etengabeko lana egin behar da Aditu Batzordearekin: harremanak, tokian tokiko bisitaldiak, gobernuaren erantzuna prestatzea ebaluazioen aurrean, eta abar. Orain arteko esperientziak erakutsi duenez, segimendu-sistemak ongi samar funtzionatzen du, arazo larririk gabe. Estatuak ez dute arazo nabarmenik txostenak garaiz prestatzeko; atzerapenak egon diren kasu bakar batzuetan, zentzuzko konponbideak aurkitu dira. Konparazio batera, estatu kide bati aldizkako txosten gehiago aurkezteko denbora eman zitzaion, Ministro Batzordearen gomendioak onartu eta urtebeteko epean.

5.3.3. Separatismoaren beldurra

Separatismoaren beldurra arrazoi larria izan daiteke Gutuna ez berresteko, eta arreta handiagoa eskatzen du. Gutxiengoen posizio legala sendotzeak eta beren nortasuna indartzeak eskaera separatistak eta sezesionistak ekar ditzakeela uste dute zenbait gobernuak eta, horregatik, Nazio Batuek ez dute onartu gutxiengoak babesteko arau lotesle esanguratsurik nazioartean. Beraz, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa onartzea –gutxiengoak babesteari osorik eskainitako agiri loteslea–, eta estatu askok berrestea ezohiko arrakasta da.

Nolanahi ere, Hitzarmenaren izaera berezi samarrak azaltzen du gobernuak zergatik ez diren mehatxatuak sentitu berresterakoan. Programa-motako xedapenetan aipatzen diren “estatuak nazio-gutxiengoak babesteko errespetatu asmo dituzten printzipio legeetan”,⁴⁵ salbagueardako hainbat klausula daude, eta estatuak marjina zabala dute zehatz nola ezarri erabakitzeke. Baina ziur asko garrantzitsuagoa da Hitzarmen Markoak gutxiengoen banakako eskubideak babesten dituela, eta ez duela sortzen talde-eskubiderik. Aitzitik, Gutunaren helburuak –eremu urriko hizkuntzak babestea, eta ez hainbeste gutxiengoetako kideak babestea– zuzenean indartzen du gutxiengoaren nortasuna, eta nazio-batasunaren kontrako mehatxutzat har daiteke. Beste hitz batzuetan esanda, “Gutunak ez du Hitzarmen Markoaren ikuspuntu ‘esentzialistarik’, non gutxiengoak (eta bertako kide izatea) *a priori* onartzen diren (baina definitu gabe). Aldiz, nortasunaren ezaugarri jakin bati heltzen zaio (hizkuntza)”.⁴⁶ Horregatik, gobernuak kontu handiagoz dabilta Gutuna berresteko orduan, nahiz eta Gutunak, beste edozein hitzarmenek bezala ezin duen eskubiderik onartu estatuen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren kontra doanik. Areago, xedapen zehatzak ditu eskaera separatistetarako balio ez dezan, edo hartarako erabili ez dadin.

⁴⁵ Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa. Azalpen-txostena, 10. paragrafoa.

⁴⁶ F. Grin, “Evaluating policy measures for minority languages in Europe: towards effective, cost-effective and democratic implementation”, ECMI, 6. txostena, Flensburg, Alemania, 2000ko ekainak 23-24, 17. or.

Bere hitzaurrean, Gutunak azpimarratzen du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesa eta sustapena oinarritzen dela “demokraziaren eta kultura-aniztasunaren printzipioetan, nazio-subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren baitan”, eta 5. artikuluan dioenez, “ezin interpreta daiteke eskubidea ematen duenik nazioarteko legeak apurtzeko, besteak beste estatuen subiranotasuna eta lurralde-osotasuna”.

Txosten Argigarrian esaten den bezala, Gutunaren asmoa ez da lehia eta etsaigoa sortzea hizkuntza ofizialaren eta eskualdeko edo eremu urrikoen artean, eta bere ikuspegia kulturen artekoa eta hizkuntza anitzekoa da.⁴⁷ Eremu urriko hizkuntzak sustatzea eta garatzea ez ezik, hizkuntza ofiziala ikasi beharra ere azpimarratzen du. Ildo horretatik, ez da pentsatu behar bere xedapenek “hizkuntza ofizialak jakitea oztopatu nahi dutenik”.⁴⁸ Bestalde, bere xedapen batzuek diotenez, “Gutunaren helburu nagusia ez da soilik eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea edo iraunaraztea, baizik eta, areago, neurri proaktiboan eta ekintza tinkoen bidez hizkuntzak sustatzea”.⁴⁹ Gaur egungo nazioarteko legediak eta nazioarteko komunitateak sezesionismoa babesten ez duen arren, estatuen iritziz eremu urriko hizkuntzak sustatzea aho biko labana da, eta –baldintza politiko, historiko, sozial eta ekonomikoen arabera– eragina izan dezake nazio-batasunean.

1998an Gutuna indarrean sartu zenetik ez da halako ezeren aztarnarik, baina kasu bakan batzuetan indartu egin du nortasun-sentimendua. 2008ko otsaileko Aldizkako Bigarren Txostenean Armeniak aipatu zuenez, “Gutuna betez hartutako neurrien ondorioz, komunitate etniko batzuen sentimenduak berotu egin ziren”.⁵⁰ Gutuna berrestearekin batera, bi talde txiki samar, kurduak (1.519 pertsona) eta yezidiak (40.620 pertsona) –kumanji hizkuntzaren aldaera bera- ren hiztunak–, yezidia eta kurduera hizkuntza bereizitzat hartzeko hasi ziren eskatzen eta, hori lortzearren, bakoitza bere idazkera hasi zen erabiltzen, latindarra eta zirilikoa.⁵¹ Politikan nahasmenik sortu ezin duen talde txiki baten adibidea da. Pentsatzen ahal da, ordea, egoera oso bestelakoa eta larriagoa izan daitekeela talde handiagoetan.

Gutunaren xedea zintzoa den arren –gure Europako kultura-ondarearen zati bat babestea–, ulertzekoa den bezala, ez ditu bermatzen ez ekiditen gutxiengo baten nortasuna indartzetik sor daitezkeen desintegrazio-joerak. Horregatik ez zuen Frantziak berretsi nahi izan 1999ko maiatzean sinatutako Gutuna.

⁴⁷ Gutuna, Azalpen-txostena, 14. paragrafoa.

⁴⁸ Ibid., 29. paragrafoa.

⁴⁹ A. Kozhemyakov, “The European Charter for Regional or Minority Languages: ten years of protecting and promoting linguistic and cultural diversity”, *MUSEUM International*, 60. lib., 3. zk. (2008), 26.-36. arteko or., 28. or.

⁵⁰ 2008ko otsailaren 15ean Armeniak bidalitako aldizkako bigarren txostena (MIN-LNG/PR(2008)3, 8. paragrafoa.

⁵¹ Ibid.

Sinatu zuen unean Frantziak azpimarratu zuenez, “‘Hiztun-talde’ hitzak ez die eskubide kolektiborik ematen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen hiztunei”.⁵² Nolanahi ere, sinatu eta aste bakar batzuetara, 1999ko ekainean, Frantziako Konstituzio Kontseiluak berrespena bateraezintzat jo zuen 1958ko Konstituzioaren 2. artikularekin, non frantsesa Errepublikako hizkuntza dela aldarrikatzen den. Urte askoan, Parisek tabu moduan ikusi ditu Frantziako eskualdeko hizkuntzak (75 inguru, guztira).⁵³ Nazioko Konstituzioa aldatzea eta beste hizkuntza batzuk sartzea, hala nola bretoiara, aditu askoren ustez, mehatxu bat litzateke nazioaren batasunarentzat.⁵⁴

Baltikoko herrialdeetan antzeko pentsaerak daude. Estoniako gobernuak arreta handiz aritu da gutxiengo errusiera-hiztuna indartuko luketen pausorik ez emateko. Hori agerian geratu zen 2004an, Kanpo Arazoetarako Ministerioa kezkati agertu baitzen hegoaldeko estonieraren estatus hobetuaren aurrean, errusierarekin ere antzeko aldaketak gertatzearen beldurrez.⁵⁵

Lituanian, eremu urriko hizkuntzek Lituaniako gizartea desintegratzen dutelakoan, hizkuntza-politika murriztailea da. Horixe berretsi zuen Lituaniako Auzitegi Nagusiaren Erabakiak 1999ko irailaren 14an, 3K-7-268/1999 kasu zibilean. Vilnius eskualdeko tokiko gobernuak bertako Administrazio Publikoak eta seinaleek elebidunak –polonieraz eta lituanieraz– izan behar zutela erabaki ondoren, Auzitegi Nagusiak honako hau ebatzi zuen: “estatuko bizitza publikoan estatuko hizkuntza erabiltzeak nortasuna, norberaren kontzientzia eta nazioaren adierazpidea ziurtatzen du, eta nazioa da estatuaren sortzailea eta botere subiranoen jabea”, eta hainbat hizkuntza erabiltzeak “estatua desintegratu eta deszentralizazioa bultzatuko luke”.⁵⁶

5.3.4. “Lege-amarrua”

Zer nolako “lege-amarruk” oztopa dezake Baltikoko gobernuak Gutuna berrestea? Izan ere, Gutuna bera ez da gauzatzen, eta estatu kideek lege berriak onartu behar dituzte (edo daudenak aldatu), haren xedapenak betetzeko. Nazioko lege egokirik ezean, nekez babestuko dira eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzak. Era horretan, Aditu Batzordearen eta Ministro Batzordearen zeregin nagusietako bat da gabeziak seinalatzea eta estatu kideei eskatzea

⁵² Ikusi testua web-orri honetan: <http://conventions.coe.int/treaty/Commun/ListeDeclarations.asp?NT=148&CM=1&DF=&CL=ENG&VL=1>.

⁵³ A. Chrisafis (*The Guardian*, 2008ko ekainak 17): www.guardian.co.uk/world/2008/jun/17/france/print.

⁵⁴ Sunday Herald (2008ko ekainak 21): www.sundayherald.com/misc/print.php?artid=2356731.

⁵⁵ V. Poleshchuk eta J. Helemäe, “Estonia: in quest of minority protection” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International obligations and national debates: minorities around the Baltic Sea*, 2006, 109.-170. arteko or., 138. or.

⁵⁶ N. Kasatkina, G. Kadziauskas eta K. Sliavaite-tik hartua, “Ethnic minorities and public policy: the case of Lithuania” hemen: S. S. Åkermark (ed.), *International obligations and national debates: minorities around the Baltic Sea*, 2006, 347.-396. arteko or., 370. or.

urratsak egiteko eta nazioko legeak aldatzeko, eta hori ez da arazo handia izaten estatuentzat. Dena dela, Baltikoko estatuen egoera ez da izan Europako beste herrialdeetako bezalakoa. Independentzia eskuratu zutenetik, haien legedi murriztaileak nazioartearen arreta erakarri du. Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoaren Batzorde Aholku Emaileak Lituaniari eta Estoniari buruz adierazi duenez, “nazioko gutxiengoaren babesari ez zaio modu egokian eta sendoan heltzen legegintza-prozesuan eta Administraziooko jardunbidean, batez ere hauteskundeetarako hautagai izateko hizkuntza-eskakizunei eta jendaurreko iragarki pribatuetako hizkuntzen erabilerari dagokionez”.⁵⁷

2005eko otsailean, egoerak berdin jarraitzen zuen.⁵⁸ 2007ko maiatzean, Giza Eskubideen komisarioak adierazi zuen legea ez zela aldatu, Administrazioan eremu urriko hizkuntzak erabiltzearen eztabaida alde batera utzi zela, eta hori oztopo handia zela gutxiengoak integratzeko.⁵⁹

Nolanahi ere, “lege-amarrua” ez zaio esaten nazioko legeak aldatzeari edo moldatzeari eta nazioarteko estandarretara biltzeari. Estatuak “lege-amarrua” esaten diote Gutunari eragin handiko interpretazio bat ematea, isilka eta ezkutu-tuan, eta gobernuei hasieran hartzeko prest ez zeuden obligazioak ezartzea. Testuinguru horretan, gogorarazi behar dugu Gutuna oso tresna berezia dela, bere baitan elkartzen baitira eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak Europaren kultura-ondare gisa babesteko helburua, kartan jarritako sistema –estatuak obligazioak aukeratzeko modua ematen diena–, legez loteslea izatea eta gainbegiratze-mekanismoa.

Kartan jarritako sistema, baina, oso garrantzitsua da estatuak Gutuna berresteko erabakian. Europako herrialdeen egoera aldatu egiten denez, alde handiak baitaude hizkuntzen eta hiztunen kopuruan, ezin da denentzako lege-estandarrik egin hitzarmena malgua ez bada.

Era horretan, Gutunaren II. zatia aplikatzen zaie “beren lurraldean hitz egindako” eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei,⁶⁰ eta Gutunaren III. zatia ekintza zehatzak aukeratzeko modua ematen die estatu kideei (gutxienez 35 xedapen), eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza batzuei aplikatzeko. Beste hitz batzuetan esanda, gobernuek ahalmena dute xedapenak aukeratzeko eta eremu urriko edo eskualdeko zein hizkuntzari aplikatu erabakitzeko.

⁵⁷ Ikusi Lituaniari buruzko iritzia, 2003ko otsailak 21, Laburpen Exekutiboa (ACFC/INF/OP/I(2003)008) eta Estoniari buruzko iritzia, 2001eko irailak 14, Laburpen Exekutiboa (ACFC/INF/OP/II(2005)001).

⁵⁸ Estoniari buruzko iritzia, 2005eko uztaillak 22, Laburpen Exekutiboa (ACFC/INF/OP/I(2002)005).

⁵⁹ Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa, Letoniako gobernuari memoranduma, 2003an Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak egindako gomendioak ezartzen egindako aurrerapenaren ebaluazioa, CommDH(2007)9, 2007ko maiatzak 16, 44. paragrafoa.

⁶⁰ Ikusi Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 2.1. artikulua.

Gutunak ez ditu estatuak behartzen hizkuntza bat edo bestea aintzat hartzera, eta, legearen ikuspegitik, badirudi estatuak ahalmena dutela hizkuntza batzuk Gutunaren barruan ez sartzeko. Praktikan, baina, eskubide hori oso mugatua da. Zein hizkuntza sartu erabakitzerakoan, gobernuak kontuan hartu behar dituzte Gutunaren espiritua, helburuak eta printzipioak.⁶¹ “Gutunaren espirituak eta jadanik berretsi duten herrialdeen esperientzia praktikoak erakusten digunez, estatuak ahalik eta hizkuntza-zerrendarik zabalena sartu behar du barruan, eta II. zatiko babesik txikienera baztertu babes eraginkorragorik bermatu ezin zaien hizkuntzak, batik bat lurralderik ez dutenak, sakabanatuegi daudenak, desagertzeko bidean daudenak edo literatura-hizkuntza ez direnak”.⁶²

Gutuna berresteak ez du esan nahi estatuak behin betiko erabaki duenik zein hizkuntza babestu. 3. artikularen 2. paragrafoaren arabera, estatuak idazkari nagusiarri noiznahi jakinaraz diezaioke beste obligazio batzuk onartzen dituela edo Gutunaren aplikazioa zabaltzen duela eskualdeko edo eremu urriko beste hizkuntza batzuetara, edo lurralde osoan edo zati batean gutxiago erabiltzen diren hizkuntza ofizialetara. Gutunaren aplikazio-eremu ireki hori oso mesedegarria den arren, kaltegarria ere izan daiteke, estatuak arrazoi politikoengatik erabakitzen badute eremu urriko edo eskualdeko hizkuntza batzuk ez sartzea Gutunaren gerizpean. Jardunbideak erakutsi digu Aditu Batzordeak eta Ministro Batzordeak modu proaktiboan bultzatu behar dituztela estatu kideak, beren lurraldeko eremu urriko hizkuntza guztiak babes ditzaten, baita gobernuak hizkuntza babestuen hasierako zerrendan sartu ez zituztenak ere.

Zenbait kasutan, Aditu Batzordeak besterik gabe estatu bati eskatzen dio argitzeko ea erabiltzen den eskualdeko edo eremu urriko beste hizkuntzarik, berrespen-tresnan aipatuz gain. Hala gertatu zen Armeniaren kasuan: 2002ko ekaineko bere berrespen-tresnan adierazi zuenez, Gutunaren esanahiari lotuta, Armeniako eremu urriko hizkuntzak asiriera, yezidia, grekoa, errusiera eta kurdura ziren.⁶³ Horrek gogobete ez eta Aditu Batzordeak esan zuen ez zeukalana nahikoa informaziorik, hizkuntza horiez gain Gutunak beste hizkuntzarik estaltzen zuen ebaluatzeko.⁶⁴ Ministro Batzordeak orduan Armeniari eskatu zion “lehentasunez” argitzeko ea Armenian eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzarik erabiltzen zen, berrespen-tresnan aipatuz gain.⁶⁵

⁶¹ Ikusi Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Azalpen-txostena, 42. paragrafoa.

⁶² E. J. Ruiz Vieytes, “Minority languages of the Russian Federation: perspectives for a ratification of the European Charter for Regional or Minority Languages”, *Mercator Working Paper*, 6. zk., 2002, 53. or.

⁶³ Ikusi <http://conventions.coe.int/treaty/Commun/ListeDeclarations.asp?NT=148&CM=1&DF=&CL=ENG&VL=1>.

⁶⁴ Gutunari buruzko Aditu Batzordearen txostena, 2006ko ekainak 14, ECRML (2006)2, 161. paragrafoa.

⁶⁵ Ikusi Ministro Batzordearen RecChL(2006)2 Gomendioa, Armeniak Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaz egindako aplikazioaz, 2006ko ekainaren 14an onartua, ministro ordean 967. bilkuran. 2008ko otsailaren 15eko bigarren zikloko txostenean (MIN-LANG/PR 2008/3) Armeniak ez zuen aldatu eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei buruzko jarrera, lehendik ere Deklarazioan identifikatua.

Oso gutxitan, gobernuei premiatzen zaie Gutuna aplikatu diezaieen berrespen-tresnari erantsitako deklarazioan aipatu gabeko hizkuntzei. Adibidez, Ziprek hasieran armeniera bakarrik aipatu zuen lurralderik gabeko hizkuntzatzat, ma-ronita idatzi gabeko dialektoa zela, eta, beraz, ez zela sartzen Gutunaren ge-ritzpean.⁶⁶ Nolanahi ere, Aditu Batzordeak ez zuen uste hori onartu. Maronita arabiera estandarren dialektoa zela iritzi zion, ez Zipreko hizkuntza ofizial baten –grekoaren edo turkieraren– dialektoa eta, beraz, berehala babestu be-harra zegoela.⁶⁷ Batzordeak bereari eutsi, Ziprek deklarazio berri bat egin, eta maronita Gutuneko esanahiaren barruan sartu zen, hizkuntza gisa.⁶⁸

Europako Gutunaren gainbegiratze-lanaren adibide esanguratsu bat da. Bere helburu nagusia erdiesteko balio du, hau da, eremu urriko edo eskualdeko hiz-kuntza guztiak babestea; horretaz gainera, Gutuna berretsi ostean, estatuei be-ren lege-obligazioak aldatzeko eta/edo zabaltzeko eska dakieke. Hori etsigarria izan daiteke Gutuna zein hizkuntzari aplikatzeko orduan zuhurrak izan nahi du-ten estatuentzat. Estoniari eta Letoniari dagokienez, badirudi Gutuna berretsiz gero errusierak kanpotik etorritako hizkuntza izateari utzi –ez litzaioke Gutu-na aplikatuko– eta eremu urriko hizkuntza bihurtuko litzatekeela. Errusieraren estatus-aldaketa posible horri ez zaio nazioarentzat interesgarria irizten. Itxu-raz, nahiago dituzte errusiera-hiztunak eta gutxiengo gisa dituzten hizkuntza-eskubideak babestu Hitzarmen Markoaren baitan soilik, aldaketarik egon ez dadin eta/edo errusieraren estatusa indartu ez dadin.

5.4. Ondorioa eta etorkizuna

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak zenbait “akats” ditu, eta horrek berresteko gogoia ken diezaieke gobernuei. Ez dago argi zenba-teko garrantzia duten Baltikoko estatuentzat, baina badirudi barruko faktoreek eta nazioaren hizkuntza-politikak agintzen dutela. Batzuen ustez, herrialde ho-riek, izan duten historia izanda, *sui generis* moduan hartu beharko lirarteke eta, beraz, Gutunaren lege-araubidearen mende egoteko desegokiak. Une honetan ez du ematen Baltikoko estaturen batek bere jarrera aldatu eta Gutuna berreste-ko asmotan denik; eta nazioarteko komunitateak, hain zuzen ere Europar Bata-sunak, ez dauka modu eraginkorrik berretsarazteko.

Europar Batasunaren leloa gorabehera (“Aniztasunean bat”), “bere kultura- eta hizkuntza-aniztasun aberatsa” errespetatzeko eta “Europako kultura-ondarea

⁶⁶ Ikusi Zipreren Hasierako Txostena, 2005eko urtarrilaren 17koa (MIN-LANG/PR 2005/1), 14.1.-14.4. paragra-foak. Ikusi ere Gutunaren 1a artikulua eta Azalpen-txostenaren 32. paragrafoa, hizkuntza ofizialaren dialektoa(k) baztertut edo hizkuntza baten eta beraren tokiko aldaerak edo dialekto desberdinak.

⁶⁷ Ikusi Armeniaren Hasierako Txostenari buruzko Aditu Batzordearen Txostena, 2006ko irailak 27, ECRML (2006)3, 30. paragrafoa.

⁶⁸ 2008ko azaroaren 12an egin zen Deklarazioa eta zuzenketa bat dauka aurreko Deklarazioarekiko, 2005eko abuztuaren 3koa (2002ko abuztuaren 26an Gutuna berretsi zeneko Lehen Deklarazioa berrikusi zuen).

zaintzeko eta goratzeko⁶⁹ helburuak gorabehera, eta EBn orain hizkuntza-aniztasunari garrantzi handiagoa eman arren,⁷⁰ ez dirudi EBko erakundeek Baltikoko estatuei Gutuna berretsarazi ahal dietenik, EBko erakundeek ez baitute politika zehatzik eremu urriko hizkuntzen gainean. Atxikitze-prozesuan zehar, Europar Batasuna ez zen behar bezain irmoa izan, nahiz eta presioaren bat egin duen eta aldaketa eta zuzenketa batzuk egon diren nazioetako hizkuntza-lege-dietan.⁷¹

Baltikoko estatu guztiek Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa berretsi izana eta haren gainbegiratze-mekanismoaren mende egotea oso garrantzitsua da gutxiengo hizkuntza-eskubideentzat. Onena litzateke haiek ere, oraindik egin ez duten beste herrialde batzuek bezala, Gutuna berrestea eta, hartara, beren lurraldeetako eremu urriko hizkuntzak babestea. Gutunaren garrantzia eta gobernuek hura berresteko duten borondatea handitzen ari da. Baliteke azkenean agiri paneuroparra bihurtzea, eta bere araubidetik kanpo dauden gobernuak deseroso sentitu eta berresteko joera hartzea.

⁶⁹ Ikusi Europar Batasuneko Hitzarmenari eta Europako Ekonomia Erkidegoa Eratzeko Itunari egindako Zuzenketen 2. artikulua, 3. paragrafoa, 4. puntua.

⁷⁰ X. Arzoz (ed.), *Respecting linguistic diversity in the European Union*, Sarrera, 2008, 5. or.

⁷¹ 1999an, Europako Batzordeak adierazi zuen Estoniak Hizkuntzen Legeari egindako zuzenketez gatazkak sor zitzaizkela Europako Hitzarmenaren barruan Estoniak zituen obligazioekin, batez ere eremu hauetan: pertsonen mugitzeko askatasuna, inon bizitzen jartzeko eskubidea, zerbitzuen hornidura, kapitalaren mugimendua eta kontratu publikoak lortzea. Orduan, 2000ko ekainean, Estoniak zuzenketa berriak egin zituzten Hizkuntzen Legeari, hizkuntza-baldintzak erraztuz. Ildo beretik, 1999an, Europako Batzordeak dei egin zion Letoniari, bere hizkuntza-legeak bat etor zitezen nazioarteko estandarrekin eta Europako Hitzarmenarekin. Jakina, Europako Batzordearen gomendioen helburua zen Estoniako eta Letoniako hizkuntza-eskakizunak orekatzea, batik bat esfera pribatuan, eta legearen puntu nagusiak aldatu eta hobetu egin dira. Ikusi V. Poleshchuk, "Estonia, Latvia and the European Commission: changes in language regulation in 1999-2001" (<http://www.eumap.org/journal/features/2002/jan02/languageereg>).

**Aldizkako txostenak egitea eta gomendioak
abiaraztea: kasu-azterketak**

6. Suitzaren kasua

CONSTANTIN PITSCH

Hizkuntza eta Kultura Komunitateen Departamentua,
Kulturaren Bulego Federala (Suitza)

Suitzar Konfederakundeak 1993ko urriaren 8an Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu, 1997ko abenduaren 23an berretsi, eta 1998ko apirilaren 1ean sartu zen indarrean. Gutunaren aplikazioari buruzko laugarren txostena ari da orain prestatzen.

Artikulu honen lehen zatiak Suitzako hizkuntzen ikuspegi bat ematen du; bigarren zatian, Suitzak eta Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak elkarri bidalitako txostenekin lotutako esperientzia batzuk jorratzen dira.

6.1. Hizkuntzen egoera Suitzan

6.1.1. Lurrealde-banaketa


Suitza laueleduna da ofizialki. 6.1. irudiak (hurrengo orrialdean) erakusten du hizkuntzen banaketa.

6.1. irudiko lau nazio-hizkuntzen artean, eskualde bakoitzaren tamainari dagokionez alde handia dago: batetik, alemana (gorriz) eta, bestetik, frantsesa (urdinez), italiara (berdez) eta erromantxera (marroiz).

Eskualde guztietan dago hizkuntza-nahasketa, eta kolore bakoitzaren tonuak erakusten du hizkuntza nagusia hitz egiten dutenen proportzioa. Tonu ilunagoak nagusitasun handia adierazten du (%85etik gorakoa); tonu argiagoak nagusitasun txikiagoa adierazten du (%70-84,9).


Suitzako frantsesean dialekto gutxi erabiltzen dira, baina dialekto alemaniko ugariak hizkuntza- eta kultura-garrantzi nabarmena dute alemana hitz egiten den eskualdeetan. Italiara hitz egiten den eskualdeetan ere badira dialektoak, nekazaritza-guneetan garrantzitsu samarrak; hori asko gutxitzen da hiri-inguruneetan.

Erromantxerak bost dialekto nagusi ditu, eta Grisonia/Graubünden kantona-menduko zati batean hitz egiten da bakoitza.



6.1. irudia: Hizkuntza nagusi bakoitzaren biztanle-kopurua, Suitza, 2000 (nazio-hizkuntzak).

Iturria: Biztanleriaren zentsu federala, 2000, *Suitzako hizkuntzen egoera*, Estatistikako Bulego Federala (Suitza), Neuchâtel, 2005eko apirila.




	(%)	Zenbaki absolutuak
Alemana	63,7	4.640.359
Frantsesa	20,4	1.485.056
Italiara	6,5	470.961
Erromantxera	0,5	35.095
Hizkuntza ez-nazionalak	9,0	656.539

6.2. irudia: Hizkuntza bakoitzak Suitzan dituen hiztunak, 2000 (ehunekoa eta absolutua).

Iturria: Biztanleriaren zentsu federala, 2000, *Suitzako hizkuntzen egoera*, Estatistikako Bulego Federala (Suitza), Neuchâtel, 2005eko apirila.

6.2. irudian ikusten da Suitzako hizkuntza-taldean banaketa numerikoa. 6.3. irudiak adierazten du hizkuntza ez-nazionalak hiztunen kopurua, populazioaren %9 inguru.




6.3. irudia: Suitzako hizkuntza ez-nazionalak, 2000.

Iturria: Biztanleriaren zentsu federala, 2000, *Suitzako hizkuntzen egoera*, Estatistikako Bulego Federala (Suitza), Neuchâtel, 2005eko apirila.

Suitzak 26 kantonamendu ditu. Alemana hitz egiten den kantamenduez gain, frantsesa hitz egiten den lau kantonamendu daude; hiruretan alemana eta frantsesa hitz egiten dira, eta beste biak dira italiara hitz egiten den Tesino kantonamendua eta alemana, erromantxera eta italiara hitz egiten den Graubünden/Grisonia kantonamendua.

6.1.1.1. Grisonia/Graubünden kantonamendua

6.4. irudiko (hurrengo orrialdea) Graubünden/Grisonia kantonamenduaren mapa ikusten da zer banaketa duten alemanak, italierak eta erromantxerak (azken hori ladina, Sutselva/Surmeirako eta Surselvako dialektoetan dago zatiturik). 2000. urtean, erromantxeraren eremuko 66.780 biztanleetatik 24.016k bakarrik erabiltzen zuten, nahiz eta kantonamendu horretako biztanleria %9,6 handitu zen iragan hamarkadan. Erromantxera biztanleriaren herenarentzat bakarrik da (%32,8) lehen hizkuntza.



6.4. irudia: Grisonia/Graubünden kantonamenduko hizkuntzak, 2000.

Iturria: Biztanleriaren zentsu federala, 2000, *Suitzako hizkuntzen egoera*, Estatistikako Bulego Federala (Suitza), Neuchâtel, 2005eko apirila.

6.1.2. Konstituzio kontuak

1848an estatu modernoa sortu zenetik, Suitza eredu federal bati jarraituz antolatuta da. Hori garrantzizkoa izan da hizkuntzen politika egituratzeko. Suitzako Konstituzio Federalaren hiru xedapen axola handikoak dira eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen politikari dagokionez.

Suitzako Konstituzio Federalak bereizketa egiten du Federakundeko nazio-hizkuntzak eta hizkuntza ofizialen artean. Berez, nazio-hizkuntza guztiek dute estatus bera, hiztunen kopurua gorabehera.

Konstituzioaren 4. artikulua: nazio-hizkuntzak.

Alemana, frantsesa, italiarra eta erromantxera izango dira nazio-hizkuntzak.

Konstituzioaren 10. artikulua: hizkuntza ofizialak.

1. Alemana, frantsesa eta italiarra izango dira Federakundeko hizkuntza ofizialak. Erromantxera ere hizkuntza ofiziala izango da Federakundeak erromantxera-hiztunekin dituen harremanetan.

Alemana, frantsesa eta italiarra, definizioz, elkarren berdinak dira hizkuntza ofizial gisa. Erromantxera, ordea, hein batean bakarrik da ofiziala.

Agintari federalek erromantxera-hiztunekin eta -erakundeekin dituen harremanetan erabiltzen da. Hauteskundeetako agiriak eta Parlamentuko agiri batzuk (adibidez, Konstituzio Federala, Gutuna eta Suitzak Gutunaren barruan idatzitako txostenak) erromantxerara itzultzen dira.

Konstituzioaren 70. artikulua: Hizkuntzak (lurraldetasuna).

2. Kantonamenduek erabakiko dituzte beren hizkuntza ofizialak. Hizkuntza-komunitateen artean harmonia egon dadin, hizkuntzen lurralde-banaketa tradizionala errespetatuko dute eta aintzat hartuko dituzte bertakoak diren hizkuntza-gutxiengoak.

Hizkuntza ofizialak zein diren erabakitzeko kantonamenduek duten eskumena Konstituzioaren 70.2. artikulutik dator, goian aipatua, lurraldetasunaren printzipioa aldarrikatzen baitu. Horretan oinarrituz, kantonamenduek hizkuntza ofizialen eta irakaskuntzako hizkuntzen inguruko guztia arautzen dute. Konstituzioaren 70. artikulua lotura zuzena du 18. artikuluekin –funtsezko hizkuntza-askatasuna finkatzen du–, baina harremana zail samarra da, erraz egokitzen ez dena.

Konstituzioaren 70. artikulua: Hizkuntzak (erromantxera eta italiara sustatzea).

5. Grisonia eta Tesinoko kantonamenduek erromantxera eta italiara zaintzeko eta sustatzeko hartutako neurriak babestuko ditu Federakundeak.

Konstituzioaren 70.5. artikulua Federakundeari ematen dio Graubünden/Grisonia eta Tesino kantonamenduetan gutxi erabilitako nazio-hizkuntzak sustatzeko lana, diru-laguntzen bidezkoa.

6.2. Eremu urriko hizkuntzak praktikan

6.2.1. Eskualdeko hizkuntzak

Gutuna berrestean, Suitzak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza izendatu zituen erromantxera eta italiara, Gutunaren esanahiaren barruan, eta zenbait xedapenen babesa eman zien.

6.2.1.1. Erromantxera eta italiara

Erromantxera eremu urriko hizkuntza da, pixkanaka baztertzen ari dena alemanetik; Grisonia/Graubünden kantonamenduan du jatorria. Erromantxerak ez du *hinterland*-ik, bere hizkuntza-eremua ez da jarraitua, eta mende batzuetan idatzizko forma izan duten bost dialekto ditu. 1980ko hamarkadan idatzizko hizkuntza batu bat sortu zen, eta hain zuzen ere horixe da Federakundeko hizkuntza ofiziala eta Graubünden/Grisonia kantonamenduko agintariak darabiltena herritarrekin komunikatzeko; irakatsi ere egiten da, hein batean.

Grisonia/Graubünden kantonamenduan italiara ez dago arriskuan, hizkuntza txiki samarra den arren, Tesinon ez bezala. Kantonamenduak urtean 3 milioi euro jasotzen ditu erromantxera eta italiara eta haien kultura sustatzeko, eta horrela laguntzen zaie Lia Rumantscha (www.liarumantscha.ch) eta Pro Grigioni Italiano (www.pgi.ch) bezalako erakunde ez-ofizialei, eta erromantxera hedabideetan sustatzen da Agentura da Novitads Rumantscha (www.anr.ch) delakoaren bidez. Tesino kantonamenduak urtero jasotzen dituen 1,5 milioi euroak batez ere kultura suspertzeko erabiltzen dira, hain zuzen ere ikerketa-proiektuak, argitalpenak, kultura-ekitaldiak eta *Osservatorio linguistico della Svizzera italiana* (www.ti.ch/decs/dcsu/ac/olsi/) delakoaren ikerketajarduerak.

Gutunaren aplikazioa

Txostena prestatzeko eta Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen eta Aditu Batzordearen gomendioak aplikatzeko, Federakundea elkarlanean aritzen da Graubünden/Grisonia eta Tesino kantonamenduekin (ahalmen osoa dute gomendioak aplikatzeko). Grisonia/Graubünden kantonamenduak, berriz, kantonamenduan italiara eta erromantxera sustatzeko lanetan aritzen diren erakundeen aholkua biltzen du.

Bere txostenean, Suitzak lurralde osoko hizkuntzen egoeraz informatzen du. Orain arteko hiru txostenetan, Aditu Batzordearen eta Ministro Batzordearen gomendioak eremu urriko hizkuntzei buruzkoak dira, gehienbat erromantxeraren egoerari buruzkoak maila federalean eta Graubünden/Grisoniako kantonamenduan, eskualdean eta herrialdeetan. Tesino kantonamenduan, arreta berezia eskaintzan zaio Bosco Gurin-go Walser udalerrinari, italiararen eremuaren erdian alemanez hitz egiten den enklabea.

Erromantxeraren erabilera epaitegietan

Aipa dezagun, lehen adibide gisa, erromantxerak epaiketetan duen erabilera.

Gutunaren Aditu Batzordearen hirugarren txostena, 78. paragrafoa (9. artikulua 1. paragrafoa dela eta).¹

Aditu Batzordeak eskumena duten suitzar agintariak premiatzen ditu beharrezko neurriak har ditzaten, epaiketetan erromantxera erabiltzeko aukera formala ziurtatzeko.

Adituek “eskumena duten suitzar agintariei” zuzentzen dizkiete gomendioak, hau da, maila ofizial gutxiei. Adituek azpimarratzen dutenez, legediak erromantxeraren erabilera formalki ahalbidetzen duen arren, aukera hori ezer gutxi edo

¹ Ikusi ECRML (2008)2 dokumentua web-orri honetan: www.coe.int/minling.

batere ez da baliatzen. Kantonamenduko estatutu-liburuaren erromantxerazko bertsioa ere badago. Beren iruzkinetan adituak iradokitzen dutenez, agintariak erromantxera-hiztunak modu aktiboan bultza litzakete, beren hizkuntza erabil dezaten epaitegietan.

Gomendio hau abiarazteko baldintza garrantzitsu batzuk bete diren arren, erromantxera sustatzeko mugak daude praktikan, batez ere esku-hartze ofizialari dagokionez. Kontuan hartzekoak dira alderdi hauek:

- Erromantxera-hiztun guztiak elebidunak dira.
- Erromantxera, batez ere eta gero eta gehiago, ahozko hizkuntza da.
- Idazteko gaitasuna hobea da alemanez, batik bat juristen artean.
- Jurisprudentzia hein batean erromantxeraz idazten da eskualdeko epaitegietan, baina kantonamenduko epaitegietan alemanez bakarrik.

Adituak urrunago doaz, eta estatutu federalen zati bat erromantxeraz argitaratzea gomendatzen dute.

Gutunaren Aditu Batzordearen hirugarren txostena, 81. paragrafoa (9. artikulua 3. paragrafoa dela eta).

Aditu Batzordeak maila federalean eskumena duten agintariak premiatzen ditu beharrezko lege-testuak itzul daitezten, epaitegietan erromantxeraren erabilera erraztearren.

Gomendio hori betetzeak itzulpen franko egitea esan nahi du eta, gainera, eskaera ez dator bat Konstituzioaren 70.1. artikuluaekin, haren arabera Federakundeak erromantxera-hiztunekin dituen tratuetan bakarrik baita ofiziala erromantxera. 2010ean indarrean sartuko den Hizkuntza Federalen Legearen barruan oso estatutu gutxi itzuliko dira, eta itzulpenek ez dute lege-baliorik izango.

Kantonamenduko Parlamentuko hizkuntzak

Gutunaren Aditu Batzordearen hirugarren txostena, 91. eta 134. paragrafoak (10. artikulua 2. paragrafoa dela eta).

Aditu Batzordeak eskumena duten suitzar agintariak premiatzen ditu beharrezko neurriak har ditzaten, kantonamenduko Parlamentuaren eztabaidetan erromantxeraren eta italieraren erabilera bultzatzeko.

Graubünden/Grisonia kantonamenduko Parlamentuan erromantxeraz eta italieraz hitz egiteko gomendioa nekez bete daiteke (ez bada deklarazio sinboliko bat), erromantxeraz eta italieraz dakiten parlamentarioak ohituta baitaude alemanez hitz egiten. Ulertuak izan nahi dute. Italieraz edo erromantxeraz mintzatu balira, aldebereko itzulpena beharko litzateke. Egokitzapen handiak egin

behar izateaz gain eta, zer esanik ez, gehiengoa diren aleman-hiztunen baimena lortu beharraz gain, Parlamentuaren funtzionamendua oso artifiziala izango litzateke, eta nahasketa handia legoke hizkuntzaren jardunean. Berdin gertatzen da Parlamentu Federalean italiara erabiltzeari dagokionez: esaldi sinboliko batzuk kenduta, parlamentario italiaradunek frantsesa edo alemana erabiltzen dute, aukeran eta zailtasunik gabe.

Horrek inola ere ez du esan nahi adituen gomendioak funtsik gabeak direnik. Egoera idealetan bete litezke, Konstituzioaren eta Grisonia/Graubünden kantonamenduko Hizkuntzen Legearen baitan. Era horretan agintariak adituen iritzia jakin dute –ez daude ohituta halakorik entzuten–, eta hizkuntza-sustapenaren eta -politikaren aukerak nahiz mugak ezagutu dituzte. Kantonamenduko Administrazioako kideek baieztatu dutenez, adituen gomendioek gogoetarako balio diote gobernuari.

6.2.2. Lurralderik gabeko hizkuntzak

Gutuna berrestearen testuinguruan, Suitzak lurralderik gabeko hizkuntzatzat hartu ditu yenisha –ibiltarien hizkuntza– eta yiddisha.

6.2.2.1. Yenisha

Azken adibide bat, Federakundeak yenisha sustatzeari buruzkoa da. Azken kalkuluen arabera, Suitzako yenishak 30.000 eta 35.000 artean dira, horietatik 3.000 inguru oraindik nomadak. 1997an, urriaren 7ko Lege Federala betetz, Federakundeak milioi bat suitzar liberako kopuru osoa eman zion Suitzar Ibiltarien Etorkizuna Ziurtatu fundazioari (RS 449.1), eta geroztik urtero ordaindu dio, “ibiltarien bizimodua hobetzeko eta beren kultura-nortasunari eusteko”. Suitzako Ibiltarien Elkarteak –Radgenossenschaft der Landstrasse delakoak– urtero jaso ditu diru-laguntza federalak, 1985etik hona. Elkarte horren bidez, Federakundea etengabeko harremanean dago ibiltariekin.

Yenisha nortasun kolektiboaren ikur garrantzitsua da ibiltari askorentzat, taldearen barruan bizirik jarraitzen du, eta duela gutxira arte ez zen sekula idatzi. Lehenbiziko yenish hiztegia ez zen argitaratu 2001a arte. Alemanaren gramatika-egituran oinarritzen da eta “soziolektoa” deitu ohi zaio, bai eta “alemanaren dialekto etnikoa” edo “etnolektoa” ere. Ibiltarien eta egonkortuen artean desberdintzeko balio izan du, eta yenish askorentzat hizkuntza sekretua segitzen du izaten.

Yenisharen aurrerapena hizpide izan zen Gutunari buruzko txostena prestatzerakoan, Aditu Batzordea ibiltariekin elkartu zenean. Bere lehenbiziko txostenetik (2001) aurrera, Aditu Batzordeak etengabe egin ditu gomendioak yenisha

sustatzeko, arlo batean zein bestean. Baina Federakundearen eta ibiltarien artean erabakitako plan bat aurrera eramateko, ulertzekoa den bezala, urte batzuk behar izan dira. Yenish hiztegia berrikusi eta yenish-hiztunek ikus-entzunezko elkarrizketak egingo dituzte yenishez, hedabideetako adituen laguntzarekin. Elkarrizketa horiek DVD batean bilduko dira. Haien gidoiak idazteko asmoa ere badago, ibiltariek erabili ahal izan ditzaten, alemanera, frantsesera eta italierrara itzulita, hizkuntzaren sustapenean erabili ahal izateko.

Era horretan, Aditu Batzordeak balio handiko pizgarriak eman ditu yenisha sustatzeko eta, bigarren txostenarekin konparatuz gero, yenish herria aintzat hartzeko gomendioetatik pasatu da, adibidez, yenisharen estandarizazioa edo derrigorrezko irakaskuntzan sartzeko eskatzera.

6.3. Ondorioa

Gutunari buruzko txostenarekin eta Aditu Batzordearekiko etengabeko elkarriketarekin Suitzak izan dituen esperientziak positibotzat hartu beharko lirake. Hizkuntzen estatus politikoaz eta legalaz adituek emandako iritzi independentea oso baliagarria da Suitzaren pentsaera garatuz joateko, eta agerian jartzen ditu Suitzako politikaren indarguneak eta ahuleziak.

Egoera ebaluatzeko orduan, oreka bilatu behar da nahi denaren eta egin daitekeenaren artean, elkarrizketa emankorra izan dadin eta gomendioak aintzat har daitezen.

Hiru urtez behin trukutzen dira txostenak. Aditu Batzordearen eta Ministro Batzordearen gomendioekin neurri berriak egitea aurreikusten badugu, hiru urte gutxi dira. Txostenak eta gomendioek garrantzi handiagoa izan lezakete epea zabalduz gero. Helburuak lehengo bera jarraitzen du izaten: Europako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna iraunaraztea eta sustatzea, Gutunaren esanahiari jarraituz.

7. **Hungariaren kasua**

JUDIT SOLYMOŠI

Europako Kontseiluaren Gutxiengo Nazionalak Babesteko Gaietarako (DH-MIN)
Aditu Batzordearen presidente ohia

Eskualdeko edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren lehen sinatzailean artean Hungaria egon zen. Bere lehenbiziko txostena 1999an igorri zuen, bigarrena 2002an, hirugarrena 2005ean eta laugarrena 2008an. Segimenduaren laugarren zikloan, 2009ko udaren hasieran izatekoa zen Aditu Batzordearen bisitaldiaren zain zegoen.

Lehenbiziko hiru txostenak idatzi zituen organoa gobernuaren Gutxiengo Nazionalen eta Etnikoen Bulego autonomoa izan zen. 2007an Lehen Ministroaren Bulegoan integratutakoan departamentu bat bihurtu zen, eta laugarren txostena egiteko agindu zitzaion. Zerikusia duten ministerio guztiek (Barne, Justizia, Kanpo Arazoak, Hezkuntza eta Kultura), beste organo batzuek (adibidez, auzitegiek, Estatistika Bulego Zentralak eta Nazioko Irrati eta Telebista Batzordeak) eta nazio-gutxiengoen ordezkariak hartu zuten parte lau txostenak prestatzen. Idazkiak amaitzean, iruzkinak eskatu zitzaizkien eragile horiei guztiei, bai eta gutxiengo nazionalen eta etnikoen Parlamentuko komisarioari ere.

7.1. Berrespena

Hungariako berrespen-tresnari buruzko informazio pixka bat eman beharra dago, ulertu ahal izateko Hungariaren kasuan zergatik izan den zaila, puntu batzuetan, Ministro Batzordearen gomendioak betetzea.

Estatu batek bere ekintzak hautatzen dituenean Gutunaren III. zatia barruan, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza bakoitzarentzat egokiak diren aukeren alde egin behar du. Era horretan posible da estatuaren administrazio-gaitasuna eta xedapenen kostua ere aintzat hartzea.

Estatu batek hiru gai nagusi hartu behar ditu kontuan Gutunaren berrespena prestatzerakoan: zer hizkuntza, zer ekintza eta zer lurralde.

Lehenik, eskualdeko edo eremu urriko zer hizkuntza aukeratu III. zatia barruan babesteko? 1995ean berrestekoan, Hungariak sei hizkuntza aipatu zituen (alemana, eslovakiera, errumaniera, serbiera, kroaziera eta esloveniera) III. zatia barruan babesteko. Hizkuntza horien egoerak oso desberdinak

ziren, eta oraindik ere hala dira: dialekto arkaikoen alboan literatura-hizkuntza estandarizatuak, hizkuntza-asimilazioaren maila, hizkuntza-komunitateen tamaina, kontzentrazio geografikoa... 2008an, beste bi hizkuntza gehitu zitzaizkion zerrendari: urrats hori aurrerago jorratzen da, 7.2.1. atalean.

Bigarrenik, erabakitako hizkuntzen aldeko ekintzak aukeratu behar ditu estatuak. Onena litzateke hizkuntza bakoitzarentzat bere neurri bereziak aukeratzea, bere egoeraren arabera. Estatu batek aukera indartsu bat har dezake gutxiengo zabal eta geografikoki kontzentratu batentzat, eta aukera ahulagoa egoera ahulagoan dagoen eta komunitate txikiago eta sakabanatuago batek hitz egiten duen hizkuntza batentzat.

Hungariak, baina, paragrafo berak hautatu zituen hizkuntza guztientzat, eta horrek zaildu egin du ezartzea, arestian aipatutako desberdintasunengatik. Erabaki hori hartu zen, ziur asko, Gutunaren berrespen-tresna baino lehenago onartu zelako Gutxiengo Nazional eta Etnikoen Eskubideei buruzko Hungariako Legea (1993ko 77. Legea, aurrerantzean Gutxiengo Legea), gutxiengo guztiei hizkuntza-eskubide berak ematen dizkiena.

Hirugarrenik, estatuak lurraldeak erabaki behar ditu. Gutunaren xedapen askok agintzen dute estatuaren obligazioak lurralde batzuetan soilik aplikatzea, eta ez estatuaren lurralde osoan. Lurralde horiei, zenbait lekutan, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeak” esaten zaie.¹ Beste leku batzuetan aipatzen da “lurralde batean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen duten biztanleen kopuruak” xedapeneko neurriak justifikatzen dituela.²

Badira herrialde batzuk –horien artean dago Hungaria– xedapenak herrialde osoan aplikatzea erabaki dutenak, lurralderik zehaztu gabe. Berrirori ere gogorarazi beharra dago lehenago onartutako Gutxiengo Legeak eskubide berak ematen zizkiela gutxiengo guztiei lurralde osoan, desberdindu gabe.

Orain arte esandakoak argi erakusten du Hungariako berrespen-tresnak ez dela nahikoa ñabardurarik aukeratutako hizkuntzen desberdintasunak islatzeko, eta Hungaria ez zela baliatu Gutunaren menu-sistemak eskaintzen duen malgutasunaz.

¹ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 7. artikulua 1. paragrafoa (Helburuak eta printzipioak), 8. artikulua 1. paragrafoa (Hezkuntza), 1. artikulua 3. paragrafoa (Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak), 11. artikulua 1. paragrafoa (Hedabideak), 12. artikulua 1. paragrafoa (Kulturajarduerak eta -aukerak) eta 13. artikulua 2. paragrafoa (Ekonomia- eta gizarte-bizitza).

² *Ibid.*, 9. artikulua 1. paragrafoa (Agintari judizialak) eta 10. artikulua 1. eta 2. paragrafoak (Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak).

7.2. Orain arteko gomendioak

Azter ditzagun Ministro Batzordeak Hungariari zuzendutako gomendio nagusietako batzuk, lehenbiziko hiru segimendu-zikloetakoak. Ziklo bakoitzean errepikatu diren gomendioak dira. Haiekin batera doaz Hungariak emandako erantzunak Gutunaren ezarpena hobetzeko.

7.2.1. Romaniera eta beása

Gomendioetako bat roma-komunitatearen hizkuntzei buruzkoa da. Hungariako roma gehien-gehienek hungariera bakarrik hitz egiten dute, baina ehuneko txiki batek bi hizkuntza desberdin erabiltzen ditu: romanieraren dialekto bat eta beása izeneko hizkuntza bat, errumanieraren bertsio arkaiko bat.

Ministro Batzordeak Hungariari gomendatu zion romanieraren eta beásaren irakaskuntza indartzeko Lehen Hezkuntzaren aurreneko lau mailetan, eta neurri tinkoak hartzeko hizkuntza horietan edo hizkuntza horiek irakasteko maila guztietan. 2008 baino lehen, hizkuntza horiek II. zatiaren babespean zeuden. Gomendio hori betetzeko hartutako neurriak izan ziren romologia-ikasketen homologazioa goi-hezkuntzan, romanieraren eta beásaren gaitasun-azterketa ofizialak egiteko aukera, hizkuntza horietan hiztegiak eta liburuak argitaratzea eta romaniera eta beása irakasten hastea ikastetxe publiko batzuetan.

Horretaz gainera, hausnarketa luzeen ondoren, Hungariak 2008an erabaki zuen III. zatiaren babesa romanierara eta beásera zabaltzea. Aipatzekoa da Europako Kontseiluak hori ez egiteko aholkatu ziola Hungariari, aurreko segimenduetan oinarrituta. Goizegi iritzi zion, izan ere artean gabeziak baitzeuden II. zatiaren aplikazioan. Nolanahi ere, roma-komunitateen presio politikoaren pean –urrats hori askatasun moduko bat zelakoan beren hizkuntzentzat–, Hungariako gobernuak zabaltzea erabaki zuen. Dauden diru-baliabide urriak eta ezarpen-arazoak ikusirik (hala nola hizkuntza-irakasle eta itzultzaile kalifikaturik eta irakaskuntza-materialik eza), espero dezagun hartutako konpromisoen zati bat behintzat abian jartzea bosgarren segimendu-zikloari ekin aurretik.

7.2.2. Eremu urriko hezkuntza osagarria

Ministro Batzordearen beste gomendio bat eskolako curriculumean II. zatiko hizkuntzen irakaskuntza sartzea izan zen.

II. zatiko hizkuntzetako hiztunak 1.000 eta 5.000 artean dira: bulgariarrak, grekoak, erruteniarrak, poloniarak, ukrainarrak eta armeniarak. Gutxiengo txiki horiek ez dute eskola-sarerik; gehienek eskola bakarra dute, edo batere ez. Eskolaz kanpoko jardueren bidez antolatu zuten beren hizkuntzaren irakaskuntza,

igandeko eskolen bidez. Ikasleak gutxi direnez eta taldeak sakabanatuta egoten direnez, oso zaila da eremu urriko hezkuntza antolatzea. Hungarian udalerrriak antolatu behar du eremu urriko hezkuntza, gutxienez zortzi haurren gurasoek hala eskatuta. Baina zer gertatzen da eskolaren barruti osoan ez badaude zortzi ikasle ikasgela batekin hasteko?

Gomendio hori ezartzeak berrikuntzak eskatzen zituen. Poloniar gutxiengoak Hezkuntza Publikoaren Legearentzat zuzenketa bat proposatu, eta eremu urriko hizkuntza osagarria delakoa sortu zen.

Eremu urriko hizkuntza osagarrian, goizez eskola desberdinetara joaten diren ikasleek eremu urriko hezkuntza osagarria jaso dezakete, elkarturik, arratsaldean. Eremu urriko hezkuntza osagarrian eremu urriko hizkuntza, kultura eta zibilizazioa bakarrik irakasten da: beste ikasgai guztiak haurra normalean joaten den eskolan ematen dira. Eremu urriko hezkuntza osagarriak babes legal, profesional, pertsonal eta finantzario sendoak ditu, eskolako ikasketen zati ofizialtzat hartzen da eta, hala, estatuak diruz laguntzen du. Ez du eskatzen ikasleen gutxienerako kopururik. Ikasleen emaitzak beren eskolako txostenetan jasotzen dira; Bigarren Hezkuntzaren bukaerako azterketan gaindituta dute ikasgai hori, eta oinarri horrekin hasten dute goi-mailako hezkuntza.

Orain arte, grekoak, poloniarrek eta bulgariarrak nazio osoan baliatu dira aukera horretaz. Poloniar Eskolako zuzendariari eskatu berri zaio bere esperientzien aurkezpen bat egiteko Europako Kontseiluaren batzar batean, Estrasburgon.

7.2.3. Eremu urriko autogobernua

Hungariari egindako beste gomendio bat eremu urriko autogobernu-sistema garatzea da –Gutxiengoen Legearen barruan finkatua–, sistema hori oso baliagarria baita eremu urriko hizkuntzak sustatzeko. Aurrerago, hezkuntza- eta kultura-erakundeak eremu urriko autogobernuei transferitzeko baldintzak hobetzea ere azpimarratu zen.

Gutxiengoen Legeak gutxiengoen kultura-autonomiaren esparrua definitu du, eta eremu urriko autogobernuen sistema ezarri du. Gutxiengoek berek hautatzen dituzte erakunde horiek, lau urterako, beren interesak ordezkari ditzaten tokian, eskualdean edo nazioan. Oraingo 2006-10 arteko epean eremu urriko 2.000 autogobernu baino gehiago daude lanean herrialde osoan. Hamahiru gutxiengoek dute beren nazioaren eremu urriko autogobernua.

Eremu urriko autogobernuek kontsulta- eta erabaki-eskubide zabalak dituzte, bai eta blokeatzeko ahalmenak ere (beto-eskubideak). Gutxiengoen komunitateei eragiten dieten tokiko udal dekretuek –hezkuntza publikoa, hedabi-

deak, kultura-ondarearen zaintza eta ama-hizkuntzaren erabilera kolektiboari buruzkoak— tokiko eremu urriko autogobernuaren oniritzia eskatzen dute. Nazioko eremu urriko autogobernuei galdetzen zaie legeek gutxiengoei eragiten dieten bakoitzean, eta beto-eskubidea dute eskolako liburuetan eta eremu urriko hezkuntzari buruzko gobernu-dekretuetan.

Kontsulta-eskubide horiez gain, eremu urriko autogobernuek kultura-autonomia handia dute eta erabaki autonomoak har ditzakete kulturaren eta hezkuntzaren hainbat arlotan. Adibidez, gutxiengoaren sinboloak eta oroitzapen-guneak erabaki ditzakete, tokiko eta nazioko beren jaiegunak, eta irrati eta telebista publikoan duten denbora nola erabili. Nolanahi ere, kultura- eta hezkuntza-erakundeak sortu, agintea hartu eta gobernatzeko eskubidea da denetan garrantzitsuena. Erakunde horiek gobernatzeko, eremu urriko autogobernuek beste erakunde publikoek bezala jasotzen dute estatuaren laguntza. Administrazio-eskubideekin batera, ondasun higigarriak eta higiezinak ere doan transferitzen dira.

Orain arte, eremu urriko autogobernuek ia 40 erakunde sortu edo jaso dituzte estatuarengandik: erdi mailako zazpi eskola elebidun edo eremu urriko hizkuntzako eskola, liburutegiak, ikerketa-institutuak, argitaletxeak, kultura-guneak, pedagogia-institutuak, museoak, antzokiak eta Internet bidezko irriatiak. Udal-eskolen kargu eginda, eremu urriko autogobernuak bihurtzen dira bertako administratzaile: hezkuntzako curriculumak eta edukia erabakitzen dute, irakaskuntza-materiala aukeratzen dute, irakasleak hautatu eta hartzen dituzte, eta abar. Joera hori diruz lagunduta, eta gomendioari jarraiki, hezkuntza- eta kultura-erakundeak eremu urriko autogobernuei transferitzeko baldintzak hobetu nahi ditu Hungariak.

7.2.4. Eremu urriko hizkuntzaren erabilera

Hautatutako gomendioen eta horien aurrean Hungariak egin duenari buruzko laburpen hau amaitzeko, ezartzerik izan ez den gomendio bat ere aipatu behar da. Oraindik ez zaio konponbiderik aurkitu.

Estatuaren bigarren eta hirugarren txostenen ostean, Ministro Batzordeak behin eta berriro premiatu zituen Hungariako agintariak hiztunen kopuruak 9. eta 10. artikulua ezartzea justifikatzen duen lurraldeak identifikatzeko eta definitzeko.

Zentsuaren arabera, Hungariako gutxiengoak oso barreiatuta daude, eta beren kokagune tradizionalak gero eta gehiago ari dira nahasten, gizartearen mugikortasuna dela eta. Gutxiengo guztietako kideak daude konderri eta herri guztietan, eskualde txiki batzuetako kontzentrazioa handixeagoa den arren.

Oso arraroa da eremu urriko hizkuntza bat erabiltzea epaitegietan edo Administrazio Publikoan. Hainbat xedapen onartu arren eta eremu urriko hizkuntzak dakizkiten funtzionarioak gero eta gehiago izan arren, gutxiengoetako kideek praktikan ez dute beren hizkuntza erabiltzen agintariekin idatziz komunikatzeko. Gutxitan erabiltzen dute ahoz hitz egiteko udaleko administrariekin.

Hizkuntzen lurraldeak ez identifikatzea da arazo horren arrazoi bat. Beste bat, garrantzitsua ere, gutxiengoen eskaerarik eza da, eta eremu horietan hizkuntza erabili nahi ez izatea. Baina zergatik?

Hasteko, Hungariako gutxiengoen hizkuntza-asimilazioa, tamalez, nahiko aurreratuta dago. Bigarrenik, salbuespenak salbuespen, gutxiengoek sekula ez dute Administrazio Publikorik izan beren ama-hizkuntzan. Une honetan, eremu urriko hizkuntzaz duten jakintza-mailarekin ezin dute agiri ofizialik idatzi, batak bat lege-hitz bereziak erabili behar badira. Hizkuntza-gaitasun hori gaintzeko, agian, eremu urriko hizkuntzetan idatzitako inprimakiak eskuragarri jar litezke administrazio-prozeduretan. Inprimaki horiek gero eta zabalduago daude Administrazio Publikoan.

1980ko hamarkadaz geroztik, Hungariaren gutxiengoekiko politikak nabarmen indartu du gutxiengoen nortasuna. Gutxiengoek gero eta argiago aldarrikatzen dute beren jatorria, baina ama-hizkuntzaren jakintza gutxitu egin da. Ia talde guztiek jasan dute hiztunen galera. Eremu urriko autogobernuek sendotu egin dute norbanakoaren eta taldearen nortasuna, gutxiengoen komunitateei eusteko balio izan du, baina ez da aski izan eremu urriko hizkuntza iraunarazteko eta erabiltzeko. Eremu urriko autogobernuak eraginkorragoak direla ematen du politikan parte harrarazten, oro har, eremu urriko hizkuntzen erabilera areagotzen baino.

Honela zioen eslovakiar komunitateko kide batek: “Hungariako gutxiengoen aldeko legeak eredugarriak dira, baina beranduegi heldu dira”. Esaldi horrek zer pentsatua ematen digu, eta beste hizkuntza-komunitate batzuek beren hizkuntzak suspertzeko egindako ahaleginetatik ikasteko gogoia ematen du.

8. Espainiaren kasua

JOSÉ MARÍA PÉREZ MEDINA

Espainiako Gobernuko Presidentzia

8.1. Espainia, hizkuntza-aberastasun eta -konplexutasun bereziko herrialdea

Konferentzia hau hasteko ekitaldian emandako zenbait hitzalditan esan da Espainian beste leku batzuetan baino hobeto betetzen dela Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta, horrenbestez, botere publikoen politikak egiazki bat datozela Gutunaren helburuekin.

Jakina, iritzi hori ematea ez dagokigu Espainiak egin eta orain arte Europako Kontseiluan aurkeztu dituen bi txostenen prestaketan protagonismo berezia izan dugun pertsonoi, baina iritzia hain aldekoa izateak azalpen labur bat ematea merezi du, behar bezala jakin dadin zein den Espainiako hizkuntzen egoera eta gaiak zenbateko garrantzia izan duen eztabaida publikoan duela hainbat urtetatik hona.

Lehenik eta behin, gogorarazi behar dugu ziur asko Espainia dela Europan eremu urriko hizkuntzen hiztun gehien duen herrialdea, bai eta konplexutasun handienekoa ere. Baieztapen hori, dudarik gabe, eztabaida ezina da Europako Mendebaldeko herrialdeekin alderatuz gero, eta Europako kontinente osoan, beharbada Errusiar Federakundearekin baino ezin da alderatu, oso estatu zabal, populatu eta askotarikoa delako.

Horregatik, Gutunak oso erronka handiak ditu Espainian; baina, era berean, Europako Kontseiluaren ekimenak herrialdearen errealitateko ondo egokitzen direlako adibide ona da. Hortaz, Espainiak interes handiz zabaltzen du bere esperientzia, Europako herrialde guztietarako bereziki interesgarria izan daitekeelakoan. Estatuak Gutuna betetzeaz aldi behin egiten dituzten txostenen irakurketa behar bezain adierazgarria da Espainiako esperientziaren balioari dagokionez. Horregatik guztiatik, oro har, Espainia eroso eta oso motibatua sentitzen da Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna zabaldu eta aldezteko lanean.

Hala ere, halaber, onartu beharra dugu hizkuntza-kontuek beti eduki sinboliko eta identitatezko handia dutela herrialde guztietan, bai eta sentimenduzkoa ere; eta hizkuntza baten edo beste baten defentsa, batzuetan, amorratua izan daite-

keela, eta eremu urriko hizkuntzekiko jarrera ulerberak ez duela beti onarpena eta adostasuna biltzen. Eta, horregatik, beste hainbat lekutan bezala Espainian ere, sarritan eta etengabe egiten da hizkuntza-arazoari buruzko eztabaida publikoa, hedabideetan askotan ematen dira gaiaren gaineko albisteak, eta maiz izaten da eztabaida politikoaren eragile, hizkuntza-politikak aukera politikoak ezaugarritzen eta bereizten dituen beste elementu bat direlako.

Hitz batean, Espainian eskualdeko hizkuntzei ematen zaien babes-maila handiak ez du eragotzi gizartearen zati batek pentsatzea babes hori ez dela nahikoa, eta oraindik badagoela horretan zer hobetu; beste zati batek, ordea, uste du lortutako babes-maila gehiegizkoa dela, eta gizartearen benetako eskaeratik urrundagoela.

Hizkuntzei buruzko eztabaida hori txostenak egiteko prozesuan bertan ere nabaritu da: alde batetik, Gutuna, batzuetan, tesi batzuk edo bestetzuk aldezteko argudio gisa erabili da; bestetik, denek espero dute txosten nazionaletan, Aditu Batzordearen iritzietan edo azken gomendioetan berretsita ikustea hizkuntza-politikaren arloan dauzkaten jarrerak, eta beren usteak hobeto aldezteko argudioak bilatzen dituzte haietan.

Dudarik gabe, badago Espainiako eskualdeko hizkuntzen babesa ulertzeko funtsezkoa den elementu bat: boterearen antolaketa konstituzionala eta 1978ko Konstituzioari eta autonomia-erkidego bakoitzeko autonomia-estatutuei esker lortu den deszentralizazio politiko sakona. Babes hori, gainera, errazagoa da autonomia-erkidegoek eskumen politiko garrantzitsuak dituztelako, eguneguneko bizitza administratiboan presente daudelako eta aurrekontu-baliabide garrantzitsuen jabe direlako.

Azpirarratu beharra dugu: datu hori garrantzitsua da ulertzeko zenbaterainokoa den hizkuntza horien babesa eta bultzatutako politiken arrakasta; hain zuzen ere, autonomia-erkidegoek berek dutelako beren hizkuntzak babesteko interesik handiena. Autonomia-erkidegoek Gutunaren inguruan duten jarreraren emaitza bikoitza eta, dudarik gabe, paradoxikoa da. Erantzukizun publikoak dauzkaten neurrian, haiek betetzera behartuta daude, eta Aditu Batzordearen lanaren bidez fiskalizatuak izatera. Baina, bestaldetik, hiztunen ordezkari politiko gisa dihardutenean, eragile aktibo moduan esku hartzen dute, nork bere hizkuntzaren garapena, sustapena eta babesa lortzeko.

Hitz batean, gizarte-interesak eta erantzukizun publikoak batera etortzeak azaltzen du Gutunaren aplikazioak Espainian izan duen arrakasta. Gainera, hizkuntzek Espainian duten babes handiak nolabait Espainiako mugak gainditu ditu, eta Espainiako Gobernuahalegin berezia egitera behartu du, gure eskualde-hizkuntzek Europar Batasunaren nolabaiteko aitortpena izan dezaten

lortzeko, horretarako 1/1958 Erregelamendua, Hizkuntza Erabilerei buruzkoa, aldatu behar izan gabe. Hizkuntza horiek ez dira hizkuntza ofizial Batasuneko ezain estatu kideetan, baina, kasu jakin batzuetan, estaturen bateko hizkuntza izateagatik ofizialak diren zenbait hizkuntzak baino hiztun gehiago dituzte.

Eskualde-hizkuntza koofizialak dakizkiten edo erabiltzen dituzten herritarrei buruzko datu estatistikoak beti zalantzaszkoak dira, eta hainbat interpretazio planteatzen dituzte; baina egindako azken biztanle-eroldaren arabera (2001), EAEn biztanleen %47 mintzatzen zen euskaraz, eta %14 Nafarroan; Katalunian, biztanleen %70ek hitz egiten zuen katalanez, eta %60k Balear Uharteretan; gainera, Valentziako Erkidegoko %48k valentziera erabiltzen zuen; Galizian, azkenik, biztanleen %90ek egiten zuen galizieraz. Hitz batean, 18 milioi biztanle inguruko guneez ari gara, eta guneez horretan gutxienez 10 milioi pertsona gauza dira gaztelania ez den beste hizkuntza batean mintzatzeko.

Horrenbestez, Gutuna Espainian aplikatzeak eragina dauka 17 autonomia-erkidegoetatik seitan eta hiru hizkuntzatan, hizkuntza horien izen ofizialak lau izan arren. Hitz batean, egoera bereziki konplexua da, herrialdearen kultura-konplexutasunaren adierazgarria da, eta kontuan hartu beharrekoa da Espainiak Europako Kontseiluan aldi berean behin aurkezten dituen txostenen idazketan.

Badago askotan elkarren aurkako iritziak eta eztabaidak pizten dituen gai bat: eskualde-hizkuntzen eta estatuko hizkuntza komun eta ofizialaren arteko harremanarena (azken hizkuntza hori gaztelania edo espainola baino ez da).

Jakina, harremana oso konplexua da. Gaztelania oso garrantzitsua da munduan, prestigio handia du, gaztelaniadunen kopurua azkar eta asko hazten ari delako, munduan gehien hitz egiten den laugarren hizkuntza izateraino; are gehiago, ama-hizkuntza gisa bigarrena ere izan liteke.

Gainera, Espainia barruan ia herritar guztiek dakite eta zuzen nahiz nahikoa ongi darabilte gaztelania edo espainola. Horren ondorioz, hizkuntza erakargarria da, eta nazioarteko balio ekonomikoa dauka. Eguneroko bizitzan, eta zailtza izanez gero, hiztunek beti jo dezakete gaztelania erabiltzera. Horregatik guztiagatik, oso tentazio handia izan daiteke gaztelania erabiltzea eta eskualde-hizkuntza ahaztea; izan ere, tentazio horri aurre egiteko ezinbestekoa da eskualde-hizkuntzei eusteko eta laguntzeko asmo erabakia izatea.

Berezko hizkuntza duten sei autonomia-erkidegoetan berezko hizkuntza hori sustatzeko eta juridikoki babesteko aukerak antzekoak izanagatik, hizkuntza bakoitzak erkidego bakoitzean daukan gizarte-maila eta erabilera desberdinak dira, haiekiko gizarte-iritzia eta erabilera- nahiz onarpen-mailak aldatu egiten baitira erkidego batetik bestera. Hizkuntza bakoitzaren sustraitze-maila eta

gizarte-prestigioa, immigrazioaren indarra eta hizkuntza ikasteko zailtasuna (adibidez, euskararena) direla eta, hizkuntzak sustatzeko politika publikoak errealitate soziolinguistiko horretara egokitzen dira, eta gobernu autonomoen estrategiak desberdinak dira kasu bakoitzean.

Adibidez, katalanak gizarte- eta kultura-prestigio handia dauka, baina erronka handi bati egin behar dio aurre: etorkinen artean hizkuntzaren erabilera zabaltzeari, hain zuzen ere, etorkinak asko izaki.

Galizierak dauzka baldintza objektibo onenak, immigrazioa urria delako eta herritar askok eta askok badakitelako hizkuntza, baina hizkuntza horrek izan ohi duen ezaugarri bat gainditu beharra dauka: diglosia. Euskarak, ordea, beste erronka handi bat dauka: zaila da ikastea eta eguneroko bizitzan erabiltzea.

8.2. Eskualde-hizkuntzak eta Espainiako antolakuntza konstituzionala

Espainia, 1978ko Konstituzioaz geroztik, 17 autonomia-erkidego edo eskualdetan dago banatuta. Guztiek autonomia politikoa dute; hau da, legegintza-organoak dauzkate, bai eta gobernu-kontseilu bat ere, haien aurrean erantzun behar duena.

Legegintza-organo horietako kideak hauteskunde berezi batzuetan aukeratzen dira, herritarren arteko zuzeneko sufragio unibertsal bidez; horregatik, kide horien legezketasuna erabatekoa da, demokraziaren ikuspuntutik bezala ordezkartzaren aldetik ere.

Dauzkaten eskumenei dagokienez, oso garrantzitsuak dira, bereziki legegintza-arlokoak, lege-mailako arauak onar baititzakete, Espainiako Parlamentuak onartutako legeen balio juridiko berekoak.

Jakina, Gutun hau betetzeak lotura estua du herrialde bakoitzaren Berrespen Tresnarekin. Prozesu honetan, Espainiak bere Konstituzioari egokitzen zaion sistema bat aukeratu zuen: Gutuna erabat onartzen da, are hartan adierazitako babes-maila handienetan ere, autonomia-estatutuetan berezko hizkuntza koofiziala jasota daukaten sei autonomia-erkidegoetako (EAEko, Kataluniako, Galiziako, Valentziako Erkidegoko, Nafarroako eta Balear Uharteetako) hizkuntza koofizialei dagokienez.

Bigarrenik, autonomia-estatutuetan, koofizialak ez izan arren, nolabaiteko aitortpena duten hizkuntzak maila apalagoan aintzatestearen alde egiten da. Hizkuntza horiek, nagusiki, hauek dira: galiziera, Asturiasen eta Gaztela eta Leonen ere hitz egiten baita; eta aragoiera nahiz katalana, biak ere Aragoi baitarabiltzate. Babes hori askoz txikiagoa da.

Espainiaren berrespen-tresnan Espainiako sistema konstituzionalaz esaten denaren arabera, Gutuna hizkuntza horietako bakoitza koofiziala den lurraldeetan aplikatzera baino ez da konprometitzen Espainia; hau da, autonomia-erkidego bakoitzaren barruan. Horrek esan nahi du babes-erkidego bakoitzaren administrazio-mugetan amaitzen dela. Eta arazo bat sortzen da: herritar batzuek hizkuntza jakin bat hitz egiten dute, baina hizkuntza hori koofiziala den erkidegoaren lurraldetik kanpo bizi dira. Katalanez mintzatu eta Aragoi bizi eta galizieraz mintzatu eta Asturiasen nahiz Gaztela eta Leonen bizi diren pertsonen kasua da bereziki, argi baitago babes-maila txikiagoa dutela.

Espainiak badu beste berezitasun bat: estatuko organo konstituzionalak (egoitza estatuko hiriburuan dute; hau da, Madrilen) ez daude koofizialtasun-erregimenaren mende, eta, horrenbestez, gaztelania edo espainola da estatuko hizkuntza ofizial bakarra, eta organo konstituzionalek hizkuntza horretan dihardute. Bi legegintza-ganberena da kasu adierazgarriena, baina orobat gertatzen da hauekin: Estatuko Buruzagitzarekin berarekin, Justizia Auzitegi Zentralekin, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialarekin, Herriaren Defendatzaila edo Arartekoarekin eta abarrekin. Organo horiek nahi izanez gero, jarrera ona agertuz gero erabiliko dituzte eskualde-hizkuntzak, horretara behartuta egon gabe. Senatuarena kasu berezia da, daukan araudiaren hurrenez hurrengo aldaketei esker hizkuntzok gero eta gehiago erabiltzeko aukera dagoelako; aipatzekoa da, halaber, gero eta gehiago erabiltzen ari direla Administrazio Zentraleko erakunde ofizialen web-orrietan.

Hizkuntza bakoitzaren ofizialtasunaren lurralde-mugaketak berekin dakar estatuko organoak eleaniztunak ez izatea, eta horrek ezinegona eragiten du herritarren artean, zail egiten zaie hori ulertzea, beren autonomia-erkidegoko lurraldean baino ezin erabil baititzakete beren hizkuntza-eskubideak, estatuko organo politikoetan hizkuntza-eskubide horiek jasota ez egotearen ondorioz. Horri dagokionez, Espainiako eredia nabarmenki da beste batzuk ez bezalakoa; adibidez, Kanadan, Suitzan eta Belgikan estatu federalak bere egiten du estatuaren eleaniztasuna.

Koofizialtasunari lotutako lurraldearen mugaketa-printzipio horren arabera, legeak onartzeko eta eskualde-hizkuntzen sustapen eta babeserako politika propioak egiteko eskumena autonomia-erkidego bakoitzari dagokio. Gobernu zentralak, bestalde, ez dauka eskumenik hizkuntzen sustapen-arloan legegintza-araurik emateko, edo politika propiorik egiteko, Konstituzioko 148. artikuluan argi adierazita baitago autonomia-erkidegoen eta ez beste ezeinen eskumena dela.

Hortaz, botere zentralek ezin dituzte arautu hizkuntza koofizialak, eskualde-hizkuntzak, eta horren ondorioa da Espainian lege edo arau orokorrik ez egotea

hizkuntzei buruz. Estatuak ez du inolako legerik eman hizkuntza-erabilerez, eta eginkizun hori autonomia-erkidegoetako sei legebiltzarrek hizkuntzen normalizaziorako onartutako sei legeek betetzen dute. Estatuak sektore jakin batez ari de-nean baino ezin du legerik eman hizkuntzei dagokienez, eta horren adierazgarri dira hezkuntzari, funtzio publikoari, justiziari edo kontsumoari buruzko legeak; baina ezin du hizkuntza-erabilerei buruzko inolako legerik onartu, Espainiako lurralde osoan eta arlo guztietan (osotasunean hartuta) erabiltzekoa bada.

Horrenbestez, eta kontuan hartuta zeinen garrantzitsua den legegintza autonoma, autonomia-erkidegoen eginkizunak berebiziko garrantzia du eskualde-hizkuntzak sustatzeko eta finantzatzeko politketan. Eta, horri dagokionez, gogorarazi behar dugu erkidegoen esku dagoela Espainiako gastu publikoaren %35 baino gehiago, eta Espainiako funtzionarioen %55 autonomia-erkidegoen mende dagoela.

Eskumenen esparruan, eta eskualde-hizkuntzen sustapenaren ikuspuntutik, berebiziko garrantzia du hezkuntza-arloko eskumenak. Kasu horretan, Parlamentu Nazionalak onartzen du oinarrizko legea, baina autonomia-erkidegoetako legebiltzarrei dagokie hura garatzea, eta eskualdeetako Administrazioei abiaraztea. Dударik gabe, erkidegoek hizkuntza sustatzeko daukaten tresna nagusia da, hezkuntza-curriculumean sartzea baita eskualde-hizkuntzak sustatzeko eta hobeto erabiltzeko bermerik onena.

Bigarrenik, autonomia-erkidegoetan dauden jabetza publikoko irriak eta telebistak hizkuntza koofizialen sustapenean duten eraginagatik nabarmentzen dira, funtsezko eginkizuna bete baitute eskualde-hizkuntzen erabileraren normalizazioan, eta ikus-entzuleen artean %25eko ratioa lortu. Gainera, komunikabide publiko horiek lagungarriak izan dira hitzunik aintzat har dezaten zer aukera ematen dituzten beren hizkuntzek kultura eskuratzeko.

8.3. Gutunaren izaera eta barne-esparruko ondorioak: estatuak izenpetutako nazioarteko ituna, estatuak eta eskualde- nahiz toki-erakundeek bete beharrekoa

Puig jaunak konferentziaren hasiera-ekitaldian adierazi bezala, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak aplikaziorako aukera-sorta zabala ematen du; horrenbestez, estatuak berek, Gutuna berretsi behar dutenean, babes-maila bat edo beste bat aukera dezakete. Aukera horiek ikusita, eta kontuan hartuta gai honek interes sozial eta politiko handia duela Espainian, Espainiako Parlamentu Nazionalak babes-maila handiena aukeratu zuen. Alde batetik, eskualde-hizkuntzen koofizialtasun-ereduarekiko koherentziagatik: logikoa da koofizialtasun horren aitortpena bat etortzea Gutunean aurreikusitako babes-maila handienarekin.

Bestetik, Espainiako politikaren barne-dinamikagatik. Jadanik gogorrazia dugu gai honekiko etengabeko interesa, bai eta autonomia-erkidegoek Gutuna dela eta daukaten interesa ere; horri guztiari Kongresuko talde parlamentario nazionalistek nahiz eskualde-mailakoek duten interesa gehitu behar zaio, oso eginkizun aktiboa bete ohi baitute Gutuna nola betetzen ari den jakiteko jarraipenean eta kontrolean.

Horretara, Diputatuen Kongresuan (Espainiako Parlamentuko behe-ganbera) Gutunari buruzko eztabaida bat izan zen VI. Legegintzaldian (1996-2000) Gutunaren berrespenaren hasieraren kariaz; VII. Legegintzaldian (2000-2004) bi eztabaida egin ziren; eta VIII.ean (2004-2008) hiru.

Diputatuek Gutunaren inguruan erakusten duten interes gero eta handiagoa, gainera, kontrol-prozesuaren garapenarekin batera gertatzen ari da: txostenen aurkezpenak, Aditu Batzordearen irizpidearen zabalkundeak eta geroko gomendioek oihartzuna dute Espainiako komunikabideetan, eta Parlamentuaren arreta berezia jasotzen dute. Diputatuek eta senatariek, testu horiek oinarritzat hartuta, gero eta interes handiagoa erakusten dute Gobernuak Europako Kontseiluaren Gomendioak betetzeko hartu behar dituen neurrien eta haien eraginen inguruan.

Baina Espainiak, ziur aski beste estatu batzuek bezala, arazo konstituzional bat dauka: Gutuna nazioarteko hitzarmen bat da eta, beraz, estatu zentralari baino ez dagozkio hura sinatzeko erabakia eta berrespenaren edukia; hala ere Administrazio guztiek (estatalak, eskualdeetakoek eta tokian tokikoek) bete behar dituzte Gutunaren eduki materiala eta Gutuna berrestean onartutako aginduak, nahiz eta eskualdeetako eta tokian tokiko Administrazioek inolako parte-hartzerik ez izan ez Gutuna egin zenean ez sinatu zenean.

Jakina, kontu hori orokorra da, eta zerikusia dauka Nazioarteko Zuzenbideko konpromisoak antolatzeke moduarekin, eskumenen barne-banaketarako sistema zein den ikusita, baina arazo hori bereziki adierazgarria da Gutunaren kasuan.

Pixkanaka, eta batez ere autonomia-estatutuen testu berrietan, argi eta garbi onartuz joan da estatua behartuta dagoela autonomia-erkidegoei jakinarazte-
ra zer jarduera-proiektu dituen nazioarteko esparruan, proiektu horiek eragina izanez gero erkidegoen eskumenetan, baina tramite hori ez da betetzen ari formaltasun handiz eta modu guztiz egokian.

Hitz batean, autonomia-erkidegoek parte hartzerik izan gabe ezarritako bete-behar batzuetara egokitu behar dituzte beren politikak eta neurriak, eta hori da Espainiak Gutuna abiarazteko prozesuan daukan erronka handia.

8.4. Espainiaren aldizkako txostenak egiteko prozedurak

Jakina, Espainiak ez dauka prozedura arautu eta iraunkorrik Europako Kontseiluan zenbait gairi buruz aurkeztu behar dituen txostenak egiteko. Prozedurak desberdinak dira kasu bakoitzean, betebeharren eta haiek abiarazteko ardura duten administrazio-organoen arabera.

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunari dagokionez, lehen arazoa da kontu horizontal bat dela, esparru askotan eragina duena: hezkuntzan, justizian, administrazio-jardueretan, kulturaren, komunikabideetan, jarduera ekonomiko eta sozialean eta abarretan.

Horrenbestez, ezinbestekoa da Administrazio Zentraleko ia ministerio guztiek esku hartzea, baina, bereziki, hauek: Hezkuntza Ministerioak, Justizia Ministerioak, Kultura Ministerioak, Lankidetzaren eta Kanpo Arazoetako Ministerioak eta Lurralde Politikako Ministerioak (2009ko apirila arte, Herri Administrazioetako Ministerioa zeritzon).

Bigarrenik, autonomia-erkidegoek dute bereziki bete behar Gutuna, eta, horregatik, kontrol-prozesuaren koordinazio orokorra Lurralde Politikako Ministerioari dagokio, autonomia-erkidegoekiko lotura eta koordinaziorako gune den neurrian. Kontu horrek gogoeta txiki bat egitea merezi du, nazioarteko betebeharra gobernu zentralari baino ez dagokiolako, baina gobernu horrek, horretarako, autonomia-erkidegoen babesa eta lankidetzaren behar ditu.

Prozesu horretan, hizkuntza koofizial propioa duten sei autonomia-erkidegoek esku hartzen dute nagusiki: EAEk, Kataluniak, Galiziak, Valentziako Erkidegoak, Nafarroak eta Balear Uharteak; gainera, eskualde-hizkuntzak (koofizialak izan gabe ere) erabiltzen diren beste erkidegoei buruzko informazioa eskatzen da, Aragoi, Asturias eta Gaztela eta Leoni buruzkoa. Hizpide duguna kontu horizontala denez, aipatu sei erkidegoetan barne-koordinaziorako prozesu bat behar da, zenbait sailek ematen baitituzte txostenak egiteko datuak eta irizpideak: Hezkuntza Sailak, Kulturakoak eta abarrek. Maila horretan, Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiari edo Idazkaritza Nagusiari dagokio koordinazioa.

Hitz batean, Espainiaren txostena egiteko, beharrezkoa izan daiteke 24 administrazio-unitatek ere esku hartzea, eta horrek berekin dakar lana koordinatzeko eta antolatzeko arazo handi bati aurre egin behar izatea bi maila hauetan: gobernu zentralean eta gobernu autonomikoetan.

Egoera hori zela eta, lan-metodo konplexu bat prestatu zen txostena egiteko, zenbait fase zituena:

- Autonomia-erkidegoekin biltzea, baliatu beharreko lan-metodoa erabakitzeke.
- Estatuko Administrazioak txosten komun bat egitea, eta horretan Espainia osorako erreferentzia komunak jasotzea.
- Autonomia-erkidego bakoitzak bere txostena egitea, Europako Kontseiluak emandako galdera-sortari jarraikiz, eta, hala egokituz gero, hiztunen erakundeek entzutea.
- Autonomia-erkidegoekin biltzea, egindako sei txostenak bateratzeko.
- Estatuko Administrazioak sei autonomia-erkidegoetako elementu komun eta espezifikoekin txosten bateratu bat egitea.
- Autonomia-erkidegoek testuak aztertzea, eta beharrezkotzat jotzen dituzten datu berriak gehitzea eta aldaketak proposatzea.
- Txostena Europako Kontseilura bidaltzea.
- Estatuko Administrazioa eta sei autonomia-erkidegoak batera biltzea Aditu Batzordearekin.

Espainiak prozesu horretan ekarpenen bat egin badezake bere esperientzian oinarrituta, ekarpen hori, dudarik gabe, hau da: garrantzitsua eta interesgarria da kontuan hartzea eskualde-hizkuntzen sustapenean inplikazio handiena duten agintariak (hau da, autonomia-erkidegoak), ahalegin handia egin baitzuten bigarren txostena prestatzen. Haiek ekarpenik egin ez balute, txostenaren interesa askoz txikiagoa izango zen. Hau da, Espainia, bigarren txostenean, Terry Davis jaunak Konferentziaren hasiera-ekitaldian azaldu zuen ideia bat erabiltzen ahalagindu zen: elkarriketaren eta elkar ulertzearen alde egitea.

Gainera, lan bateratu hori oso giro atseginean egin da, oso gogobetegarria izan da, egileek gogo handiz egin dutelako, eta interes handiena zutelako lana gauzatzeko. Esparru teknikoari dagokionez, ondoren aipatzen direnak izan ziren arazo nagusiak.

Lehenik, ez zegoen daturik galdera-sortari erantzuteko, edo baieztapenen bat estatistikoki adierazteko. Txostena egiteko, beharrezkoa da datuak biltzeko lan handia egitea.

Bigarrenik, Espainiako eskualde-hizkuntzen egoera desberdinak direla eta, txostena heterogeneoa da ezinbestean; hortaz, nolabait, txostena beste sei txosten desberdin batzearen emaitza dela ere esan daiteke. Jakina, gai askotan araugintza-esparrua estatu-mailakoa da, eta horrek lege-edukiak homogeneizatzeko elementu gisa balio du, baina aplikazioa eta hiztunek azkenean egiten duten

erabilera desberdinak dira erkidegoen arabera; eta hori argi eta garbi ikusten da txostenean. Adibidez, oso arreta desberdina jarri da eskualde-hizkuntzan egiten diren komunikabideetan, edo hizkuntza horiek teknologia berrietan erabiltzen diren moduan.

Hirugarrenik, hizkuntza batzuk bi autonomia-erkidegotan erabiltzen dira, edo ez dira bakarrik erabiltzen erkidego bakar batean. Egoera horren ondorioz, ikuspuntuak desberdinak dira erkidego bakoitzaren arabera, baina ez da gatazkarik sortu, edo ikuspuntuak ez dira izan gatazka bat pizteko bezain desberdinak.

Laugarrenik, hizkuntza koofiziala duten erkidegoetan gaztelaniadunak babes-teko elkarteen mugimendua gehiago garatzearekin batera, gobernuz kanpoko erakundeen edo hiztunen ordezkarien eginkizuna aldatu egin da azken urteetan. Mugimendu hark oihartzun zabala dauka komunikabideetan, eta Gutunean aldeztutakoen aurkako planteamenduak sortzea ekar lezake; hau da, eremu urriko hizkuntzak aldeztearen aurkakoak. Bestalde, talde horiek diote gaztelania gutxiengo-egoeran dagoela erkidego horietan, edo bigarren mailan baztertuta.

Uler daitekeenez, egoera konplexua da, eta elkar ulertzea eta errespetatzea oinarriztat hartuta baino ezingo zaio erantzun zuzenik eman. Nolanahi ere, txostenak prestatu eta eragingandako kolektiboen parte-hartzearen ikuspuntutik, bi joera horiek orain artekoaren oso bestelako egoera batean kokatzen dute aipatu parte-hartze hori.

Espainiaren aurreko esperientziaren aldean (2002an egindako lehen txostena), lan-metodoa oso desberdina izan zen, eta barne-emitza eztabaidatuagoa. Garai hartan, Espainiak horrelako txosten bat egin behar zuen lehenengo aldia zenez, gobernu zentralak egin zuen ia-ia txosten osoa, autonomia-erkidegoen parte-hartzea oso txikia izan zen, eta azken emitza argi eta garbi ez hain gogobetegarria. Horregatik, bi lan-metodoen arteko alderaketak oso argi uzten du zer abantaila dituen bigarren txostenean parte hartzeko aukeratutako sistemak.

2002an egindako hautua gauza berria izateagatik eta prozesuaren konplexutasunagatik uler daiteke; gainera, Espainiaren lehen txostena zenez, bai alderdi arauemaileak bai esparru juridikoaren deskribapena erabilera praktikoari buruzko datuei eta iritziei gailendu zitzaizkien. Baina, nolanahi ere, argi geratu zen zer muga dituen lan-metodo horrek, alde batera gelditu baitziren hiztunak eta Gutunaren aplikazioa egokia izan zedin interes handiena zuten Administrazio eskudunak.

8.5. Gutunaren jarraipen-prozesuaren etorkizuna

Espainiako eskualdeko hizkuntzak babesteko egindako lanaren jarraipen-prozesuaren lehen ondorioa da alde handiak daudela berez “eskualdeko hizkuntzen” eta “eremu urriko hizkuntzen” artean. Jakina, ulergarria da Europako Gutunak oso egoera desberdinak, askotariko hiztun-mailak eta hizkuntza-erabilerak kontuan hartu behar dituela, baina Espainiako eskualde-hizkuntzen erabileraz “gutxiengo-egoeran” dagoela baino ezin dugu esan, lurralde osoa kontuan hartzen badugu; ez, ordea, kasuan kasuko lurralde-esparruen barruan.

Baieztapen horretatik ondorio garrantzitsuak ateratzen dira: Europako Kontseiluak aldizkako txostenak egiteko prestatutako galdera-sortako itaun batzuk ez zaizkio ondo egokitzen Espainiako egoerari, Espainian hizkuntza horiek onarpen ofiziala baitute, eta ondo ezarrita baitaude; are gehiago, kasuan kasuko hezkuntza-esparruan gehienek erabiltzen dituzte. Gutunaren eta egungo kontrol-prozesuaren eboluzioak, ziur aski, berekin ekarriko du hizkuntza-motak eta haien erabilera-mailak gehiago desberdintzea eta espezializatzea eta, horrenbestez, babes-beharra handiagoa izatea.

Bigarren ondorio gisa, Espainian esan dezakegu txosten baten eta hurrengoaren arteko epea argi eta garbi laburra dela, arauetan aldaketa gutxi gerta baitaitezke eta hizkuntzen egoera oso gutxi alda baitaiteke hain tarte laburrean. Txostenak egiteak gogorarazi digu denbora luzeagoa behar dela hizkuntza-politikak eragingarriak izateko eta ondo ateratzeko, denbora-tartea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto jakin baitaiteke benetan zer ondorio izan dituzten.

Eta gogoeta horretatik abiatuta, beste zerbait ere baieztatu dezakegu; egia esan, espainiarrok, deszentralizazio politikoaren 30 urteko esperientziaren ondoren, baieztapena baino areago egin beharreko galdera bat da: zein izan dira autonomia-erkidegoek egindako sustapen-politika irmoen benetako ondorioak? Erabilitako baliabideen eta egindako lanaren heinekoa izan al da lortutako emaitza? Jakina, dudarik ez dago hizkuntzon egoerak hobera egin duela urteotan, eta galderaren erantzuna baiezkoa dela argi eta garbi; baina, autonomia-erkidegoak sortu zirenetik hainbeste denbora igaro arren, oraindik ere badaude gizartean zenbait gune, zeinetan eskualde-hizkuntzek oraindik ere oztupoak baitituzte erabilera normalizatua izateko.

Esperientzia hori ikusita, uste dugu Espainia eta, batez ere, Espainiako autonomia-erkidegoak egoera onean daudela hurrengo txostenetan hizkuntzen sustapen-politiken ebaluazio-lan gehigarria egiteko eta, horren bidez, Gutunaren aplikazio praktikoaren esperientziak aberasteko; adibidez, erabilera-adierazleak estandarizatzearen bidez, denboran zeharreko konparazioa egin ahal izateko.

Azkenik, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak emandako gomendioek, zalantzarik gabe, ondo argitzen dute zer puntutan den zailen Gutuna betetzea; eta, horregatik, uste dugu Aritu Batzordeak bete-betean asmatu duela esatean zer sektoretan hobe daitekeen oraindik eskualdeko hizkuntzen erabilera: Justizia Administrazioan eta estatuaren mende dauden eta autonomia-erki-degoetako lurraldean lan egiten duten funtzionarioen artean.

Esparru horiekin batera, globalizazio-prozesuak, komunikazio-sare berrien garapen gero eta bizkorragoak (gehien mintzatzen diren hizkuntzak baino ez baitituzte erabiltzen), informazioaren gizarte berriak eta migrazio-prozesuen indarrak erronka berriak azaleratu dituzte. Erronka horiek ezezagunak ziren 1978an Espainiako eskualdeko hizkuntzentzat eta, gaur egun, oztopo izan daitezke hizkuntzok erabilera normalizatua izan dezaten esparru guztietan.

Dudarik gabe, Gutunak esparru horretan ditu erronka handienak, eta hizkuntzak sustatzeko politika publikoek esparru horretan daukate oraindik ere egin gabeko lan gogorrena; izan ere, gai eta kasu askotan, erabiltzaileek berek aukeratzen dute *lingua franca* unibertsala onartzea, edo komunikazioa gehien errazten dieten hizkuntzak erabiltzea. Horregatik guztiagatik, zalantzarik gabekoa baitirudi, ondoriozta dezakegu hizkuntza baten etorkizuna hitzunen mende dagoela azken batean; hau da, hizkuntzak baliozko komunikazio-tresna izaten jarrai dezan agertzen duten jarreraren eta borondatearen mende.

9. Espainiako ordena konstituzionala eta Eskualdeko edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: aplikazio-arazo batzuk¹

ALBERTO LÓPEZ BASAGUREN²

Konstituzio Zuzenbideko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean (Espainia),
EEUHEGren Aditu Batzordeko kidea (Europako Kontseilua), eta Euskal Autonomia
Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordeko kidea

9.1. Eskualdeko edo Ereku Urriko Hizkuntzen babesa, Espainiako sistema konstituzionala eta Gutunaren berrespena

Gaztelania ez diren beste hizkuntzek onarpen sendoa eta sakona dute araudi-mailarik handiengan, eta testuinguru juridiko horretan berretsi du Espainiak Gutuna 1978ko Konstituzioak ezartzen duenez, gaztelania da estatuko hizkuntza ofiziala, eta, jarraian, “estatuko beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorri”.³ Konstituzioak hizkuntza “ofizialaren” maila ematen die gaztelania ez diren beste hizkuntzei, baina gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat duten autonomia-erkidegoetako estatutuen esku uzten du hizkuntza horren estatutu juridikoa erabakitzea.

Bide horri jarraituz, gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat duten autonomia-erkidegoetako estatutuek beren hizkuntza ofizial bereizgarriari gaztelaniaren pareko erregimena eman diote, gaztelaniarenaren simetrikoa,⁴ eta, horrez gain, indartu ere egin dute, hura sustatzeko helburu sendoa jarri baitute, eremu

¹ “Modelos de reconocimiento de la diversidad lingüística entre coerción y libertad de lengua” [Hizkuntza-aniztasuna aitortzeko ereduak, hizkuntza-hertsaduraren eta -askatasunaren artean] ikerketa-proiektuaren esparruan egin da lana, eta Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak finantzatu du (kodea: SEJ2007-67178).

² Egilea da idatzi honetan emandako iritzien erantzule bakarra.

³ Ikusi Konstituzioiko 3. artikulua. Aurretik, sarreran, asmo hauxe aipatzen du: “espainiar guztiak eta Espainiako herri guztiak babestea giza eskubideen egikaritzan, baita beraien kultura eta tradizioak, hizkuntzak eta erakundeak ere”.

⁴ Hizkuntzaren estatutu juridikoa hizkuntza ofizial izango ote den erabakitzea hizkuntzarekin lotutako erkidegoaren esku uzteak oso alderdi positiboak ditu, erkidegoaren errealitate soziolinguistikora eta nahira egokitzeko aukera ematen baitu. Ikusi, horrekin lotuta, A. López Basaguren, “El pluralismo lingüístico en el Estado autonómico”, *Autonomías. Revista Catalana de Derecho Público*, 9. zk., 47-83. or., eta “Minorías y Estado autonómico: los derechos de la multiculturalidad en el ámbito interno”, *Derechos constitucionales y Formas Políticas. Actas del Congreso sobre derechos constitucionales y Estado autonómico*, Cedecs, Bartzelona, 2001, 467.-497. or. Aditu Batzordeak bereziki azpimarratu du aukera horren alderdi positiboa: ikusi *Application of the Charter in Spain. 2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, ECRML (2008)5, Estrasburgo, 2008ko abenduaren 11n, 65. paragrafoa.

urriko hizkuntzat hartuta.⁵ Sistema hori garatzearen ondorioz, herritarrek eskualdeko hizkuntza erabiltzeko eskubidea erabat babestuta dute, bizitza sozialeko alor guztietan presentzia normalizatua bermatuta baitago. Beraz, Espainian dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko sistema egokia eta maila handikoa da, Europako aurreratuenetako bat, Gutunaren Aditu Batzordeak⁶ adierazi duenez.

Hori dela eta, Gutunak adierazten dituen alor guztietan betebehar-mailarik handiena onartuz berretsi du Espainiak Gutuna, nahiz eta Gutunak konpromiso-maila askoz baxuagoak onartzen dituen.⁷ Aurrerago ikusiko dugunez, horrek ez du esan nahi Espainiak Gutuna berrestean onartu dituen betebeharrak betetzeko arazorik ez dagoenik Espainiako barne-antolamenduan,⁸ baina adierazten du Espainiak ziurtasun osoz uste duela Gutunak ezartzen dituen eskakizun handienak ere erabat betetzen dituela barne-sistema juridikoak hizkuntzaren gaian.

Testuinguru horretan, esan beharra dago, araudiaren ikuspuntutik, Europako Gutunean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko ezarritako estandarra betetzeak ez duela sortu behar, oro har, arazorik Espainiako sistema juridikoaren barnean, ezta Gutunaren eskakizun-mailarik handienean badago estandarra ere, hala berretsi baitu Espainiak. Alde horretatik, antzekotasun handia dago Gutunaren eta Espainiako sistema konstituzionalaren babes-estandarretan. Gutuna berrestean onartutako betebeharrak betetzerakoan sor daitezkeen arazo praktikoek hizkuntza-aniztasuneko barne-sistemaren aplikazio desegokiak utziko dituzte agerian. Hortaz, Gutuna berrestean onartutako betebeharrak betetzen direla kontrolatzea barne-sistemaren funtzionamendua kontrolatzeko prozesu bat ere bihurtu da; nolabait, betebeharrak era egokian betetzen direla

⁵ Are gehiago, Kataluniako Estatutuaren erreforman –6/2006 Lege Organikoa, uztailaren 19koa–, katalana lehenatasunezko hizkuntza ofizial bihurtu nahi da, gaztelaniaren gainean lehenatasuna izateko. Horren ondorioetako bat da, besteak beste, derrigorrezko hezkuntzan irakaskuntza-hizkuntza bakarra katalana izango dela nahitaez, haur-hezkuntzaren zati batean izan ezik. Horri buruz gehiago jakiteko, ikusi A. López Basaguren, “Las lenguas oficiales entre Constitución y Comunidades Autónomas: ¿desarrollo o transformación del modelo constitucional?”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 79. zk., 2007, 83.-112. or.

⁶ *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostenean –ECRML (2005)4; Estrasburgo, 2005eko irailak 21–, *Findings* atalean, B paragrafoan, Batzordeak hauxe dio: “Goraipatu egin behar da Espainia, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei ematen dien aitorpen eta babes handiagatik, eta gai horretan adierazi duen ausardia eta etorkizuneko ikuspegiagatik. Europako herrialdeen artean, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesten eta sustatzen saiatzen diren herrialde nagusietako bat da Espainia”.

⁷ *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostenean, Aditu Batzordeak hauxe dio: “Gutunean ezarritako muga nabarmen gainditzen duten konpromiso batzuk hartu ditu Espainiak. Hainbat alorretan, Espainiak maila handieneko konpromisoak hartu ditu. Aditu Batzordeak errespetatzen du Espainiako agintariek ambizio handiko berrespen-tresna bat sortu eta erabiltzeko hartu duten erabakia; argi uzten du horrek konpromiso sendoa duela”. (*Findings* ataleko C letra).

⁸ *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostenean, op. cit., *Findings* atalean, B paragrafoan, Aditu Batzordeak hau gehitzen du: “oraindik ere tarte nabarmena dago hartutako konpromisoen eta legedi nazionalaren esparruak eta/edo jarduerak bermatzen duen babes-mailaren artean”. Ikusiko dugunez, arazo horiek, duten esanahi erlatiboagatik, ezin digute ahanzarazi eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzek Espainian jasotzen duten babes eta sustapen sakona oro har eraginkorra dela, eta ezin dugu ahaztu zer eraldaketa egon den alor horretan Konstituzioa eta autonomia-erkidegoetako estatutuak aldarrikatu eta berezko hizkuntzak “ofizial” aitortu zirenetik.

kontrolatzen duen kanpo-kontrol bat, eta betebeharrak, aldi berean, barne-betebeharrak dira.

Espainiak onartutako nazioarteko betebeharren kontrola nazioarteko erakunde baten barruan egiteak, Europako Kontseiluan, hain zuzen, eta, are gehiago, aditu independenteen batzorde baten kontrol-jardueran oinarrituta egiteak, kanpoan egiazatzeko prozesu honi hainbat berezitasun ematen dizkio, gatazkak sor ditzaketen berezitasunak. Izan ere, praktikak irakatsi digunez, batez ere eskubideen *multilevel* babesaren alorrekoak Europan, kontrolatzeko parametroa erabakigarria bada, are erabakigarriagoa da kontrolatzen duen “epailea”.

Nazioarteko kontrola, gutxienez Europan, izugarri aldatu da, eta alde batera utzi du salbuespenezko kontrola izatearen ikuskera tradizional mugatua. Horrek azaltzen du zergatik eskubideak babesteko sistema sendoak dituzten herrialdeek kondena-epai dezente jasotzen dituzten Europan. Izan ere, egitura-arazoren bat dagoen kasuetan izan ezik, horrek bakarrik ez du esan nahi barne-sistema eskubideak bermatzeko ahula edo ezegonkorra denik. Barne-zuzenbidearen eta nazioarteko zuzenbidearen arteko harreman berri bat da, eta bien arteko “elkarrizketa”ren bidez elkar aberasteko balio du. Tentsio horrek gero eta gehiago eragiten die Europako sistema konstituzionalei, eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren nazioartera guztiz irekitzearen ondorio da, bai eta Europaren integrazio-prozesuan –oro har, ez erkidegokoan bakarrik– irekitze hori nabarmen handitu izanaren ondorio ere, bereziki Berlingo murrua erori ondoren.

Testuinguru horretan kokatu behar da Europako Gutuna berrestean onartutako betebeharrak betetzen direla kontrolatzea, bereziki arauen barne-erregulazioa eta Europako erregulazioa oso antzekoak direnean. Hipotesi hori areagotuz joan daiteke, bereziki, Aditu Batzordeak Gutunaren interpretazio bizia –eta sortzailea, esan genezake– egitearen bidetik jotzen badu.⁹ Alde horretatik, betebeharrak ez betetzearen izaera bereizten saiatu behar dugu eta, beraz, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko sistema osoarekiko garrantzi kualitatiboa ikusten, eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko sistemen eraginkortasun praktikoan egitura-arazo bat dakarten ez-betetzeetan jartzen arreta.

⁹ Ikusi, horrekin lotuta, F. de Varennes, “Definitely interpreting the European Charter for Regional or Minority Languages: the legal challenges”, *The European Charter for Regional or Minority Languages: Legal Challenges and Opportunities*, COE, 2008, bereziki, 33. orrialdea eta hurrengoak, edota R. Dunbar, “Definitely interpreting the European Charter for Regional or Minority Languages: the legal challenges”, *ibid.*, 37.-61. or.

9.2. Gutunaren aplikazio-arazoak Espainian

Espainiak Gutuna berretsi zuenetik eta indarrean sartu zenetik, bi ikuskapen-edo kontrol-ziklo egin dira jada. Ziklo horiek erakutsi dute Espainian hizkuntza-aniztasuna onartzen duen sistema oso aurreratua dagoela, eta, horregatik, zenbait autonomia-erkidegotan dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzek ofizial izaera dutela. Aditu Batzordeak egindako txostenek eta Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak onartutako gomendioek, ordea, erakutsi dute zenbait arazo daudela sistema martxan jartzean, eta, bereziki, Espainiak Gutuna berrestean onartutako zenbait betebeharrak betetzera. Eta hori arretaz aztertu behar da, nahiz eta, aurrez esan dugunez, Espainiak Gutunaren eskakizun-mailarik handienak onartu zituen hura berrestean, Gutunak eskatzen zuen gutxieneko berrespen-maila baino askoz handiagoak. Eta kontuan hartu behar da onartutako betebeharrak betetzeko egon diren arazo horiek ez direla guztiak izaera berekoak, eta ez dutela guztiak garrantzi bera eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak era eraginkorrean babesteko eta sustatzeko orduan.¹⁰ Horregatik, nire ustez Espainiak Europako Gutuna berretsi zuen baldintzetan berrestean onartu zituen betebeharrak behar bezala betetzeko garrantzi handiena eta egituraren eragin handiena duten arazoak aztertuko ditut hurrengo orrietan.

9.2.1. Betebeharrak betetzea Justizia Auzitegien alorrean

Espainiak Europako Gutuna berrestean onartu zituen betebeharratan bete ez dituenetatik garrantzi handiena duen egitura-arazoa, zalantzarik gabe, Justizia Administrazioari dagokiona da. Gai horri arreta berezia eman zitzaion jada Aditu Batzordearen lehenengo txostenean (2005),¹¹ eta, nire ustez, bigarren txostenean, 2008koan, gairik garrantzitsuena da alderatuz gero, bereziki ikuspegi kualitatibo batetik.¹² Batzordeak bere lehenengo txostenaren *Findings* atalean azaltzen duenez, III. zatiko hizkuntza guztiei eragiten dien arazo bat dago justiziaren alorrean. Izan ere, “gabezia praktikoa eta antolamendu-gabezia batzuek eta lege-esparru osatugabeak” eragin negatiboa dute alor horretan onartutako betebeharrak betetzeko. Hori dela eta, Espainiak ez ditu betetzen

¹⁰ Espainiak Gutuna nola aplikatu duen jakiteko, ikusi X. Arzo, “The implementation of the European Charter for Regional or Minority Languages in Spain”, *ibid.*, 83.-107. or.

¹¹ Ikusi *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostena, *op. cit.*, 222.-235. paragrafoak, katalanak Katalunian duen egoera aztertzeke; hor aipatzen denaren zati handi bat errepikatu egiten da gero 361.-375. paragrafoetan, euskarak Nafarroako eskualde euskaldunetan duen egoera aztertzen duen zatian; 503.-520. paragrafoetan, euskarak Euskadin duen egoera aztertzen duen zatian; 638.-651. paragrafoetan, katalanak Balear Uharteetan duen egoera aztertzen duen zatian; 765.-780. paragrafoetan, valentzierak Valentzian duen egoera aztertzen duen zatian; eta 894.-909. paragrafoetan, galizierak Galizian duen egoera aztertzen duen zatian.

¹² Ikusi *2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, *op. cit.*, 234.-243. paragrafoak, katalanak Katalunian duen egoera aztertzeke; hor aipatzen denaren zati handi bat errepikatu egiten da gero 395.-399. paragrafoetan, euskarak Nafarroako eskualde euskaldunetan duen egoera aztertzen duen zatian; 575.-585. paragrafoetan, euskarak Euskadin duen egoera aztertzen duen zatian; 744.-747. paragrafoetan, katalanak Balear Uharteetan duen egoera aztertzen duen zatian; 906.-914. paragrafoetan, valentzierak Valentzian duen egoera aztertzen duen zatian; eta 1063.-1074. paragrafoetan, galizierak Galizian duen egoera aztertzen duen zatian.

alor horretako betebeharrak garrantzitsuenetako batzuk, bereziki, prozedura judizialak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan egitea, aldeetako batek hala eskatzen badu. Aditu Batzordearen ustez, beharrezkoa da karrera judizialaren egitura eta prestakuntza berrantolatzea, autonomia-erkidego horietan postua duten epaileen ehuneko egoki batek dagokion eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan aritzeko behar besteko jakintza izan dezan.¹³

Hori oinarritzat hartuta, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak bereziki nabarmendu du gai hori Espainiari egindako gomendioetan.¹⁴

Alor horretako arazoa argi eta garbi ulertzeko, beharrezkoa da zehaztea zer baldintzatan berretsi zuen Espainiak Gutuna puntu horretan. Arazorik garrantzitsuen prozedura judizialean erabiltzen den hizkuntzari dagokiona da, 9(1) artikuluan aipatzen dena. Alor horretan, Espainiak a.i., b.i. eta c.i. ataletan ezarritako betebeharrak berretsi zituen. Atal horiek prozesu penalekin, prozesu zibilekin eta Administrazioarekiko auzien prozesuekin lotuta daude hurrenez hurren, eta haietan ezartzen denez, aldeetako batek hala eskatuz gero, auzitegiek bermatu behar dute barruti judizialari dagokion eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan egingo direla prozedurak, barruti judizialean hizkuntza hori erabiltzen duten biztanleen kopuruak neurri hori hartzea justifikatzen badu, hizkuntza horren egoera kontuan hartuta, eta epaileak hizkuntza hori erabiltzeak justiziaren funtzionamenduan arazorik ekarriko ez duela uste badu, eta, beharrezkoa balitz, interpreteak eta itzulpenak erabili eta horrek eragindako pertsonen gastu gehigarriak ekarriko ez badie.

Beraz, gaia ez da prozesuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea urratzea, Espainian oso ongi babesten baita eskubide hori, hizkuntza ofizialen barne-sistemak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak (1950) eta gai horrekin lotutako Europako Gutunak eskatzen dutena baino hobeto.¹⁵ Prozesu osoa eskualdeko edo

¹³ Ikusi *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostena, op. cit., *Findings* atala, D letra.

¹⁴ Ministro Batzordeak Espainiari egindako lehenengo gomendioak hauxe dio: “Gutuneko 9. artikuluko konpromisoak beteko direla bermatzeko beharrezko neurri legalak eta neurri praktikoak hartu beharko lirake; bereziki, autonomia-erkidego bakoitzean Gutuneko 9. artikuluan dioena betetzean arduratzen diren langile judizialen ehuneko egoki batek dagozkion hizkuntzak lanean erabiltzeko bezain beste dakizkiela bermatzea”. Ikusi *Recommendation RecChL(2005) 3 of the Committee of Ministers on the application of the European Charter for Regional or Minority Languages by Spain* (Ministro Batzordearen Gomendioa, 2005eko irailaren 21ekoan, ministroen ordezkarien 938. bilera hartua).

¹⁵ Auzitegi Konstituzionalaren (AK) jurisprudentziak alor horretan ezartzen du, prozesuko eskubideak babesteko, bermatu beharra dagoela alde guztietan ulertzen duten hizkuntzan jasoko dutela informazioa, eta interprete baten laguntza jasoko dutela ez badute ulertzen prozesuan erabilitako hizkuntza. Ikusi Auzitegi Konstituzionalaren 74/1987 epaia, maiatzaren 25ekoa, Auzitegi Konstituzionalaren 2/1987 epaian, urtarrilaren 21ekoan, ezarritako oinarriak garatzen dituen, eta hasieran Auzitegi Konstituzionalaren 30/1986 epaian, otsailaren 20koan, hartutako jarrera zorrotza zuzentzen duena. Doktrina horren interpretazio oso malgu egin dute zigor-arloko auzitegiek, eta autonomia-erkidego batean ofiziala den hizkuntza lurralde horretatik kanpo dauden organo judizialean erabiltzeko aukera eman dute murrizketarik gabe, eta ez dute aztertu estatuko hizkuntza ofiziala ez jakitea edo nahikoa ez jakitea alegatu izanaren “sinesgarritasuna”, nahiz eta bazuten hala egiteko aukera hizkuntza ofizialen barne-sistemaren eta alor horretako nazioarteko konpromisoen arabera. Horren adibide paradigmatikoa da Auzitegi Nazionalaren (AN) 2008ko apirilaren 24ko epaia, zigor-arloko sala, bigarren sekzioa, zigor-arloko

eremu urriko hizkuntzan garatzea da gaia. Hau da, ez da prozesua eskualdeko hizkuntzan egitea bakarrik –hizkuntza ofizial hori duen lurraldean horretarako aukera egon beharko litzateke beti, inolako baldintzaren mende egon gabe–, baizik eta prozesu osoa eskualdeko hizkuntzan garatzea, aldeetako batek hala eskatuz gero. Argi dago oso betebeharr handia dela Espainiak Gutunean era osagarrian berretsi duena, hau da, aldeei prozesuan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera bermatzeaz gain –9(1) artikuluko a.ii, b.ii eta c.ii–, erabiltzen diren dokumentuak hizkuntza horretan egongo direla bermatzea –9(1) artikuluko a.iii, b.iii eta c.iii–, nagusiki.

Espainiak Gutuna berrestea eraginkorra izateko ez zen beharrezkoa betebeharr hori onartzea; izan ere, Espainiak alde handiz gaintzen du Gutuneko 2(2) artikulua ezartzen duena, III. zatian gutxienez ere 35 betebeharr onartzea, hain zuzen. Gainera, betebeharr horrek zenbait arazo sor ditzake barne-zuzenbidean, aldeetako batek abantaila izan baitezake prozesuan erabiliko den hizkuntza aukeratzeko, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzaren erabilera eskatuta, beste elementu batzuk kontuan hartu gabe. Baina Espainiak bere borondatez berretsi zuen nazioarteko betebeharr hori, eta, Konstituzioko 96. artikuluan xedatutakoaren arabera, barne-antolamenduari dagokio.

Gainerakoan, aplikatzeko orduan sor litezkeen arazoak alde batera utzita, erregulazio guztiz logikoa da Espainian dagoenaren moduko hizkuntza ofizialen sistema batean. Logikoa da, behintzat, Gutuneko 9(1) artikulua goiburua ezartzen dituen baldintzak dituzten barruti judizialetan, beharrezkoa bada, prozesua eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan normaltasunez garatu ahal izateko moduan egotea osatuta epaimahaiak. Eta eskualdeko hizkuntzak lehenetsia izateko arrazoia izan daiteke, oro har, estatuko hizkuntza ofizialaren mende bizi duen egoerari aurre egitea.

Gai horren ildotik sortzen da lehenengo legegintza-arazoa, Aditu Batzordeak azpimarratzen duenez. Botere Judizialaren Lege Organikoko (BJLO)¹⁶ 231. artikulua hasieran ezartzen duenez, Bulego Judizialeko epaile, fiskal, idazkari eta gainerako funtzionarioek jardura judizial guztietan gaztelania erabiltzeko betebeharr dute, estatuko hizkuntza ofiziala. Ondoren ezartzen duenez, ordea: “autonomia-erkidegoetako berezko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute”. Erregulazio hori arau-oinarri egokia izango litzateke, xedapen horrek ez balu amaieran adieraziko langile judizialek eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabiltzeko gaitasun hori aldeetako bat “hizkuntza ez dakiela eta horrek babesgabetasuna sor dezakeela alegatuz” aurka azaltzearen mende dagoela.

epaile magistratu zentralaren epaia indargabetzen duena, katalanez deklaritzen utzi ez izanagatik eta akusatuari interprete baten laguntza eman ez izanagatik, nahiz eta gaztelaniaz bazekien. Epai horretan, Auzitegiak, beste argudio batzuen artean, Espainiak Gutuna berretsi izana erabiltzen du.

¹⁶ Ikusi 6/1985 Lege Organikoa, uztailearen 1ekoa, Botere Judizialarena, hainbat aldiz aldatu dena.

Nahiz eta xedapena modu irekian idatzita dagoen,¹⁷ prozesuan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabiltzeak hizkuntza hori ez dakien pertsona babesik gabe uzteko hipotesia guztiz bateraezina da Espainiak Europako Gutuna berrestean onartu zuen betebeharrarekin eta Gutunaren 9(1) artikuluko a.i., b.i. eta c.i. ataletan onartu zituen betebeharrarekin. Espainiako erregulazioan bi arazo sortzen dira. Lehenik eta behin, babesgabetasunari dagokiona, eskualdeko hizkuntzaren kasuan, hizkuntza ofizial bat ez jakitearekin –edo nahikoa ez jakitearekin– lotzen dena zoritxarrez, eta, bigarrenik, eskualdeko hizkuntzek hizkuntza ofizial estatusa izateari dagokiona.

Prozesuko hizkuntza ez jakiteak ez du babesgabetasunik sortzen hizkuntza ez dakien aldeak interpreteak baldin baditu laguntzeko, eta dokumentuen itzulpenak jasotzen baditu. Bestalde, hizkuntza ofizial estatusa duenez, erabat legezkoa da prozesuan erabiltzea, batez ere, Espainiako autonomia-erkidegoetako estatutuekin gertatzen den moduan, eskualdeko hizkuntzak estatuko hizkuntza ofizialaren estatutu simetrikoa badu. Beraz, BJLOko 231. artikuluan xedatutakoak, Espainiak Europako Gutunean berretsitako betebeharrarekin xedatutakoarekin bateragarritasun-arazoak sortzeaz gain, nire ustez, eskualdeko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetan indarrean dauden hizkuntza ofizialen sistemeekin ere sortzen ditu arazoak. Nahiz eta ez den hori izan Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren iritzia.¹⁸

Espainiak Europako Gutuna berrestean onartu dituen betebeharrak BJLOko 231. artikuluan erreforma bat egitea eskatzen dute eta, nolana ere, hori gertatu arte, xedapenean jartzen duena interpretatu beharko da. Horrek esan nahi du eskualdeko hizkuntza ofiziala ez jakiteak –edo nahikoa ez jakiteak– ez duela berez babesik gabe uzten pertsona bat hura bada prozesuko hizkuntza, eta, beraz, alegazio hori ezin izango dela automatikoki onartu babesgabetasun-egoera gisa –oro har ulertzen denaren aurka–, baizik eta epaileak baloratu beharko

¹⁷ Egia da xedapenak ez duela ezartzen hizkuntza ez jakiteak babesgabetasuna sortzen duenik; egoera hipotetikoan adierazita azaltzen denez, epaileak aztertu beharko luke eskualdeko hizkuntza ez jakitea alegatzen duena benetan babesik gabe dagoen edo ez.

¹⁸ Auzitegi Konstituzionalak, 56/1990 epaian, martxoaren 29koan, aukera izan zuen BJLOko 231. artikulua konstituzionaltasuna aztertzeko, eta konstituzionalizat jo zuen hau adieraziz: “herritar guztiek dute babesik gabe ez geratzeko eskubidea Konstituzioko 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskubide hori gaztelania jakiteko betebeharrarekin lotzen da (Oinarrizko Arauaren 3.1. artikulua); Espainiako gainerako hizkuntzekin ez dago betebeharrari”. Baina, nire ustez, Konstituzioko 2.3. artikulua ezartzen duen gaztelania jakiteko betebeharra hala ulertzea ez da bateragarria eskualdeko hizkuntzak hizkuntza ofizializat hartzen dituzten estatutuetako xedapenekin. Ikusi, horrekin lotuta, nire lan hauek: “El pluralismo lingüístico en el Estado autonómico”, op. cit., 47.-83. or.; “Las lenguas oficiales entre Constitución y Comunidades Autónomas: ¿desarrollo o transformación del modelo constitucional?”, op. cit., 83.-112. or.; “Algunos problemas en torno a la cooficialidad lingüística y el Poder Judicial”, *Jueces para la democracia*, 34. zk., 1999, 24.-33. or. Deigarria da hizkuntza ofizialen sistemari buruzko jurisprudenzia konstituzional dezente egon arren –eskualdeko hizkuntza ofizialarekin ere antzeko “jakiteko betebeharrak” bat eskatzea Konstituzioren kontrakotzat jo zuen Auzitegi Konstituzionalaren 84/1982 epaiak, ekainaren 26koak, Galiziako hizkuntza-normalizatorako legeari buruzkoak–, kasu horretan bakarrik izatea gaztelania jakiteko betebeharrak eragin praktikoa eskualdeko hizkuntza ofizialaren estatutu juridikoaren eta gaztelaniaren estatutuaren arteko simetria aldatzeko, bi hizkuntzak aldi berean ofizialak diren lurraldean.

duela babesgabetasunik badagoen, kasu bakoitzaren egoeraren arabera. Eta, hizkuntza ofizialen sistema legala kontuan hartuz, epaileak beharrezko neurriak hartu beharko ditu eskualdeko hizkuntza ofiziala prozesuko hizkuntza gisa erabiltzeak babesgabetasunik sor ez dezan, horretarako interpretazioa eta itzulpenak erabiliz.

Legegintza-arazo horren beste puntu bat da ez direla neurri eraginkorrak hartzen hizkuntza hori erabiltzen duten biztanleak dituzten barrutietan, botere judizialeko organoak organo horren barruan hizkuntza erabili nahi duten pertsoneri normaltasunez arretea emateko moduan osatzen direla bermatzeko. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza ofiziala den lurraldeetan, Europako Gutunean ezarritako baldintzak betetzen badira, organo judizialen egiturak egokia izan behar du, oro har, eskualdeko hizkuntza ofiziala erabiltzen duten pertsoneri zuzenean arretea emateko. Egoera horretan, ezin dira itzultzaileak eta interpreteak erabili eskualdeko hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatzeko ohiko bide gisa –eta, are gutxiago, bide bakar edo ia bakar gisa–. Eskualdeko hizkuntzak ia hogeita hamar urtez indarrean egon eta gero, organo judizialek ezin badute, oro har, eskualdeko hizkuntza ofiziala zuzenean erabili, zerbaitek ongi funtzionatzen ez duen seinale da. Aspalditik adierazi izan dut nik¹⁹ nire ustez erregulazio legala ez dela egokia, eta, gainera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) ez dituela alor horretan hartu beharko lituzkeen neurriak hartu, eta ez dituela kontuan hartu autonomia-erkidegoetako hizkuntzek hizkuntza ofizial maila izateak dakartzan ondorioak. BJKNk oso lan gutxi egin du alde horretatik, eta egin duen gutxia ez da egokia izan. Hori gutxi balitz, Auzitegi Gorenak (AG) gauzak are gehiago okertu ditu.

BJLOren arabera, egitura judiziala Espainian indarrean dagoen hizkuntza ofizialen sistemara egokitzeko esku-hartze tresna bakarra dago: eskualdeko hizkuntza ofiziala jakitea “lehenetasunezko meritua” gisa baloratzea dagokion autonomia-erkidegoan plaza judizialak betetzerakoan (110.2.h artikulua, BJLO). Erregulazio horrek asko mugatzen ditu zenbait plaza judizial betetzerakoan bete beharko liratekeen hizkuntza-baldintzak zehazteko BJKNk hartu beharko lituzkeen neurriak.

BJKNk, 1991ko urriaren 23ko Erabakiaren bitartez, erregelamendu bat onartu zuen eskualdeko hizkuntza ofiziala –eta foru-zuzenbide zibila– jakitea lehenetasunezko meritutzat baloratzeko, eta jakintza horregatik antzinatasunean hiru urte gehitzeko. Erregelamendua baliogabetu egin zuen 1995eko apirilaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaiak (AGE).

¹⁹ Ikusi nire lan hauek: “Los derechos lingüísticos entre mayoría y minoría (Algunas observaciones acerca de la proyección de la cooficialidad sobre el Poder Judicial)”, *Los nacionalismos: globalización y crisis del Estado-nación (Cuadernos de Derecho Judicial bilduma)*, BJKN, Madril, 1998, 135.-169. or. eta “Algunos problemas en torno a la cooficialidad lingüística y el Poder Judicial”, op. cit., 24.-33. or.

1995eko apirilaren 29ko AGEk BJKNk onartutako 1991ko urriaren 23ko Karre-
ra Judizialaren Erregelamenduko III. titulua baliogabetzen du. AGEk ezartzen
duenez, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza jakitea “zuzenbidez kanpoko
irizpidea” da, eta ez da onargarria karrera judizialeko plazak betetzeko balora-
tzen diren merituen artean “irizpide juridiko” batek baino garrantzi handiagoa
izatea, foru-zuzenbidea jakiteak baino garrantzi gehiago, adibidez. Interpretazio
harrigarri horrek esan nahi du ez direla ezagutzen autonomia-erkidegoko be-
rezko hizkuntzek hizkuntza ofizial maila izatearen ondorioak.

Azkenik, BJLOk ezarritako “lehentasunezko merituen” esanahiaren interpre-
tazio bat egiten du AGk. Haren ustez, meritu horren balorazioa plazak bete-
tzeko ezin dela erabakigarria izan ulertu behar da. Merituei Erregelamenduan
ezartzen zaizkien balorazioak aztertuta, ondorioztatzen du hizkuntza jakiteari
ematen zaion balorazioa handiegia dela, eta, baldintza horietan, plaza betetze-
ko meritu erabakigarria bihurtuko litzatekeela.

Auzitegi Gorenaren apirilaren 29ko epaian oinarrituta, BJKNk Karrera Judiziala-
ren 1/1995 Erregelamendua aldatu zuen, eta aldaketa azkenean 1998ko otsailaren
25eko Erabakiaren bidez onartu zen. Erregulazio berri horretan, plaza judizialak
betetzeko lekualdaketa-lehiaketetan, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza
ofiziala jakitea “antzinatasun” gisa zenbatzen da; urtebete epaile-plazetarako, bi
urte kide bakarreko organoetako magistratu-plazetarako, eta hiru urte kide ani-
tzeko organoetako magistratu-plazetarako.²⁰ Antzeko zerbait gertatzen da oposi-
zio-lehiaketaren bidez sartzeko karrera judizialean.²¹

Erregulazioa ez da batere egokia, ezta AGk BJKNri utzitako tarte esturako ere.
Berezko hizkuntza ofiziala jakitea antzinatasunera bideratzea bera ez da ego-
kia; izan ere, BJLOk ezarritako “lehentasunezko meritu” izaeraren ahalmena
erabat indargabetu dezake. Baina, horrez gain, berezko hizkuntza ofiziala jaki-
tea meritutzat hartzea ez dator bat Botere Judizialaren egitura hizkuntza ofizia-
len sistemara egokitzeko benetako beharrekin. Alde batetik, hori aplikatzeak
ez dauka zerikusirik eremu bakoitzaren arabera eta eremuaren egoera soziolin-
guistikoaren arabera erabilera-gaitasun handia edo txikia behar izatearekin, ez
eta alor horretan jurisdikzio eta gradu bakoitzaren arabera dauden beharrekin
ere. Duen eragina berezko hizkuntza dakitenak “mailaz igotzea” da, baina ez
dauka zerikusirik jurisdikzio-organoetan berezko hizkuntza ofiziala erabiltze-
ko benetako beharrekin. Izan ere, eskualdeko hizkuntza dakitenak autonomia-

²⁰ Ikusi Karrera Judizialaren 1/1995 Erregelamenduko 110. artikulua.

²¹ 1/1995 Erregelamenduko 48. artikuluan Auzitegiari buruz hauxe ezartzen du: “beren hizkuntza eta zuzenbidez
duten autonomia-erkidegoetako deialdietan eskaintzen diren plazetan lehentasun-ordena ezartzeaz gain, balora-
zio osagarri bat egingo du”, eta gehienez ere hiru puntu emango dira autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza
jakiteagatik. Balorazio horren garrantzi erlatiboa, merituen bidez lor daitezkeen puntu guztiekin alderatuta –eta
haietako bakoitzarekin alderatuta– oso eskasa da.

erkidegoko erakunde judizialaren goiko mailetan jartzen ditu, eta ez dira beti hor egoten eskualdeko hizkuntza erabiltzeko behar handienak.

Beraz, esan dezakegu, justiziaren alorrean, Espainiak ez duela behar bezala betetzen Europako Gutuna berrestean onartu zuen nazioarteko betebeharra. Ez-betetze hori bereziki larria da oso zabaldua dagoelako eta egitura-arazo bat erakusten duelako, eta, horrez gain, alor garrantzitsu batean gertatzen delako. Baina, nazioarteko betebeharra ez betetze horrek, ñabardurak alde batera utzita, hizkuntza ofizialen barne-sistemaren aplikazio eskasa ere erakusten du. Nire ustez, barne-sistema horrek ez du behar bezala garatzen Konstituzioan xedatutakoa zuzenean garatzeko autonomia-erkidegoetako estatutuetan ezarritakoa.

Espainiak legegintza-aldaketak egin behar ditu prozesu judizialak eskualdeko hizkuntza ofizialean normaltasunez garatzeko, aldeetako batek babesgabetsuna alegatzearen mende egon gabe. Horrez gain, legegintza-aldaketak BJKNri aukera eman behar dio, postu judizialak eratzerakoan eta haiek betetzerakoan, organo judizialek prozesu judizialak eskualdeko hizkuntza ofizialean egiteko gaitasuna izango dutela bermatu ahal izateko neurriak erabiltzeko, barrutian hizkuntza ofiziala erabiltzen duten herritarren kopuruak hori gomendatzen badu. Eta, azkenik, BJKNk alor horretan sortzen diren beharren azterketa zehatza egin behar du, eta beharrezko diren zentzuzko neurriak hartu, prozesua eskualdeko hizkuntza ofizialean egiteko eskubidea bermatzeko, eskatzen diren baldintzak betetzen diren kasuetan.²²

9.2.2. Hezkuntza-sistema eta elebitasun orokorreko sistemak

Europako Gutuna hezkuntzan aplikatzeko arazoak izatera justiziaren alorrean aztertu berri dugunaren guztiz kontrakoa da. Alor honetan ere Espainiak Gutuneko betebeharririk handienak onartu zituen Gutuna berrestekoan. Autonomia-erkidegoek dituzte hezkuntzaren alorreko eskumenak, eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza ofizial bat duten autonomia-erkidegoetan eskualdeko hizkuntza hezkuntza-sisteman oso sartuta dago.

²² Justizia Administrazioako langile ez-judizialei dagokienez, 1994an onartu zen BJLOren erreforman konpondu zen arazoa, langile horien eskumena autonomia-erkidegoei eman baitzitzaien. Ikusi BJLOko 455. artikulua. Han ezartzen denez, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei buruzko eskumenak "Justizia Ministerioi esleituko zaizkio, edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoei, haien estatutuari eta araubide juridikoari buruzko gaitetan, eta hor sartzen dira hautaketa, hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza, destinoak banatzea, igoerak, egoera administratiboak, lanaldia, lan-ordutegia eta diziplina-araubidea". Eskumenak autonomia-erkidegoei ematea BJLOren 2003ko erreforman sakondu zen. Han alor horretan eskumenak zituzten autonomia-erkidegoei Bulego Judizialari buruzko eskumenak eman zitzaizkien, batez ere Bulego Judizialeko zerbitzuak antolatzeari buruzkoak, bai eta administrazio-unitateetakoak ere, eta Bulego Judizialean lan egiten duten funtzionarioei –idazkari judizialak izan ezik– alorrean eskumenak dituzten autonomia-erkidegoen mendekotasun organikoa ezartzen die, mendekotasun funtzionala edozein dela ere. Auzitegi Konstituzionalaren 253/2005 epaiak, urriaren 10ekoak, autonomia-erkidegoek alor horretan egindako jardueren konstituzionaltasuna aitortu du, adibidez, eskualdeko hizkuntza ofiziala jakitea lanpostu bat betetzeko baldintza izatearena, edota baldintza hori betetzen duten langileak saritzeko balio aldagarriko plus bat ezartzearena.

Gauzak horrela, zer arazo sortu dira hezkuntzaren alorreko betebeharrak betetzerakoan?

Aditu Batzordeak adierazi du eskualdeko hizkuntza hezkuntza-sisteman era zabal eta sakonean sartu dela. Espainiak alor honetan onartutako betebeharrak, orain interesatzen zaigunari dagokionez, hauxe da: eskualdeko hizkuntzan hezkuntza-sistema bat izatea, eskolaurreko irakaskuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, hizkuntza erabiltzen den lurraldeetan, hizkuntzaren egoeraren arabera eta estatuko hizkuntza ofizialaren irakaskuntza alde batera utzi gabe.²³ Hezkuntza-sistemak Espainian izan duen aldaketa, oro har, horren handia izan da zenbait autonomia-erkidegotan, Aditu Batzordeak hauxe adierazi baitu Kataluniako sistemari erreferentzia eginez: “joeraren alderantzizkatze izugarri bat adierazten du”. Eta, amaitzeko, hauxe dio: “garapen hori oso-oso gutxitan gertatu da Europaren historian”.²⁴

Gutunaren III. zatia aplikagarri den hizkuntza-lurraldeetan ikasleei hezkuntza-sistema eskualdeko hizkuntzan eskaintzeko betebeharrak betetzen du Espainiak Katalunian, Euskadin eta Nafarroan (eskualde euskaldunetan). Baina zenbait arazo sortzen dira Valentziako Erkidegoan, Balear Uharteetan eta Galizian.

Autonomia-erkidego horietan eskualdeko hizkuntza era zabalean gehitu da hezkuntza-sistemara. Baina sistemak ez du ematen derrigorrezko hezkuntza guztia eskualdeko hizkuntzan egiteko aukera. Balear Uharteetan eta Galizian,²⁵ derrigorrezko hezkuntzan elebitasun orokorreko sistema jartzea erabaki zuten. Beraz, maila horietako ikasle guztiak bi hizkuntza ofizialak erabiltzen zituzten nahitaez irakaskuntza-hizkuntza gisa, ikasgai erdiak gaztelaniaz eta beste erdiak eskualdeko hizkuntzan, gutxi gorabehera. Valentziako Erkidegoaren kasuan, arazoa zen, bereziki Bigarren Hezkuntzan, ez zegoela bermatuta valentzierazko hezkuntza-sistema eskola-ibilbide osoan.²⁶

Beraz, arazoa ez da ez dela eskualdeko hizkuntza hezkuntzan sartu nahi. Hizkuntza sartzen da hezkuntzan irakaskuntza-hizkuntza gisa, are gehiago, nahitaezkoa ere bada, baina zati batean bakarrik, sistemak ez baitu bermatzen hezkuntza guztia —estatuko hizkuntza ofiziala izan ezik— eskualdeko hizkuntzan jasotzeko aukera. Eta hori da Espainiak Gutuna berrestekoan onartutako betebeharren artean betetzen ez duena.²⁷

²³ Ikusi Gutuneko 8. artikulua, 1. paragrafoa, a.i., b.i. eta c.i. atalak.

²⁴ Ikusi *Report of the Initial monitoring cycle*, op. cit., 208. paragrafoa.

²⁵ Nahiz eta Galizian sartu diren gai horrekin lotutako zenbait aldaketa hezkuntza-sistemaren arauketan.

²⁶ Ikusi *Report of Initial monitoring cycle*, op. cit., 624. par., Balear Uharteei dagokionez; 741. par. eta hurrengoak, Valentziako Erkidegoari dagokionez; 874. par., Galiziar dagokionez. *2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, op. cit., 870. par., Valentziako Erkidegoari dagokionez; 1035. par., Galiziar dagokionez; Balear Uharteei dagokionez, berriz, ez dago informazio berririk sistemako aldaketei buruz (720. par.).

²⁷ Ikusi *2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, op. cit., Batzordeak hau baitio katalanak Katalunian duen egoerari buruz: “gogorarazten du Espainiak konpromiso-mailarik handiena hartu zuela eskolaurreari,

Espanian paradoxa bat gertatzen da, beraz: alde batetik, aipatutako autonomia-erkidegoetan ez da betetzen Berrespen Tresnan onartutako konpromisoa, ez delako bermatzen hezkuntza osoa eskualdeko hizkuntzan edo eremu urriko hizkuntzan; baina, beste alde batetik, Gutunak eskatzen duena baino urrunago joan eta nahitaez ezartzen zaie ikasle guztiei, haien nahia kontuan hartu gabe, eskualdeko hizkuntzan ikastea –hau da, eskualdeko hizkuntza irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzea–, eta hori ez da eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko ezarritakoan sartzen.

Eskualdeko hizkuntzan irakastera behartze hori erabatekoa izan daiteke –edo ia erabatekoa, Lehen Hezkuntzaren zati batean izan ezik–, Katalunian gertatzen den moduan, edo partziala, Galiziako eta Balear Uhartetako Autonomia Erkidegoetan gertatzen den moduan, Gutuneko betebeharrak ez betetzeko arazoak sortzen dituztenen artetik.

Aditu Batzordeak Espainiari buruzko Bigarren Txostenean argitu du Gutunak, Espainiak onartutako betebeharretan, maila guztietan hezkuntza eskualdeko hizkuntzan jasotzeko aukera bermatzea eskatzen duela. Baina zehazten du nahitaezkoa dela pareko hezkuntza-sistema bat izatea hala nahi dutenentzat, Gutunak ez baitu ezartzen eskualdeko hizkuntzan ikastera behartuta egongo direnik hala nahi ez dutenak. Aditu Batzordeak argi eta garbi dio: Europako Gutunak “ez du ezartzen ikasle guztiek eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan egin beharko dutenik derrigorrezko hezkuntza, baizik eta eskuragarri jarri beharko dela, ikasle guztiek izan dezaten hezkuntza eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan jasotzeko aukera, gurasoek hala erabakitzen badute”.²⁸

Aditu Batzordeak ezartzen duenean *full-immersion* sistema erabili behar dela eredu elebidunen ordezkuntzan, Espainiak Gutuna berrestean onartutako betebeharrak era egokian betetzeko, ez du esan nahi, Espainian eredu horren aldekoek nahiz kontrakoek besterik interpretatu badute ere, Espainian irakaskuntzako “hizkuntza-murgiltze” sistematzat ezagutzen dena egokia denik. Espainiak onartutako konpromisoek *full-immersion* eredu bat eskatzen dute hezkuntzan, baina hala nahi dutenentzat bakarrik.²⁹

Lehen Hezkuntzari eta Bigarren Hezkuntzari zegokienez; hau da, zegokion eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan emango zen hezkuntza eskuragarri egongo zela agindu zuen. Aditu Batzordeak dio, konpromiso horien arabera, hezkuntza katalanez jaso ahal izango dela katalanez hitz egiten den lurraldeetan” (218. paragrafoa). Gauza bera dio Gutunaren III. zatiaeren aplikazioak diren beste hizkuntza-lurralde batzuen zatietan ere: 868. paragrafoan valentziar Valentziako Erkidegoan duen egoerari buruz, eta 1035. paragrafoan galizierak Galizian duen egoerari buruz.

²⁸ Ikusi *2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, op. cit., 1035. par., galizierak Galizian duen egoerari buruz. Antzeko baieztapen bat egiten du 218. paragrafoan katalanek Katalunian duen egoerari buruz: “Gutunak ez du ezartzen ikasle guztiek katalanez egin beharko dutenik derrigorrezko hezkuntza, baizik eta eskuragarri jarri beharko dela, ikasle guztiek izan dezaten hezkuntza katalanez jasotzeko aukera, gurasoek hala nahi badute”.

²⁹ Ikusi *2nd Report of the Committee of Experts of the Charter*, op. cit., *Findings* atala, H paragrafoa. Hauxe ondorioztatzen du bertan: “Gainera, eskuragarri egon behar da nagusiki hizkuntza horretan den hezkuntzan oinarritzen den sistema bat hala eskatzen duten pertsonentzat, baina ez da nahitaezkoa izango ikasle guztientzat”.

9.2.3. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza dagoen lurraldeetan estatuko Administrazio Periferikoa egokitzeko beharra

Aditu Batzordeak beste egitura-arazo bat ere aurkitu du, hirugarrena, Espainiak Europako Gutuna berrestean onartutako betebeharrak betetzerakoan (edo ez betetzerakoan): estatuko “Administrazio Periferikoa”, hau da, estatuak, zerbitzu zentraletatik kanpo, autonomia-erkidegoetan dituen administrazio-egiturak.

Arazo horrek garrantzi kualitatibo handia du, estatuak Espainiako hizkuntza-aniztasuna nola barneratu duen eta estatuaren egitura eta jarduera aniztasun horretara nola egokitu dituen erakusten baitu. Baina, ikuspuntu kuantitatibo batetik, garrantzia Administrazioaren zenbait sektoretara mugatzen da, nagusiki. Eskumenak estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatuta daudenez, herritarrek Administrazio Publikoarekin dituzten harreman ohikoenak autonomia-erkidegoari dagozkio, ez estuari. Estatuaren mende egoten jarraitzen duten sektoreen artean, aipagarrienak zerga-administrazioa (Euskadin eta Nafarroan izan ezik), Gizarte Segurantza (baina ez osasun-laguntzakoak) eta polizien kidegoak dira (Euskadin, Nafarroan eta Katalunian izan ezik, nagusiki).

Alor honetan aipagarriena da badirudiela estatuko Administrazio Zentralak ez duela planteatu ere egin, praktikan, autonomia-erkidegoetan dituen zerbitzuak haietan dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetara egokitzeko beharri erantzutea, nahiz eta hizkuntza ofizial maila duten autonomia-erkidegoetan. Badirudi pentsatzen duela hizkuntzaren gaia, nagusiki, autonomia-erkidegoei dagokien gaia dela, eta ez estuari.

Alor honetan jarduera esanguratsurik egon ez izana deigarria da, estatuak eman baititu horretarako egokiak diren arauak. 1990eko uztailaren 20ko Aginduak, Herri Administrazioen Ministerioarenak,³⁰ estatuaren Administrazio Periferikoko funtzionarioen lanpostuak betetzeko autonomia-erkidegoetako berezko hizkuntzak jakiteari buruzko arauak ezartzen dituenak, hainbat neurri jasotzen ditu, eta, benetan aplikatuko balira, oso egokiak lirateke eskualdeko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetan dauden estatuko Administrazioaren organoetan eskualdeko hizkuntzak erabiltzeko aukera bermatzeko beharri behar bezala erantzuteko. Agindu horrek ezartzen du aukera egongo dela eskualdeko hizkuntza ofiziala jakitea meritu gisa baloratzeko hizkuntza horren lurraldean zenbait lanpostu betetzerakoan, bai eta zenbait lanpostutan hizkuntza jakitea baldintza gisa jartzeko ere. Baina arau horiek ez dute aplikazio esanguratsurik izan benetan. Eta, batez ere, ez da azterketarik egin, eta, beraz, ezin izan da zehaztu, zer lanpostutan izango den meritu bat hizkuntza jakitea, eta zer lanpostutan izango

³⁰ Ikusi 1990eko uztailaren 20ko Agindua, Herri Administrazioen Ministerioarena, estatuaren Administrazio Periferikoan funtzionarioen lanpostuak betetzeko autonomia-erkidegoetako berezko hizkuntzak jakiteari buruzko arauak ezartzen dituen (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 176. zk., 1990eko uztailaren 24koa).

den bete beharreko baldintza bat. Nolanahi ere, badirudi egoera errealari buruzko informazioa ez izatea dela arazo nagusia, eta estatuko Administrazioaren organo zentralak egoera hori benetan ezagutzen ez dutelako gerta daiteke.

Estatuko Administrazioak alor horretan azkenaldian hartu duen neurri azpimarragarri bakarra Estatuko Administrazio Orokorreko Hizkuntza Ofizialen Kontseilua eta Hizkuntza Ofizialen Bulegoa sortzea izan da.³¹ Baina ikusi beharko da zer emaitza ematen dituzten bi organo horiek etorkizunean.

9.2.4. Autonomia-erkidegoko estatutuaren arabera hizkuntza ofiziala ez duten hizkuntzen babesa

Azkenik, Espainiak Europako Gutuna berrestean onartutako betebeharrak betetzen dituela kontrolatzeko prozesuak hizkuntza-aniztasuna babesteko barne-sisteman oso kontuan hartu ez zen gai bat atera du: hizkuntzaren lurraldeari dagokion autonomia-erkidegoko estatutuan hizkuntza “ofizialtzat” aitortzen ez duten erkidegoak. Hainbat behatzaile harritu ditu gai horrek, eta, ziur asko, Europako Gutuna berrestean Espainiako barne-antolamendu juridikoan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko estandarrari egin dion ekarpenik handiena da.

Egia da Konstituzioa aldarrikatu zenean hizkuntzen gaia hizkuntza-komunitate “handien” egoerarekin lotzen zutela gehienek: zenbait erkidegoren elementu bereizgarri argi ziren hizkuntzak. Horrek azaltzen du zergatik bideratzen duen arau konstituzionalak autonomia-estatutuetara. Konponbideak, alde horretatik, asko errespetatzen zuen komunitatearen kontzientzia bera, bai eta erkidegoak bere hizkuntza edo hizkuntza bereizgarria garatzeko zuen nahia ere.

Baina autonomia-erkidegoetan aurkitzen ditugun egoerak ez datoz beti bat orain arte azaldu dugun eskemarekin. “Hizkuntza-uharteak” osatzen dituzten hizkuntza-komunitateez ari gara. Izan ere, ez dira autonomia-erkidego osoaren nortasun espezifikoaren oinarri garrantzitsutzat hartzen.

Normalean, hizkuntza-uharte oso txikiak izaten dira, eta, esan genezake, gutxiesteko asmorik gabe, marjinalak izaten direla erkidegoa osotasunean hartuta. Hizkuntza-uharteen artean hauek ditugu: galiziera Gaztela eta Leonen, bereziki El Bierzo eskualdean galizieraz hitz egiten duen komunitatearen kasuan, Leon probintzian, edota katalanaren uharteak Aragoian (Zerrenda izenez ezaguna, sartaldekoa katalanentzat, baina sortaldekoa aragoiarrentzat).

³¹ Organoren horiek uztailaren 26ko 905/2007 Errege Dekretuaren bidez sortu dira (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 172. zk., 2007ko uztailaren 19koa).

Horiez gain, baditugu beren erkidegoan bertan menpekoak diren hizkuntza-komunitateak. Kasu batzuetan hizkuntzaren izaera edo errealitate soziolinguistikoa ez dago argi. Hori gertatzen da, esaterako, aragoiera edo fablarekin Aragoian eta leonerarekin Gaztela eta Leonen. Beste kasu batzuetan, asturierara edo *bable*-aren kasuan, esaterako, errealitate soziolinguistikoa indartsuagoa da, baina bazirudien Asturiasen ez zegoela –edo ez zela egon– adostasun handirik hizkuntza horren esanahi edo izaerari buruz, nahiz eta azken urteetan aurrerapen handiak egiten ari diren hori argitzeko.

Asturierak hedapen eta indar soziolinguistiko askoz handiagoa du, baina kasu horretan izan ezik, ez dira kasu garrantzitsuak kuantitatiboki; bai, ordea, kualitatiboki, Gutunaren ikuspuntutik. Izan ere, haien estatutuek hizkuntza eta hizkuntza-komunitate horien babesa ezartzen duten arren, autonomia-erkidegoek ez dute legedirik garatu hizkuntza-komunitate horiek babesteko eta sustatzeko, ez eta horretarako jarduerarik ere. Horregatik, alor horretan sortzen da, ikuspuntu honetatik, egitura-arazorik handiena Espainian eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteari dagokionez, nahiz eta esan behar den duen pisua ez dela oso handia –edo mugatua dela–. Aran Haranean hitz egiten den okzitanierak, tradizionalki aranera izenez ezagutu denak, bakarrik du hizkuntza ofizial izaera bere lurraldean,³² eta, beraz, Gutunaren III. zatia aplikatuko zaio. Eta egoera horretan dauden gainerako hizkuntzen artetik, asturierak bakarrik du eskualde-lege bat hizkuntza babesteko eta sustatzeko.³³

Are harridura handiagoa sortu du Espainian Aditu Batzordearen txostenetan beste hizkuntza batzuei erreferentzia egiteak, bereziki tamazight hizkuntzari Melillan, eta arabierari Ceutan, Gutunaren II. zatiak babestutako hizkuntza gisa. Uste dut alor honetan beharrezkoa dela aurrez argitzea zer puntutaraino betetzen dituzten hizkuntza horiek Gutuneko 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak, eta zer puntutaraino diren benetan estatuko nazionalek lurralde jakin batean tradizionalki hitz egindako hizkuntzak, eta ez ote diren “emigrazio-hizkuntzak”.³⁴

³² Kataluniako estatutuaren testu berriak, 6/2006 Lege Organikoaren, op. cit., bidez egindako erreformaren emaitza denak, alde horretatik, hauxe ezartzen du 6.5. artikuluan: “okzitaniera, aranera izenez ezaguna Aranen, lurralde horretako berezko hizkuntza da eta ofiziala da Katalunian, estatutu honek eta hizkuntza-normalizaziorako legeek ezarritakoaren arabera”.

³³ Asturieraren kasuan, jarrera desberdinak badaude ere, batez ere autonomia-estatutuan asturierara hizkuntza “ofizial” aitortzeari dagokionez, eskualdeko parlamentu-biltzarrak (Asturiasko Printzerriko Batzar Nagusia) 1/1998 Legea, martxoaren 23koa, *bablea/asturierara* erabili eta sustatzeari buruzkoa, onartu zuen, eta han *bablea/asturierara* erabiltzeko eskubidea ezartzen da, bai eta hizkuntza babesteko eta sustatzeko neurriak hartuko direla ere, hezkuntza-sistemara gehitzea, besteak beste.

³⁴ Kontuan izan behar da, alor horretan, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoarekin (GNBHM) lotuta, Espainiak ez duela onartzen berbere-jatorriko biztanleria gutxiengo nazional gisa, eta, horregatik, Hitzarmen Markoaren Advisory Committee komiteak Espainiako agintariak animatzen ditu “Hitzarmen Markoaren babesa Espainiako berbere-jatorriko biztanleriara ere zabaltzeko aukera aztertzeraz, urte asko baitaramatzate ofizialki aitortzeko eta beren kultura gehiago babesteko eskatzen” (ikusi *Second Opinion on Spain*, 2007ko otsailak 22, ACFC/OP/II(2007)001). Bi batzordeak, beraz, norabide berean doaz.

Espainiak Gutuna berresteko erabilitako Berrespen Tresnaren arabera, hizkuntzak autonomia-estatutuan hizkuntza ofizial izaera izatearekin lotuta daudenez Gutunaren III. zatian onartutako konpromisoak, Gutunaren II. zatian kokatu behar dugu hizkuntza horien babesa. Eta alor horretan Aritu Batzordeak izugarritzko garrantzia ematen dio Konstituzioko xedapen bati. Xedapen horrek eragin praktikoa mugatua zuen –eragin praktikorik ez zuela ez esatearren– barne-esparruan: Konstituzioko 3.3. artikulua ari gara. Artikulu horrek ezartzen duenez, “hizkuntza-moten aberastasuna kultura-ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du”. Xedapen horrek, berak bakarrik, ez luke ia ondorioz izango, hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzeko Espainiako sistemak arreta guztia autonomia-erkidegoetako estatutuen arabera hizkuntza ofizial izaera duten hizkuntzetan jarri baitu.

Aritu Batzordeak Konstituzioko xedapen horri egiten dion erreferentzia Espainiak Europako Gutuna berretsi zuenean onartu zituen betebeharrekin lotuta dago,³⁵ bereziki Gutuneko 7(1)a artikuluan ezarritako betebeharrarekin, eta eduki berri bat ematen dio Konstituzioko xedapenari. Izan ere, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak kultura-aberastasunaren adierazpentzat hartzea botere publikoen politiken, legedien eta praktikaren oinarri bihurtzeko betebeharra ezartzen du. Bi arauen arteko loturaren ondorioz, Konstituzioko xedapenak barne-esparruan izan duen etereo-kontsiderazioa amaitu egiten da, eta kultura-aberastasuntzat hartze hori modu zehatzean gauzatzen duten politikak egitearekin eta arauak onartzearekin lotzen du xedapena. Beraz, Europako Gutunaren ondorioz, Konstituzioko xedapena garrantzi handiko elementu praktikoa bihurtzen da Espainiak onartutako nazioarteko betebeharrak aplikatzeko orduan, autonomia-estatutuek ezar dezaketena kontuan hartu gabe, edo, iraganean gertatu den moduan, estatutuek xedapenik ez duten kasuetan, edota, oraindik gertatzen den moduan, autonomia-erkidegoek dagozkien hizkuntzak babesteko eta sustatzeko estatutu-xedapenak garatu ez dituzten kasuetan. Hortaz, Gutunaren interpretazioak argi uzten du Konstituzioko xedapenak jardura praktikoko eskatzen dituela hizkuntzak edo hizkuntza-komunitateak babesteko eta sustatzeko, baita –edo bereziki– beren autonomia-erkidegoko estatutuen arabera “hizkuntza ofizial” izaera ez duten hizkuntzen kasuetan ere. Hartara, eta kasu horietan, hizkuntzak babesteko arau orokor bihurtzen da, ondorio bereziak izan behar dituenak.

³⁵ Aritu Batzordeak, *Initial monitoring cycle* lanari dagokion txostenean, op. cit., 79. paragrafoan, hauxe adierazi zuen: “Aritu Batzordearen ustez, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen ereduak aitorpen formala egiten du xedapen horrek, Europako kultura-aberastasuntzat jotzen baititu. (...) Espainiako Konstituzioko 3. artikuluko 3. paragrafoa Gutuna baino lehenagokoa da, eta oso ongi adierazten du maila nazionalean Gutuneko 7. artikuluko 1a paragrafoak ezartzen duen printzipioa”.

9.3. Europako Gutuna, hizkuntza-aniztasuna babesteko printzipio orokorra, eta horren esanahia

Europa osatzen duten estatuen barruko hizkuntza-aniztasuna babesten dela bermatzen duen Europa bat eraikitzeko beharretik sortzen da Europako Gutuna. Izan ere, ohikoagoa izaten da estatu bakoitzaren nortasun nazionala sortzeko erabili den gehiengoarengandik desberdinak diren barneko gutxiengoak marjinalatzea edo alde batera uztea –eta batzuetan jazartzea–. Izenburuak berak argi uzten duen moduan, eremu urriko hizkuntzak espresuki babesteko tresna bat da, baina aztertu beharko genuke ea Gutunak ezartzen dituen printzipio eta neurriek edozein hizkuntza erabiltzen duten hiztunak babesteko izaera orokorra duten; hau da, ea duintasun-estandar bat ezartzen duten edozein hizkuntza tratatzeko, eta, beraz, edozein hizkuntza-komunitate tratatzeko.

Espanian, zenbait autonomia-erkidegotan, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko beharrezko diren moduak ulertzearekin arazo bat planteatu da, eta baliteke gero eta garrantzi handiagoa hartzea arazoak aurrerantzean. Kontua da, zenbaiten ustez, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza babesteko eta sustatzeko, lurraldeko “berezko hizkuntza” denez, botere publikoek lehentasuna eman behar diotela haren erabilerari. Horrek hezkuntzaren alorrean hauxe esan nahi du: irakaskuntza-hizkuntza bakarria izango dela, nahitaez, ikasle guztientzat, haien nahia kontuan hartu gabe. Ez da egongo, beraz, gaztelania irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzeko aukerarik, eta ikasgai bat soilik izatera pasatuko da.³⁶ Baina gaztelania ere bada lurraldeko hizkuntza ofiziala, eta horrek esan nahi du biztanleriaren zati handi batek gaztelaniaz hitz egiten duela.

Ziur asko, Espainian etorkizunean hizkuntzaren alorrean sortuko diren gatazkarik garrantzitsuenak era horretako gaiekin lotutakoak izango dira, eta agian hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetza baketsua arriskuan jarriko dute. Gauzak horrela, zer zeregin du Europako Gutunak alor horretan?

Gutunak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko ezarritako estandarrak –adierazpen irekia bada ere– hizkuntza horiek eta haien hiztunak duintasunez tratatuko direla bermatzea du helburu, eta bizi behar izan

³⁶ Salbuespenak kenduta, ia inork ez dio eragozpenik jartzen derrigorrezko hezkuntzan eskualdeko hizkuntza ikasteari. Hemen eztabaidatu nahi dugun gaia hauxe da: eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza irakaskuntza-hizkuntza bakar gisa ezarri eta gaztelaniaren erabilera ikasgai soil batera mugatu behar ote den. Badago gai horri buruzko gatazka bat Katalunian, autonomia-erkidegoak ez dituelako bete nahi Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzei buruzko dekretuak (1513/2006 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen, eta 1631/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen). Izan ere, dekretu horiek ezartzen dute nahitaezkoa dela Gaztelaniako hiru ordu edukitzea, baina autonomia-erkidegoko gobernuak asteen bi ordura mugatzen du ikasgai hori. Azken aukera hori duela gutxi onartutako Hezkuntzari buruzko uztailaren 3ko 2009/Legeak, Kataluniako Autonomia Erkidegoarenak, berretsi du.

du ten marjinaziotik ateratzea. Hizkuntza ofizialak espazio publiko guztia hartzen zuen –eta, batez ere, eskola–, eta ezinezkoa zen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabiltzea espazio horretan. Gutunaren helburua da erabilera publikoan marjinatuta egon diren hizkuntzak eremu horretan normaltasunez erabiltzen has daitezela bermatzea, eta hizkuntza horien erabilera normala eta ohikoa bihurtzea.³⁷

Gutuna idatzi zutenek bereziki azpimarratu nahi izan zuten Gutunak “ez dituela hizkuntza ofizialak eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak lehiakidetzat edo antagonistatzat hartzen”, baizik eta Gutunak, nahita, “kulturarteko ikuspegi eleaniztun bat hartzen duela, eta ikuspegi horretan hizkuntza-kategoria bakoitzak bere tokia duela”. Planteamendu hori “bat dator guztiz Europako Kontseiluak beti defendatu izan dituen balioekin, eta pertsonen arteko harremanak estutzeko egin dituen ahaleginekin (...) bai eta, kulturen arteko harremanetan oinarrituta, estatuaren barruko populazio-taldeak elkarrekin hobeto konpontzeko egin dituen ahaleginekin ere”.³⁸

Europako Gutunak, testuinguru horretan, eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko jarrera zorrotza hartzen du, pentsaezina izango litzatekeelako lurraldean ofiziala den eta biztanleriaren zati handi batek hitz egiten duen hizkuntza bat debekatzea. Gutunaren helburua eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta hiztunek erabili ahal izan ditzaten bermatzea da, baina eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza hitz egiten dutenek estatuko hizkuntza ofiziala nahitaez ikasi behar izateko aukera ere babesten du.³⁹

Baina egitura federala duten estatuetan, eskumenak estatuaren –edo federazioaren– eta lurralde autonomoen artean banatzeak azken horiek hizkuntzaren alorrean garrantzi handia duten gaietako eskumenak edukitzea eragin dezake, Espainian hezkuntzarekin gertatzen den moduan. Eta gerta liteke lurralde horietan beren hizkuntza lehentasunezko hizkuntza gisa ezarri nahi izatea, nahiz eta herritar askok estatuko hizkuntza ofiziala hartu beren hizkuntzatzat. Horren ondorioz, gerta liteke botere publikoetako erabileran marjinatua izateko arriskua duen hizkuntza estatuko hizkuntza ofiziala izatea.

Aipatutakoaren moduko egoeretan, Europako Gutuneko Aditu Batzordeak bazuen lehenengo aukera bat, eta erabili du dagoeneko espresuki: Europako

³⁷ Gutuneko *Explanatory Report* txostenean hauxe azaltzen du: “era horretan bakarrik konpentsa daitezke hizkuntza horiek, beharrezkoa bada, iraganean izan dituzten aurkako baldintzengatik, eta, horrez gain, Europaren kultura-nortasuna osatzen duten eta bizirik dauden alderdi gisa babesten eta garatzen dira” (10. paragrafoa).

³⁸ *Ibid.*, 14. paragrafoa.

³⁹ Ikusi Gutunaren sarrera. Hauxe azaltzen du bertan: “Kulturartekotasunaren eta eleaniztasunaren balioa azpimarratzen da, eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea ez dela hizkuntza ofizialen eta haiek ikasteko beharrenez kalterako”. Eta, horrekin lotuta, 8(1) artikuluan ezarritakoa, han azaltzen baitu hezkuntzan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko eskubideak bermatu behar direla “estatuko hizkuntza ofiziala(k) irakasteko beharra alde batera utzi gabe”.

Gutuna berrestearen ondorioz Espainiak dituen betebeharrak edukien mugak zehaztea. Espainiak hezkuntza-sistema (eskolaurreko irakaskuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) eskualdeko hizkuntzan bermatzeko duen betebeharra ezin da aginduzko edo nahitaezko bihurtu; beren borondatez halako hezkuntza jaso nahi dutenentzat bermatu behar da. Horrek esan nahi du Gutunak ez duela ez eskatzen ez babesten nahitaez edo derrigorrean ezartzea sistema bera ikasle guztientzat, haien nahia kontuan hartu gabe.

Lehenengo kontrol “negatiboa” da, beraz, eta erakusten du martxan jartzen ari den sistema ez datorrela bat Gutunak ezarritakoarekin; izan ere, Gutunaren helburua ez da inoiz izan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabili nahi ez dutenak hura erabiltzera behartzea.

Hemen jorratzen ari garen gaia ez da nazioarteko estandarra gutxieneko estandarizat hartzeko gai tradizionala, babes-estandar handiago batekin bateragarri izango dena barne-zuzenbidean, Gutuneko 4(2) artikulua jasotzen duen moduan. Gutunak sustatu nahi duen jarrerarekin kontraesan bat sortzen da hemen. Izan ere, hizkuntzek eta hiztunek elkar errespetatuz kultura-taldean eta hizkuntza-taldean artean kulturarteko bizikidetzak sustatzea da Gutunaren helburua.

Alde horretatik, biztanleriaren zati handi batek hitz egiten duen hizkuntza bat debekatzeko edo marjinezkoak, gainera hizkuntza ofiziala izanik, arazo bat dagoela adierazten du. Ziur asko, gatazkak sortuko ditu arazo horrek, eta kultura-aniztasuna errespetatzeko balioak eta bizikidetzako balioak kaltetuko ditu. Europan izandako esperientzien arabera, printzipio horiek behar-beharrezkoak dira egonkortasuna bermatzeko, eta hizkuntza anitzeko autonomia-erkidegoen barruan ere zeregin garrantzitsuak izango dute. Barneko gutxiengoaren nortasuna ez onartzea eta marjinazioa izan badira gatazken eta ezegonkortasunaren sorburu handienetako bat, halaxe izango da berezko hizkuntza duten lurraldeetan hizkuntza hori nahitaez ezartzea, beste hizkuntza ofizial bat egongo ez balitz bezala, biztanleriaren zati handi baten –edota gehiengoaren– eguneroko hizkuntza, hain zuzen, eta ez uztea irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzen hizkuntza hori edota botere publikoekin harremanak izaterakoan baztertu nahi izatea. Ziur asko, gatazkak sortuko ditu bide horrek, bai eta ezegonkortasuna ere. Eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko kausaren oinarriak ahuldu egingo dira, ezarpen-hizkuntzat hartuko baitira. Baztertu nahi den hizkuntzaren indar soziala oso handia den gizarteetan gertatzen bada hori, gatazkek ondorio larriak izan ditzakete eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzarentzat. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak ez badu oraindik lortu gizarteko esparru guztiak normaltasunez betetzerik, ahaleginak hori lortzera bideratu beharko lituzkete, ez hizkuntzen arteko gatazketan sartzera. Bereziki, hizkuntza horrek gizartean horrenbeste indar duenean, baita lurralde horietan ere, gaztelaniarekin edo espainolarekin gertatzen den moduan.

Joan al daiteke Aditu Batzordea “kontrol negatibo” moduko horretatik harago? Zailtasunak oso handiak dira. Eta hori bere organo “anaia”, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoko (GNBHM) Advisory Committee komitea, sartu dela xedapenak aplikatzeko bidean –saialdiak egin ditu– “gutxiengoa gutxiengoa” egoeretan; hau da, estatu osoan gehiengoa osatzen duen taldeko kideek gutxiengo bat osatzen dutenean estatuko lurralde batean, lurralde horretako instituzio autonomoek dituztelako gai jakin bateko eskumenak.⁴⁰ Eta adierazten du, alde horretatik, gutxiengoak babestea helburu duten arauak aplikagarriak direla gehiengoa osatzen duen taldeko kideek, lurralde jakin batean, gutxiengo bat osatzen dutenean, haren eskumeneko gaietan.

Ohiz kanpoko planteamendua da, zalantzarik gabe, baina ohiz kanpoko da lurralde jakin bateko biztanleriaren zati handi baten hizkuntza den hizkuntza ofiziala marjinalatzea edo baztertzea ere.

Europako Gutunaren kasuan, badirudi zailagoa dela antzeko bide bati ekitea, bai behintzat Gutunaren III. zatiko xedapenen aplikazio hipotetikoari dagokionez, eta hori Hitzarmenaren ezaugarriengatik da. Gutunak espresuki ezartzen du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak bere babespean hartzeko aukera, eta, hala badagokio, “lurralde osoan edo lurraldearen zati batean gutxiengo erabiltzen den hizkuntza ofiziala” ere bai.⁴¹ Baina estatuak adierazi behar du berresteko unean –edo “geroago, beste edozein unetan”–⁴² zer hizkuntzari aplikatuko zaizkion onartzen dituen konpromisoak. Eta, noski, Espainiak ez du gehitu estatuko hizkuntza ofiziala lurraldearen zati batean gutxien erabiltzen den hizkuntza gisa Gutuneari berretsitako betebeharrak aplikatzeko.

Nire ustez, Gutunaren II. zatiaren aplikazioa beste kontu bat da. Egia da Gutuneko 2(1) artikulua aipatzen dituen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak “lurraldearen barruan hitz egiten direnak eta 1. artikuluko definizioarekin bat datozenak” direla soilik, eta guztiei aplikatu dakiekeela Gutunaren II. zatia, ez baitio erreferentziarik egiten lurraldean edo lurraldeko zati batean gutxien erabiltzen den hizkuntza ofiziala izateari, baina 3. artikuluan sartzean, III. zatiko betebeharrak aplikatuko zaizkiola ulertzen da, eta horrek Gutunaren II. zatia

⁴⁰ Advisory Committee komiteak planteatu izan du oso esanguratsuak izan diren kasuetan, adibidez, Aland Uhartetan, Finlandian, suedieraz hitz egiten duten bertako biztanleak babesteko estatutu berezi batekin (Ikusi *Opinion on Finland*, 2000ko irailak 20 (Doc. ACFC/INF/OP/I(2001)2), 17. paragrafoa; edota *Second Opinion on Finland*, 2006ko martxoak 2 (Doc. ACFC/OP/II(2006)3), 29. paragrafoa; edo Faroe Uharten eta Groenlandiaren kasuak Danimarkan, lehenengoaren oso antzekoak (ikusi *Opinion on Denmark*, 2000ko irailak 22 (Doc. ACFC/INF/OP/I(2001)5), 20. paragrafoa; edota *Second Opinion on Denmark*, 2004ko abenduak 9 (Doc. ACFC/INF/OP/II(2004)5), 44. paragrafoa; edo baita Suitzaren kasuan ere, han lurraldetasun-printzipioa indarrean egonik (ikusi *Opinion on Switzerland*, 2003ko otsailak 20 (Doc. ACFC/INF/OP/I(2003)7), 66. paragrafoa, edota *Second Opinion on Switzerland*, 2008ko irailak 2 (Doc. ACFC/OP/II(2008)2), 16. paragrafoa.

⁴¹ Ikusi Gutuneko 3(1) artikulua.

⁴² Ikusi Gutuneko 3(2) artikulua.

aplikatzea dakar: *a maiori ad minus*.⁴³ Baina hemen agerian geratzen dira Gutunaren II. zatiak ematen duen babesak mugak dituela, zati hori oso orokorra eta oinarritzkoa baita, eta zaila da baldintza horiek ez betetzea marjinetan izan daitekeen hizkuntza hizkuntza ofiziala denean.

Nolanahi ere, aipatutakoaren moduko testuinguru bat izan arren, eta, arrazoi batengatik edo besteagatik, Gutuna kontrolatzeko tresna eraginkorra ez bada ere, gutxienez, Gutunak eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko dituen printzipioekin eta helburuekin kontraesanak sortzen dituzten egoerak agerian uzten ditu, kulturarteko bizikidetzak bermatzeko eta hizkuntza-komunitate desberdinetako herritarren artean errespetua bermatzeko. Eta, alde horretatik, Gutuna da Europan dugun erreferentziarik garrantzitsuenaren.

⁴³ Aditu Batzordeak jarrera pasiboa du gai horretan. Ikusi *Report of the 3rd Monitoring cycle on Switzerland*, ECRML (2008) 2, Estrasburgo, 2008ko martxoak 12, 10. paragrafoa, han Batzordeak adierazten baitu agintariak jakinarazi zutela “kasu batzuetan frantsesa eta alemana eremu urriko hizkuntzak direla, tradizionalki hitz egin izan direlako baina ez direlako ofizialak *de facto*”. Batzordearen iritziz, “kasu horiek zenbait zailtasun sortzen dituzte Gutunaren interpretazio formalean. Nolanahi ere, Suitzako agintariak kasu horiek jakinarazi dituztenez, eta kontuan hartuz Gutunaren izaera eta helburua, Aditu Batzordeak kasu horiek txosten honetan auzeratu erabaki du”.

**1998-2008 ARTEKO ESPERIENTZIAK:
EREMU URRIKO HIZKUNTZAK
SUSTATZEA ETA BABESTEA**

10.

Euskara biziberritzeko prozesuaren bilakaera

PATXI BAZTARRIKA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea (2005-2009)

10.1. Sarrera

Europako hizkuntzarik zaharrena omen da, baina hizkuntza bizia, gaurkoa eta modernoa da euskara. Agintaritzza politiko eta ekonomikoen babesik gabe, baina irautea lortu du mendez mende. Zinez zailak izan zaizkion hainbat egoeratan iraun du, gureak ere badiren bi hizkuntza indartsuren ondoan, gaztelania eta frantsesaren ondoan. Ziur aski, garaian garaiko premia komunikatiboetara egokitzen asmatu duelako iraun du, eta batez ere herritarren atxikimenduari esker. Euskarak, bere mendeetako historian, azken 25-30 urteotan bakarrik izan ditu legeriaren eta herri-aginteen babesa eta bultzada.

Euskara hiru lurralde juridiko-administratibotako hizkuntza da (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea Frantziako estatuan). Euskal Autonomia Erkidegoan izan ditu euskarak 25 urteotan lege-babesik sendoena, eta herri-aginteen aldetik eta gizartearen eskutik babes eta bultzadarik irmoena. Ondorioz, bilakaera ezberdina izan du euskarak hiru lurralde horietako bakoitzean. Euskal Autonomia Erkidegoan indartsu doa gora elebitasuna, motelago baina gora doa Nafarroan ere, eta Iparraldean (Frantziako estatuan) galerak daude oraindik. Euskal Autonomia Erkidegoa da pisu demografiko handiena duena, bertan bizi baitira Euskal Herriko herritarren %75, eta euskal hiztunen %82. Horrexegatik –Euskal Autonomia Erkidegoa delako demografiari eta euskal hiztunen kopuruari dagokienez euskararen lurraldeetan lurralde nagusia, alegia–, Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da jarraian egingo dugun azalpena.

Azken 25 urteotako euskararen historia arrakasta baten kronika da, ezbairik gabe. Hazi eta indartu egin da euskara urteotan, herritar gehienek gogo horixe izan delako, autogobernua euskararen mesedetan baliatu dugulako, alderdi politiko ezberdinen artean oinarritzeko kontsentsu politikoa gauzatu delako, euskara normalizatzeko lege-arauak eta hizkuntza-politika publiko eraginkorra garatu ditugulako, eta herritar ugariaren eta hainbat gizarte-erakunderen bultzada gertatu delako.

Euskarak ez du historian inoiz ere hainbeste hiztun eduki, eta inoiz baino jende gehiagoren ahotan eta inoiz baino esparru gehiagotan erabiltzen da. Gaur

egun 800.000 hiztun ditu (munduko hizkuntza guztien lehenengo %10en barruan dago; beraz, David Crystalek esango lukeenez, ez da hizkuntza “txikia”), eta horien artean 300.000 hiztun euskaldun berriak dira (etxean ez, baizik eta haurtzaro eta gaztaroan eskolan edo helduaroan euskaltegian ikasi dutenak). Horregatik da hazkunde baten historia 25 urteotakoa. Gizartean gehiengoak normaltasunez eta naturaltasunez bereganatu du euskara biziberritzeko eta indarberritzeko prozesua. Gureak ditugun bi hizkuntzen bizikidetzaz sendotzeko eta gizarte-kohesioa indartzeko ikuspegitik daramagu aurrera prozesu hau, ez inoren eta ezeren aurka, inondik inora ere ez gaztelaniaren aurka, baizik eta herritar guztiak eta hizkuntza guztiak errespetatuz, hizkuntza-aniztasunaren alde. Izan ere, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen bizikidetzaz sendotzeko ezinbestekoa da euskara biziberritzea, bera delako ahulena eta bera delako bultzada behar duena. Ikuspegi horretan datza Euskadiko hizkuntza-politikaren giltzarria.


Halere, beste toki askotan gertatu ohi den bezala, gurean ere badira hizkuntzarena tamalez modu gatazkatsuan planteatzen duten diskurtsoak. Zenbaitentzat euskara biziberritzeko egiten den guztia da gehiegi, eta beste batzuentzat dena da gutxiegi. Maximalismoen eta minimalismoen artean, erdigunean kokatzen da gure hizkuntza-politika, eta erdigune hori zabaltzen saiatzen gara. Euskararen osasuna batzuek aitortzen dutena baino hobea da, eta askok nahiko luketena baino ahulagoa. Aurrera goaz, baina asko dugu egiteko, eta erronka handiak ditugu. Inoiz baino neurri handiagoan dago euskararen etorkizuna herritarren borondatearen eta hizkuntza-jokabideen esku, bai eta herri-aginteen konpromiso-mailaren esku ere.

10.2. Hizkuntza-gaitasunaren eta -erabileraren bilakaera

Gaur egun herritarren %37,5k daki ongi euskaraz, eta duela 25 urte %22k bakarrik. Duela 25 urte herritarren 2/3 ziren euskaraz tutik ere ez zekitenak, baina gaur egun %45 bakarrik.


15 urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, hazkundera ikaragarria da: gaur egun %75ek badaki ongi euskaraz, eta duela 25 urte %20k bakarrik. Duela 25 urte %60k ez zekien tutik ere euskaraz, baina gaur egun ez dira %10era iristen elebidun ez direnak.

Hitz gutxitan esanda: euskal gizartean gero eta leku gutxiago du elebakartasunak, eta gero eta toki handiagoa betetzen du elebitasunak. Etengabea da, gainera, prozesu hori.




10.1. irudia: Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2006 (%).

Iturria: EUSTAT.



10.2. irudia: Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera < 15 urte. EAE, 1981-2006 (%).

Iturria: EUSTAT.



10.3. irudia: Elebitasunaren bilakaera adin-taldeka. EAE, 1981-2006 (%).

Iturria: EUSTAT.


Grafikoan ageri denez, gaur egun gazteen artean kokatzen dira elebidun proportziorik altuenak: zenbat eta gazteago orduan eta elebidunago. Duela 25 urte guttiz bestela gertatzen zen hori: zenbat eta zaharrago orduan eta elebidunago, eta zenbat eta gazteago orduan eta erdaldun elebakarrago. Joera, zorionez, erabat aldatu da, eta hazkunderako bidea ageri da indartsu.

Jakina da familia bidezko transmisioa ez dela nahikoa hizkuntza biziberritzeko prozesuan, baina jakina da, halaber, familian transmititzen ez den hizkuntza lehenago edo beranduago desagertzera kondenaturiko hizkuntza dela. Familiako hizkuntza-transmisioa da hizkuntza bat modu naturalean geureganatzeko dugun biderik seguruenak, eta, jakina da, halaber, modu naturalean eskuraturiko hizkuntza ohikotasun handiagoz eta gehiago erabili ohi dela eguneroko bizitzan.

Euskarak historian zehar galerak nozitu ditu familian: hala izan da Euskal Autonomia Erkidegoan duela hamar urte arte. Alabaina, gaur egun, guraso biak elebidunak direnean, erabat bermatuta dago euskararen transmisioa familian (ez da hori gertatzen Iparraldean, Frantziako estatuan kokaturiko euskararen lurraldean, alegia).


Erabilerari dagokionez, azken hamabost urteotan gora egin du apurka-apurka Euskal Autonomia Erkidegoan, mantendu egiten da Nafarroan eta behera egin du Iparraldean. EAEko 16 urtetik gorako herritarren %25,1ek erabiltzen du euskara: horietatik %15,3k gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du euskara, eta %9,8k gaztelania baino gutxiago.

Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenei erreparatzen badiegu, grafikoaren argitan ohartuko gara esparru guztietan egin duela gora erabilerak. Gehikuntzarik handiena zerbitzu publikoetan eta lan-giroan gertatu da, eta oso gehikuntza apala gertatu da esparru pribatuan, bereziki familian.



10.4. irudia: Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, eremuka. EAE, 1991-2006 (%).

Iturria: EUSTAT.




10.5. irudia: Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakera, adin-taldeka. EAE, 1991-2006 (%).

Iturria: EUSTAT.

Bestalde, grafikoan ikus daitekeenez, nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoen artean bikoiztu egin direla euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak.

Hezkuntza-sistema da euskalduntzeari ekarpenik irmoena egin diona. Duela 25 urte arte,¹ ikastolen ekimen pribatu “meritorio” baina minoritarioak salbu

¹ *Ikastolak*: hezkuntza-sistema publikoan zein pribatuan euskara baztertuta zegoenean eta irakaskuntzan gaztelania soilik erabiltzen zenean, hainbat guraso eta herritar euskaltzaleren ekimen eta ahaleginari esker irakaskuntza arautuan euskara eta euskaraz ere irakas zedin sortu ziren eskolei deitzen zaie ikastolak.



10.6. irudia: Hizkuntza-ereduak irakaskuntza ez unibertsitarioan, ikasturteka. 1983/84-2008/09.

Iturria: EUSTAT.

(gehienez ere ikasleen %12 izatera iritsi ziren ikastolak), erdaldun elebakarra zen irakaskuntza, bai derrigorrezkoa, bai unibertsitatekoa. 1983az geroztik irakaskuntza elebiduna eraiki eta garatu dugu, hiru hizkuntza-ereduren arabera: A, B eta D. A eredu nagusiki gaztelaniaz irakasten da, euskara ikasgai izanik; B eredu ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz irakasten dira, eta D eredu euskaraz irakasten da, gaztelania ikasgai izanik. Gurasoak dira eredu horien artean aukera egiten dutenak. Bistan da euskararentzat emaitza hobeak ematen dituztela B eta D ereduak. Grafikoan hauteman daitekeenez, gurasoek, pixkanaka eta etengabe, 25 urtetan zehar, euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua egin dute, gaztelaniazko irakaskuntzaren ordeztu: A eredu %80 izatetik %19 izateraino jaitsi da, eta D eredu %12 izatetik %58 izatera igo da. Haur Hezkuntzan, hots, eskolara lehen aldiz hurbiltzen diren hauren kasuan, gurasoen erabakiz, A eredu ikasleen %4,7 bakarrik matrikulatu da 2008/09 ikasturte honetan. Bistan da irakaskuntza eleanitz bat helburutzat hartuta eta hizkuntzen ikasketa aktiboaren printzipioari jarraiki, A ikasteredu, gaur egun eratuta dagoen moduan bederen, gainditu beharreko eredu dela, ez bairik gabe.

Unibertsitatera begiratzen badugu, euskararen hazkundean gertatzen ari den jauzi kualitatiboaz ohar gaitezke. Azken 20-25 urteotaraino euskarak ez du baxterez presentziarik izan Unibertsitatean. Euskarak irabazi duen esparrua da hori ere. Unibertsitatera sartzeko selektibitate probetan ikasleen %55k –bere erabakiz, noski– euskaraz egin ditu azterketak. Eta ikasturte honetan lehen kurtso-rako matrikulatu diren ikasleen %45 lizentziatura edo gradu-ikasketak osorik euskaraz egiteko matrikulatu da. Horrek guztiak adierazten digu, 15 urte barru gure gizarteak izango duen elitea nagusiki euskal hiztuna eta prestakuntza akademikoa euskaraz jaso duena izango dela. Horrek, zalantzarik gabe, euskararen modernitate-balioa eta aitormen soziala indartzea ekar dezake berarekin.

Herritar helduei dagokienez, azpimarratzekoa da urtean 40.000 pertsona aritzen direla euskara ikasten edo hobetzen HABEK² homologaturiko euskaltegietan.

Interneteko erabiltzaileei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu azken hiru urteetan euskaraz ere nabigatzen dutenen portzentajea %96 handitu dela, oro har Interneteko erabiltzaile guztiena hazi den (%18,7) baino askoz gehiago.

Euskaraz edo nagusiki euskaraz ari diren hedabideen uholdea ere azken 25 urteotako kontua da. Gaur egun baditugu irrati-telebista publikoak (EITB), bina kate euskaraz dituztenak. Baina, gainera, baditugu ehunetik gora hedabide pribatu, prentsa idatzian, aldizkarietan, irrati eta telebistetan, eta hedabide elektronikoetan.

10.3. Euskararen bilakaera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak

Munduan zehar hizkuntza biziberritzeko hainbat prozesutan gertatzen den moduan, euskararenean ere hiru dira uztartu ditugun faktoreak:

- Euskara babesteko eta sustatzeko legeria.
- Herri-agintek garaturiko hizkuntza-politika publiko eraginkorra giza- eta diru-baliabidez hornitua.
- Herritarren atxikimendua.

Oso garrantzitsuak dira lehen biak: ez alferrik neurri handi batean horiek espikatzen dute EAEn, Nafarroan eta Iparraldean euskararen bilakaera oso desberdinak gertatu izana, eta euskararen bilakaerarik positiboena hain zuzen ere euskararentzako lege-marko babesleena onartu duen eta herri-aginteen hizkuntza-politika eraginkorra garatu den erkidegoan gertatu izana, Euskal Autonomia Erkidegoan alegia.

Halere, hiruretan erabakigarriena herritarren atxikimendua da: hori gabe alferrik baitira lehenengo biak. Lehenengo bi faktore horiek gabe nekez eman daiteke aurrerapausorik, ezinezkoa da; baina herritarren atxikimendurik gabe ere guztiz ezinezkoa da, ezinezkoa lehen bi faktoreak edukiko balira ere. Biziraupen soila ere ezinezkoa da herritarren atxikimendurik gabe. Horrexegatik uste dut oso egokia dela David Crystalek esandakoa, ondorengoa:

Komunitate batek hizkuntza salbatzeko erabakia hartzen duenean, bidearen erdia eginda dago (...) Jendearen buruak ez ezik, bihotzak ere irabazi behar dira arrakasta lortzeko.

(David Crystal, 2007)

² HABE. Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, euskaltegiak arautzen dituena, Eusko Legebiltzarrak 1982 eta 1983an onarturiko legeen eskutik sorturiko institutu publikoa.

Aipatu berri ditugun hiru faktore horien gaineko argibide batzuk emango ditugu jarraian.

1. Legeriari dagokionez, Espainiako Konstituziotik abiatu eta Euskadiko autonomia-estatutuan dago gure lege-oinarri nagusia, hor ezartzen baita euskararen ofizialtasuna eta, ondorioz, euskara ikasi eta erabiltzeko eskubidea. Hori oinarriztat hartuta, lege-garapen handia izan dugu 25 urteotan. Honako hauek dira, gure ustez, hamarkada hauetan garrantzi handiena izan dutenak: lehenik, Euskararen erabilera normalizatzeko Legea, hori izan baita, eta da, legeria osoaren zutoin eta bizkarrezurra. Ondoren etorri dira Euskal Funtzio Publikoaren Legea, Euskal Eskola Publikoaren Legea, HABE sortzeko Legea eta Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalizazioko Dekretua. Horiek guztiek askotarikoen arteko adostasun politikoa izan dute, gobernu eta oposizioko alderdiena, zehazki EAJ-PNV, PSE-EE, EA eta orduko EErena. Berriki onartu da Kontsumitzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua (Europako Kontseiluak berak ere arlo hau arautu beharra azpimarratu izan du).
2. Herri-aginteez, Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean eta hizkuntza-legeria garatuz azken urteotan burutu duten hizkuntza-politikak ondorengo ezauzgarriok izan ditu:
 - 2.1. Elebitasuna, ahalik eta orekatuena eta harmonikoena, dugu helburu. Euskarak bizirautea ez ezik, euskararen erabilera normalizatzea du gure hizkuntza-politikak helburu, esparru formaletan bezala ez-formaletan ere normaltasunez erabilia den hizkuntza izatea, alegia. Gizarte elebidunak herritar elebidunak eskatzen ditu, nahiz eta ez izan neurri berean elebidun. Hori oso aintzakotzat hartzen du gure hizkuntza-politikak.
 - 2.2. Horrek guztiorrek ahulenaren aldeko ekintza positiboa eskatzen du. Horrexegatik ez da neutrala gure hizkuntza-politika: barea, malgua eta urte luzetako perspektiban definitua da, bai, baina tinkoa da ahulenaren alde, euskararen alde.
 - 2.3. Herritarrei errespetu osoa bermatzen dien hizkuntza-politika. Horrexegatik, herritarrei hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie, ez zaie obligaziorik inposatzen: obligazioak herri-erakundeei ezartzen zaizkie, herritarrei aitorturiko eskubideak berma ditzaten.
 - 2.4. Gure hizkuntza-politikaren oinarri dira, beste zenbaiten artean: progresibotasuna, malgutasuna eta anizkoiztasun soziolinguistikoa konstante hartzea. Izan ere, guztia ezin baita goizetik gauera egin; presarik eza edo *laissez faire* politika bezain txarra izan daiteke presa gehiegia,

hizkuntza-politikaren kontuetan nahi izate hutsa ez baita berez eta beti ahal izatea. Egoera soziolinguistiko ezberdinek soluziobide ezberdinak behar dituzte. Herritarren borondatea behartzea desegokia ez ezik alferrikakoa delako praktikatzen dugu malgutasuna, baina malgutasunaren izenean utzikerian erori gabe eta euskara sustatzeko politika aktiboei bizkarra erakutsi gabe. Darwinismo linguistikoa hizkuntza-aniztasunaren etsaia da. Darwinismo linguistikoaren aurrean demokrazia linguistikoa aldarrikatzen dugu, hizkuntza-aukeren berdintasuna, alegia. Horixe da herri-aginteoi dagokiguna hizkuntza kontuetan ere: aukeraberdintasuna bermatzea, hizkuntza-askatasuna erretorika hutsa ez baizik eta egiazko aukera izan dadin.

3. Euskararen erabilera dugu helburu (erabiltzen den neurrian bakarrik existitzen baita hizkuntza, eta horrexegatik baitira gure politikaren subjektuak hizkuntza bera ez baizik eta hiztunak), herritarren atxikimendua dugu erabileraren giltzarri, eta ahalik eta girorik bareena eta adostasun sozial eta politikorik handiena dira ezinbestekoak herritarren atxikimendua elikatzeko.

10.4. Etorkizun hurbileko erronka nagusiak

Abiapuntu gisa esan dezagun, eztabaidaezina dela hizkuntza-politika positiboaren beharra. Zenbaitek norbanakoaren askatasunaren izenean aldarrikatzen duen hizkuntza-politikarik eza ere hizkuntza-politika da, baina hizkuntza-bizikidetzaren aurkako hizkuntza-politika litzateke hori, hizkuntzen arteko berdintasun soziala eragozten duen eta hizkuntza hegemonikoaren nagusitasuna areagotzen duen hizkuntza-politika.

Gaur egungo testuingurua, zorionez, eleaniztasunaren testuingurua da. Hor aurkitu behar du bere tokia euskarak ere. Testuinguru horretan, hizkuntza aukeraberdintasunaren eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko hizkuntza-politika behar da, beste hizkuntzarik ukatuko ez duen eta guztiak errespetatuko dituen hizkuntza-politika, ahulenaren alde –euskararen alde– zentzuz eta zuhurtasunez, baina beldurrik eta konplexurik gabe egingo duen hizkuntza-politika, hori baita hizkuntza-aniztasunaren alde jarduteko modu bakarra.

Adostasun sozial eta politikoa indartu eta berritu behar dugu, etengabe. Malgutasuna eta jarrera aktiboa uztartuko dituen adostasuna. Aurrera egiteko balioko duen adostasuna. Ezinbestekoa da adostasuna etengabe berritzea aurrera egiteko. Euskararen ezagutza ziurtatu behar dugu (herritar elebidunik gabe ez baitago gizarte elebidunik), familiaren, irakaskuntzaren eta euskaltegien bidez, eta erabilera gehitu, batez ere esparru ez formaletan. Hori, ordea, beste ezer baino gehiago dago herritarren esku, herritarren hizkuntza-portaera eta jarreraren esku.

Esparru ez formaletako erabilera bultza daiteke, eta bultzatu egin behar da, baina guztiz errespetatu behar dira herritar bakoitzaren hizkuntza-aukera eta -askatasuna.

Gaur egungo elebidunek ez dute duela 15 urteko elebidunek baino gehiago erabiltzen euskara. Erabilerak gora egin du hiztunak gehitu direlako, ez, ordea, gaurko hiztunek atzokoei baino gehiago erabiltzen dutelako. Bestalde, gaur euskaldun berri diren gazteek bihar, hemendik 15 urtera, guraso izatera iristen direnean beren familiako hizkuntza euskara izatea nahi eta lortzen badute, jauzi ikaragarria emango du euskarak etorkizunean. Familia-transmisioa orokortzea guztiz erabakigarria izango da hemendik 20 urtera.

Euskararen munduek erakargarri izan beharko dute. Euskarak eta euskararen munduak liluratu/seduzitu/ase egin behar dute, gure eguneroko bizitzan modu naturalean errotuko bada. Inork ezeri uko egin beharrik gabe eta gogoko ez duen ezer irentsi beharrik gabe hurbildu ahal izan behar du euskarara. Hori lortu behar dugu nahitaez.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan indartsu izan behar du euskarak. Gazteak ez dira “Internetera konektatzen”, hori 45 urtetik gorakook egiten dugun zerbait da: jada Interneten daude gazteak, hori bizi dira, hori da bere mundua. Horregatik egon behar du hori, eta hori erakargarri izan behar du, nahitaez, euskarak. Hala izan ezean, saretik ez ezik mundutik ere desagertu egingo bailitzateke.

Hizkuntza-aniztasunaren aldeko pedagogia soziala egitea beharrezkoa dugu. Badira diskurtso zaharkitu eta kontserbadoreak eleaniztasuna arazotzat hartzen dutenak, aberastasun eta kohesio iturri hartu ordez. Espainiako estatuko gizartean herritar gehienak eta indar mediatiko, politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta instituzionalak Konstituzioan aitortu eta autonomia-estatutuetan arauturiko eleaniztasunaz harro egotetik urruti gaude oraindik. Poztekoa da, eta esan egin behar da, Espainiako estatua Hizkuntzen Euroitunaren betetze-maila altuenerarikoa duen herrialdea dela. Izan ere, euskara, katalana eta galiziera normalizatzeko helburuarekin hizkuntza horiek dituzten autonomia-erkidegoetako herri-aginteei onartu eta garaturiko hizkuntza-politikei esker eta gizarte horietako herritarren atxikimenduari esker azken bi hamarkadetan aurrerapen handiak gertatu baitira gaztelania ez beste hizkuntzak indarberritzeko prozesuetan. Oraindik ere badira defizitak, autonomia-erkidegoetako herri-aginteei gaintitu beharko dituztenak batzuk, eta estatuko Administrazio Zentralak beste batzuk, gehienak. Hizkuntzen Euroituna betetzerakoan estatuko Administrazioaren ardurapeko erakunde eta guneetan gertatzen dira defizit ugariak eta handienak: hedabide publikoetan, Justizian, Espainiako Administrazio Periferikoetan eta hainbat zerbitzu publikotan (posta, garraioak, eta abar). Ondorengo urteetan zeregin handia dute arlo horietan estatuko Administrazioek.

Halere, egiteko horien ondoan, nahiz eta eginkizun horiek oso garrantzitsuak izan, bada beste erronka bat –erronka nagusia, nire iritzian behinik behin– Espainiako erakundeek, Espainiako gobernuaren ekimenez eta autonomia-erkidegoetako herri-aginteeekin elkarlanean, aurre egin beharko lioketena berandurako utzi gabe: Espainiako estatuaren eleaniztasunaren aldeko pedagogia soziala egitea Espainiako estatu osoan.

Eleanitza da Espainiako estatua, baina elebakarra balitz bezala jarduten dute oraindik ere bertako erakunde zentralek. Espainiako estatuko herritarren ia erdia gaztelania ez den beste hizkuntza bat ere ofiziala duten lurraldeetan bizi da. Hizkuntza-bizikidetzaren eta Espainiako estatua osatzen duten herrialde ezberdinen arteko bizikidetzaren mesedetan, beharrezkoa da hizkuntza horiek Espainiako estatuko herritar gehienek eta indar mediatiko, politiko eta sozialek oro har etxekotzat hartzea, gaur oraindik gertatzen den bezala arrotzak eta arazo-iturri baliran hartu ordez. Bide hori urratzeak onura baino ez lekarkiekie bizikidetzari, aurrerapenari eta modernitateari. Aldiz, guztiz anakronikoa eta bizikidetzarako traba litzateke Espainiako estatuak berezkoa duen eleaniztasunari neurri handi batean bizkarra erakusten jarraitzea. Arlo honek eskatzen duen pedagogia soziala egitea litzateke, gure iritzian, Espainiako gobernuak etorkizunean gainditu beharko lukeen erronka nagusia Hizkuntzen Euroitunaren izpiritua indartzeari dagokionez.

Espero dut, beraz, estatuko erakundeek berandu baino lehen bere egingo dutela eleaniztasuna, praktikan “egin bere”, eta euskara, galiziera eta katalana, gaztelaniaren ondoan, ondare propiotzat hartu eta gogotsu sustatuko dituztela. Aurretik esan bezala, Hizkuntzen Euroituna bera da horretarako bide-erakusle bikaina. Hala bedi. Eskerrik asko.

11.

Hiztun gutxiko hizkuntzen babesa Trentinon

MARCO VIOLA

Trentoko Probintzia Autonomoko (Italia) Hizkuntza Gutxiengoen Saileko burua

11.1. Trentinoko hizkuntzak

Trento probintzia autonomo bat da, 500.000 biztanle ingurukoa, eta Trentino-Alto-Adigeeko eskualde autonomoaren barruan dago. Probintziako lurraldean hizkuntza-gutxiengoak dituzten hiru komunitate daude: ladinoz mintzatzen direnena, Fassako haranean; mochenoen gutxiengoa (mocheno bersntoler da beren hizkuntzan), Bersntol/Fersental/Val dei Mocheni aldean; eta zimbriera darabiltenena, Luserna/Lusern udalerrian.

Gutxiengo ladinoa jatorrizko alpetar comunanza (komunitate) batean dago, eta komunitate hori eremu honetan hedatzen da: Suitzako Graubünden/Grisons kantonamenduan (non erromantxera hitz egiten duten), Ladinia dolomitikoan (ladinoa) eta Friuli-Venezia Giulian (friuliera edo marilenghea); ladinoak, guztira, 770.000 inguru dira, honela banatuta: 40.000 Grisons/Graubündenen, 700.000 Friulin eta 30.000 Ladinia dolomitikoan, eta horietatik guztietatik 7.553k ladinoz hitz egiten dute, ladinodunak dira, eta Fassako haranean bizi dira.

Mochenoa (bersntolerisch) erdi-goi bavarieraren dialektoa da, eta ez zuten kodifikatu duela urte gutxi arte; 2.276 pertsonak hitz egiten dute Trentinon. Mochenoak XIII. mendean hasi ziren finkatzen Trentino ekialdeko haran txiki horretan, germaniar populazioen migrazio ugarietako baten ondorioz.

Luserna/Lusern herri txiki bat da, leku garai batean dago (1.333 metrora), eta Trentotik hego-ekialdera, 40 km ingurura; zimbrierak dirauen azken lekua da (hori ere goi-bavarieraren dialekto bat da; linguisten arabera, hizkuntza periferiko zaharrena da eremu alemandunean), baina indarra du herri horretan, eta herritarren %90ek erabili ohi du. Egun, Trentinon, 882 pertsona inguru mintzatzen dira Lusern aldeko zimbrieraz.

11.2. Administrazio-aurrekariak

Hiru komunitate horietako batek inguru horretan bertan du jatorria, eta beste biak migrazio historikoen ondorio dira, baina hiruretan ere oso eragin handia izan zuen Gerra Handiak (Lehen Mundu Gerrak), Dolomitetan, Fersina/Bersntol haranean

eta Lusernen egon baitzen aurreneko su-lerroa Italiaren eta Austriaren arteko gatazka militarrean. Aginpidea Austriaren eskutik Italiarenera aldatzeak hainbat ondorio izan zituen: faxisten jazarpenak bereziki jo zuen ladinoz eta alemanez mintzatzen ziren gutxiengoan aurka. Gutxiengo ladinoduna hiru zatitan geratu zen banatuta, eta egoera horrek oraindik irauten du: Dolomitetako ladinodunak hiru probintzian eta bereizita dauden bi eskualdetan daude zatituta, eta hiru babes-mekanismo desberdin dauzkate. Trentinon alemana darabiltenei dagokienez, Hitlerrek eta Mussolinik 1939an sinatu zuten Hitzarmenak identitatearen eta lurralde historikoaren artean hautatzera behartu zituen: bertan gelditu hizkuntza eta identitatea galtuta ala hizkuntzari eta identitateari eutsi Alemaniara joanda.

Hitz bitan, hori da gure historia konplexua, betiere nabarmenduta zer dela eta gertatu den Trentinon hizkuntza-gutxiengoa duten komunitateen zatiketa eta zer eremu demografiko hartzen duten gaur egun.

Egun, komunitate horiek legegintza-autonomia berezia dute, Trentinori lege konstituzional baten bidez emana 1948an, eta zabaldua 1972an. Lege horien arabera, Italiako estatuak legegintza-ahalmen eskusiboa ematen dio Trentoko probintzia autonomoari esparru askotan; besteak beste, kulturari, eskola-arloan, hiri-plangintzetan, paisaian, turismoan, industrian, eskulangintzan, basogintzan, nekazaritzan eta topografian.

11.3. Hizkuntza-babesa

Trentinon, 1960ko urteetatik aurrera, gutxiengo-komunitateetan hizkuntzen aldeko kontzientzia gero eta argiagoa eta beroagoa izan zen; izan ere, Trentinoko gehiengoa, nekez izan bazen ere, haiek aintzat hartzen hasi zen, hasieran batez ere kultura bultzatuz, eskuragarriagoa eta partekatzen errazagoa baita.

1975ean, ladinoz mintzatzen zirentzako kultura-, argitalpen- eta aisialdi-jarduerak sustatzeko legea onartu eta hamar urtera, lege probintzial bat onetsi zen, Kultura Institutu Ladinoa sortu zuena. 1987an, Trentoko probintziako herritar alemandunen kultura babestu eta sustatzeko legea onartu zuten eta, geroago, urte gutxiren buruan, derrigorrezko hezkuntzan ladinoa eta ladinozko kultura irakasteari buruzko beste bat. 1999an, eremu urriko hizkuntza duten taldeen aldeko lehen lege probintziala iritsi zen eta, 2004an, eskolatzeari eta topografiari buruzko hainbat arau zuzenduko zituen lege batek probintziako legeak osatu zituen, gutxiengo-komunitateen autogobernurako neurri espezifikoen bidez.

Azkenik, 2008ko ekainean, Trentoko Probintzia Autonomoko Kontseiluak 2008ko ekainaren 19ko 6. Lege Probintziala onartu zuen, herri minoritarioen hizkuntza-eskubideak esplizituki aitortzen zituen.

Hortaz, hizkuntza-gutxiengoaren aldeko legegintzak bide motela eta polemikoa egin du 40 urtean, oso bide gorabeheratsua egin ere, arreta eta kontzientzia sozial eta politikoaren ikuspuntutik.

11.3.1. Trentinoko sistema

Zatiketa, kontraesan eta ez-egite guztien ondorioz, Trentinon sistema bereizgarri bat sortu da, oinarritzko errealitate kulturaletik hasi eta hizkuntza-politikaren eredu espezifiko, konplexu eta organikora iritsi arte.

11.3.1.1. Kultura-erakundeak

Sistemak, lehenik eta behin, oinarri sendoak ditu: hain zuzen ere, eremu urriko hizkuntzako komunitateen kultura-erakundeak; hau da, oso espezializatuta dauden erakunde kultural eta zientifikoak, askotariko biztanle-taldearen nortasunak kemen handiz aldeztu dituztenak. Majon di Fascegn izeneko Kultura Erakunde Ladinoa 1975ean sortu zen; mocheno komunitatearen Bersntoler Kulturinstitut izeneko eta zimbrieraren aldeko Kulturinstitut Lusérn delakoa 1987an ireki zituzten (hasieran erakunde bakarra osatu zuten, baina geroago, 2004an, bitan banatu ziren). Hirurek ere oso lan eraginkorra egiten dute hizkuntza-gutxiengoaren alde.

Probintziek dauzkaten legedi espezifikoek esker, komunitate bakoitzak bere erakunde publikoa du, eta horrek bere lege-nortasuna dauka, bai eta autonomia ere: teknikoa, antolaketa- eta funtzionamendu-arlokoa, administratiboa eta finantzarioa. Entitate bakoitzak zuzenean osa dezake bere lantaldea, eta zuzenean erosi ditzake bere antolaketa-helburuetarako ondasunak eta baliabideak; bere zuzendaritza-taldea dauka (zeinean tokiko komunitateak ordezkariak gehiengoduna baitu), bere buru eta zuzendaria, auditore-taldea eta batzorde zientifikoa (jarduera-programak aztertzeaz eta proposatzeaz arduratzen dena). Oso erakunde garrantzitsua da, tokian tokiko kultura, tradizioak eta hizkuntza ikertzea, babestea, dokumentatzea eta balioestea beste xederik ez duena.

Erdigune kultural horren inguruan, komunitatearen beste elkarte eta erakunde batzuk daude, ikastetxeak eta lekuan lekuko errealitate kultural, ekonomiko eta instituzionalak barne. Hori guztia funtsezkoa da, eduki- eta motibazio-iturria baita kultura-jardunerako, hala nola erakundeek gizartean bertan egiten dituzten jardueretarako, egiaztapen zientifikoa, esperimentaziorako proposamenak eta lankidetzaren proiektuak bideratzen dituztelako.

Erakunde horien garrantziaren adierazgarri (haien web-orrietara sartzea erraza da), hona hemen haietako bakoitzari urtean emandako funtsei buruzko datu batzuk (kopuruak 2008koak dira):

- “Majon di Fascegn” Kultura Institutu Ladinoa: 749.000 euro funtzionamendurako eta 108.000 euro inbertitzeko.
- Mochenoen komunitatearen “Bersntoler Kulturinstitut” institutua: 340.000 euro funtzionamendurako eta 716.000 euro inbertitzeko.
- Zinbrieraren aldeko “Kulturinstitut Lusérn” institutua: 159.000 euro funtzionamendurako eta 57.000 euro inbertitzeko.

Orain berriro helduko diogu Trentinoko hizkuntza-gutxiengoak babesteko sistemari.

11.3.1.2. Autogobernua

2006. urtearen amaieran, Kontseilu Probintziala ohartu zen beharrezkoa zela ikuspuntu integratu bat izatea Trentinoren autogobernurako hain garrantzitsua den sektore honen funtzionamendurako, eta, horrenbestez, gutxiengoetako kidez osatutako lantalde bat osatu zuen, hamabi hilabeteko lan-programa trinko baten ondoren hizkuntza-gutxiengoak babesteko eta sustatzeko tresna probintzial bakar bat presta zezan (hau da, 2008ko 6. Lege Probintziala), eta sektorea berrantola eta egoki zezan, betiere gogoan izanik oraintsu hartutako funtsezko neurri batzuen abiarazte koherente eta integratua.

2003. eta 2008. urteen artean, funtsezko lege batzuk promulgatu ziren, lege erabakigarri batzuk, hain zuzen ere, Trentinoko gutxiengo-komunitateek irau eta garapena izan ahal izateko.

2003ko 2. Lege Probintzialak Trentoko Kontseilu Probintziala aukeratzeko sistema aldatu zuen, eta Parlamentuan aulki bat gorde zuen udalerrri ladinodunei zegokien eremurako. Horren ondorioz, 35 parlamentari probintzialen artean beti dago Fassako komunitate ladinoa ordezkatzeko duen parlamentari bat.

Trentinoko erreforma instituzionalak 2006ko 3. Lege Probintzialarekin jarraitu zuen aurrera, probintziako eta udalerrietako administrazio-funtzioetako asko deszentralizatu egin baitzituen, errotik aldatu baitzuen Trentinoko Gobernuaren legegintza instituzionala eta “haran-komunitateak” (udalerrien elkarteak) sortu baitzituen. Funtsezko lege horrek sistema integratu bat ezarri zuen, zeinean erakunde bakoitzak komunitate osoa hazten laguntzen duen, eta ladinodunen aspaldidaniko erakunde bat berri zuen, Comun General de Fascia izenekoa, autogobernu-botere bereziak esleituta. Probintziak hainbat arlotako administrazio-funtzioak transferitu zizkion Comun General erakundeari; arloak hauek dira: hezkuntza eta ikastetxeak; gizarte-laguntza eta ongizatea; eraikuntza; hirigintza; tokiko ekonomia-plangintza; borondatezko gizarte-lana; borondatezko

suhiltzaileak eta udal-desjabetzeak. Gainera, erakunde horren beraren ardura dira ondare historikoa, artistikoa eta herrikoia zaintzea, ladino hizkuntza sustatzea eta toponimia. Are gehiago, udalerrri ladinodunek Comun General de Fasciarako onartutako estatutuak Trentoko Probintzia Autonomoko lege bihurtuko dira; hau da, Kontseilu Probintzialak inolako zuzenketarik gabe onartuko ditu.

Autogobernurako eskubidearen aitorten hori –ezinbesteko baldintza eremu urriko hizkuntzako komunitateen iraupen eta garapenerako–, halaber, Alpeetako biztanle zaharrenek ondo merezia duten errespetuaren adierazpena da, eta oinarri politikoa eta instituzionala ematen du Dolomitako ladinodunak batzea xede duen edozein ahalegin eraginkor egiteko.

Antzeko hainbat eskubide aitortu zitzaizkien alemandunak bizi diren haranetako komunitateei; izan ere, haien estatutuetan “xedapen espezifikoak jasotzen dira mochenoz eta zinbrieraz mintzatzen diren herriak babesteko eta sustatzeko” (19. artikuluko 12. paragrafoa).

Comun General de Fasciak eta udalerrri alemandunek ahalmena dute probintziak komunitate bakoitzerako hartzen dituen neurriak onartzeko zein baztertzeko, zerga-ahalmen gutxiko udalerrietarako bidezko funtsa partekatzeari buruzko erabakiak barne (Trentinon, tokian tokiko finantzak probintziak kudeatzen ditu) (19. eta 24. artikulua).

Ikastetxeak

Probintziak hizkuntza-gutxiengoak direla eta aurrera daraman politikaren ildo beretik, autogobernu-printzipioa ikastetxeetara ere zabaldu zen, hezkuntza-sistema aldatu zuen legearen bidez (2006ko 5. Lege Probintziala). Testu horrek Fassako Eskola Ladinoa (Scola Ladina de Fascia) abiarazi zuen, 45.-50. artikuluetan oinarrituta. Eskola horrek bere gobernu-batzordea dauka (Consei general per l'educazion e la formazion), Fassako ladinozko hezkuntza-zerbitzuaren antolaketaz erabakiak hartzeko; era berean, superintendentea (sorastant) dauka, probintziak Comun General-ekin batera izendatua; eta prestatze espezifikoak eta hezkuntza-ikerketak egiteko sail bat (Olfed), irakasteko materialak prestatzeaz eta hasierako nahiz geroko irakasle-prestakuntza emateaz arduratzen dena. Kasu honetan ere, hizkuntza-gutxiengoei erakunde autonomoak emateko ekimen horrek berekin ekarri zuen probintziako hezkuntza-sistemarekin batera jardungo zuen beste hezkuntza-sistema bat abiaraztea, tokian tokiko komunitatearen behar espezifikoari erantzuteko.

Hortaz, hezkuntza-sistemak bermatu egiten du ladino hizkuntza erabiltzea eta irakastea bai ikasgai bezala bai *lingua franca* bezala Fassako haraneko ikastetxeetan; era berean, mochenozko eta zinbrierazko kulturak eta hizkuntzak

berak ere bi komunitate horiek bizi diren eremu espezifikoetako ikastetxeetan irakatsiko direla bermatzen du. Eremu horietatik kanpo ikasle mochenoak eta zinbriok dituzten ikastetxeetan, aurrera eramaten dira “kultura, historia eta hizkuntza mochenoa eta zinbrioa sustatzeko eta babesteko proiektuak, italiarren/alemanaren irakaskuntza elebiduna eta alemana *lingua franca* modura erabiltzea bultzatzeaz gain” (51. artikulua).

Hiru komunitateetako ikastetxeetan guztizko lehentasuna ematen zaio eremu urriko hizkuntzaren eta dagokion kulturaren ezagutza ziurtatuta daukaten irakasleak kontratatzeari (97. eta 98. artikulua); ziurtagiri hori probintziak ematen du, batorde *ad hoc* batek ezagutza egiaztatu ondoren.

11.3.1.3. Seigarren Lege Probintziala

2008ko 6. Lege Probintziala da hizkuntza-gutxiengoak babesteko onartutako azken legea. Esan dezakegu lege horrek lortu egin duela xedapen-sorta zabal bat organikoki batzea; izan ere, xedapen horiek hizkuntza-gutxiengoak babestu eta sustatzeko Trentinoko sistema osatzen zuten askotariko sentsibilitate eta esperientziei erantzuteko sortu ziren denboran zehar. Doi-doi sistema bat zena, egun, benetako eredu da.

Bai probintziaren bai gutxiengoen komunitateetako ordezkarien ahalegin bateratuak tresna garrantzitsu bat sortu du, talde etniko bakoitzaren hizkuntza espezifikoa eta kultura-nortasuna aldezteko eta babesteko.

Hogeita hamar urtean hainbat arau eta erregelamendu onartu dira, baina, batorzetan, oinarri gabekoak, partzialak izan dira, edo, are gehiago, zaharkituta gelditu dira, eta haiek ordezkatu dituen lege moderno eta, hizkuntza-politikaren aldetik, nabarmen aurreratuta dagoen honek ia guztiz ziurtatu du Kontseilu Probintzialaren aho bateko onarpena (botoa eman zuten 30 kontseilarietatik, bakar bat baino ez zen kontrakoa izan, eta beste bat abstenitu egin zen). Legearen testu osoa probintziaren web-orri honetan kontsulta daiteke: www.provincia.tn.it/leggi.

Lehenik eta behin, lege berriak printzipio bat azpimarratzen du: nola nortasunaren babes eraginkorrek hala gutxiengoen berezitasunak areago ditzakeen garapenak beharrezkoak dituzte honako hauek: sistema instituzional bat izatea, zenbait autogobernu-mailaz hornitua, autonomia eta deszentralizazio administratiboa (goi-mailan, ziur aski) eta komunitateen ordezkarietza bateratua.

Argi eta garbi, aukera hori egitean, kontuan hartu behar ziren une hartako egitura instituzionala, gutxiengoen kopurua eta zerbitzu publikoetan estandar onargarria bermatzeko beharra. Horrek esan nahi zuen organo bateratu

bat sortu behar zela, Comun General de Fascia-rekin batera lan egin zezan (Fassako haraneko ladinodun guztiak batzen dituen erakundea). Organo bateratua Mòcheno/Bersntoler Kontseilua da, komunitate mochenoaren alde egiten du, eta bertako hiru udalerririk biltzen ditu. Aldi berean, Trentoko Erkidego osoan integratzeko beharra azpimarratzeko –hark gutxiengo-komunitateak onartzen baititu, Trentinoko gobernamentu orokorrerako oso lagungarria den aniztasun-iturri gisa–, ikastetxe probintzialak bultzatu egiten dira, gutxiengo-herriek zuzendaritza-batzordeetan ordezkaritza izango dutela ziurtatzera.

Bigarrenik, lege berriak Gutxiengoentzako Aginte Independentea sortu zuen: hiru kideko organo autonomo bat. Ikuskatzeko, gainbegiratzeko eta legedi ego-kia ondo erabilia dagoela egiaztatzeko ahalmena dauka; gainera, esparru honetan ardura duten beste organo batzuekin bildu ohi da, eta informazioa ematen die, gaiak jakinarazten dizkie eta iritzi ondo oinarrituak ematen, gutxiengoentzako politikak orekatuak eta eraginkorrak direla ziurtatzeko.

Aginte Independentea, funtsean, bitartekotza-organo bat da, eta ahalmena dauka ez bakarrik legeak proposatzeko, bai eta haien aplikazioa kontrolatzeko eta politika argia eta iraunkorra ziurtatzeko ere. “Agintea” izateak, jakina, beste agintari batzuekiko beregaintasuna dakar berekin, eta botere autonomoak eta legitimazio argia eskatzen ditu. Baldintza horiek organoko kideek berek bermatzen dituzte; eskarmentua eta gaitasuna alde aurreko baldintzak dira kargua hartzeko, eta izendatze-prozedurek (Probintzia Kontseiluak zertzen ditu) bi hereneko gehiengo eskatzen dute, eta, horrenbestez, alde batera uzten da gehiengo politikoak nahierara jarduteko arriskua. Organoaren ardura dira, halaber, arartekoek beste leku batzuetan sistemaren ekonomia-arrazoiengatik alde batera utzitako hainbat betebeharrak; bestalde, hizkuntza-gutxiengoek dauzkaten arazo bereziei egiten die aurre, eta gutxiengo horien instituzioak sustatzen ditu.

Berdintasun formalaren printzipioa sustatzeko bitartekoez gain, zeharkako diskriminazioa borrokatzeko helburu dutenak barne, hainbat neurri hartu dira mamizko berdintasuna bultzatzeko. Lotura zuzena egingo nuke hemen Konstituzioan (6. artikulua) hizkuntza-gutxiengoak babesteko jasotako xedapenekin, hala nola autonomia-estatutuetakoa neurri zehatzagoekin. Era berean, 6. Lege Probintzian esplizituki aipatzen dira EBko eta nazioarteko legediko printzipioak (1. artikulua), arau probintziales hain azkar hedatzen diren legedi horiei ezinbestean erreparatu behar dietelako ustean oinarrituta.

Hirugarrenik, lege berriaren filosofia orokorrak hainbat eskubide baietsi eta indartzen ditu, bereziki gutxiengo-herrien hizkuntza-eskubideak, bai eta banakoen mailan eta, arrazoi handiagoz, instituzioen mailan dauden erantzukizuneko postuetan zerikusia duten eskubideak ere. Eskubideen eta erantzukizunen arteko

loturari dagokionez, gutxiengo-herriek beren egoerarekin zerikusia duten politikan benetan esku hartzeko bideen kopurua eta eraginkortasuna areagotzea da legeen joera.

Zenbait xedapenek betebeharrak lotesle bat eta horren ondoriozko erantzukizuna ezartzen dizkiote probintziari, hala nola haran-komunitate garrantzitsuetako udal-kontseiluei, erakunde kulturaleri eta abarri. Gainera, berrikuntzaren ikuspuntutik, 6. Lege Probintzialak zenbait tresna sustatzen ditu gutxiengoak babestu eta sustatzeko politiken eraginkortasuna ebaluatzeko; adibidez, gutxiengo-herrien egoera soziolinguistikoa nolako den zehazten du (5. artikulua).

Gutxiengoaren Konferentzia

Lege berriak, halaber, Gutxiengoaren Konferentziaren eskumenak areagotzen ditu; konferentzia hori 1999ko 4. Lege Probintzialaren bidez abiarazi zen, eta funtzionamendu ona izan du ordudanik. Probintzian eta tokian-tokian erabakitako hizkuntza-politikan parte hartzeko eta politika horiek ados jartzeko bitartekoa da konferentzia, eta bertara joaten diren ordezkariak sektore-legediak abiarazteko baldintzak egiaztatzen dituzte, jarduera berriak proposatzeko, besteak beste. Konferentziak aldeztu egiten du bere eskubideak eta parte hartzeko bitartekoak ere sendoak izan behar dutelako printzipioa, ebaluazio egokirako foro gisa daukan estatusaren eta dagozkion erantzukizunen ildotik.

Konferentzia gutxienez urtean bitan egiten da, eta honako hauek izaten dira bertan: Trentoko Probintzia Autonomoko presidentea eta kontseilariak; Comun General de Fasciako eta gutxiengo mochenoaren nahiz gutxiengo zimbrioren lurraldeetako komunitateetako presidentek; gutxiengoak bizi diren udalerrietako alkateak; eta kultura-erakundeen, ikastetxeen eta eremu urriko hizkuntzaren defentsan aurre-aurrean diharduten elkarteetako ordezkariak. Bestalde, konferentziaren esku dago erabakitzea nola erabili gutxiengoetarako funts probintzialak eta informazioa eremu urriko hizkuntzan zabaltzeko diru-laguntzak.

Eskubideak eta ekimenak

Era berean, legeak babes- eta sustapen-esparru komun bat jasotzen du, egokitzat eta komenigarritzat jotako printzipioak eta bitartekoak biltzen dituen, hiru herrien arteko desberdintasun objektiboak gorabehera, eta argi adierazten du gutxiengo bakoitzaren eskubidea dela bere hizkuntza jakitea eta erabiltzea, “gizarte-, ekonomia- eta administrazio-bizitzako harreman eta aukera guztietan, inolako diskriminaziorik gabe” (4. artikulua).

Legeak, halaber, 1999. urte aldera tokiko eremu urriko hizkuntzetarako administrazio-egitura probintzial bat sortu izana berresten du. Berriaz sortutako de-

partamentu probintzial bat da, hauek egiten dituen: gutxiengo-komunitateen tokiko instituzio eta erakundeekiko harremanez arduratzea; legeen ezarpena koordinatzea; laguntza eta aditu-aholkularitza ematea tokiko erakundeei; komunitate-, estatu-, eskualde- eta probintzia-mailako lege-testuak biltzea eta antolatzea, bai eta itzul daitezen lortzea ere; eta Europako erakundeekin harremanak izatea. Gainera, babesak ematen die gutxiengo erakundeei eta tokiko agintariei, eta, bitartekari diharduela, gutxiengo-komunitateen eskaerak probintziako organoetara helarazten ditu.

Legeak azpimarratu egiten du herritarrek eremu urriko hizkuntza departamentu publiko guztietan eta, zenbait baimen berezirekin, aipatutako lurraldeetan erabiltzeko eskubidea dutela, eta nahitaezkoa dela erabaki publikoak bi hizkuntzazko argitalpenen bidez zabaltzea.

Eskualde-hizkuntza jakiteko eta erabiltzeko eskubideak berekin dakar hezkuntza eta prestakuntza egokia jasotzekoa, eta azken eskubide hori eremu urriko hizkuntza duten komunitateen betebeharrak jakin batzuen bidez orekatzen da. Gutxiengoak dituzten eremuetako ikastetxeek elkarlanean aritu behar dute Trentoko Probintzia Autonomoarekin, kultura-erakundeekin eta toki-agintariekin, helduei eta eskualde-hizkuntzan heziketa egokirik jaso ez duten pertsonen alfabetatze-eskolak emateko. Hizkuntza-eskubideak, hemen, zerkusian dute ahalmen espezifikoak esleitzearekin, etengabe ebaluatzea eta arduraz jokatzea ekarriko duen dinamika bat hasteko.

Topografiari dagokionez, zeregin nagusia toki-izenen zerrenda egitea da, lurraldeen izen egokiak ezartzeko eta probintziako kartografia zehatza ziurtatzeko bitarteko ofiziala delako. Legeak azpimarratu egiten du toki-izenen garrantzia ez dela sinboliko hutsa eta argi uzten du, errepedeen eta udalerrien izenez gain, gutxiengoak bizi diren lekuetako seinaleak haien hizkuntzan baino ez direla jarri behar.

Horrenbestez, topografiak lekuen ezagutze-, bereizte- eta aitortze-funtzio praktikoa betetzen du, bai eta, gainera, komunikazio-eginkizun kultural eta sinbolikoa ere: leku-izenek kezken berri ematen digute, errealitatea adierazten dute, lekuen memoria historikoa babesten dute eta gizakiek espazioaz intelektualki nola jabetu diren aditzera ematen dute. Testuinguru geografikoak bereiztean, halaber, haietan etengabe bizi izan diren komunitateak aipatzen dira, eta laguntza ematen zaie, bizirik eta kartsuki mantentzeko lurraldearekin duten harremana. Lege berriak ardura itzultzen die gutxiengo-komunitateei, leku-izenetarako baldintzen definizio formalaren eta ikerketaren bidez; hain zuzen ere, betebeharrak hori, beste garai batean, probintziaren eta probintziako kontseilu zientifikoaren esku egon zen.

Lege berriak kapitulu berezi bat dauka eremu urriko hizkuntzetan ematen den informazioari buruz. Kapitulu horretan epe luzeko laguntza-programa bat

azaltzen da, probintzia mailakoa, xede hau duena: “Probintziaren lurraldean, eremu urriko hizkuntzan egiten diren komunikabideak daudela bermatzea, eta, berrikuntza teknologikoaz gain, probintziaren mugetatik kanpo ere zabalduko direla sustatzea”. Programa irizpide objektiboetan dago oinarrituta, eta kontuan hartzen ditu udalen eta kultura-erakundeen proposamenak eta baliagarritasuna.

Kultura-ondarea

Komunitate ladinoari dagokionez, kultura-jardueren sustapena berrantolatu egin da, eta haien gaineko ardura Comun General de Fasciari eman zaio; azken horrek Consulta ladina kontsulta-organo ladinoa eta probintziako administrazio-departamentu garrantzitsu batzuk ditu aholku-emaile.

Akordio hori lehenago lortu zen, eta bidezko eskumenak esleitu zitzaizkion Compensorio (barruti) Ladino di Fassari, horretarako 1985eko 17. Lege Probintziala oinarritzat hartuta –herri ladinodunentzako kultura-, argitalpen- eta aisialdi-jarduerak sustatzeari buruzkoa, hain zuzen ere–; hori mugari garrantzitsua izan zen mugimendu politiko ladinoaren historian.

Consulta ladina izenekoak oso ondo ordezkutzen zituen herritarrak, eta hainbat eginkizun garrantzitsu esleitu zitzaizkion, azterketarekin, ebaluazioarekin eta, hizkuntza-politikaren esparruan, proposamenak egitearekin zerikusia zutenak. Hizkuntza ladinoa babestearekin eta balioestearekin zerikusia duen organo nagusia da.

Hala ere, baliteke legediak, gutxiengo-identitateei “probintziako komunitate osorako funtsezko ondarea” direlako estatusa aitortu arren, balio osoa galtzea, non eta komunitate probintziala eta gutxiengo-komunitateak ez diren ados jartzen haren edukiaz eta helburuez.

Gutxiengoek beren balioaren jakitun izan behar dute, eta beren eskubideak osorik eta arduraz erabili; gehiengoak, berriz, gutxiengoak ezagutu behar ditu, hori baita “kultura-aniztasunak” daukan balioa hauteman eta errespetatzeko bide bakarra; izan ere, aniztasun hori gutxiengo bidez adierazten da, eta benetan aberasten du tokian tokiko esparrua.

11.4. Administrazio Publikoaren proiektua

Proiektu horrek oinarri egokia ematen du hizkuntza-gutxiengo behatokia egiteko Italiarako, bai eta Europa osorako ere, harremanak eta gutxiengo-komunitate guztiek elkarri lotuta lan egitea sustatzeko.

Behatokiaren helburu nagusiak bi hauek izango lirateke:

- Hitzun gutxiko hizkuntzak babestea, hizkuntzok erabiltzen diren esparruan baino eremu zabalago batean abiarazitako ekimen baten bidez, kultura-, gizarte- eta ekonomia-garapen iraunkor eta espezifikoak sustatzeko beharrezkoak diren pizgarriekin eta jardunbide egokiekin lotzeko, horretarako hurbiltasun-esparru berriak erabilia, bai nazionalak, bai Europa mailakoak.
- Hitzun gutxiko hizkuntzen eginkizuna sustatzea, funtsezko eragileak baitira nortasunari eusteko, eta beren komunitateen bizitzarako, asimilazio globalizatzaileari aurrea hartzearen.

11.4.1. Nazioarteko sareak

Proposamen honi esker, Trentinoko eremu urriko hizkuntzako hiru komunitateek batera jardungo lukete estatuko eta Europako hainbat sare kultural eta zientifikotan; hala ere, sareok puntu ahul hauek dituzte:

- Sare informalak dira, ez dute erregulartasunez eguneratzen beren lidergoa, ez eta beren jarduerak ere, eta hori ez da batere lagungarria haietan interbentzio parte-hartzailea, etengabea eta kualifikazio handikoa lortzeko.
- Sare guztiek ez dituzte erabiltzen prestazio teknologiko ohikoenak, eta horrek harreman-aukerak murrizten ditu.
- Sare zientifikoetan, ikerketa-proiektu eta konferentziatarako ekarpenak ez dira beti behar bezala zabaltzen, edo hizkuntza garrantzitsuetara itzultzen.
- Jardunbide egokienak biltzeko lana, orokorrean, pertsonen arteko harreman onen kontua da, eta ez da kontuan hartzen hedatze-prozedura estandarizatua.

Trentoko Probintzia Autonomoak abiarazi nahi duen proiektuak bere egiten du beren identitatea etengabe bilatzen ari diren kulturak aztertzeko eta aurkitzeko nahia. Horretarako, beharrezkoa da iritziak zabaltasunez eta modu kritikoan alderatzea belaunaldi berrieekin; izan ere, logikoa denez, belaunaldi horiek identitate txikiagoen eta gutxiengo-kulturen bereizgarri diren balioak eta idealak dauzkate.

Xede orokorra sare instituzional bat eratzeke oinarriak jartzea da, eta, horretarako, barrerak eraistea eta gero eta hurbiltasun-esparru gehiago sortzea. Sare hori foro bat izango da, erreala bezala birtuala ere, eta bertan lurralde bakoitzak bere esperientzia espezifikoak azaldu ahal izango du, eta pizgarriak eta bitartekoak erdietsi ahal izango ditu komunitate osoaren mesederako.

11.4.2. Helburuak

Hauek dira proiektuaren xede espezifikoak:

- Hizkuntza-gutxiengoaren sarea sortzea Europan.
- Europako konferentzia bat antolatzea, sarea aurkezteko.

Sare instituzionalak hiru helburu orokor izango ditu:

- Jardunbide egokiak sustatzea, gutxiengo-hizkuntza tokian tokiko herritarren artean zabaltzeko, eta ahalegin berezia egitea belaunaldi berriekin.
- Jardunbide egokiak sustatzea hizkuntzaren erabilera administratiborako.
- Ikerketa zientifikorako proiektuak eta konferentziak sustatzea, hizkuntza-politikak abiaraztean erabiltzen diren metodo instituzionalak hobetzeko.

Lehen helburuari dagokionez, pentsatzen da proiektua lagungarria izango dela Trentinoko gutxiengoek estatuko eta Europako eremu urriko hizkuntza-komunitateak ongien ordezkatzan dituzten sare zabalagoetan betetzen duten eginkizunean sakon dezaten.

Bigarren helburuaz den bezainbatean, Trentinoko hizkuntza-gutxiengo historikoen profila goratzea da proiektuaren xedea, haiek estatuan eta Europan sustatzearen bidez, eta hizkuntza-gutxiengo horiei informazio-fluxu erregular eta osoa ematea, estatuko eta Europako beste egoera batzuetan, eremu urriko hizkuntzen babesari eta sustapenari dagokienez, izaten diren ekimenei eta jardunbide egokiei buruz.

Ikuspuntu praktiko batetik, plan osoaren xedea hau da:

- Datu-base zehatz eta erregularitasunez eguneratuko den bat sortzea, estatuan bezala Europan ere eremu urriko hizkuntzen babesarekin zerikusia duten organo, erakunde, pertsona publiko eta pribatu (ordezkari, kazetari eta estatuko, tokian tokiko nahiz eskualdeko funtzionario) guztiei buruzkoa, eta bakoitzaren eskumenak, ekimenak eta jarduera-eremuak ere jasoko dituen.
- Europako mailan mintegi bat programatu eta antolatzea, gutxiengo-komunitateetako ordezkari instituzionalak nahiz sozialak eta kulturalak jasoko dituen, sareei buruzko ideiak aztertu eta eztabaidatzeko, hala nola berriak, informazioa eta jardunbide egokiak trukatzeko.

11.5. Ondorioa

Oraindik asko falta da gutxiengoen ondare sozial eta kulturala probintzia, eskualde eta nazio osoko iritzi publikoan den bezala onartuta dagoela ziurtatu ahal izateko, aipatu gutxiengo horiek kokatuta dauden guneak alde batera utzita. Italiak oraino ez du berretsi Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, nahiz eta legeak –eskualde-mailan bereziki– hizkuntza-aniztasuna aitortu, zaindu eta sustatzearen alde egiten ari diren.

Gutxiengoek beren identitatea berretsi behar dute, eta hortik hasi beharra dago. Komunitate zabalago baten barruan betikotu beharra dute, zeinek bere burua erreferentzia bakartzat hartzeko gehiegizko eta oraindik desagertu gabeko joera gainditu behar dute, eta erlazionatutako testuinguruen sailkapena eskaini. Izan ere, hizkuntza bakoitza kultura bat adierazteko era bat da, bai eta norberaren errealitateari ekiteko, errealitate hori interpretatzeko modu bat ere; eta hori espezifikoa da hizkuntza bakoitzean, eta hizkuntza bakoitzaren bestetasun-balioa adierazten du.

Identitate-balio minoritarioak partekatzeak gizarte-balio handiago bat ekar dezake. Baina hori lortzeko, hizkuntza-gutxiengoak indar-elementutzat hartu behar dira, ahalik gehiena erabiliak izan daitezen, eta ez babestu beharreko talde ahultzat. Hortaz, gehiengoaren parte-hartze kontzientea hartu behar da helburutzat, gutxiengoen identitatea etorkizunerantz bideratu behar da, babesa eta garapena sustatu behar dira aldi berean, eta iragandako historia etorkizuneko planekin lotu: helburua, izan, hizkuntza-gutxiengoen sustapena baita, eta ez tolerantzia hutsa.

**2008TIK AURRERA:
HAMARKADA BERRI BATERANTZ**

12.

Gutuna tresna bizi gisa: legearen erronkak eta ikuspuntuak

ROBERT DUNBAR

Aberdeengo Unibertsitateko (Erresuma Batua) zuzenbideko eta zelterako irakaslea

Artikulu honetan, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren (Gutuna) lege-ikuspuntu batzuk eskaintzen ditut, eta tresna bizia izatetik sortzen diren lege-erronka batzuk jorratzen ditut. Hasteko, Gutunari tresna “bizia” deitzeak zer esan nahi duen azalduko dut.

12.1. Gutunaren bizitza

Denoi egiten zaigu ezaguna organismo biziaren metafora, Gutuneko eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei aplikatuta. Metafora hori erabilgarria da, baina bere mugak ditu: izan ere, organismo biziak ez bezala, hizkuntzek ez dute bizialdi naturalik; ez dute zertan hil. Guk aipatzen ditugun hizkuntza-moten testuinguruan, organismo biziaren metafora arriskutsua izan daiteke. Hizkuntza horiek babestearen aurka daudenek “hiltzorian dauden hizkuntzak” deitzen diete, eta Gutunak eskatzen dituen neurriak gaixo bat bizirik mantentzeko lanekin konparatzen dituzte. Alegia, gure ahaleginak, eta Gutuna bezalako tresnak, alferrikakoak eta zentzurikgabeak direla. Metaforaren logikari jarraituz, hizkuntza horiek heriotzatik salbatu nahi ditugu. Nik ez dut uste heriotza saihestezina denik, eta kontuz heltzen diot organismo biziaren metaforari.

Ez zait hain gaizki iruditzen lege-tresna batekin, Gutunarekin, erabiltzeko; izan ere, lagungarria izan daiteke nire gaiari buruz pentsatzeko. Hizkuntzen antzera, nazioarteko hitzarmenek ere ez dute bizialdi naturalik. Nolanahi ere, hitzarmenak une jakinetan eta helburu jakinetarako egiten dira eta, beren jaiotza eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, erabiliak izateari uzten diote. Betiko loaldi moduko batean sartzen dira.¹ Zenbaitetan, erabilgarriak izateari uzten diotenean, haien sortzaile izandako estatuek hiltzen uzten diete –“eutanasia” edo agian “hilketa” dei geniezaiokoe–, edo egoera berrirako egokiagoa den beste hitzarmen batez ordezka ditzakete –berpiztea edo–.²

¹ M. N. Shaw-k dioenez, hitzarmen bat bere azkenera hel daiteke bere helburuak bete badira edo bere xedapenetatik argi ikusten bada denboraz mugatua dela eta bere aldia igaro dela. Ikusi M. N. Shaw, *International law*, Cambridge, Cambridge University Press, 1997, 4. ed., 666. or.

² Ikusi ibid., 666.-671. arteko or., hitzarmenen bukaerako legeari buruzkoak. Ikusi A. Aust ere, *Modern treaty law and practice*, Cambridge, Cambridge University Press, 2000, 16. kap., “Duration and termination”, 224.-251. or. Ordezkatutako hitzarmen baten adibidea da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Konbentzioa, Herri Indigenen eta Tribalen Konbentzioa (1989). LNEren 107. Konbentzioa ordezkatu zuen, Herri Indigenen eta

Oro har, nik uste dut Gutuna oso luze biziko dela. Ez dut eutanasiarik edo hilketarik aurreikusten, baina ez dut baztertzen berpizterik, edo agian kirurgia berreraikitzaileak. Zergatik aurreikusten diodan bizialdi luzea? Bada Gutuna sortu zuten arrazoiak –jaiotzea eragin ziotenak– luze biziko direlako gure artean. Gutunaren azalpen-txostenean datoz arrazoi horiek: Europako eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen egoera demografikoa asko aldatzen den arren, denek dute “larritasun handiagoa edo txikiagoa”.³ Zalantzarik gabe, Gutuna aplikatzen zaien hizkuntza batzuek dezenteko urratsak egin dituzte, horien artean euskarak, baina eskualdeko edo eremu urriko gure hizkuntzarik indartsuena ere larri ibiliko da aurreikusteko moduko etorkizunean. Eta, gu gogotik saiaturik ere, hizkuntza horietako askok ahultzen jarraituko dute. Soziolinguista seinlatu askoren ustez, gure hizkuntzei bizirik eustea izango da XXI. mendeko erronka handietako bat.⁴

Beraz hizkuntzek arriskuan jarraituko dute, eta datozen urteetan erantzun behar dugun galdera ez da Gutunaren beharrik baden –beharra egongo baita–, baizik eta gai den bere lana egiteko, zuzendu beharrik baduen eta nik “kirurgia berreraikitzailea” deitu dudana behar ote duen. Galdera horietan pentsatzen laguntzeko, batez ere bi gairi helduko diet: lehenik, Gutuna interpretatzearen eta aplikatzearen erronka batzuk aipatuko ditut; eta, bigarrenik, Gutunaren aplikazioa ikuskatzeko sortu den Aditu Batzordearen zereginari begiratuko diot.

Une batez itzul nadin organismo biziaren metaforara. Gutunaren ideia 1980ko hamarkadan sortu zen, 1992an jaio zen sinatzeko moduan zabaldu zenean, baina esan liteke 1998 arte ez zela hasi arnasa hartzen, indarrean sartu zenean. Orain 11 urte ditu, baina, nire iritziz, nerabezaroan sartuta dago. Ez dut uste erabat heldua denik, baina bizkor ari da koskortzen, modu interesgarrian eta, hein batean, uste gabekoan. Nik 15 urteko semea dut, eta bera ere bide beretik doa. Gutuna, nire semearen antzera, nerabezaroan dago.

Esan ohi den bezala, gu helduak garenean garena, “natura eta elikadura” nahastearen emaitza da: ezaugarri eta gaitasun asko berezkoak ditugu, gure naturaren parte dira, baina forma ematen diena, askotan oso modu nabarmenean, gure hazkuntza eta bizi-esperientzia da, jasotzen dugun elikadura.

Tribalen Konbentzioa (1957): oraindik indarrean dago eta 18 estatu kide ditu, baina ez dago sinatzeko aukerarik; eta 169. Konbentzioa sinatzen duten 18 estatu kideentzat, 107.ak indarra galdu du. 169.aren sarrerak dioten bezala, “1957tik hona nazioarteko legean gertatu diren garapenek eta herri indigenek eta tribalen egoerak mundu osoan izan duen garapenak ikusirik, gaiari buruzko estandar berriak hartu dira nazioartean, lehengo estandarren orientazio asimilatzailea ezabatzeko”, 107. Konbentzioa dela eta.

³ Azalpen-txostenaren 2. paragrafoa.

⁴ Munduko 6.000 hizkuntza ingurutik %50 eta %90 artean hiztunik gabe gera omen daitezke XXI. mendean. Ikusi, adibidez, D. Nettle eta S. Romaine, *Vanishing voices: the extinction of the world's languages*, Oxford, Oxford University Press, 2000, 1. kap., “Where have all the languages gone?”, 1.-25. or.; D. Crystal, *Language death*, Cambridge, Cambridge University Press, 2000, 1. kap., “What is language death?”, 1.-26. or.; eta M. Krauss, “The world’s languages in crisis”, *Language*, 68 (1992): 4.-10. or.

Gutunaren natura –bere ezaugarri eta gaitasun nagusiak– bere xedapenetan ageri dira. Horiek elikatzen dituena –interpretatzerakoan eta aplikatzerakoan forma ematen diena– Aditu Batzordea da, hark ikuskatzen baitu Gutunaren aplikazioa estatuen txostenak aztertuz,⁵ bai eta Europako Kontseiluaren Ministro Batzordea ere, Gutunaren ezarpenari buruzko gomendioak egiten baitizkie estatuei. Gutuna tresna bizia da, hain zuzen ere, bere xedapenei etengabe ematen dielako forma Aditu Batzordearen eta Ministro Batzordearen segimenduak; lanean ari diren heinean, Gutunaren edukia eta eragina forma zehatza hartuz doaz, batzuetan Gutunaren egileek aurreikusi ez bezalakoak. Organismo bizi baten antzera, Gutuna hazi eta aldatu egiten da.

12.2. Gutunaren erronkak

Gutunaren interpretazioak eta aplikazioak hainbat erronka ditu. Izan ere, Gutuna ez ezik, hitzarmen gehienak dira anbiguoak, gutxienez sei arrazoirengatik:

- Hitzarmenak, sarritan, nahita dira lausoak.
- Hitzarmena aplikatzen den estatuen arteko desberdintasunek hitzarmena malgua izatea eskatzen dute sarritan.
- Gutuna bezalako hitzarmenek estatuei urrats aktiboak eskatzen dizkietenean, hala nola baliabideak ipintzea, are anbiguoagoak izan daitezke.
- Hitzarmenak arautu nahi duen mundua konplexua da.
- Hitzarmenak zirriboratu –edo “sortzen”– diren mundua aldatu egiten da denborarekin.
- Sortzaile izan dituzten gizakien antzera, hitzarmenak berez dira akastunak: giza akatsa dago txertaturik hitzarmenaren xedapenetan.

Hona hemen anbiguotasun-mota bakoitzaren adibideak eta, egokitzen joanean, Aditu Batzordeak emandako erantzunaren aipamen labur bat. Artikuluaren azken atalean, berriro helduko diot Aditu Batzordeak duen zereginari Gutunaren anbiguotasunak ebazteko.

12.2.1. Nahitako lausotasuna

Estatuek sortzen dituzte Gutuna bezalako hitzarmenak; negoziazioen bidez, hitzarmenak forma hartuz doaz estatuen ikuspuntu, premia eta kezkekin. Estatuak bat ez datozenean, gai garrantzitsuak hitzarmenetik kanpo geratzen dira,

⁵ Gutuneko 16. artikulua 1. paragrafoa.

edo idazkera anbiguoa erabiltzen da, estatu bakoitzak berari komeni zaion eran interpretatu ahal izateko. Estatuak bat datozenean, berriz, hitzarmenak zehatzagoak izan daitezke. Adostasun gutxi dagoenean, anbiguotasun gehiago dago. Adostasunik ez dagoenean, hitzarmena mutu dago.

Hainbat gai garrantzitsutan adostasun mugatua dago Gutuneko kideen artean eta, beraz, hitzarmenaren xedapenak oso mugatuak eta lausoak dira. Badaude bi adibide, nire ustez garrantzitsuak, Gutunak agian kirurgia berreraikitzailea beharko duela pentsarazten dutenak.

Klausula lauso horietatik lehena, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eta beren ordezkariak duten zeregina da, Gutunaren arabera hizkuntza horietan zerbitzuak eman behar dituzten erakunde publikoen politika eta kontrola eramateko. Gutunaren II. zatian, 7. artikulua 4. paragrafoa aplikatzen zaie estatu baten eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei. Hark dioenez, hizkuntza horiekiko politika erabakitzeko orduan, estatu kideek “aintzat hartu behar dituzte hizkuntza horiek erabiltzen dituzten taldeen premiak eta desirak”, eta estatuak erakundeak sortu behar dituzte, agintariei laguntzeko hizkuntza horiei buruzko gaitan. Ez dago argi “aintzat hartzeak” zer esan nahi duen –nire ustez, nahita–, baina argi adierazten du estatuak ez diela politikaren kontrol handirik ematen hizkuntza-komunitateei.⁶ Soziolinguistikaren ikuspegitik,⁷ jakina, kontrol hori funtsezkoa izan daiteke eremu urriko hizkuntza bat zaintzeko edozein estrategiatan.⁸ Aditu Batzordea proposamen horrekin bat etorri arren, hitzarmenak ez du aukera handirik ematen ahulezia hori konpontzeko.

⁶ Gutunari buruz dagoen testu-liburu nagusian, J. M. Woehrling-en ustez, “aintzat hartzeak” esan nahi du “estatu sinatzaileak eskaerak entzun eta aztertuko dituela. Jakina, estatuak ez du agintzen beteko dituenik kasu guztietan, baina arretaz jasatzeko konpromisoa hartzen du”. Ikusi J. M. Woehrling, *The European Charter for Regional or Minority Languages: a critical commentary*, Strasburgo, Europako Kontseilua, 2005, 128. or.

⁷ Gutuna soziolinguistikaren ikuspegitik ulertu eta ebaluatu behar da, dauzkan helburuengatik. Azalpen-txosteenaren 10. paragrafoak argi dioen bezala, Gutunaren helburua da eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea, Europako kultura-ondare mehatxatu gisa. Xede hori erabat da soziolinguistikaren arlokoa.

⁸ Eremu urriko hizkuntzak zaintzeari buruzko teorizatzaile nagusia den J. A. Fishman-ek behin eta berriro azpimarratzen du halako proiektuetan oso garrantzitsua dela hizkuntza-gutxiengoak kontrolatzea hiztunen eguneroko bizitzan eragina duten erakundeak. Ikusi J. A. Fishman, *Reversing language shift*, Clevedon, Multilingual Matters, 1991, batik bat 4. kapitulua, “How threatened is ‘threatened’? a typology of disadvantaged languages and ameliorative priorities”, 81.-121. or. Tokiko erakundeen kontrola komunitateen esku egotearen garrantzia aitortu dute epaitegiek Kanada bezalako herrialdeetan, non oso araubide aurreratuak dauden eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko. Konstituzioak bermatzen du eremu urriko hizkuntzetan ikasteko eskubidea: 1982ko Konstituzioa Legearen barruan, Kanadako Eskubide eta Askatasunen Gutunaren I. zatian, Kanadako Auzitegi Nagusiak aitortu zuen (Mahé v. Alberta [1990] 1 SCR 342) eremu urriko hizkuntza-komunitate batek eskubidea zuela, 23. atalari jarraiki, eremu urriko hizkuntzetako eskolak kudeatzeko eta kontrolatzeko, bi arrazoiengatik. Lehenik, hezkuntzako administrazio-gai batzuk oso garrantzitsuak zirelako gutxiengoaren kulturarentzat, besteak beste ikasketa-programak, kontratazioak eta abar. Bigarrenik, asmo onak izanda ere, gehiengoak alde batera utz ditzakeelako gutxiengoaren hizkuntzari eta kulturari buruzko kezak: “gehiengoak ezin du ulertu eta neurtu hezkuntza-jarduerak zenbat eta zenbat baldintza ditzaketen gutxiengoaren hizkuntza eta kultura”, 72. or. Ikusi, oro har, M. Bastarache (ed.), *Language rights in Canada*, Cowansville, Quebec, Éditions Yvon Blais, 2004, 411.-417. or.

Soziolinguistikaren ikuspegitik bada beste hutsune handi bat, Gutuna sektore ez-estatalari aplikatzerakoan.⁹ Gutunak ez du aitortzen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen osasunarentzat zein garrantzitsua den ekonomia- eta gizarte-bizitzan erabiltzea, eta III. zatiko 13. artikulua gai horiei buruzkoa den arren, haren xedapenak gehiago doaz zuzenduak ekonomia- eta gizarte-bizitzan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko dauden murrizketak ezabatzerara. Oro har, ez dute eskatzen hizkuntza horiek erabiltzerik arlo horietan. Arriskuan dagoen hizkuntza bat zaintzeko araubide aurreratuak dauden legedietan, adibidez Quebec eta Katalunian, legeak eremu urriko hizkuntza erabiltzeko dezente obligazioak ezartzen dizkio sektore ez-estatalari.¹⁰

Zinez, gero eta onartuago dago sektore ez-estatala arautu beharra eremu urriko hizkuntzen erabilera handiagoa bermatzeko. Horren inguruan, azpimarratzekoak dira Kanadako Nunavut lurraldeko inuit hizkuntza indigenei buruzko 2008ko legedia¹¹ eta Galesaren Elkartearen proposamenak sektore ez-estatala arautzeko.¹²

Gutunaren 13. artikuluan, 1d azpi-paragrafoak ekintzarako oinarri moduko bat sortzen du: estatuei eskatzen die eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen erabilera errazteko eta/edo bultzatzeko “goiko azpi-paragrafoetan aipatu gabeko beste bide batzuk erabiliz”. Baina xedapen hori oso anbigua da. Positiboa izan daiteke, obligazioa modu zabalean interpretatzeko aukera ematen duelako. Baina “errazteko” eta “bultzatzeko” modu asko egon daitezke, sektore ez-estatalean

⁹ Fishman-ek eremu urriko hizkuntzak zaintzeaz dioenez, etxean, tokiko komunitatean (erakunde publiko, pribatu eta ez-estataletan) eta lantokian hizkuntza erabiltzeak sekulako garrantzia du. Ikusi Fishman, op. cit.

¹⁰ *Loi 101, La charte de la langue française*, SQ 1977, c. 5: RSQ c.C-11 delakoan, adibidez, 4. atalak xedatzen duenez, langileek beren jarduerak frantsesez egiteko eskubidea dute (eskubide hori zehatzago xedatzen du I. tituluaren VI. kapituluak, “Lan-harremanen hizkuntza”); eta 5. atalak xedatzen duenez, ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaileek frantsesez informatuak eta zerbitzatuak izateko eskubidea dute. 51. atalak exijitzen du etiketak, erabilera-arauak, bermeak eta menuak frantsesez egotea, 52. atalak exijitzen du katalogoak eta liburuxkak frantsesez egotea, eta 58. atalak exijitzen du seinale publiko eta iragarki komertzial guztiak frantsesez egotea. 22. tituluaren V. kapituluak, “Enpresak frantseseta”, frantsesaren erabilera sustatu nahi du 100 langiletik gorako enpresa guztien jarduera guztietan. 2006ko Kataluniako Autonomia Estatutuaren uztailearen 19ko 6/2006 Lege Organikoak 34. artikuluan xedatzen duenez, pertsona guztiak dute eskubidea haiek nahi bezala, edozein hizkuntza ofizialetan, katalanez edo gaztelaniaz, ahoz eta idatziz zerbitzatuak izateko, ondasunak, produktuak eta zerbitzuak erabiltzean edo kontsumitzean.

¹¹ Ikusi Inuit Hizkuntzak Babesteko Legea, S. Nu. 2008, c. 17. Adibidez 3. atalean, sektore estataleko eta ez-estataleko erakunde guztiei eskatuko zaie seinale publikoak erakusteko, eta posterrak eta iragarki komertzialak erakusteko eta argitaratzeko inuit hizkuntzan, eta inuit hizkuntzan eman beharko dira harrera-zerbitzuak eta bezeroentzako zerbitzu publiko guztiak.

¹² Galesko Nazio Biltzarra (Legegintza Eskumena) (galesa) 2009ko Agindua, hemen eskuragarri: www.assemblywales.org/lco-ld7372-e.pdf. Legegintza-eskumeneko agindu baten barruan, Westminsterreko Parlamentuak legegintza-eskumenak eman ahal dizkio Galesko Nazio Biltzarrari, aginduko gaiei buruzko legeak egiteko. Galesaren eskumen-agindua emanez gero, Galesko Nazio Biltzarrak galesari buruzko legeak egin litzake.

Esate baterako, Biltzarrak galesa erabiltzeko beharra ezarri ahal die zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsonen akordio baten barruan, edo agintari publiko batekin hala erabakita, edo hala aldarrikatuta edo eskubide-tresna baten bidez, edo finantza-urte batean diru publikotik £200.000 edo gehiago jasotzen dutenei, eta publikoari hainbat zerbitzu eskaintzen duten pertsonen (gas-, ur- edo argindar-zerbitzuak, estolda-zerbitzuak, posta-zerbitzuak, telekomunikazioak, hezkuntza, prestakuntza- edo karrera-orientazioa, tren-zerbitzuak eta hezkuntza-edo lanbide-kualifikazioak: 3.2. atala).

eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko obligaziorik sortu gabe; bezaraz, obligazio horien artikulazio-ahalmena mugatua dela iruditzen zait. Sektore ez estatalean obligazioa sendoagoak sortzeko –nire ustez eremu urriko hizkuntza bati eusteko ezinbestekoa– kirurgia berreraikitzailea behar dela iruditzen zait.

Nahita sortutako anbiguotasunaren azken adibide bat, IV. zatiko betearazpen-mekanismoa da: Aditu Batzorde batek estatuen txostenak aztertzea. Mekanismo hori eta Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Maroak duen antzeko mekanismoa funtsezko akastzat hartu zuten kritikari askok –jaiotzako akastzat–, bi hitzarmenak jaiotzaren urteetan, 1990eko hamarkadan.¹³ Kritikariak estatutxostenen mekanismoa konparatu zuten eredu erdi judizialekin –hala nola Giza Eskubideen Europako Auzitegiarekin–, kritikarien ustez eraginkorragoak baitira hitzarmenak interpretatzeko eta aplikatzeko, eta estatuek ezarpen-akatsen berri eman behar izan dezaten. Gutunaren gabeziak bat da –ustez nahita egindakoa– ez dagoela erakunderik Gutunaren behin betiko interpretazioa eman dezakeenik, edo obligazioak betetzen ari direla erabaki dezakeenik.¹⁴ Aditu Batzordeak behintzat ez du halako ahalmenik: azalpen-txostenak dioenez, Batzorde horri “agindutako bakarra da Gutunaren ezarpenari segimendua egitea eta horretarako informazioa jasotzea”, eta ez litzaioke eskatu beharko “apelazio-erakunde judizial baten antzera jarduterik”.¹⁵ Adituek aldaketak proposa ditzakete eta Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak estatuei gomendatu ahal die beren obligazioak betetzeko, baina gomendio horiek ez dira lotesleak legez.¹⁶

Hala ere, nahitako anbiguotasunak gorabehera, Gutuna tresna bizia da eta Aditu Batzordeak hura interpretatzeko eta haren aplikazioa definitzeko botereak metatu ditu. Nire ustez, Adituek egin ahal dutenak eta egin beharko luketenak baditu muga batzuk, baina gehienok ongi irizten diogu Gutunaren baldintzak eta aplikazioa argitzen egiten duten lanari, beren segimendu-txostenen bitartez.

12.2.2. Estatu kideen arteko desberdintasunak

Gutuna bezalako tresna bat idazten dutenentzat problema handia izaten da lege-xedapen berak aplikatu beharra estatu desberdin askori. Zailtasunetako bat da Gutuna aplikatu ahal zaien hizkuntzen artean dagoen aniztasun handia, Gutunaren azalpen-txostenean aipatu zen bezala;¹⁷ bertan esaten denez, eskualde-

¹³ Ikusi, adibidez, H. Klebes, “The Council of Europe’s Framework Convention for the Protection of National Minorities”, *Human Rights Law Journal*, 16:1-3 (1995): 92.-98. arteko or., 97.-98. or.

¹⁴ Eztabaida zehatza, hemen: R. Dunbar. “Definitively interpreting the European Charter for Regional or Minority Languages: the legal challenges”, R. Dunbar eta G. Parry (eds.), *The European Charter for Regional or Minority Languages: legal challenges and opportunities*, Estrasburgo, 2008ko Europako Kontseilua, 37.-61. arteko or., 52.-59. or.

¹⁵ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 129. paragrafoa.

¹⁶ Ikusi F. Benoît-Rohmer eta Heinrich Klebes, *Council of Europe Law: towards a pan-European legal area*, Estrasburgo, Europako Kontseilua, 2005, 48. eta 107.-8. or.

¹⁷ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Azalpen-txostena, 2. paragrafoa.

ko edo eremu urriko hizkuntza bakoitza, praktikan, kasu berezi bat da.¹⁸ Aniztasun horrek malgutasuna eskatzen du eta, hori lortzeko, lege-tresnetan baldintza eta printzipio orokorrak edo abstraktuak erabiltzen dira, bai eta hizkuntza kualifikatzailea ere, eta horrek anbiguotasuna sortu ohi du. Konplexutasun handiagoa sortzen du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza bakoitzaren egoera desberdinak, eta Gutuna aplikatuko luketen estatuak konstituzio-, lege-, administrazio- eta hezkuntza-sistema desberdinak edukitzeak. Berrero esanda, hiztarmenaren terminologian nahikoa malgutasun egon behar du, egoera desberdinetan aplikatu ahal izateko. Nolanahi ere, Gutunaren terminologia ez da behar bezain malgua beti.

Esate baterako, 11. artikulua 1a eta 1c arteko azpi-paragrafoak irratia eta telebista-emisioei buruzkoak dira: emisio horiek “zerbitzu publikokoak” bada, 1a azpi-paragrafoa aplikatzen da; halakoak ez direnean, 1b edo 1c azpi-paragrafoak aplikatzen dira. Erresuma Batuan, adibidez, “zerbitzu publikoko emisioa” esaten zaie estatuaren jabetzako BBC bezalako emisioei, baina baita sektore pribatuko emisioei ere, hainbat obligazio baitituzte publikoarentzako zerbitzuan. Nonbait, Gutunaren egileek suposatu zuten “zerbitzu publikoko emisioak” azken esanahi hori izango zuela, Gutunaren azalpen-txostenak argi esaten baitu zerbitzu publikoa eman dezakeela “emisora publiko nahiz pribatu batek”, eta egiteko hori araubide bati dagokiola eta ez jabetza-mota bati: egiteko hori omen da “programen aukera zabala eskaintzea, gutxiengoen gustuak eta interesak ere kontuan hartuz”.¹⁹ Gutunaren barruko jardunbidea ez da beti berdina izan, batzuetan “zerbitzu publikoa” esan baitzaio jabetza publikoari,²⁰ eta batzuetan araubideari.²¹ Baliteke anbiguotasun horren jatorria izatea “zerbitzu publikoa” esaten zaionaren ideia eta araubide desberdinak legedi bakoitzean. Beraz, aplikazioa malgua izatea komeni dela dirudi.

12.2.3. Urrats aktiboen sarritan malgutasuna eskatzen dute eta, beraz, anbiguotasuna

Gutunak eskualdeko edo eremu urriko hiztunak babesteko neurri aktiboak hartzeko eskatzen die estatuari, eta horrek malgutasun pixka bat eskatzen du.

Hizkuntza horien bitartez zerbitzuak eskaintzeak prestakuntzan eta materialetan gastatzea eskatzen du, ondorioak ditu giza baliabideen politketan, jardute-

¹⁸ Ibid., 20. paragrafoa.

¹⁹ Ibid., 110. paragrafoa.

²⁰ Ikusi, adibidez, Aditu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in Slovenia*, ECRML (2004)3, 2004ko ekainak 9, 214. paragrafoa, non italieraz emititzen duten bi kanalei deitzen zaien “Esloveniako estatuak sortutako erakunde publikoa”.

²¹ Adibidez, Aditu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in the United Kingdom*, ECRML (2004)1, 2004ko martxoak 24, 160. paragrafoan aipatzen dira, 11. artikulua 1a.i. azpi-paragrafoa dela eta, funts publikoko BBC Radio Cymru eta galessezko emisioak “eskualdeko eta merkataritzako irratia- eta telebista-etxeetan”.

ko prozeduretan eta abar. Praktikan, estatuak oso maila desberdinetan daude gai horien inguruan. Gutuna aplikatzen duten estatu batzuk –adibidez, Finlandia–²² aspalditik ari dira hizkuntzaren aniztasuna arrakasta handi samarrez kudeatzen eta, hortaz, prestasun handia dute Gutunerako. Beste estatu batzuek ez –esate baterako nireak, Erresuma Batuak–, aurrerapen handiak egin diren arren, batik bat Galesen.²³ Estatu batzuek baliabide dezente dituzte eremu urriko hizkuntzen zerbitzura, eta beste batzuek ez. Desberdintasun horiek malgutasuna eskatzen zuten, baina berriro ere, malgutasunetik anbiguotasuna sor daiteke.

Zailtasun horiei aurre egiteko, Gutunak bi zati desberdinetan ipini ditu lege-obligazioak: II. zatian eta III. zatian. II. zatia estatu batean dauden eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza guztiei aplikatzen zaie.²⁴ Ondorioz, II. zatiko lege-obligazioak orokor eta abstraktu samarrak dira. III. zatian lege-obligazio zehatzagoak daude, baina estatuak izendatu dituen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei bakarrik aplikatzen zaizkie,²⁵ eta estatuak malgutasunez aukera ditzake obligazioak: Gutuna kartan jarrita esaten zaio. Berez, estatu batek 69 paragrafoetatik 35 bakarrik aukeratu behar ditu III. zatian, eskualdeko edo eremu urriko edozein hizkuntzarentzat.²⁶

Dena dela, III. zatiak ere malgutasun pixka bat eskatzen du; ondorioz, berez anbiguoak diren hainbat baldintza eta kontzeptu erabiltzen ditu. Adibidez, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzaren “lurrealde” kontzeptua. II. eta III. zatiko estatuaren obligazio asko estatuaren barruko lurrealde batzuei bakarrik aplikatzen zaizkie; zenbait lekutan, lurrealde horiek dira “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurrealdeak”,²⁷ eta beste zenbait lekutan estatuaren barruko lurrealdeak, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen duten biztanleen kopuruagatik neurriak justifikatzen dituztenak”.²⁸ Kasu bietan, estatuei hizkuntzen aldeko neurri positibo, zehatzak hartzeko eskatzen zaienez eta zerbitzu horiek ematea zaila eta garestia denez hiztunen kopuruak eta kontzentrazioak txikiak direnean, malgutasun pixka bat behar da eta, beraz, Gutuna aplikatzeko orduan anbiguotasun pixka bat.

²² 1919an Finlandia ofizialki elebidun bihurtu zen (suomiera eta suediera), urte horretako Konstituzio Legearen 14. atalaren arabera. Ikusi Aduitu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in Finland*, ECRML (2001)3, 2001eko irailak 20, 16. eta 27. paragrafoak.

²³ Lege-onarpen nagusiak 1980 ondoren gertatu ziren, eta lege-garapenik garrantzitsua 1993ko Galesaren Legea izan da.

²⁴ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 2. artikulua, 1. paragrafoa.

²⁵ *Ibid.*, 2. artikulua, 2. paragrafoa.

²⁶ *Ibid.*

²⁷ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 7. artikulua 1. paragrafoa (Helburuak eta printzipioak), 8. artikulua 1. paragrafoa (Hezkuntza), 10. artikulua 3. paragrafoa (Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak), 11. artikulua 1. paragrafoa (Hedabideak), 12. artikulua 1. paragrafoa (Kultura-jarduerak eta -aukerak) eta 13. artikulua 2. paragrafoa (Ekonomia- eta gizarte-bizitza).

²⁸ *Ibid.*, 9. artikulua, 1. paragrafoa (Agintari judicialak) eta 10. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak (Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak).

Oro har, lurralde horiek definitzerakoan, Gutunak “nahikotasun” kontzeptua aipatzen du: obligazioak dauden lurraldeetan hiztun-kopuru nahikoa edo esanguratsua dago. Kontzeptu horiek berez dira subjektiboak eta lausoak; azalpen-txostenak berak dioenez, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza baten lurraldea izendatzeko terminologia “nahitaez da malgu samarra” eta estatuaren beraren esku dago lurralde horiek definitzea, baina “Gutunaren espirituari” jarraituz egin behar da.²⁹ Halaber, azalpen-txostenak dio Gutunaren egileek nahita ez zutela finkatu nahikotasun horren hiztun-kopuru zehatza; berriro ere, malgututasun beharragatik.³⁰

Aditu Batzordeak berak malgu samar erantzun die interpretazio-arazo horiei. Ez du agindu nahi izan eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza baten lurraldea nola zehaztu. Estatuei utzi die lurraldea erabakitzen –eremu bateko hiztunen ehunekoan arabera–, baina kritikoa izan da ehunekoak oso goian ipini direnean, Kroazian bezala, lehenbizi %50ean eta gero %33an.³¹ Kritikoa izan da, halaber, estatuak lurraldea izendatu eta kanpora utzi dituenean Gutunak zehatz babestutako hizkuntzetako hiztun ugari: adibidez, Suediak hasieran egindako suomieraren lurraldearen definizioak III. zatiaren babesetik kanpora utzi zuen suomiera-hiztunen %95 inguru.³²

12.2.4. Mundua konplexua da

Hitzarmenak bezalako lege-tresnak egiten dituztenen ohiko problema da tresnak arautu nahi duen mundua oso konplexua dela, eta sarritan zaila dela konplexutasun hori hitzen bidez islatzea. Esate baterako, aipatu berri dugun eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza baten lurraldea definitzearen problema. Edo “gutxiengo berrien” hizkuntzak Gutunaren babesetik baztertu nahi izatea: 1. artikulua xedatzen du Gutuna aplikatzen zaien “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen” barruan ez sartzea “etorkinen hizkuntzak”; horretaz gainera, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak” estatuko “lurralde jakin batean tradizioz erabilia” izan behar du.

Nolanahi ere, Gutuneko mundua konplexua da. Etorkin gisa heldutako “gutxiengo berri” asko finkatu egin dira estatuaren lurraldean. Areago, hizkuntza asko –estatu batean eskualdekoak edo eremu urrikoak izan arren–, etorkinek hitz egiten dituzte: adibidez, Frantziatik Euskal Autonomia Erkidegora edo Nafarroara datozen euskaldunak. Aditu Batzordeak argi adierazi du azken etorkin

²⁹ Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Azalpen-txostena, 34. paragrafoa.

³⁰ Ibid., 35. paragrafoa.

³¹ Aditu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in Croatia*, ECRML (2001)2, 2001eko irailak 20, 19.-21. arteko paragrafoak eta Finding C. Aditu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in Croatia*, ECRML (2005)3, 2005eko irailak 7, 51.-62. arteko paragrafoak eta Finding B.

³² Aditu Batzordearen Txostena, *Application of the Charter in Sweden*, ECRML (2003)2, 2003ko ekainak 19, 23. paragrafoa.

horiei ere aplikatu ahal zaiela Gutuna: Finlandiari buruzko lehen txostenean, adibidez, Aditu Batzordeak esan zuen Errusiako eta beste estatu batzuetako etorkin errusiera-hiztunek –“errusiar berriek”– eskubidea dutela Finlandian errusierari aplikatzen zaizkion xedapenen onurak jasotzeko.³³ Horrek, baina, berdintasunaren inguruko arazoak sortzen ditu. Etorkin batzuen hizkuntzei Gutuna aplikatu ahal bazaie, zergatik besteei ukatu? Eta zergatik etorkin batzuk babestu, eta migrazio historikoengatik sortutako aspaldiko gutxiengoak baztertu Gutunaren babesetik?

Azken talde horri dagokionez, baliteke faktore erabakigarria izatea estatuaren barruan hizkuntzak “tradiziozko erabilera” izan duen. Nolanahi ere, “tradiziozko erabilera” kontzeptua ere anbigua da. Aditu Batzordeak esaera hori aztertu beharrik izan ez duen arren, Gutuna eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzari aplikatzen has daitekeela esan izan da, baldin eta, adibidez, lau belaunaldiz hitz egin bada estatuaren barruan.³⁴ Argi dago Gutuna idatzi zutenek hizkuntza-komunitateen bi mota zituztela gogoan, “gutxiengo tradizionalak” eta “gutxiengo berriak”, baina mundua konplexuegia da bikoizketa soil batekin nahikoa izateko.

12.2.5. Mundua aldakorra da

Hogei urte inguru besterik ez dira Gutuna idatzi zela, eta jadanik aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta teknologiko handiak egin dira Gutuna aplikatzen den munduan. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan zerbitzuak eskaintzeko obligazioa sortzen dio Gutunak estatuari. 1980ko hamarkadaz gero, etengabe-koak izan dira liberalizazioa eta pribatizazioa, gehienbat komunista eta sozialista izandako estatuetan. Lehen adierazi bezala, ez dago argi Gutuna zenbateraino aplikatzen zaion sektore ez-estatalari, baina badirudi Gutunean ezer gutxi dagoela estatuek sektore horri eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak erabilarazteko. Nazioko hizkuntza-legeek orain sarritan aipatzen dutenez, zerbitzuak eremu urriko hizkuntzetan emateko obligazioak jarraitu egingo du erakundeak pribatizatzean ere. Gutunak ezer ez dio horretaz. Aditu Batzordeak izango ote du borondatea eta gaitasuna Gutunaren xedapenak helburu horretarantz interpretatzeko, ala Gutunak kirurgia berreraikitzailea beharko ote du lehenago?

Egungo krisi ekonomikoak ere erakusten du mundua nola aldatzen den. Bistan da atzeraldiak gogotik eragiten diela finantza eta gastu publikoei; ondorioz, estatuek eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babesten baino nahiago dute gastatu irabaziak ematen hasi den ekonomia batean.

³³ Aditu Batzordearen txostena, *Application of the Charter in Finland*, ECRML (2001)3, 2001eko irailak 20, 14. paragrafoa.

³⁴ Europako Kontseiluko funtzionario baten iritzi pertsonala, hau idatzi duenari modu pribatuan jakinarazia.

Esan bezala, Gutuna aski malgua da estatuen ahalmenera moldatzeko, baita finantza-ahalmenera moldatzeko ere, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzekiko obligazioak betetzeko orduan. Aditu Batzordeak zenbateraino utziko ote die estatuei malgutasun hori erabiltzen eta Gutunaren obligazioak mugatzen edo murrizten?

Mundu zabaleko aldaketek Gutunaren interpretazioan eta aplikazioan duten eragina ikus daiteke, adibidez, hedabideei buruzko xedapenetan, 11. artikuluan. 1990eko hamarkadaren hasieratik hona, teknologia izugarri aldatu da hedabideen sektorean, eta hori normalean ez da islatzen Gutunean. 11. artikulua kontuan hartzen ditu hedabide “zahartzat” har daitezkeenak –irratia, telebista, egunkariak eta abar–, baina jendea, batez ere gazteak, gero eta gehiago ari dira jotzen hedabide berrietara, bereziki ordenagailuen bidezkoetara, hala nola iPlayerrak, blogak eta gizarte-sareak (Facebook eta Twitter). Gutuna idatzi zutenek ez zuten halako garapenik aurreikusi, eta ez dago batere argi horiei Gutunaren zein xedapen aplikatu ahal zaien; gutxienez, Gutunaren oraingo xedapenak berriro interpretatu beharko lirakeke, horiek ere aintzat hartzeko. Badirudi Gutuna berrikusi beharra dagoela.

Har dezagun 11. artikulua 1a azpi-paragrafoa, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetan egindako telebista-emisioei buruzkoa. Estatuek dituzten aukeren artean, “telebista-kanal” bat sortzea dago eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan, edo, merkeagoa dena, saioak sortzea hizkuntza horretan. 1990eko hamarkadatik hona sekulako aldaketak egon direnez telebistaren sektorean –besteak beste ikusleen sakabanaketa eta industriaren barruko ekonomia-aldaketak–, bi aukerak bereizten dituen lerroa lausotu egin da. Praktikan, eremu urriko hizkuntzako telebista-kanal askok emititzen dute eremu zabaleko hizkuntzan ere, adibidez Galesko S4C. Aditu Batzordeak errealitate horri erantzun behar dio, eta orain arte oso printzipio orokorrak aipatu dira. S4C kanalak eremu urriko hizkuntzako telebista-kanala izaten jarraitzen duela diote,³⁵ baina badirudi eremu urriko hizkuntzan egunero emandako zehaztu gabeko ordu-kopuru minimo bat bilatzen dutela, eta “ikusle gehien dauden orduetan” agerpen nabaria izatea.³⁶ Aldaketa gehiago espero dira; emisio digitalek erabat aldatuko dute telebista-emisioen forma eta ekonomia, eta teknologia berriak –saioak ikusteko ordua aukeratu ahal izateak– zentzua kenduko die “ikusle gehien dauden orduei”. Ez dago hain argi Gutunak horri nola erantzun dion, hedabideen beste aro batean baitago idatzita.

³⁵ Aditu Batzordearen Txostena, *Application of the Charter in the United Kingdom*, ECRML (2004)1, 2004ko martxoak 24, 161. paragrafoa. Aditu Batzordeak bertan dioenez, egunean galesez 5,14 ordu bakarrik eta ingelesez 17,94 ordu emititzen dituen kanalak galesezko telebista-kanala jarraitzen du izaten.

³⁶ *Ibid.* Aditu Batzordeak aipatu zuen kanalaren politika galesez emititzea zela ikusle gehien dauden orduetan, eta agian horregatik ondorioztatu zuten bi hizkuntzetako zerbitzua galesezko telebista-kanala zela.

12.2.6. Giza akatsa

Jakina, arestian aipatutako anbiguotasun asko giza akatsaren ondorio direla esan liteke: Gutuna idatzi zutenek ezin izan zuten ulertu aurrean zuten munduaren konplexutasuna, edo ez zuten behar bezala aurreikusi zetorren aldaketa. Gutunak baditu iluntasun eta kontraesan txiki batzuk terminologian. Horiek saihestezinak dira, baina, eta abokatuek hainbat estrategia garatu dituzte arazo horiek konpontzeko. Zailtasun horiek daudenean, Aditu Batzordeak estrategia horiek erabil ditzake.

12.3. Aditu Batzordea

Behin eta berriro aipatu da Aditu Batzordeak nola argitzen dituen Gutuneko anbiguotasunak, eta gogoeta labur batekin amaituko dut, Aditu Batzordeak Gutuna interpretatzeko eta aplikatzeko lanari buruz. Nik diodan bezala Gutuna tresna bizia bada, Aditu Batzordea izango da –eta bigarren mailan Europako Kontseiluaren Ministro Batzordea– Gutuna osasuntsu mantenduko duena, behar bezala haz dadin eta alderdi gaixotuak kenduz.

Lehen esan bezala, ordea, ez Aditu Batzordeak ez Ministro Batzordeak ez dute hori egiteko agindu argirik Gutunaren baitan. Gutunaren IV. zatiak, segimendumekanismoa sortzen duenak, inori ez dio ematen Gutuna behin betiko interpretatzeko edo estatuaren betetze-mailaz epai lotesleak emateko ahalmenik.³⁷ Aldiz, IV. zatiak etengabeko elkarrizketa bultzatzen du, gutxienez hiru alderdiren artean: estatua, Europako Kontseilua (batez ere Aditu Batzordearen bidez, baina Ministro Batzordearen bidez ere bai) eta estatuko herritarrak, batik bat eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen hiztunak. Gutunaren IV. zatiak hiru alderdiek elkarrizketa horretan duten parte-hartzea xedatzen du,³⁸ eta Gutuneko beste xedapen batzuek ere hiruko partaidetza hori ahalbidetzen dute. Elkarrizketa horren helburua da Gutunaren obligazioak etengabe betetzen joatea, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen eta hiztunen mesedetan.

Nire iritziz, horrek ez du esan nahi Aditu Batzordeak saiatu beharko ez lukenik Gutunari esanahia ematen eta, zinez, biziberritzen. Elkarrizketako beste partaideek –estatuak eta hiztunek– Aditu Batzordeak Gutunaren eskakizunak argitzea espero dute. Gutunaren izaerak eta Aditu Batzordearen paperak, nire ustez, oinarri orokor hauek eskatzen ditu:

³⁷ Berriro ere, ikusi R. Dunbar, “Definitively interpreting the European Charter”, op. cit.

³⁸ Bistakoa da zer paper duten estatuak (aldizkako txostenak egitea) eta Europako Kontseiluak (txosten horiek aztertzea); hiztunen papera bermatzen du, adibidez, 7. artikulua 4. paragrafoko betebeharrak: eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzekiko politikak erabakitzeko orduan, estatu kideek aintzat hartu behar dituzte hizkuntza horiek erabiltzen dituzten taldeek adierazitako premiak eta desirak, eta talde horiek segimenduan parte hartzeko modua izan behar dute, estatu kideen konpromisoei buruzko informazioa emanaz Aditu Batzordeari, 16. artikuluko 2. paragrafoaren arabera.

- Aditu Batzordeak Gutunaren esparrua eta esanahia argitzen jarraitu beharko luke; baina Gutuneko hizkuntzetan eta haiek hitz egiten diren estatueta desberdintasun handiak daude, eta horrek beharrezkoa egiten du printzipio orokorrak eskaintzea –haien bidez xedapen anbiguoak interpretatzeko–, eta ez behin betiko adierazpen argiak ematea xedapenen eduki zehatzei buruz.
- Aditu Batzordeak estatu bakoitzaz egiten dituen txostenetan jarraipena eta zentzua egon behar luke. Gomendioak egin direnean, jarraipena egin behar litzazieke hurrengo txostenetan. Askotan gertatzen den bezala, Aditu Batzordeak ezin duenean iruzkinik egin ez daukalako behar adina informazio xedapen bat betetzen ari den esateko, ahalegin guztiak egin beharko lituzke hurrengo aldian informazio hori eskuratzeko. Elkarrizketa eraginkorra izango bada, emaitza behagarriak izan behar ditu.
- Koherentzia egon behar luke bai Aditu Batzordeak xedapen anbiguoak aplikatzerakoan jarraitzen dituen printzipio orokorretan bai xedapen horiek estatu desberdinetan aplikatzeko moduan. Koherentzia horrek konfiantza sortzen du elkarrizketan, eta elkarrizketaren oinarritzko arauak argitzen laguntzen du. Nolanahi ere, estatuen arteko koherentzia-maila ezin da oso zehatza izan, hizkuntza bakoitzaren eta estatu bakoitzaren testuingurua asko aldatzen baita. Beraz, nekez konpara daiteke xedapen jakin baten aplikazioa bi estatutako bi hizkuntzatan. Estandar berdinak ezarri nahiak benetakoa ez baizik itxura hutsekoa den koherentzia sor dezake. Nire ustez zalantzan dago berdin tratatzea legezkoa den, eta zapuztu egin dezake Gutunaren aplikazioa.
- Nik defendatzen dudan ikuspuntuaren alde ona da gehiegizko legalismoa edo formalismoa saihesten duela Gutuna aplikatzerakoan. Abokatuek aginduen artikulazioan eta azalpenean arreta jartzeko joera dago, haiek hobeto eta zehatzago aplikatu ahal izateko egoera jakinetan. Nolanahi ere, abokatu asko –baina ez denak– ez daude hain prestatuak etengabeko gizarte-prozesuak aintzat hartzeko. Gutunaren helburua, hain zuzen ere, gizarte-prozesu horietan eragitea da, hau da, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak gehiago ikastea eta erabiltzea.³⁹ Lege-arauak zehatzago artikulatuta ere eta arau horiek zorrotzago aplikatuta ere –inportantea izan arren–, agian ez dira erdietsiko Gutunaren helburuak, baldin eta ahazten badira testuinguru soziolinguistikoko zabalagoa eta hizkuntza-politika eta -plangintzaren dinamika. Testuinguru horretan, oso mesedegarria da Aditu Batzordea abokatuen mende ez egotea, eta batzordean dauden abokatu askok soziolinguistikaz eta hizkuntza-politikaz eta -plangintzaz dezente jakitea.

³⁹ Ikusi 7. oharreko nire iruzkinak.

12.4. Ondorioak

Bukatzeko, azken gogoeta bat egin nahi nuke. Argi adierazi dut Gutunak bizitza luzea izan beharko lukeela; baina Gutunaren ezaugarri batzuk direla eta, ez dakit bere hazkuntza normala –Aditu Batzordearen kudeaketapean– aski izango ote den behar bezain eraginkorra izateko. Kirurgia berreraikitzailea beharko ote du? Ez dakit ziur, baina nire ustez tirabirak egongo dira gutxienez lau arlotan, Gutunaren anbiguotasunengatik edo isiltasun nabariengatik.

- Lehenik, teknologia berriak direla eta, batez ere hedabideetan: aipatu dudan bezala, interpretatzeko zailtasunak areagotu egingo dira.
- Bigarrenik, eremu urriko hizkuntzen komunitateek haiei eragiten dieten erabakietan parte hartzea, eta haiei eta haien hizkuntzei eragiten dieten erakundeak gehiago kontrolatzea dela eta. Horretan, Gutunak lausoa eta ahula dirudi, eta ez dago argi Aditu Batzordeak zenbateraino alda dezakeen hori.
- Berdin gertatzen da hirugarren zailtasunarekin, sektore ez-estatala arautzea: eguneroko hizkuntza-erabileran sektore estatalak baino askoz eragin handiagoa duen arren, Gutunak batez ere sektore estatalean jartzen du arreta.
- Laugarrenik, Gutuna gutxiengo berriei aplikatzearen arazoa dago. Adierazi bezala, Gutuna normalean ez zaie aplikatzen gutxiengo horien hizkuntzei baina, ikusi dugun bezala, badago anbiguotasunik hor. Gutxiengo horiek gero eta ugariagoak dira, eta haien premia eta kezkek ziur asko eragin handiagoa izango dute etorkizuneko politikan, besteak beste hizkuntza-politikan.

Hizkuntza-talde batetik bestera dauden desberdintasunen arazoa ere hor dago. Ikusteko dago Gutunak gai horiei helduko dien eta nola helduko dien. Baliteke Aditu Batzordeak gutxiengoaren babesean eta berdintasun-legeetan egindako garapen orokorrak aintzat hartu behar izatea, eta Gutuna idatzi zenean aurreikusi zena baino zabalago aplikatu behar izatea.

13.

Gutuna bermatzea eraginkorra da Europako lege-ordenan

STEFAN OETER

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren
Aditu Batzordeko presidentea

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren (Gutuna) hamargarren urteurrena ospatzeak egoera paradoxiko samar batean jartzen nau, begirale parte-hartzailea izan bainaiz, aspalditik Aditu Batzordeko partaide eta presidente gisa. Gutuna bezalako nazioarteko hitzarmen batek berez ezin du gizartea aldatu, ez behintzat eremu urriko hizkuntzak babestearen eta sustatzearen esparru konplexua. Estatu kideen hizkuntza-politika ere mugatua da: hizkuntza-erabilera arau dezake hezkuntza publikoan, Administrazioan, epaitegietan, hedabideetan eta zerbitzu publikoetan, baina ezin du aldatu eguneroko hizkuntza-erabilera kaleetan, familian, gizarteko erakundeetan edo ekonomian.

13.1. Gutuna eraginkorra izan ote daiteke?

Problema bikoitz horrek –estatu-politiken mugak eta nazioarteko hitzarmenek estatuen ekintzetan dituzten zeharkako ondorioak– galdera-marka jartzen dio atal honen izenburuari. Gutuna bezalako hitzarmen batean zer esan nahi du “eraginkorra” izateak? Halako hitzarmena izan ote daiteke eraginkorra soziologiaren ikuspegitik, hau da, aldatu ote ditzake eragileen jokabideak hizkuntza-erabilera bezalako gizarte-ekintza batean? Agian bai, baina hainbesteko “eraginkortasuna” ez da batere begi-bistakoa nazioarteko hitzarmen batean.

Hitzarmenak berak ezin ditu eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatu, hitzarmena nagusiki estatu kideei baitago zuzendurik, eta ez banakako gizarte-eragileei. Eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea batik bat nazioko eta eskualdeko hizkuntza-politikaren lana izan da eta izango da. Gutunak nazioko, eskualdeko eta tokiko agintariei gogorarazten die eremu urriko hizkuntzak babesten eta sustatzen duten ardura: izan ere, hitzarmena sinatzeak eta berrestek esan nahi du agian diskriminatuta edo galzorian dauden hizkuntza horien alde jarduteko konpromisoa hartu dela. Nazioarteko hitzarmen bat sendoa bada, helburu eztabaidaezin batzuk ditu –berrespenaren ostean, unean uneko politikak ez du erabaki beharrik eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea politika publikoaren helburu baliodun bat den, helburua lehendik sendo finkatuta baitago–, erakundeak helburuak betetzeko moduan antolatzen dira, eta neurri asko hartu behar direla gogorarazten zaie estatuei, xedea erdietsiko bada.

Ildo horretatik, nazioarteko hitzarmenek helburu batzuk lehenetsi ohi dituzte: hitzarmena berrestearekin batera, estatuak hitzematzen dute helburu jakin baten atzetik joatea, bai eta helburu hori lortzeko neurriak hartzea ere. Baliteke politikariak aurrerago tentaturik egotea helburu batzuk lehenesteari buruzko erretorika zaharra ahazteko eta neurri tinkoak hartzeko, gaiari buruz etengabe jarduteaz aspertuta, baina horrek ez du laguntzen baldin eta helburua eta hori lortzeko neurriak finkatuta badaude nazioarteko hitzarmen batean. Nazioarteko legearen obligazioak gogorarazten bazaizkie, estatuko organoek aintzakotzat hartu beharko lituzkete garai batean formalki egindako promesak, eta garai batean jarritako helburuak lortzen saiatu.

Hausnarketa abstraktu hori Gutunarekin lotzeko: zalantzarik gabe, estatuak promes politiko handiak egin zituzten berrestera, eta promes horiek betetzen ahalegintzea oso gogaikarria izan daiteke batzuetan. Erakunde gordailuzain gisa, Europako Kontseiluaren eta hitzarmeneko erakunde bakoitzaren lana da estatuari oroitaraztea garai batean nazioarteko legearen barruan hartutako obligazioak bete egin behar direla, legea errespetatzen duen estatu zibilizatu-tzat hartzea nahi izanez gero. Egiaz, obligazio horiek agian hartu ziren batik bat barruko publikoa, hautesleak, irabazteko, edo norberaren irudia hobetzeko kanpora begira, Europako estatuen klubean.

13.1.1. Gutuna ez bada, nor?

Nolanahi ere, Gutuna bezalako hitzarmen baten eta bere erakundeen zeregin-a mugatua da. Hitzarmen horren barruan hartutako obligazioak eraginkorrak izan daitezten, berrespen-tresnan hartutako konpromisoek zintzoak izan behar dute, horiekin bat etorri behar du nazioko legediak, eta nazioko organo exekutiboek eta judizialek eraginkorrak izan behar dute. Nazioarteko hitzarmenek ezin dituzte ordeztu nazioko legedia edo estatuko organoen konpromisoa lege hori eta horren barruko politikak ezartzeko. Nazioarteko mailak tresna osagarri gisa soilik balio du, eta ordeztu plan gisa. Hartutako obligazioak gogorarazten dizkie estatuari, nazio-politiken indarguneak eta ahuleziak neurtzen ditu eremu urriko hizkuntzen arloan, eta estandarrak azpimarratzen ditu baldin eta –batez ere gobernu bat aldatzean– gehiengo politiko berriek eta gobernu berriek zokora bota badituzte iraganeko lorpenak eta nazioarteko legean lege-obligazio bihurtutako asmo zaharrak.

Azterketaren une honetan, beste eragile batzuk goaz jartzera mahai gainean: gizarte zibil zabala eta bertako eragileak, banakakoak eta kolektiboak. Gizarte zibil bizi eta dinamikorik gabe, Gutuna bezalako nazioarteko lege-tresna batek jai dauka. Bere segimendu-mekanismoak ez luke funtzionatuko gizarte zibilaren parte-hartzerik gabe eta, horretaz gainera, Gutunak nazio-politikan eta

Administrazioan eta justizian izango lukeen eragina hutsaren hurrena izango litzateke, gizarte zibilak ez baditu funtsezkoa gaiak bere egiten eta gobernuari eta Administrazioari presio egiten. Esperientziak erakusten digunez, Gutuna bezalako hitzarmen bat eraginkorra izateak gizarte zibileko erakundeek eraginkorrak izatea eskatzen du. Herrialde batzuetan, jendearen onerako lanean ari diren GKE eta presio-elkarte ongi garatuak daude eta, eraginkorrak direnean, gobernua bere lege-obligazioak betetzera bultzatzen dezakete. Beste herrialde batzuetan gizarte zibila ahul samar dago antolatuta, hitzarmenaren obligazioak betetzea batez ere gobernuen esku uzten da, eta horrek aldakortasunaren eta populismo- eta oportunismo-tentazioen arriskua du.

Esanguratsu samarra den hirugarren faktore bat, Gutunak Europako lege-ordenaren antolaketa orokorrean duen lekua eta papera da: antolaketa hori oraindik bukatzeke dago kultura-aniztasuna babestearen arloan. Lege-tresna isolatu gisa, Gutunak kale egin dezake; kultura-aniztasuna babesteko Europako politika sendo baten barruan soilik izan dezake eraginik Europako hizkuntza-politiken etorkizuneko garapenean. Garapen itxaropentsu batzuk egon dira, baina kezka larriak ere hor daude.

13.2. Nazioko hizkuntza-politikak eta Gutuna

Lehenik, pixka bat argituko dut eremu urriko hizkuntzen aldeko edozein aha-legendetan funtsezkoa den maila: nazioko hizkuntza-politikak eta haien lege-tresnak legegintzan, Administrazioan eta erabaki judizialean.

13.2.1. Berreste zinikoa

Lehenago aipatu bezala, Gutuna eraginkorra izango bada, eremu urriko hizkuntzen arloko nazio-politikak benetakoa izan behar du. Estatu gisa, nahi bezain konpromiso zabalak har ditzakezu, baina konpromiso horiek urrats sinbolikoen antzekoak badira, itxura hutsa badira, une jakin batean gobernu baten irudia edertzeko baino ez dute balio.

Tamalez, esperientziak erakusten digunez, gobernu batzuek badakite zer den nazioarteko legea erabiltzea itxura hutserako. Nazioarteko legeak, are nazioarteko hitzarmenak, sarritan gaizki ulertzen dira nazioen lege-ordenatan: lege ahul eta bigunak balira bezala, gobernuari promes politikoak hartzen uzten dietenak, agindutako neurriak hartzen ez badira ere ondorio larririk gabeak.

Nazioarteko legearen barruan konpromiso zabalak hartzea, beraz, batzuetan gaizki ulertzen da, konpromisoa hartzea aski balitz bezala eremu urriko hizkuntzak eta haien erakundeak lasaitzeko. Halakoetan hitzarmenaren obligazioak degeneratuz joaten dira, benetako ekintzaren ordezkari bat bihurtu arte.

Nazioarteko hitzarmen baten barruan zenbait neurri edo emaitza hitzemanaz, politikariek batzuetan uste dute egin dutela gutxiengoek benetan espero dezaketena guztia. Legez, hori gaizki-ulertu bat da, ez bada abusua. Baina erabilerak oker horren tentazioa dago politikan. Alderantzizkoa ere egia da: nazioko gobernuak eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko borondate zintzoa duenean, Gutunaren barruan hartutako obligazioek zentzua hartzen dute eta behar bezala ezarriko dira.

13.2.2. Zentzuzko berrespena

Sarritan, zentzuzko berrespen-tresna bat egin nahi denean hasten da zailtasuna: Gutunaren barruan babesteko diren hizkuntza bakoitzarentzako konpromisoen menua aukeratzea zaila izaten da. Administrazioen aurreneko lana, dena delako herrialdean lehendik dauden politika eta lege-tresnen inbentarioa egitea izaten da. Baina hizkuntza-taldeen eskaerek gainditu egiten dutenean legedia eta administrazio-jardunbidea, gobernuak sarritan amore ematen dute arrazoi politikoengatik, hizkuntza-talde batzuek behintzat presio-indar handiko hautuak baitira. Hori positibotzat hartu beharko litzateke, berrespen-tresnan anbizio politikoak txertatzeko balio baitu. Baina anbizio horrek serioa izan behar du, errealitatea bistatik galdu gabe.

Ilusio hutseko konpromiso batek ametsa hauspotzeko balio dezake, baina benetan ez dio inori laguntzen. Aitzitik, gehiegizko itxaropenak sortzearen arriskua dago, eta gero, porrot egin ondoren, Gutuna bezalako tresnetatik etor daitezkeen onurak erabat hondatzen dituzten jarrera zinikoak sor daitezke. Sinti eta Roma herrien hizkuntza den romaniera III. zatiko menuan sartzeko ahalegin batzuk (adibidez, Alemanian eta Hungarian) arrisku horren adibideak dira: romanierak hezkuntzan, hedabideetan, Administrazioan eta justizian duen egoera oso urruti dago III. zatiko konpromiso gehienek edozein aplikazio zentzuzkotik, eta halako berrespenek derrigorrez desilusionatu behar dituzte romaniera-hiztunak.

Batzuetan, Gutunaren idazkerak ez du laguntzen eremu urriko hizkuntza bat une jakin batean zentzuz babesteko eta sustatzeko neurriak egokienak identifikatzen. 1980ko urteen bukaeran eta 1990eko urteen hasieran Gutuna idatzi zenean, Europako Kontseiluko estatu kide gehienek ez zuten esperientzia handirik eremu urriko hizkuntzen politikan.

Gehienei txalogarria iruditzen zitzaizkien eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea, baina interes hori berri samarra zen, artean ez zen emaitza praktikoa askorik egon, eta batez ere eztabaida politikorako eta *ad hoc* esperimentu politikoetarako gaia segitzen zuen izaten. Arlo horretako politiken garapen sistematikoa ez zen hasi 1990eko urteen bukaera arte, estatu askotan edo gehienetan.

Sarritan, estatu kideek ez zekiten nola ezarri Gutuna: xedapen batzuen esanahia ulertzeko ezintasuna ez ezik, ez zuten ezagutzen eremu urriko hizkuntzen arloko politika zentzuzko eta sistematikorik. Etorkizunean erabakigarriak izan daitezke jardunbide egokiak –Europako estatuen esperientzien artean hautatuak–, estatu kide batzuen artean ezjakintasuna egon baita orain arte, eremu urriko hizkuntzen babes eta sustapenaren inguruan. Estatuak eta eskualdeko agintariak jardunbide egoki horietan ikus dezakete Gutunaren barruan aukeratutako konpromisoak nola ezarri. Jardunbide egokiek egin daitekeena erakuts dezakete, betiere berrespen-tresnako anbizioei eta aukeratutako konpromisoei eutsiz.

Honako hau da funtsezko aurrebaldintza, eremu urriko hizkuntzak babesteko edo sustatzeko edozein politikak arrakasta izan dezan: estatuak eta eskualdeko nahiz tokiko agintariak eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko konpromiso zintzoa eduki behar dute. Bestela, Gutuna ez da eraginkorra izango, ezartzerakoan hainbat gabezia agertuko baitira.

13.3. Gizarte zibilaren papera

Gobernuen eta gehiengoaren alderdi politikoen borondate politikoa ez da funtsezko faktore bakarra Gutuna bezalako tresna bat eraginkorra izateko. Eremu urriko hizkuntzak babesteaz eta sustatzeaz estatuak eta agintariak duten konpromisoa hitz hutsekoa bada, gizarte zibilari dagokio gobernua presionatzea. Egindako segimenduak erakutsi digunez, Gutuna politika- eta lege-mailan aintzakotzat hartzen da gizarte zibila Gutunaz baliatzen denean lege-tresna gisa. Halakoetan ere, baliteke gehiengoaren atal batzuk Gutuna ezartzearen kontra egotea, baina atal zorrotz horiek onartu beharra dute, besterik ez bada, estatuak eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartu duela.

Era horretan, Gutuna bezalako nazioarteko lege-tresna batek eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatu beharra libratu egiten du politikaren alderdikerietatik, edo behintzat hala egin beharko luke, legearen indarra errespetatzen bada. Baliteke espektro politikoaren zati batzuk eremu urriko hizkuntzak babestearen kontra egotea, baina fakzio horiek ezin dute ukatu estatuak babes-maila bat bermatu behar duela.

13.3.1. Bi eszenatoki

Gizarte zibila indartsua denean, hizkuntza-babesa indartsua izan daiteke; gizarte zibila ahula denean, erabilera txikiko hizkuntzak galtzea gerta daiteke. Euskal Herrian, adibidez, ez zait iruditzen halakorik gertatuko denik, gizarte zibila oso modu aktiboan eta dinamikoan baitago antolatuta.

Bertako gizarte zibila zatituta egon daiteke hizkuntza-politikaren puntu delikatu batzuen inguruan –dena dela, alderdi nagusiek hizkuntza-politikaren funtsezko helburuei eta estrategiei buruz lortu berri duten kontsentsuak asko lagunduko du–, baina baldin eta gizarte zibileko erakundeak erne egon, agintarien zalantzazko jarrerak salatu eta gizarte zibil zabalak eremu urriko hizkuntzak babestearen eta sustatzearen oinarriak ulertzen baditu, gobernu batek bere babes-estandarrak makaltzearen arriskua hutsala da.

Nolanahi ere, eremu urriko hizkuntzen hiztunak ordezkatzeko behar adina GKE eta gizarte zibileko erakunderik ez badago, edo sakabanatuta badaude, kontra dauden gehiengoek babesa makaltzea lor dezakete, babesaren itxura mantenduz. Politika oker horiek aurrera egingo dute gizarte zibila gaizki antolatuta badago –ezinezkoa bazaio segimendu kritikoa egitea, arazoak agerian jartzea eta presio politikoa egitea–, edo herritarrak zatiturik badaude nortasun etnikoaren eta hizkuntza-politiken inguruan, gobernuari populismora jotzeko aukera emanetz. Halakoetan, politikariek elementu kaltegarri berriak sar ditzakete eremu urriko hizkuntza baten politikan, nahita.

Tamalez, gizarte zibilak estatuei segimendua egitea eta eremu urriko hizkuntza-politikan aurrerantz joanaraztea ez da txantxetako arazoa herrialde gehienetan. Nire jatorrizko herrialdean ere, Alemanian, eremu urriko hizkuntza batzuk oso ahul eta kaskar daude antolatuta, eta agintariek ez dute behar adinako presiorik nabaritzen konpromiso sendo batzuk martxan jartzeko. Europako herrialde gutxi batzuetan –adibidez Erresuma Batuan eta Espainiako zati batzuetan–, gizarte zibileko erakundeak gai dira goian aipatutako lanei ekiteko: indartsuak dira baliabide humano eta materialetan, bai eta politikan ere, presioa egin eta jendearen arreta erakartzen baitute.

13.3.2. Gizarte zibilak zer egin dezakeen

Gutuna idatzi zen moduan, gizarte zibil bizi eta aktibo bat eremu urriko hizkuntzak babestearen eta sustatzearen alde borrokatzea oso positiboa izan daiteke. Segimendu-mekanismoan nazioko GKEak txertatzen dira, eta estatu-txostenen hutsuneei eta akatsei aurre egiteko informazio gehigarria emateko agindu argia dute. Aukera horiek behar bezala erabiltzen direnean, batez ere “kontrako txostenek” beste ikuspuntu bat ematen dutenean eremu urriko hizkuntzen babesak eta sustapenak duten egoeraz, Gutunaren mekanismoa askoz eraginkorragoa da.

Tamalez, eremu urriko hizkuntzen hiztunak ordezkatzeko dituzten edo haien eskubideez arduratzen diren gizarte zibileko erakundeek, sarritan, ez dituzte ezagutzen Gutunak ematen dituen aukerak eta, are gehiagotan, ez dute gaitasun teknikorik sistemaren barruan izango luketen papera jokatzeko.

Kontrako txosten sistematikoak idaztea lan zaila da eta baliabide asko eskatzen ditu. Modu profesionalean egiteko, erakundeek langile profesionalak eduki behar dituzte, edo beste profesional batzuei txostena egitea agintzeko dirua. Bi baldintza horiek gutxitan betetzen dira eremu urriko hizkuntzak babestearen arloan. Baina gizarte zibileko erakundeen baliabideak eta antolatze ahalmek mugatu samarrak direnean ere, gaur egun jokatzeko dutena baino paper garrantzitsuagoa joko lezakete.

Estatu gehienetan nagusi diren baldintzak ikusirik, erakunde horiek gairik kopilatuenei heldu beharko liekete, Aditu Batzordeari eman nahi dioten informazioa lehenetsi eta eremu urriko hizkuntza batekiko politikaren ahuleziarik larrienak aukeratu. Hori egitea oso garrantzitsua litzateke, Aditu Batzordea arazo nagusiez ohartarazteko. Laguntza hori gabe ere –nire irudipena da–, Aditu Batzordeak normalean badaki arazo nagusi horiek identifikatzen, baina sarritan denbora eta lan asko kostatzen zaio, eta gobernuek pentsatu ohi dute hizkuntza-gutxiengoak pozik daudela eta Europako Kontseiluko batzorde zoro hori problemak asmatzen ari dela.

13.4. Europako erakundeen papera

Gutuna erabakigarria izateko hirugarren elementu garrantzitsu bat Europako erakundeen papera da. Gutxiengoak babesten dituen Europako erakundeen sarea zabaltzen ari da. ESLAko gutxiengo nazionalen goi-komisarioak Gutuneko estandarretara jotzen du kasu batean aplikatu daitezkeenean, eta erreferentzia gisa erabiltzen ditu gatazketan.

13.4.1. Europar Batasuna

Epe luzera, Europar Batasunaren Vienako Giza Eskubideen Agentziak indarra har dezake. Bere betearazi beharreko funtsezko estandarren artean Gutuna dago. Europar Batasunaren Giza Eskubideen Agentziarekin sortutako mekanismoa diseinu “bigunekoa” da, baina Gutunaren konpromisoei bultzada bat eman diezaieke EBko legearen barruan. Horrek ez die eragingo III. zatiko konpromisoak ezartzeko xehetasun teknikoiei, baina zerikusia izan dezake eremu urriko hizkuntzen hitzunen eskubideak babesteko orduan.

Erraz esan daiteke gutxiengo oinarritzko eskubideak errespetatzea –eta horien erdian gutxiengo hizkuntza-eskubideak daude, hein batean– homogeneotasunaren funtsezko baldintzen artean dagoela, EBren Lisboako Ituneko 6. artikulua 2. paragrafoaren arabera. Legean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako estatu demokratiko batek gutxiengo oinarritzko eskubide batzuk errespetatzea eskatzen du, horien artean hizkuntza-eskubideak.

Estatu batek alde batera botako balitu Gutunaren barruan hartutako obligazioak, eta eremu urriko hizkuntzen babeseko oinarritzko estandarren kontra joko balu, EBko Itunaren 6. artikuluan aipatutako mekanismoak jarriko lirateke martxan.

Pena da EBk kide berriak onartzeko Kopenhageko baldintzak hartu eta –gutxiengo eskubideak gogoan– Hitzarmen Markoa eta Gutuna ez onarraraztea. Baina Gutuna berretsi duten estatuei dagokionez behintzat, EBren Giza Eskubideen Agentzia atzean zaintzen egon eta estatuei gogorazi behar die funtsezko lege-betebeharrak dituztela nazioarteko legearen baitan eta, estatu batek ez badiu oharrak aintzat hartzen, beste estatu kide guztiei jakinarazi behar die dena delako estatuak alde batera utzi dituela legea eta giza eskubideen babesa.

13.4.2. Europako Kontseilua

Azkena baina ez txarrena, Europako Kontseilua aipatuko dut. Betikoa esatea da, baina Gutuna eraginkorra izango bada, Europako Kontseiluak (eta bertako estatu kideek) etengabe eutsi behar diete hitzarmenaren helburuei eta jardunbideari. Horretan zerikusi handia du Ministro Batzordeak, bera arduratzen baita Gutunaren obligazioak legez ezartzeaz.

Aditu Batzorde independenteak estatu bakoitzaz egindako ebaluazio-txostenak Ministro Batzordeari aurkezten zaizkio, gomendio batzuekin batera, eta Ministro Batzordeak normalean onartu egiten ditu, eztabaida handirik gabe. Batzuetan, dena delako estatuak gomendioetako xehetasunen kontrako arrazoiak jartzen ditu, edo beste estatu batek indarra eman nahi izaten dio gomendio jakin bati, “bere” gutxiengoaren alde. Baina halako desadostasunak ere normalean diplomaziaren bidez konpontzen dira, eta azkenean ematen den gomendioak hasierako mezuari eutsi eta, gainera, aintzat hartzen ditu prozeduran zehar sortutako arazo diplomatikoak.

Ministro Batzordearen parte-hartze politikoa Gutunaren ahuleziaz hartzen da batzuetan. Nire ustez, alderantziz da: Gutuna eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da estatu kideek beren ezarpen-txostenaren berri eman behar izatea –kidekoen talde-ebaluazio batean bezala–, beren ekintzak defendatu behar izatea eta beste estatu kideei azaldu behar izatea zergatik dauden oraindik ezarpen-akats larriak, eta nola konpondu asmo dituzten. Kidekoen talde-ebaluaziorik gabe eta estatu kide guztien aurrean lotsagarri geratzeko beldurrik gabe, Gutunaren mekanismo osoak indar eta eraginkortasun gutxiago izango luke.

Nazioarteko legeak ez du auzitegi loteslerik edo epaiak betearaziko dituen polizia-rik; estatuen leialtasunaren esku dago nazioarteko legearen barruan hartutako obligazioak betetzea.

Ildo horretan, gehienbat ospean oinarritutako sistema da, hitzarmenaren obligazioak nabarmen urratzeak fidagarria ez den kide baten ospe txarra ekarriko duelakoan. Eta legearen mailan besterik ez bada ere, Ministro Batzordeak hitzarmena ezartzen parte hartzea indargune bat da.

Aditu Batzordearen ebaluazio-txostenek, beren aldetik isolaturik, zalantza lege-izaera lukete; teknikoki ez dira lotesleak eta adituen iritziak besterik ez dira, hitzarmenaren interpretazioari eta aplikazioari buruzkoak. Baina Ministro Batzordea da gidaritza-organo politikoa –erakundearen erabakiak hartzerakoan estatu kideak ordezkatu, ebaluazio-txostenak kontuan hartu eta gomendioak onartzen dituen–, eta estatu kideek, funtsean, bat egin behar dute Aditu Batzordearekin, segimendu-mekanismoaren oinarritzko ondorioak onartu eta, agian, “hitzarmena aplikatzeko jardunbide bat sortu behar da, estatu kideen adostasunaren ildotik”, Hitzarmenaren Legeari buruzko Vienako Konbentzioko 31. artikulua 3b paragrafoak dioenaren bidetik. Era horretan, estatu kideek, Ministro Batzordearen bidez, lege-esanahi argia ematen diote Aditu Batzordeak bere ebaluazio-txostenetan egindako interpretazioari.

Parlamentuko Biltzarrak paper osagarri garrantzitsu bat du: Gutunaren segimendu-mekanismoak behar bezala funtzionatzen duela zaintzea, eta estatuei gogoraraztea Gutuna berrestean egindako promes politikoak. Europako Kontseiluaren idazkaritzak ere zeregin garrantzitsua da Gutunaren jardunbidean.

Idazkaritzak segimendua egiteko administrazio-azpiegitura ematen du. Tama-lez, bada kezkatzeko arrazoirik arlo horretan. Azken aldiko auditoretza batek agerian jarri du Gutuneko Aditu Batzordearen idazkaritzak duen langile eskasia larria –Europako Kontseiluan segimenduak egiten dituzten beste erakunde batzuen aldean–, eta baliteke mekanismo osoak porrot egitea, itxuraz hutsala ematen duen antolamendu nahasi batengatik. Espero dezagun egoeraren larritasunaz ohartu eta premiazko neurriak hartuko direla, mekanismo osoa kolokan jarri aurretik.

13.5. Azken oharrak

Zilegi bekik ohar pertsonal batzuk eginez bukatzea, hamar urtez Aditu Batzordeko kide izatearen esperientziak laburtzeko. Gutunaren ezarpenari segimendua egitea etsigarria da sarritan. Borroka egin behar duzu gehiengoan ezjakintasunarekin, ez baitakite zer den gutxiengoan egotea hitzun-komunitate gisa; borroka egin behar duzu eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko borondate politikorik ezarekin; sarritan, burokraziaren inertziarekin ere egin behar duzu borroka: hainbat aldiz ezer ez dela aldatzen dirudi, nahiz eta ikusle neutral baten iritzi gauza asko aritu beharko liriatekeen gertatzen, eta akordio asko hobetzen.

Baina segimenduak egiteak baditu batzuetan sariak ere: Gutunak zerbaiterako balio duela nabari duzu, gauzak hobetzen dituela. Izaren azpian begiratzen baduzu, hobekuntza horien arrazoia normalean izaten da estatuak azkenean ohar-tu direlako Gutunak zentzua duela, eta neurri berriak hartu behar direla, ez bada nahi hizkuntza-ondarea betiko galtzea. Gutuna eraginkorra izango bada, beraz, herritarrek ohar-tu behar dute (eta politikariek eta burokratek) eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak gure kultura-ondarearen zati garrantzitsu bat direla, hau da, arrisku bizian dagoen ondare bat, ekintza tinkoak eskatzen dituena. Zorionez, horren kontzientzia gero eta handiagoa da, eta hazten ari da Europako gizarte desberdinetan (eta gizarteetako zati desberdinetan).

Ulertu beharko litzateke eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen babesa atal garrantzitsu bat dela Europaren kultura-aniztasun orokorra babestearen barruan, eta paradigma hori Europako politikaren kutuna bihurtu da azken urteotan. Iritzi hori behar adina hedatzen bada, baikorra naiz Gutunaren eta bere helburuen geroaz, hau da, eremu urriko hizkuntzak babesteaz eta sustatzeaz, bai eta eremu urriko hizkuntzen aldeko politika zentzuzko bat erabakitzeke konpromisoen eraginkortasunaz ere.

Europako nazio-estatuetakoko elite politikoei bidezkoa eta zuzena iruditzen bazaie eremu urriko hizkuntzen hiztunak gaur egun bizi duten egoera, ez lukete kexatu behar etorkizunean beren bilobak antzeko egoera batean aurkitzen bada bi edo hiru hamarkada barru, internalizazioa areagotu eta hizkuntzak ingelesera aldatuz joanez gero. Etorkizun horri penagarria irizten badiote, baina, oraintxe bertan ekin beharko lukete eremu urriko hizkuntzak babestearen eta sustatzearen alde. Bestela, Europaren kultura-aniztasuna babesteko ahalegin osoa hipokrisiaren itsasoan itoko da.

Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburua bigarren mailakoa –edo exotikoa– iruditzen zaie begirale politiko eta legal gehienei. Baina alderantziz da: Europako nortasunaren funtsezko elementu bati heltzen dio, eta oinarritzko zutabea da globalizazioaren mende dagoen mundu honetan kultura-aniztasuna iraunarazteko ahaleginetan. Globalizazioak ondorio positibo ugari eduki arren, kulturak homogeneizatzeak kultura-urruntasuna ekarriko luke, eta Europako gizarteen (eta komunitate politikoien) sustraiak moztea.

Ez ote genuke saiatu beharko sustrai horietako batzuk eta kultura-oinarri horien gainean eraikitako komunitate politikoak iraunarazten?

14.

Lorpenak eta desafioak, hizkuntzaren baitatik

ANJEL LERTXUNDI

Euskal idazlea

Ikasle batzuek galdetu zioten Konfuziori: nondik hasiko zinateke nazio bat gobernatzen? Eta Konfuziok erantzun: hizkera hobetuko nuke. Ikasleak harrিতa gelditu ziren, eta esan zioten erantzunak ez zuela zerikusirik galderarekin. Konfuziok beharrezko argibideak eman zizkien:

Hizkerak ez badu zehaztasunik, esaten dena ez da pentsatzen den bera. Esaten dena ez bada pentsatzen dena, orduan ez dago benetako obrarik. Ez badago benetako obrarik, nekez loratuko dira artea eta moralak. Artea eta moralak loratzen ez diren tokian ez dago justiziarik. Justiziarik ez badago, nazioak ez du jakingo zein den bere norabidea: sutan eta galbidean dagoen ontzi bat izango da. Horregatik guztiagatik, ez barkatu hitzen bidezko injustiziarik. Nazio bat gobernatzea baldin bada auzia, hizkeraren zehaztasuna da garrantzitsua.

Gure hizkuntza aglutinatzailea da eta berezkoa du –naturala– hitzak luzatzeko joera. Hori ez da ez on ez txar. Da. Luze joko lidake gure hizkuntzaren izaera horrek nire zeregin literarioari dakarzkion buruhausteak zerrendatzea, baina aipa dezadan bat, niri asko interesatzen zaidana: hizkuntzaren izaera aglutinatzaileak perpausen erritmoari dakarkion ondorio motelgarriaz ari naiz. Hitzek eta atzizkiek duten elkarren arteko uztai-dantza etengabeagatik, silaba askoko hitzak osatzeko joera du euskarak.

“Aita” soil batetik abiatu behar da berehala goaz “aitarenganakotzat” bezalako lukainka-peza batera. Zer egin perpausa baten edo paragrafo baten erritmoa bizitu nahi duzunean? Gure poeta onenek, hizkuntzaren barne prozedurei gehien erreparatu dietenek, ez diote bizkarra erakutsi auziari. Aitzitik: aglutinazioaren berezko joerari adarretatik heldurik, erritmoa bizitu dute. Nola lortzen den hori? Beharrezkoa izan dutenean, hitz laburren aldeko apustua egin dute eta atzizki-erbeste etengabearen kontra lehiatu dira, batzuetan herri literaturako eredu bizienak aintzat hartuz, bestetuetan hizkera bera modu aski behartuan bihurtuz.

Oi lur, oi lur,
oi ene lur nerea,
oi goiz eme
parre gozoz ernea.

Lizardiren poemak ez dirudi hizkuntza aglutinante batean idatzia. Laburtasunaren eta erritmoaren efektuak lortzeko, poetak aditza saihestu du. Are gehiago: poeman apenas dagoen atzizkirik –euskararen marka berezi hori–. Elipsiek eta silaba bakarreko edo biko hitzek ekarri digute tren baten martxa imitatzen duen mirari erritmikoa.

Barkatu kontu tekniko partikular bitxi batekin hasi izana. Idazleon albo-kontu bat dirudi. Kontent nengoke hori bakarrik balitz.

Azken hogeita bost urteotan gure hizkuntzan aldi bereko eragina izan duten bi gertakari ekarri nahi ditut hona: euskararen batasuna da bata; euskal Administrazioaren sorrera bestea. Bi-biak dantzari bikiak izan dira ia (Euskal Autonomia Erkidegoan baino ez, hala ere), eta estu-estu helduta egin dute orain arteko dantza. Normala da: Administrazioa sortzen, eta euskararen estandar bat indartzen enplegatu ditugu azken urteotako indar nagusiak. Estandarizazioak erantzun bizkorak eman behar zizkion Administrazioaren hedapenari, eta geure buruak zoriontzeko moduko gauza asko egin ditugu bidaia horretan. Baina Administrazioaren premia linguistiko begi-bistakoei uneoro erantzun behar izan du eragin kezkagarririk.

Administrazioako hizkerak berezkoak ditu hitzak luzatu beharra; naturaltasunari ez erreparatzea; diskurtsoa lausotzea; hizkera astuntzea. Bagenekien kontu bat da, begien aurrean baikeneukan gero mimetismo izugarri kopiatu dugun eredu espainiarra. Gauzak horrela, gure Administrazioak eta hizkera estandarrik uztarpe berean ibili behar izan dute eta garatu.

Hala egin beharko dute gero ere. Baina bidaia ez da bidesaririk gabea: gurdi astun batena bezalako ibilera eransten joan zaio idatzizko gure jardun publikoari eta partikularrari. Lexiko teknikoaren hedatu beharrik okupatu ditu hizkuntzaren ia plaza guztiak, gaztelaniaren/itzulpenaren murrontzan guztiz gehienetan. Sortzen ari garen hizkera, neurri batean behintzat, maizter da, eta gaztelaniazko itzulpenaren maiztertzara behartzen ditu Administrazioako agiri eta jardun asko, eskoletako testugintzaren zati handi bat, hedabideetako albiste eta programa ugari, baita euskararen kaleko presentzia formala bera ere afixetan, iragarkietan, bandoetan...

Horri erantsi behar zaio beste kontsiderazio bat ere, kontuan hartzen ez duguna: Administrazioako hizkeraren itzala oso-oso luzea da gure hizkuntzan; hedadura handiko hizkuntzetan ez bezalakoa. Proporzionalki, Administrazioako hizkerak euskaraz idatzitakoaren ehuneneko izugarria betetzen du, eta, ezin bestez, euskal Administrazioako hizkeraren hedadura sozialak esparru handiak hartzen ditu: Administrazioak guztiz elebiduna behar du legez, elebiduna izan nahi lukeen –baina ez den– herri batean.

Halatan ere, ez da hori gehien kezkatzen nauena. Kezkagarriagoa egiten zait Administrazioaren hizkera-eredua beste alorretara ere hedatu izana: hedabideek eta erakunde eskolarrek hizkera hori imitatzeke joera dute ahoz ari direnean ere, naturaltasunaren kaltetan. Balirudike hizkuntza jasoak erregistro hori bakarrik eman dezakeela. Euskara erregistro bakarreko hizkuntza bihurtzen ari zaigu jardun formal askotan, eta, astiro-astiro, gurdi astun batena bezalako ibilera hori hizkuntzaren ia kale-kantoi, bazter eta zulo guztietara iritsi da. Hizkera zurrin uniboko hori da jendearen erreferentzia nagusia. Eredua. Kode hori, erregistro hori da, jende askoren ustetan, euskara estandarra, ona, imitagarria. Kaletarrak apenas ulertzen duen erregistro bat da, ordea. Bere eremutik kanpo deus gutxi komunikatzen duena.

Idazle naizen aldetik, zer egin dezaket? Hitza lanbide dudanez, hizkera horren naturaltasun falta salatu beharko nuke, baina, aldi berean, kontraesana dirudien egoera bat bizi dugu euskal idazleok: konpromiso sozial handi bati erantzuten aritu gara euskara batuaren sorrera suspertu genuenetik, konpromiso sozial berarekin jardun dugu euskara batuaren garapena bultzatu dugunean ere. Izaki bakarti, neurotik, egozentrikook hor jardun dugu ahalegin kolektibo batean murgilduta: nobela bat idazten ari ginenean ere, beti geneukan bihotzaren barruan iltzatuta, zer?, eta hizkuntza estandarizatu bat babestu genuela esaten ari zitzaigun inperatibo kategoriko halako bat. Baina idazlearen zereginetako bat ez da ba tribuaren hizkera erabilgarri egitea zerurako nola infernurako? Egonkortzea eta zirika aritzea? Naturaltasuna bilatzea batetik, artifizioz moztrotzea bestetik? Bai, gure lana da hizkuntzari lotzen zaizkion sastraka, orbel eta lokatzak seinalatu eta kentzea; baina gure lana da, halaber, urrutirago eramango gaituzten bideak saiitzea ere.

Ezingo digute euskara batuari izan diogun eta diogun leialtasuna ukatu. Zirkunstanziek hala eskatzen zuten. Zaindu dugu, baina gaixo bati ohi zaion erreparo guztiarekin. Egokitu dugu, baina ezer bortxatzeko arretra pinpirin batez. Naturaldu dugulakoan nago, baina artifizioari eta bide berrien urraketari neke eta izerdi handirik eskaini gabe.

Inperatibo kategorikoa aipatu dut lehentxeago. Ez alferrik: hizkuntzaren egoerak betebeharrak moral asko eta erreparo gehiegi txertatu du gure psikologia literarioan, idazteari ekiterako orduan.

Kaosa ordenatu nahiaren neurosiak bizi gaitu idazleok: gure lanbidearen ezauzgarria —eta zerga— da. Gure lanbidearen zerga bat da idazle batek neurosi linguistikoa bizitzea ere, baina hizkuntza hegemoniko bateko idazleak bizi duen neurosi linguistikoa oso arina da gurearekin konparatuta. Nirea bezalako hizkuntzetan idazten dugunok nekez ken ditzakegu gainera gure hizkuntzaren egoera berezkoa eta hizkuntzaren testuingurua. Kaosa ordenatzen saiatzeaz

gainera, hizkuntzari erreparatu behar diogu: zertaz idatzi nahi dudan erabaki bezain pronto, asmatzen hasi behar dut zer hizkera klase erabiliko dudan. Idazleak harreman estua gorde behar du ez bakarrik kontatu nahi duenarekin, baita hizkerarekin ere, pedal biko bizikleta bat baita idazkuntza. Edo gure esaera batek dioen bezala, zapatak oinaren neurrikoa behar du; ez handiegia ez txikiegia; ez zabalegia ez estuegia; ez bigunegia ez gogorregia.

Euskal idazle batek sena prest eta jakituria prestu behar ditu ordu arte egundo esan ez diren forma, espresio eta hitz batzuk kapelutik ateratzeko; eta, ulahop!, betidanik existitu balira bezala eskaini beharko dizkio irakurleari. Ezinbestekoa da. Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, munduko eta bihotzeko bazter guztietara heltzeko ahala du. Baina gutxi gara idazleak. Hara zergatik duen garrantzia itzulpengintzak: gure bidez sekula iritsiko ez litzatekeen egoera eta erregistroetara iristen gara han-hemengo autore handien itzulpenekin.

Nolanahi ere: hitzarekin daukagun harremana obsesiboegia bihurtzeko arriskua daukagu, eta horrek berebiziko kaltea egin diezaiokie idatzi nahi dugunari. Jokabide horren kontrako muturrean, ordea, hizkera laua dago; pure egiteraino xehatutako idazkuntza; zailtasun guztiak berdindu zaizkion hizkera bihotzik gabea.

Praktika literario urriko hizkuntzak dira gureak, eta horren eraginez, ez dute aurrera egiten guk nahi genukeen bezain arin eta airoso. Idazlearen bidelagun baino areago, euskara behaztopa zaigu askotan. Ez du idazlearen ordeztasunaz, ez dio lanik arintzen. Ez dauka egoera guztietara egokituko den fraseologia malgurik, beti topatzen du bere estiloari enbarazu egiten dion osagarri txiki-kiren bat, zailtasun apalen bat, baina apala izanagatik ere, enbarazutsua dena. Hizkuntza hegemoniko batean ari den idazle batek –ingelesez, gaztelera, frantsesez– ez die erreparatu ere egiten, osagarri txiki mordoak automatizatuta daukalako. Horra, besteak beste, zertarako balio duen tradizioak.

Ederki. Baina aski da negar egiteaz. Emanak gara gure hizkuntzen auzia hiletamusiarekin barneratzen; gure hizkuntzen inguruko guztia aldapa, neke eta zailtasun gisa bizitzera; gure problemak modu agoniatsu batean planteatzen eta plazaratzen. Alde onei begiratzen ikasi behar dugu. Nire idazle-lanera itzuliz: askotan biziki amorrarazten nauten behaztopa horiek aukera artistiko deigarriak eskaintzen dizkirate. Aukera artistikoak diodanean, aukera sortzaileak esan nahi dut. Aukera sortzaile horiez ari zen Yorgos Séferis idazle greziarra ere bere *Egunerokoa*-n honakoa idatzi zuenean:

Gure hizkuntza bedekintua berritu [greziera modernoaz ari zen]: abantailaren bat behar genuen literatura zahar, literatura behin eta berriro landuz landuen aurrean.

(Yorgos Séferis)

Greziara modernoak literatura landuagoen aurrean dituen abantailaz ari da poeta greziarra, eta Séferisek dioen bera sentitzen dut nik neuk ere euskaraz ari naizenean: eragozpenei abantaila –gozamen sortzailea– kontrajartzeko aukera dut nik. Hitzen atzetik nabil, hitzak ditut langai, eta pintoreak margoak konbinatzen dituen bezala, neuk ere halatsu egiten dut hitzekin. Ordu arte egundo elkar ikusi ez duten hitzak elkarrekin jartzeak ekar lezakeen efektua aztertzen dut. Denbora asko pasa dezaket esaldi baten barnean hiru silabako hitz bat baztertu eta bi silabako baten bila, erritmo jakin bat eman nahi diodalako esan nahi dudanari. Bestalde, aurrez erabakitako musika jakin bat eta pintura-mota edo pelikula bateko argi konkretu bat bidelagun ditudala ekiten diot lanari: testuari tonu bat ematen laguntzen didate hautatutako musikak eta argiak.

Ez, nirea bezalako hizkuntzetan ari garen idazleok ez daukagu hizkuntza hegemonikoetan ari direnek baino sen artistiko gutxiago. Sortzen ari gara, egiten ari gara, normaltzen ari gara ez literatura bat bakarrik, baita hizkuntza bat ere. Orain mende batzuk hizkuntza hegemonikoetako idazleek izan zuten pagotxa bertsua dudala pentsatzea gustatzen zait.

Nahiko erraz seinala ditzaket orain hogeituro urteko euskara literarioaren eta gaurkoaren arteko aldeak. Egin dugun bidea sekulakoa da, eta nonahi antzema-tzen ditut gure arrastoak. Ez dago, nire ustez, hori bezalako ereinotzik.

Otto Pette idatzi nuenean, istorioaren sinesgarritasunak adina garrantzi zuen niretzat hizkeraren sinesgarritasunak. Nola hitz egiten zuten orain seitzazpi mende, ez dakigu. Jakin izanda ere, ezingo nuke orduan bezala idatzi. Nire euskarazko tradizioan neuzkan nobela historikoaren jardun apurrek ere ez zuten nik bilatzen nuena betetzen. Hona zer uztartu behar nituen jario natural batean: alde batetik, euskara batua; bestetik Erdi Aroko jardun halako baten itxura hartuko zuen hizkera bat; hirugarrenik, literatura unibertsaleko hainbat ereduren eitea. Nik sinesgarri gisa eraikitzen nuena, sinesgarri behar zuen irakurleak ere. Itun halako bat sinatu behar nuen berarekin: “nik sinesten dudalako, zuk ere sinetsi egin behar duzu”.

Lan irrikatsua hartu nuen. Grinez eta pasioz betea. Pausoz pauso, estrategia batzuk eraiki behar izan nituen beste testuinguruetatik hartutako hainbat hitz, esamolde, formula eta konparazio erdi galdu neurera ekartzeko. Baita tartean-tartean hitz berriak sortzeko ere. Eta hona lan politenetako bat: hitz eta baliabide erretoriko haiek guztiak testuinguru berri batean txertatu behar nituen, ahal nuen naturalen, egoera bortxatu gabe. Irakurleak ezagutzen ez zuen hitza, testuinguruak argi zezala. Denok ez dugu ba horrelaxe ikasi irakurtzen?

Niretzat idaztea ez da istorioak kontatze hutsa. Hizkuntza bat daukat, eta hizkuntza horrek, hainbat eragozpen izateaz gainera, baditu abantaila egundokoak ere.

Eragozpenen tripetan maiseatu eta abantailak ikertzea gustatzen zait. Hitzen izaera letrazkoari eta izaera musikolari erreparatzea. “Galtza” eta “praka” hitzek esanahi bera izan arren, oso aukera desberdinak eskaintzen dituzte giroaren, testuinguruaren eta ondoan duten hitzaren arabera. “Galtza” hitzak badiu ahalmen batzuk “praka” hitzak ez dituenak; eta alderantziz. Perpaus baten kadentziak bi silabako hitz bat eska dezake eta ez hirukoa; perpaus baten kadentzia hots gogorren baten premian egon liteke, eta ez leun batenean. Hitzen eta esaldien musikaltasunari eta erritmoari begiratzea ez da poeten egitekoa bakarrik.

Begira diezaiogun irain gisako ateraldi honi: “kabroi zeken mutur zikin alena”. “Alena” esan dut, arauak “alaena” aholkatzen dit. Lehendabiziko aukera hautatzen badut –“alena”– Etxepare baino lehenagotik datorkidan tradizio erritmiko batean ari naiz; bigarren aukerak, berriz –“alaena”–, erritmo hori puskatzen dit, nahiz euskara batuak bedekintutako forma izan. Gramatikak eta arauak ezin dituzte hizkuntzaren triapak mendea hartu. Mendiari ezin omen zaizkio atekak jarri. Are gutxiago hizkuntzari.

Txikitari oso baldarra nintzen jolaserako, eta beste abildade batzuekin estali behar nuen baldarkeria, eta auto-estimua koipeztatu. Gogoan dut sarri samarretan errepikatzen zen eszena bat: eserita nago, bizpahiru ume, ni baino txikiagoak, ezker-eskuin ditudala. Komiki bat dut eskuetan eta istorio bat asmatzen ari nartzai komikiko irudien eta testuen laguntzarekin. Komikia gaztelaniaz dago, ni orduantxe ikasten ari naizen hizkuntza batean, baina alboan ditudan umeei euskaraz ari nartzai. Gaztelaniaz dagoena-edo euskaraz ematen ari naiz, bada. Egiten ari naizena ez da, ordea, itzulpena. Ez da egokipena ere. Kontatzen ari naizen istorioa nirea da. Neuk asmatua. Komikitik abiatu naiz, baina, pixkana-pixkana, neure bidea hartu dut.

Hona txikitako beste oroitzapen bat: herrian bazen zine-areto txiki bat, parrokiarena, eta bertako arduradunak aretoaren atzeko aldean zeuden sasitara botatzen zituen sobratutako edo hautsitako zeluloide puskak. Ni sasi artean ibiltzen nintzen haien bila eta altxor bateko piezak balira bezala gordetzen nituen. Gero, etxean, zeluloide puskak nire kasa ezkondu eta neure istoriotxoak asmatzen nituen, erromatarren pelikula bateko eta western bateko irudiak uztartuz askotan, edo ezpatarien pelikula bateko eszena pelikula komiko bateko irudiekin lotuz.

Lehendabiziko ekintzan, komikiarenengan, beste hizkuntza batean jaso dut nire formazioa, beste hizkuntza bateko informazio, irudi eta formulekin betetzen ari naiz nire ganbara, nire irakurle-altxorra. Baina gero, euskaraz ari naitzelarik, neurera ekarri behar ditut haiek guztiak, moldatu, egokitu, itxuraldatu egin behar ditut (eta, askotan, sortu) beste hizkuntza batetik datozkidanak. Nire idazle-bizitza guztian egin behar izan dut hori: beste hizkuntzetan jaso dut nire

formazio literarioaren guztiz gehiena, eta horren nola-halako joan-etorriak egi-tera behartu nau: ezinbestekoa dut tradizio batetik bestera ibiltzea, beste hizkuntzetatik neurera etortzea. Beste hizkuntzetan irakurtzen baitut interesatzen zaidan gehiena, bidaiatzen ari naiz etengabe. Paradoxikoa badirudi ere, eremu urriko hizkuntzetan ari garen idazleok, itxitzat eta ez-kosmopolitatzat jotzen gaituztenok gara auzoari gehien begiratzen diegunak.

Bigarren ekintzan, aldiz, zeluloidezko puskenean, material heterogeneoenak lotzen ditut eta egitura berri batean uztartzen. Erlazioa da literatura: material desberdinak lotzetik sortzen diren efektuen bila jardutea; gizakion arteko begi-bistako erlazioak baino erlazio ezkutuagoetan argi egiten saiatzea...

Horretan ari gara eta horretan jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Lan honetan, “Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: Lorpenak eta Erronkak” nazioarteko konferentziako zenbait aurkezpenetan oinarritutako dokumentuak jasotzen dira. Konferentzia Bilbon egin zen, 2009ko apirilaren 20 eta 21ean, Europako Kontseiluaren, Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz.

Lan honek Gutunak etorkizunera begira zabaltzen dituen aukerak eta itzaropenak jasotzen ditu, ikusirik Gutunaren lehen hamarkadan eskuratutako esperientzia. Bistan denez, gobernuari dagokionez, batez ere, Gutuna berrestea eta aplikatzea, eta horren erakusgarri, Gutuna sinatu duten estatu kide batzuen kasuak aztertzen dira. Dena dela, eskualdeko eta tokiko agintariak ere zeresan handia dute Gutunari dagokionez, egunero egiten baitute borroka hizkuntza gutxituak erabiltzearen eta babestearen alde.



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



COUNCIL OF EUROPE
CONSEIL DE L'EUROPE

ISBN 978-84-457-3144-4



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco